



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

JAGONET. Galde-erantzunak

Noiz eguneratua: 2009-03-24

Zernahi (*Ahoskera*)

"-il" + bokala egokitzean, "elle" ahoskatu

Galdera:

Euskarazko hitzetan "il" ageri denean, "ll" (gaztelaniaz bezala) esan behar dugu ala "j bustia"? Ez al da "elle" a erdalduna?

Erantzuna:

Egia da "elle" hotsa erdaraz ere badela (bereziki gaztelaniaz), baina horrek ez du esan nahi erdalduna denik; izan ere, horrelaxe ahoskatu behar baitira euskarazko "-il" gehi bokala duten hitzak: esate baterako, "bila, oilo, mila" eta abar.

Palatalizazio hori egiten ez dakienak "bi-la, oi-lo, mi-la, langi-le" eta abar ahoska beza, eta ez, inola ere ez, "biya, oiyo, miya, langiye" eta abar.

Data: 20010625

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

"j" letra "y" ahoskatu



Galdera:

Egia al da "j" letra "y" ahoskatu behar dela?

Erantzuna:

Bai, batasuneko ahoskera zainduan "j" letra "y" ahoskatu behar da ia beti. Euskaltzaindiaren 87. arauak, "Euskara Batuaren ahoskera zaindua" izenekoak dioenez, "j" letraren euskarazko ahoskera oinarritzkoa "y" da, eta hori da hizkera zaindurako hobesten den ahoskera:

"j" hitz hasieran gertatzen denean, "y" ahoskatuko da. Hala ere, salbuespentzat hartzen dira Heg. marka daramaten "jertse, jipoi" edo "jira" bezalakoak, eta hitz horietan onartzen da "j" ahoskera.

"j" hitz barruan gertatzen denean, "y" ahoskatuko da. Hala ere, gaurko egoera kontuan izanik, Hegoaldeko "j" belarra (gazt. "jamón") eta Iparraldeko "Z" sabaiaurrekoa ere (fr. "jambon") onartzen dira hizkera zainduan, "garaje" edo "ijito" bezalako hitzetan.

Data: 2001/11/27

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Ahoskera-eredua

Galdera:

- a) Ahoskatze kontua, eta oro har, Euskara Batuaren Ortoepia arazo larria da oso. Zein eredu irakatsi behar diegu gure ikasleei? Zer gertatzen da azentua eta kontsonante multzoen ahoskerarekin? Gure ustez Euskaltzaindiak Euskara Batuaren Ortoepia Batua ere bultzatu behar luke: ahozko kodearen arautzeari ekin behar lioke euskararen irakaskuntzaren mesedetan.
- b) Ahoskera: *ez dago* > *eztago*; *ez gara* > *ezkara* eta *hil zen* > *hiltzen*; *omen zuen* > *omentzuen*?
- c) Doinuak duen garrantzia jakinda, aditzen arau fonetikoak biltzen dituen txosten bat lagungarri izango genuke.

Erantzuna:

- a) Euskaltzaindiak, 1998ko ekainaren 26ko bileran onartu zuen [87. araua](#), ahoskera zaindurako araua, eta urte horretan bertan argitaratu. Hor aipatzen da nola ahoskatu behar genituzkeen bokalak eta kontsonanteak, bai eta kontsonante bilkurak ere.
- b) Arau horretan gomendatzen denaren arabera, hauexek lirateke ahoskera zuzenak:
<eztago> / <ezkara> / <hiltzen> / <omentzuen>
- c) Ahoskera lantaldeak jardun du ikastaroak ematen, eta aurrerantzean ere aztertuko du arau hori osatu beharrik dagoen, eta hedatzeko biderik egokienak zein izan litezkeen.

Data: 1999

Erantzulea: Arauaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

G edo J duten zenbait mailegu

Galdera:

Nola idatzi zenbait mailegu, eta nola ahoskatu. Bereziki, nola ahoskatu behar den "j".

magia/majia (nola ahoskatu?)

trajea (horrela idatzi, baina nola ahoskatu?)

agentzia/ajentzia

agenda/ajenda

Erantzuna:

Batetik, "g" hori, "e" eta "i" bokalen aurrean, beste bokalen aurrean bezalaxe ahoskatu behar litzateke, ahoskera zainduan behintzat. Ikus [87. araua](#).

Bestetik, "j" letraren euskarazko ahoskera oinarritzkoa da, eta hori da hizkera zaindurako hobesten den ahoskera. Hala ere, "j" hitz hasieran ahoskatuko da (salbuespentzat hartzen dira *Heg.* marka daramaten *jertse*, *jipoi* edo *jira* bezalakoak. Horietan onartzen da [x] ahoskera).

Baina "j" hitz barruan gertatzen denean, izango litzateke ahoskera zainduena. Hala ere, gaurko egoera kontuan izanik, Hegoaldeko [x] belarra (gazt. *jamón*) eta Iparraldeko sabaiurrekoa ere (fr. *jambon*) onartzen dira hizkera zainduan *garaje* edo *ijito* bezalako hitzetan.

Idatzi, "g" letrarekin idatziko dira oro har mailegu berriak. Eta hauen ahoskera zainduena [g] da (*magia*, *agente*, etab.)

Data: 2000

Erantzulea: Araua

Data (*Idazkera*)

hamaika

Galdera:

Nola idatzi behar da: *apirilaren 11a* ala *apirilaren 11* (alegia, hamaika A letraz bukatzen denez, ipini behar da beste *-a* hori)?

Erantzuna:

Ez, *hamaika* a letraz bukatzen denez, ez zaio erantsi behar beste *-ahori*. Beraz, *apirilaren 11* da zuzena.

Data: 2001/05/04

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Data nola adierazi

Galdera:

Ondo al dago *Durango*, *1983ko martxoak 9* idaztea?

Erantzuna:

[37. arauaren](#) hasieran berean garbi asko esaten denez, forma hedatu eta erabilia da hor ageri dena. Baina hori baino erabiliagoa izan da beste hau: *Durango(n)*, *1983ko martxoaren 7a(n)*. Hain zuzen ere, Euskaltzaindiak gomendatu duena.

Data: 1996

Erantzulea: Araua

Data nola adierazi: *-garren*

Galdera:

Euskaltzaindiaren [37. arauan](#), data nola adieraz daitekeen azaldu ondoren, arauaren bukaerako data ematerakoan, bertan adierazitako egiturak erabili beharrean, *-garren* atzizkiaren ordezkoko den puntuaren bidez ematen du data Euskaltzaindiak. Nola behar du?

Erantzuna:

Ezin da *-garrenen* erabilera gaitzetsi, tradizioan erabili izan den egitura denez gero. Arauan ere ez da gaitzesten, nahiz eta han bestelako eredu eman: *Durangon*, *1995eko martxoaren 7an* edo

Durango, 1995eko martxoaren 7a

Nolanahi ere, Euskaltzaindiko Jagon saileko Corpus batzordeak erabaki du ondorengo erabilera hau gomendatzea:

"Datari dagokion urtea idaztean, ez erabili *-garren* atzizkia (ez letraz eta ez puntuz), salbu urte-kopuruaren ondoren *urte* hitza idazten denean (eta orduan, nahitaez erabili *-garren* atzizkia)."

Adibidez, *1982an, 1664ko udaberrian, 2001eko abenduaren 13an, 1952. urtean, 1952an* eta abar.

Urtearen digitoa bera punturik gabe idatzi behar da.

Data: 2002/06/15

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Data nola idatzi

Galdera:

Euskaldunon Egunkarian hau ikusi nuen: *Igandea, 1997ko azaroaren 9a*, baina barruko orrialdeetan bertze hau: *Igandea, 1997ko azaroak 9*.

Arauk dio aposizioan bakarrik erabil daitezkeela *azaroak 9* bezalakoak, eta *Euskal Gramatika Laburrak* dio tituluetan ere erabil daitezkeela. Horien arabera, aipatu adibidea ongi al dago?

Erantzuna:

Bai, adibidea zuzen dago. Arauan "aposizioan bakarrik" erabil daitezkeela esatean, hauxe esan nahi zen: alegia, ondoren ezin zaiola kasu-markarik erantsi. Behar bada ez zen hori adierazteko modurik egokiena, baina *azaroak 9an* ez dela zuzena adierazteko modua zen.

Data: 1998

Erantzulea: Arauaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

Data: puntua

Galdera:

Data idaztean, urtea jartzerakoan, puntua jarri behar da ala ez?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du erabaki data jartzerakoan urtearen ondoren puntua idatzi behar den ala ez. Euskaltzaindiak, datari buruzko [37. araua](#) eman zuenean, batez ere dataren barruan hilabetea nola jarri behar den argitu nahi izan zuen. Arau horren azalpenetan ez da inolako aipamenik egiten urtearen atzean puntua jartzeaz edo besterik gabe izen bezala deklinatzeaz.

Hala ere, Euskaltzaindiko Jagon saileko Corpus batzordeak erabaki du ondorengo erabilera hau gomendatzea:

"Datari dagokion urtea idaztean, ez erabili *-garren* atzizkia (ez letraz eta ez

puntuz), salbu urte-kopuruaren ondoren *urte* hitza idazten denean (eta orduan, nahitaez erabili *-garren* atzizkia)."

Adibidez, *1982an, 1664ko udaberrian, 2001eko abenduaren 13an, 1952. urtean, 1952an* eta abar.

Urtearen digitoa bera punturik gabe idatzi behar da.

Data: 2002/06/15

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Dataren deklinabidea "ekainak 18 / ekainaren 18a"

Galdera:

Zuzena al da, adibidez, "2001eko ekainak 18" idaztea?

Erantzuna:

Bai, 37. arauak eta Euskaltzaindiaren *Euskal gramatika laburra: Perpaus bakuna* liburuak (ikus 100. or.) diotenez, zuzena da "2001eko ekainak 18" idaztea; baina tituluetan eta aposizioan bakarrik: alegia, deklinabide-atzizkirik erantsi gabe idaztea dagokionean bakarrik. Beraz:

- a) 2001eko ekainak 18 ZUZENA DA
- b) 2001eko ekainak 18a OKERRA DA
- c) 2001eko ekainak 18an OKERRA DA
- d) 2001eko ekainak 18ko OKERRA DA
- e) 2001eko ekainak 18tik OKERRA DA
- f) 2001eko ekainaren 18a ZUZENA DA
- g) 2001eko ekainaren 18ko ZUZENA DA
- h) 2001eko ekainaren 18tik ZUZENA DA

Data: 2001/06/18

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Ordua: *eta erdi* (apostrofeaz)

Galdera:

[35. arauan](#) irakurri dut *bost eta erdiak* idatzi behar dela. Hala ere, zuzena al da *bost´erdiak* edo *bost t´erdiak* erabiltzea?

Erantzuna:

Arauan esaten den bezala, *eta* osorik idatzi behar da:

"Idazkerari dagokionez, *t´erdi* da Hegoaldean erabat hedatua; Iparraldean, ordea, *eta* idazteko ohitura dago, eta oraingo erabileran *et´erdi* ere arrunta da. Horiek horrela, batasuna *etaren* bidetik egin behar dela uste du Euskaltzaindiak. Ahoskerari dagokionez, bakoitzak bere euskalkiko ohitura gorde beza".

Beraz, *bost eta erdiak*.

Data: 2001/04/23

Erantzulea: Araua

Orduak: 03:00etan, 04:00etan, 13:00etan

Galdera:

Nola idatzi behar dira orduak "hiru" eta "lau" zenbakien deklinabidea dela eta: 03:00etan eta 04:00etan ala 03:00retan eta 04:00retan (betiere, "goizeko hiruretan..." idaztekoak ez diren kasuetaz ari naiz). Eta 13:00ean ala 13:00etan? Jakin nahi nuke, gainera, zelan irakurri behar dira hauek: 15:01ean, 15:02an, 15:01era, 15:01 arte, 15:02ra, 15:01etik, 15:02tik

Erantzuna:

Euskaltzaindiaren 35. arauak hauxe dio 5. puntuan:

"5. Zifretan ematen direnean, bi punturekin bereizten dira orduak eta minutuak, eta bakoitzeko bi zifra erabili behar dira beti: 00:12, 12:10, 09:25, e.a.

Deklinatzen direnean, orduei plurala erantsi, eta minutuei singular marka, dagozkien lotura bokalekin: 15:00etan, 15:03an, 15:04an, 15:30ean, e.a.

Irakurtzeko orduan hobe da, hala ere, honela irakurtzea: hiruretan, hirurak eta hiruan, e.a. Erabilera formaletan ontzat ematen dira, dena den, hamabostak eta bostean, hamabostak eta hamabostean, e.a."

Horren arabera:

- 13:00etan / hamahiruetan (formalean) ZUZENAK DIRA
- 13:00ean / hamahiruan (formalean) EZ DIRA ZUZENAK

Bestalde, honela irakurri behar dira erabilera formalean:

- 15:01ean hamabostak eta batean
- 15:02an hamabostak eta bian
- 15:01etik hamabostak eta batetik
- 15:02ra hamabostak eta bira

Ikus, horrez gainera, zer dioen Euskaltzaindiaren 35. arauak 6. puntuan:

"6. Egitarau, kartel eta horrelakoetan ez da eragozpenik erdiko bidea hartzeko: arratsaldeko 5etan, goizeko 11,30etan, iluntzeko 8etatik 11k arte, arratsaldeko 3etatik gaueko 12ak arte, e.a."

Seigarren puntuko adibideetan aipatzen den "3etatik" horren ildo beretik, hortaz, "03:00etan" eta "04:00etan" da idazkera zuzena. Izan ere, Beñat Oihartzabalek adierazi bezala, kontuan hartu behar da "hiruretan" hitzeko bigarren "r" letra zenbakiaren izenari dagokiola (behinolako "hirur" izenari), ez atzizkiari.

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "Orduak" sarrera.

Data: 2002/01/11

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Urtea

Galdera:

Data jartzerakoan, urtearen atzean puntua jarri behar da ala ez?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du erabaki data jartzerakoan urtea nola idatzi behar den,

puntuarekin ala punturik gabe: ikus [37. araua](#). Datari buruzko arau hori bereziki hilabeteen idazkeran zegoen erabilera okerra zuzentzera etorri da, nahiz eta data osoa jartzerakoan urtearen idazkeraren aukera bat bakarrik erabili, hots, punturik gabekoa.

Nolanahi ere, Euskaltzaindiko Jagon saileko Corpus batzordeak erabaki du ondorengo erabilera hau gomendatzea:

"Datari dagokion urtea idaztean, ez erabili *-garren* atzizkia (ez letraz eta ez puntuz), salbu urte-kopuruaren ondoren *urte* hitza idazten denean (eta orduan, nahitaez erabili *-garren* atzizkia)."

Adibidez, 1982an, 1664ko udaberrian, 2001eko abenduaren 13an, 1952.

urtean, 1952an eta abar (urtearen digitoa bera punturik gabe idatzi behar da).

Beraz, data jartzerakoan, zilegi da bi eratan egitea:

Bilbon, 1996ko apirilaren 17an.

Bilbon, 1996. urteko apirilaren 17an.

Data: 2002/06/15

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Urtea ("-garren"en erabilera)

Galdera:

Euskaltzaindiaren 37. arauak, data adierazteko honako egitura hau hobesten du: "Durango(n), 1983ko martxoaren 7a(n)".

Nire zalantza da ea zilegi den ordinala erabiltzea urtea adierazteko:

"Durango(n), 1983.eko martxoaren 7a(n)". Badirudi baietz, arauaren datan egitura hau ageri baita: "Euskaltzaindiak, Donostian, 1995.eko uztailaren 28an onartua". Hala ere, ez litzateke egokiagoa izango "-garren"en erabilera gaitzestea digitoekin?

Erantzuna:

Gramatika batzordeak erabaki zuen ezin dela "-garren"en erabilera gaitzetsi, tradizioan erabili izan den egitura denez gero. Arauan ere ez da gaitzesten, nahiz eta han bestelako eredu eman: "Durangon, 1995eko martxoaren 7an" edo "Durango, 1995eko martxoaren 7a". Baina Gramatika batzordeak esana du arauan bertan adierazten den horixe dela errespetatu beharrekoa (adibideetako bi egitura horiek, alegia).

Horrez gainera, eta 37. arauaren osagarri, ondorengo jokaera hau hobetsi zuen Jagon saileko Corpus batzordeak:

"Datari dagokion urtea idaztean, ez erabili *-garren* atzizkia (ez letraz eta ez puntuaz), salbu urte-kopuruaren ondoren *urte* hitza idazten denean (eta orduan, nahitaez erabili *-garren* atzizkia). Adibidez, 1982an, 1664ko udaberrian, 2001eko abenduaren 13an, 1952. urtean, 1952an, 1664. urteko udaberrian..."

Oharra:

Urtearen digitoa bera punturik gabe idatzi behar da, adibide horietan ikus dezakezunez.

Data: 2004/06/21

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Marratxoa (*Idazkera*)

Marratxoa, hitz elkartuetan

Galdera:

Jarraian datozen hitz hauek nola idatzi behar dira, marratxoarekin ala marratxorik gabe?

Pila Daniell

Pila Leclanché

Sulfato de cobre

Atomo de cobre

Dioxido de carbono

Pentacloruro de fósforo

Fósforo de aluminio

Oxido de plata

Angulos consecutivos

Aproximadamente



Erantzuna:

Aurreneko biak *Daniell pila* eta *Leclanché pila* idatzi behar dira; beraz, marratxorik gabe, "aposizioak" baitira.

Hurrengoak, berriz, *kobre sulfatoa*, *kobre atomoa*, *karbono dioxidoa*, *fosforo pentakloruroa*, *aluminio fosforoa* eta *zilar oxidoa* "eguzki-lore" motakoak dira; beraz, marratxoarekin nahiz bereiz idatz daitezke. Baina kimikan, marratxorik gabe erabili ohi dira.

Beste biak honela idatzi behar dira:

*ondo*z *ondo*ko *angeluak* (kasu-marka desberdineko "bikoiztapena" delako) eta *gutxi gorabehera* (ikus *Hiztegi Batua*).

Data: 1998

Erantzulea: Araua

Marratxoa, hitz elkartuetan

Galdera:

Argi ikusten dugu zenbait kasutan marratxoaren erabilerak esanahia argitzen lagun diezagukeela (esaterako *ume-biltzailea* eta *ume biltzailea* adibidearen kasuan). Baina era horretako kasuak bereizi beharrak, esaterako, kimikaren arloa marratxoz jostera garamatza. Orain arte ondo konpondu gara jakintzagai horretan marratxorik erabili gabe, ez dugu beharrezkoa ikusten.

Erantzuna:

Marratxoaren erabilera aukeran utzi zen hainbat kasutan, hala nola *eguzki-lore* izenaz "bataiatu" genuen motan eta elkarte sintetikoetan (ikus *Hitz elkartuen*

osaera eta idazkera). Horrelakoetan, norberak erabakitzen du marratxoa erabili ala ez. Euskaltzaindiak, gainera, *Hiztegi Batuan* beti adierazten du hitz elkartu horiek marratxoarekin nahiz gabe idatz daitezkeela (ikus [13. araua](#)).

Data: 2000

Erantzulea: Araua

Marratxoa, hitz elkartuetan

Galdera:

Konposagaien artean noiz erabil daiteke marratxoa eta noiz ez? Zuzena da, esate baterako, *barne- eta kanpo-alarmak* marratxo eta guzti idaztea?

Erantzuna:

Bai, jakina (ikus [13. araua](#)).

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Marratxoak nola jarri lerroz aldatzean

Galdera:

Euskaltzaindiak, [13. arauan](#), hitzak silabaka zatitzea gomendatzen du. Baina, silabaka zatitzean, egokia litzateke lerro-amaieran bokal-multzorik ez haustea. Adibidez, ez *du-ela, gau-ean*; baizik *due-la, gauean*.

Beraz, lerro-hasierako hitz hautsia beti kontsonantez hastea egokiagoa litzateke ("h"letradunak barne: *be/rre/hun, le/hia*), bai begietarako bai irakurtzeko, lerroaren bukaeran beti egin ohi den pausatxoa bideratzeko.

Bestalde, nola jokatu hitz elkartuko osagai bat lerro-amaieran gertatzen denean, eta bestea hurrengo lerroaren hasieran? Errepikatu egin behar al da marratxoa?

Erantzuna:

Lerroz aldatzean marratxoa nola jarri aztertu zuenean, Euskaltzaindiak ez zuen ikusi arautu zuena baino gehiago arautu beharrik. Hala ere, aztertuko du arau hori osatu ala ez.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Marratxoaren erabilera

Galdera:

Noiz erabili behar da marratxoa?

Uda oporrak
Uda-oporrak

Erantzuna:

Kasu horretan, bietara idatz daiteke, marratxoa aukeran dago, Euskaltzaindiaren [25. arauan](#) adierazten den bezala (*eguzki-lore* bezalako menpekotasunezko izen-elkarteak).

Nolanahi ere, badugu gure artean hedatuagoa eta erabiliagoa den forma bat: *udako oporrak*.

Data: 1999/05/05

Erantzulea: Gramatika batzordea

Zenbakiak (*Idazkera*)

bat zenbakia

**Galdera:**

Euskaltzaindiaren [7. araua](#) betez gero, fakturak egiterakoan, adibidez, ez dugu inolako arazorik kopurua "bat" ez beste edozein denean. Baina kopurua "bat" edo unitate osoa ez denean, aldatu egiten da ordena. Beraz, argitu egin beharko diguzue nola idatzi eta nola irakurri horrelakoak. Esaterako, dendako testu hau:

Idatzi: *1 metro soka* **Irakurri:** *metro bat soka*

Idatzi: *2 kilo mandarina* **Irakurri:** *bi kilo mandarina*

Idatzi: *1,5 kilo madari* **Irakurri:** *kilo t'erdi madari*

Erantzuna:

Euskara Batuko batzordeak aztertuko du arazotxo hori, araua osatu behar den ala ez ikusteko.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Txekeak betetzeko idazkera-eredu batua

Galdera:

Txekeak nola bete euskaraz?

Erantzuna:

Euskaltzaindiko Jagon saileko Corpus batzordeak, txekeak euskaraz betetzeko orduan zegoen nahaspila kaltegarria ikusirik, erabaki zuen euroari egokitutako "Txekeak betetzeko idazkera-eredu batua" prestatzea, herritarren esku jarri behar denerako. Horretarako, kutxa eta bankuetako ereduak bildu eta aztertu zituen, eta eredu berria landu, hizkuntza-arauak eta legezkoatasunari dagozkionak betez. Horrelaxe sortua dugu "Txekeak betetzeko idazkera-eredu batua".

Data: 2004/01/07

Erantzulea: Jagon saila - Corpus batzordea

Dokumentua: Txekak betetzeko idazkera-eredu batua (*irizpena*) - <http://www.euskaltzaindia.net/jagonet/dok/txekea.pdf>

Zenbakien idazkera: *1.200.000*

Galdera:

Nola idatzi behar da 1.200.000?

Erantzuna:

Miloi bat eta berrehun mila da egokia, eta ez *miloi eta berrehun mila*.

Data: 1999/01/07

Erantzulea: Gramatika batzordea

Zernahi (*Idazkera*)

A zer (...)! / Hara zer (...)!

Galdera:

"A ze(r)" idatz daiteke edo beti "Hara zer" idatzi behar da? Ez baitu inork horrela esaten, baizik eta "A ze(r)" entzuten da.

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du esan "A ze(r) etxea!" modukoak erabil daitezkeen ala ez; hori bai, *Hiztegi Batuan* "Hara" bakarrik agertzen da (eta, sarrera horren barruan, "hara han", "hara hemen", "hara hor" esapideak). Bestea ("A zer") ez da *Hiztegi Batuko* lehen bueltan sartu, eta uste izatekoa da ez dela aurrerantzean ere sartuko, ontzat ematekotan (edo txartzat) biak aldi berean sartzekoak diruditenez gero.

Gainera, hizkuntzen berri eta hizkuntzen idazkeren berri duen orok badaki ahoskeraren argumentua ez dela beti erabil daitekeen irizpidea; ez baita beti, zorionez edo zoritxarrez, ahoskatzen den bezala idazten (ala "eztakit" idatzi beharko genuke, hala esaten dugulako?).

Hortaz, erregistro jaso samarrean "Hara zer" erabiliko nuke. Besterik litzateke adiskide bati-edo egindako gutunean.

Data: 2002/01/08

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Agintera: ez ezazu / *etzazu

Galdera:

Aginteran, ezezko perpausetan **etzazu** idaztea onartzen da ala soilik ahozko forma da?

Erantzuna:

Euskara batuan, ahozkoan bakarrik onartzen da **etzazu** forma. Idazkera formal zuzen bakarra eta ahoskera zaindua **ez ezazu** da. Gainera, ikus datu-base honetako *agintera* eta *aditz trinkoak* sarrerak.

Data: 2008/05/21

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

"elle" letra**Galdera:**

Mantentzen al da "elle" letra hitz hauetan: *tortilla*, *pastilla*, *bonbilla*...?

Erantzuna:

Hiztegi Batuan datoz, besteak beste, *bonbilla* Heg., *pastilla* eta *tortilla* Heg. "arrautzopila".

Data: 2000

Erantzulea: Araua

bait**Galdera:**

Ahoskera kontuan harturik eman omen duzue idaztaraua *bait* partikularen kasuan (*bainaz*, *baikara*, *baitu*...). Zergatik ez da horrela jokatu beste hainbatetan? Adibidez, *behinik behin*, *batik bat*, *-z gero*, *seietan/seiretan*), *alde/-kalde* eta beste hainbatekin.

Erantzuna:

[2. arauan](#) behin eta berriz esaten den bezala, *bait* elkaturik idatzi behar dela erabakitzeke arrazoia ez da ahoskera izan, mendetako tradizio idatzia baino (*testu* hitza etengabe aipatzen da bigarren arau horretan).

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

batez beste eta batez besteko**Galdera:**

Hiztegi Batuan begiratu dut eta, *batez beste* eta *batez besteko* bereiz idatzita

datoz. Azkenaldi honetan, ordea, sarri-sarri ari naiz ikusten lotuta *batezbesteko*, era horretara izenaren balioa omen duela eta. Zein da idazkera zuzena?

Erantzuna:

Hiztegi Batuak agintzen du. Beraz, *batez beste* eta *batez besteko* dira idazkera zuzen bakarrak batasunean, *Hiztegi Batuak* arauaren indarra duenez.

Data: 2001/03/21

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

egun on / egunon

Galdera:

Zein da idazkera zuzena, *egun on* ala *egunon*? Edo biak zuzenak dira?

Erantzuna:

Hiztegi Batuan egun on besterik ez dator; beraz, horixe da idazkera zuzena batasunerako.

Data: 2001/04/04

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

ez ezik

Galdera:

Nola idatzi behar dugu, *ez ezik* ala *ezezik*?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak argitaratutako *Hiztegi Batuan* begiratzen baduzue, berehala ikusiko duzue batasunerako hobetsitako forma *ez ezik* dela.

Data: 2001/03/07

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

ezta? ala ez da?

Galdera:

Nola idatzi behar da: *ezta?* ala *ez da?*

Etorriko zara, ezta?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du araurik eman horretaz; beraz, *ezta?* nahiz *ez da?* idatz daiteke oraingoz. Hala ere, Gramatika batzordekideok *ezta?* formaren aldekoak gara, honako arrazoiak direla medio:

- 1) Literatur tradizioan biak erabili izan diren arren, forma fosildua, egina, (*ezta?*) gehiagotan erabili izan da.
- 2) Gaur egungo erabileran ere forma hori (*ezta?*) nagusitu dela dirudi. Baina forma zaharragoak erabili nahi izatera, orduan *ezta hala?* baino egokiagoak lirateke bereiz idatzitakoak: *ez da hala?*, *ez al da hala?*, *hala ez da?* eta abar.

Data: 2001/02/06

Erantzulea: Gramatika batzortdea

Dokumentua: ..ezta / ez da? / beti(ko) legez (*irizpena*) - http://www.euskaltzaindia.net/jagonet/dok/Ezta-beti_legez.pdf

Aldaketak ortografian: *-il/-ill-* eta *h*

Galdera:

Zergatik erabaki da hainbat aldaketa ortografian? Esaterako, *-il/-ill-*, kontsonante ondoko *h* letra eta abar.

Erantzuna:

Salbuespenak dira horiek, bide-aldaketarik markatzen ez dutenak. Lehen kasuan, *-il/-ill-* proposatzen da nazioarteko forma denean, eta, beraz, Iparraldean ere palatala ahoskatzen dutenean: *artilleria*, *gillotina*... Bigarren kasuan, hitz gutxi batzuk onartuko dira: Iparraldeko hitzak, *h* letrarik gabe erabat ulergaitz gertatzen direnak (*ala/alha*); izan ere, kontsonante ondoko *h* letra onartzen ez bada, Iparraldekoek ez baitute hitz horiek erabiltzeko aukerarik izango.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Atzizkiak / hitz elkartuak / hitz eratorriak

Galdera:

1. Euskaltzaindiaren [25.arauan](#), "Loturik idaztekoak diren hitz elkartuak" atalean, **d**) puntuan aipatzen dira bigarren osagaia *-dun*, *-gin*, *-gile*, *-zain*, *-zale*... duten elkarteak; eta **e**) puntuan, berriz, bigarren osagaia *-aldi*, *-buru*, *-gizon*, *-(g)une*... duten elkarteak. Baina aipatutako *-gin*, *-gile*, *-zain*, *-(g)une*... horiek ez al dira atzizkiak? Atzizkiak baldin badira, hitz eratorrien osagaiak izango dira, ez hitz elkartuenak. Horrela bada, nolatan aztertzen dira hitz-elkarketari dagokion atalean? Zein da horren arrazoia? Nonbait irakurri ere egin dut horietako batzuei *erdi-atzizki* izena ere ematen zaiela. Zergatik *erdi* hori?
2. Bidenabar, nola idatzi behar dira Epelegain eta Arotzenea etxe-izenak: elkaturik ala marratxoz loturik?

Erantzuna:

1. Egia da askotan atzizkitzat hartu direla **d**) puntuan ageri direnak eta, horrenbestez, ez luketela agertu beharko hitz elkartuei buruzko arauan. Baina *Hitz-Elkarketa/4* liburuan egindako sailkapenean du oinarria erabaki horrek; izan ere, *-gin*, *-gile* eta abarrek badute elkarte sintetikoaren egitura (hau da, lehen osagaia objektu zuzentzat har daiteke). Horrexegatik aztertu ziren horiek guztiak "Elkarte sintetikoak" atalean, *Hitz-Elkarketa/3* liburuan. Bestetik, **e**) puntukoei dagokienez, euskal gramatikak begiratu baino ez dago gramatikari batzuek hitz elkartuen artean aztertu dituztela ikusteko, eta beste batzuek, berriz, atzizkien artean. Villasantek berak, *Palabras vascas compuestas y derivadas* liburuan, behin baino gehiagotan esaten du "se emplea también como vocablo independiente...", "empleado como sufijo o segundo elemento de composición..." eta abar. Argi dago, beraz, horiek hitz elkartutzat zein eratorritzat har daitezkeela. Inguruko hizkuntzetan ere badira horrelakoak (ikuspegi teorikotik aztertu nituen neure tesian, *Hitz elkartuak euskaraz* liburuan argitaratutakoan).

2. Epelegain eta Arotzenea etxeen izen propioak diren neurrian, ez nuke inolako zalantzarik izango elkarturik idazteko.

Data: 2001/05/04

Erantzulea: Miren Azkarate

azpiizenburu/azpizenburu (i + i)**Galdera:**

Nola idatzi behar da "azpi + izenburu"? Izan ere, Euskaltzaindiaren *Hitz elkartuen osaera eta idazkera* arauak zera dio: "lehen osagaia *aurre-*, *azpi-*, eta *gain-* duten izen-elkarteak loturik idatzi behar dira".

Erantzuna:

Bai, Euskaltzaindiaren 25. arauak loturik idatzi behar direla dio, "azpiegitura", "azpimarra" eta "azpimultzo" aipatuz adibidetzat. Kontua da, ordea, "azpizenburu" ala "azpiizenburu" beharko lukeen. Euskaltzaindiak erabaki beharreko kontua da hori, eta *Hiztegi Batuan* ez da horrelako kasurik ageri. Beste aurrizki batekin badira, ordea, "i + i" saileko adibideak hiztegietan (ez *Hiztegi Batuan*), eta horietan "ii" egiten da, eta ez "i"; adibidez, "antiinflamatorio", "antiizoztaile" eta "antiinperialista". Baina horiek datuak dira, Euskaltzaindiak ontzat ala txartzat eman beharrekoak.

Data: 20010925

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

El alfabeto occidental, ¿invento vasco?**Galdera:**

En un foro de debate me he encontrado esta afirmación: "El alfabeto occidental

es un invento vasco, copiado por todas las naciones de esta parte del mundo, y además, maltratado. En su origen, era un poco diferente del actual".

¿Hay algo de cierto en esa afirmación? (Quien lo dice no parece tener intención de insultar o provocar, como suele ser habitual.)

Erantzuna:

Sería totalmente sorprendente que el alfabeto occidental fuera un invento vasco, habida cuenta de que, hasta fechas relativamente recientes, el euskera ha sido, sobre todo, idioma de transmisión oral.

Data: 2001/05/03

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Eratorketa eta hitz elkarketa

Galdera:

Nola idatzi behar dira ondorengo hitzak?

Homogéneo

Aparato digestivo

Tornillo

Estanque

Centro

Químico

Científico

Detalle

Egipcio

Laboratorio

Disciplina

Dado

Prueba

Geratu/gelditu: badago alde garbirik?

Makal, itzel adjektiboak ezezkakoetan erabili behar dira beti edo ohiz?

Jarduera ala *iharduera*?

Erantzuna:

Zerrendako hitzak arau desberdinei dagozkien arren, galderan datozen bezalaxe erantzun ditugu:

homogeneo (ikus *Hiztegi Batua*)

digestio(-)aparatu (ikus *Hiztegi Batua*)

torloju (ikus *Hiztegi Batua*)

urrael (ikus *Hiztegi Batua*)

zentro (ikus *Hiztegi Batua* eta maileguei buruzko erabakiak)

kimikari (ikus *Hiztegi Batua*)

zientzialari (ikus *Hiztegi Batua*) Izan ere, [49. arauan](#) erabakitakoari jarraituz, *-ia* bukaerako oinarrietan *-a* galdu gabe jokatu da: *ekonomialari*, *zientzialari*, *historialari*...

xehetasun (*detaile* edo *detalle* ez da onartu, oraingoz behintzat: ikus *Hiztegi Batua*)

egiptoar (herritarra), *egiptoera* (hizkuntza) (ikus *Hiztegi Batua*)
laborategi (ikus *Hiztegi Batua*)
diziplina (ikus *Hiztegi Batua*)
dado (ikus *Hiztegi Batua*)
froga (zerbait egia dela finkatzeko edo egiaztatzeko balio duena), *proba*
 besterik da (*inprenta-proba* adibidez)
Geratu eta *gelditu* berdintsuak dira. Sarasolaren *Euskal Hiztegian geratu*
 sarreraren definizio bakartzat *gelditu* ematen da.
Makal, "ahul" adierakoa ez dena, ezezko esaldietan edo harridurazkoetan
 erabiltzen da (*Makala da, bada, bera!* edo *Ez du errapea makala!*). Baina itzel,
 ostera, baiezkoetan ere oso normala da.
Jarduera da zuzena (ikus *Hiztegi Batua*).

Data: 2000

Erantzulea: Arauz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

Erdaraz "x" idazten denean



Galdera:

Erdaraz "x" idazten denean, euskaraz nola idatzi behar da: *extra* ala *estra*?

Erantzuna:

Bokal artean, "x"; kontsonante aurrean "s". Beraz, *estra*. Gogoan izan,
 bestalde, erdal *extra-* aurrizkia, askotan, "x + *kanpoko*" egituraz ordezkia
 daitekeela; hala nola, *extrajudicial* = *judizioz kanpoko*, *estrajudizial*.

Data: 1996

Erantzulea: Arauz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

Euskara batuaren sorrera

Galdera:

Non eta noiz gertatu zen, lehenengo aldiz eta ofizialki, euskera batuaren
 sorrera?

Erantzuna:

1968. urtean egin zen, Gipuzkoako Arantzazun, Euskaltzaindiaren VII.
 Biltzarra, eta orduan hasi zen, lehenengo aldiz eta ofizialki, euskara batuaren
 bidea: hain zuzen ere, idazteko arau gidari batzuk eman edo gomendatu
 zituenean Euskaltzaindiak (ikus *Euskera*, XIII. alea, 1968).

Bide hura nola eta nora zihoan ikusteko, hamar urteko epea ezarri zion
 Euskaltzaindiak bere buruari, eta hamar urteak bete zirenean, 1978an,
 Euskaltzaindiak, batasunaren bilakaera aztertzeko, bere VIII. Biltzarra egin
 zuen Bergaran.

Jakitunago egoteko, irakur Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkaria, XXIV. alea,
 1978 (bereziki 441.-477. or.).

Data: 2001/07/30

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Hitz elkartuak: *gune*

Galdera:

Nola eratzen diren da *gune* hitza erabiliz sortzen diren elkarketak? Izan ere, *Hiztegi Batuko* agerpen ia guztietan elkartuta agertzen da; baina salbuespenen bat agertzen da (marratxo lotuta). Hori dela eta, nola idatzi behar dira *industria-gune* eta horrelakoak?

Erantzuna:

Hitz elkartuen osakeraz eta idazkeraz emandako [25. arauan](#), Euskaltzaindiak adierazi zuen bigarren osagaia *gune* dutenak elkaturik idaztekoak direla. Hala ere, hitzak berriak direnean, oraindik guztiz lexikalizatu gabeak direnean, ez da harrizkoa izaten marratxoa ikustea, hor aipatzen den *industria-gune* horren kasuan bezala. Izan ere, horrelakoetan badirudi oraindik ere *gune* horren izen kategoria oso argi ikusten dela (gaztelaniaz "zona industrial" izateak ere izango du eragina, noski). Nolanahi ere, *zerbitzugune* elkaturik idazten den bezalaxe, uste izatekoa da azkenean *industriagune* idaztera iritsiko garela.

Data: 2001/05/04

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Erantzulea: Miren Azkarate

Hitz elkartuen erabilpen-eremua

Galdera:

Hiztegi-kontu batek kezkatzen gaitu aspaldian. Zein hobetsi behar dugu: arazo ekonomikoa ala ekonomia-arazoa?; zergen aitorpena ala zerga-aitorpena?; foru-ogasuna ala ogasun forala?

Erantzuna:

Arazo hori hiztegi-kontua baino zabalagoa da. Erantzuna aurkitzen hasteko, bi puntu aipa litezke:

- a) Kontua ez da "bata ALA bestea", baizik "noiz bata ETA noiz bestea".
- b) Erantzun erabatekorik nekez izango du auzi horrek, baina argibideren bat edo beste aurki liteke Euskaltzaindiaren arauetan:
 - b1) Ikus 25. arauan "Hitz elkartuen erabilpen-eremua" atala: "Baliabide indartsua da hitz-elkarketa (...) Askotan eta egoki balia daitekeen hitz-elkarketak ere baditu, ordea, bere mugak."
 - b2) Apustu zorrotzagoa egiten da 50. arauan: "Izenondoetan (...) ahal dela, maileguz hartutako erdal izenondoan ordez, hobe euskal egituraren araberrako ordainak erabiltzea."

Ez dizkizut osorik idatzi arauetako testuak; baina eskuera dituzu, arauen karpetetan nahiz Interneten.

Data: 2001/12/18

Erantzulea: Jose A. Aduriz, Hiztegi Batuko lantaldea

Hitz elkartuen osaera eta idazkera

Galdera:

Oro har, konplikatuegia da 25. araua, eta errazteko modua eskatzen dugu. Baditugu, halere, galdera konkretuak:

- a)** *-ia* letra-multzoez amaitutako hitzak lehen osagai direnean, bereziki laburrak direnean (*kopia, biblia, grafia...*), *-a* galdu egiten da ala ez?
- b)** *Soinu jole* edo *soinu-jole* elkarketa agertzen da adibideetan; hiztegietan, ordea, *soinujole* aukeratzen da, gehienetan. Guk denak bereiz idazten ditugu. Ongi ari al gara?
- c)** *Parte hartu, eskua sartu* eta horrelakoen nominalizazio eta eratorrietan nola jokatu? *Parte hartze* ala *partehartze*, *esku sartze* ala *eskusartze*, *parte hartzaile* ala *partehartzaile*...?
- d)** Izena+*puska/pixka/apur/poxi/amini/mordo/pila/izpi/pare* eta abar, nola idatzi? Marratxoz? LEF batzordearen arabera, mugakizun bereziko menpekotasunezko hitz-elkarteak dira, marratxoz zein bereiz idatz daitezkeenak. Marratxoa erabiltzea erabakiz gero, *lotsa-izpirik ez du* idatzi behar genuke, edo *jende-mordoa etorri zen, idi-parea*, etab. Baina ondoan *bat* hartzen dutenean, nolabaiteko "zenbatzaile zehaztugabe"-tzat jo litezke, batzuk behintzak: *pixka, poxi, amini, mordo, pila...* (baina *puska* ez, adibidez). Beraz, *lasaitasun pixka bat behar dugu, gatz poxi batekin*.
- e)** Marratxoa noiz erabili, letra larriz idatzitako hitz-elkarteetan. *Hezkuntza Saila* idaztea gomendatzen da; baina, marratxoa erabiltzen dutenentzat, ez al da nahasgarri samarra, letra larriak erabiltzerakoan izan ohi diren zalantzak kontuan hartuta? *Hezkuntza-Saila* idaztea gaitzesten da?

Erantzuna:

[25. araua](#) dela eta:

- a)** Araua eman zenean, datuak ikusirik, askatasuna eman zen *-ia* amaierako bokalarekin nola jokatu. Hala ere, Euskaltzaindiak *Autonomia Erkidego* erabakitzean, bide bat markatu nahi izan du.
- b)** Berez, hitz elkartu mota horri buruzko arauak, elkarte sintetikoei buruzkoak, dioena da horrelakoak bereiz nahiz marratxoarekin idatz daitezkeela. Beraz, zuzen ari zarete.
- c)** Marratxoz nahiz loturik, *Hitz-elkarketa/4* liburuan ageri denez.
- d)** Erabat ados.
- e)** Letra larriz idazten diren hitz elkartuetan, LEF batzordeak ez zuen hain beharrezko ikusten marratxoa. Horixe adierazi nahi izan zuen gomendio horren

bidez. Berez, ez da gaitzesten marratxoa erabiltzea; hori ez baita araua, gomendioa baino.

Data: 1996

Erantzulea: Arauaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

Kontsonante-multzoen idazkera

Galdera:

Nola idatzi behar dugu *postposisio* ala *posposizio*, *substantzia* ala *sustantzia*? Eta *-bsz-* multzoa dutenak? *Abszesu* eta *abszisio* hitz teknikoak, adibidez.

Erantzuna:

Hitz mailegatuek jatorriz hiru kontsonantezko multzoa dutenean bere baitan, euskarak ere hiru kontsonanteak gordeko ditu: *institutu*, *konstituzio*... Ez, ordea, euskara idatzian aspaldidanik erabili diren hitzek hizkera arrunteko esanahia dutenean: *sustantzia*...

Hala dio Euskaltzaindiaren erabakiak. Ez dirudi gaur idazleek darabilten *substantzia* izenak esanahi "arrunta" duenik; beraz, ondo dago *substantzia*. Bestalde, hitz teknikoak diren neurrian, ez dago *abszesu* edo *abszisio* erabili ezinik.

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Data: 1996

Erantzulea: Arauaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

Latinezko esapideak: deklinabidea eta ortotipografia

Galdera:

Latinezko esapideak deklina al daitezke euskaraz? Eta deklinatzekotan, zein da idazkera zuzena: komatxoak, marratxoa...? Adibidez:

- Lantegi gehienetan "curriculum vitae" eskatzen dute.
- Almeriaraino joan ondoren, senideei "vis a vis"-a galarazi diete.
- "Modus vivendi" eskasa dago hor.
- Egiteko modu "sui generis" bat erabiltzen du Mikelek.
- Gutunaren azken aldean "nota bene" bat ezarri zidan.

Erantzuna:

Bai, latinezko esapideak deklina daitezke euskaraz, jakina; baina Euskaltzaindiak ez du ezer erabaki horrelakoen ortotipografiari buruz. Beraz, aukeran daukazu marratxoa erabiltzea edo kakotxak; nahiz eta egokiagoa izan, agian, letraketra etzana erabiltzea.

Besterik da latinezko esapideak erabiltzea komeni den ala ez: hori estilo-arazoa da, norberak (edo enpresako estilo-liburuak) erabaki beharreko auzia. Bistan da, hala ere, euskarazko testuetan arazo ugari sortzen duela erdarazko esapideak deklinatu beharrak; beraz, zenbat eta gutxiago txertatu, hobe.

Gainera, ez dira beharrezkoak izaten gehienetan; eta, beharrezko direnean,

deklinazio-atzizkirik gabe erabiltzea komeni da. Zuk aipatutako adibideak, esate baterako, honela emango nituzke nik:

- Lantegi gehienetan, *curriculum vitae* eskatzen dute.
- Almeriaraino joan ondoren, senideei elkar ikustea (edo aurrez aurre egotea) galarazi diete.
- Bizimodu eskasa daukate hor.
- Gauzak egiteko modu berezia dauka Mikelek.
- Gutunaren azken aldean ohar bat ezarri zidan.

Data: 2001/04/24

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Leku-izenak nola idatzi

Galdera:

Gure herriko kaleko pasabide bati *Arriarte* esaten dio jendeak. Udalak plaka bat jarri nahi du bertan, pasabidearen izena adieraziz; baina zalantza sortu zaigu izen hori nola idatzi erabakitzeke orduan. Herrian badugu *Arriarte* izeneko baserri bat, baina pasabide horren berri idatzirik ez dugu inon aurkitu. Hortaz, nola idatzi behar dugu: *Harri tarte*, *Harri-tarte*, *Harriarte* edo *Arriarte* pasabidea?

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Erantzuna:

Batetik, Euskaltzaindiak esana dauka H letraz eta palatalizazioaz hartutako erabakiak ez direla erabili behar Onomastikan (horregatik *Iruñea* eta ez *Iruinea*, adibidez). Bestetik, Euskaltzaindiak berak 2000. urtean argitara emandako *Toponimia txikia normalizatzeko irizpideen* arabera, idatzizko lekukoei eman behar zaie lehentasuna (zaharregiak ez badira, behintzat). Arau horiek kontuan harturik, *Arriarte pasabidea* idatzi behar da.

Data: 2001/04/02

Erantzulea: Mikel Gorrotxategi, Onomastika batzordeko idazk.

Letra larriak hitz konposatuetan

Galdera:

Hitz konposatuetan zilegi al da letra larriak bietan erabiltzea: *Neba-Arrebak etorri dira? Espainiako Errege-Erreginak etorri dira?*

Erantzuna:

Letra larriak bietan erabiltzeko, bi osagaiek izan behar dute izen bereziak, eta zaila da horrelako adibideak aurkitzea. Azken urteetan maiz samar ikusten ditugunak *Vitoria/Gasteiz* bezalakoak dira, eta horietan biak idazten dira letra larriz. Euskal literaturan badira *Axular-Etxepareak* edo *Sakana-Burundak* bezalako adibideak ere. Galderan aipatzen diren kasuetan, puntu baten ondoren *Anai-arrebak* idatziko genuke, hau da, lehen izena bakarrik letra larriz.

Bigarren kasuan, *Errege* eta *Erregina* idatziko genuke Euskaltzaindiaren gomendioaren arabera; beraz, *Errege-Erreginak*.

Data: 1998

Erantzulea: Arauz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

Maileguak: "-itis" bukaeradun hitzak eta beste

Galdera:

Nola erabili behar dira euskaraz grekozko "-itis, -osis" eta antzeko amaierak dituzten hitzak?

Erantzuna:

Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuak* honako hauek dakartza, besteak beste: "tetanos; flebitis, konjuntibitis; osmosi, psikosi; analisi, krisi..." Bestalde, *Maileguzko hitz berriei buruzko Euskaltzaindiaren erabakiak* argitalpenak (ikus 33. or.) laburpen hauxe dakar:

"Grekoz S bukaera dutenek letra hori galdu egiten dute, salbu -ITIS bukaeradunak eta silaba bakarrekoak edo bikoak direnak."

Data: 2001/11/14

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Maileguen zahar-berria: -sz-, g eta j

Galdera:

Noiz esan daiteke mailegu bat zaharra dela (edo berria)? Nola jakin noiz den -sz- multzoa ala -z- soila? Edo noiz gorde *j* eta noiz egokitu mailegua *g* forman? Noiz du mailegu batek erabakigarria izateko adinako tradizioa?

Erantzuna:

Zaila da muga argia markatzea mailegu zaharren eta berrien artean. Zaharra, oro har, euskarak aspalditik bereganatua duena da, literaturan dokumentatua duguna eta abar.

Bi txistukariz osatutako kontsonante-multzoaz, -sz- edo *g/j* kontuek, lehendik ere emanak dira arau orokorrak (ikus *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak*). Horrez gainera, *Hiztegi Batuan* begira daiteke mailegu jakin bat nola idatzi behar den. Hor ikus daiteke mailegu berriak *g* letraz idaztekoak direla, oro har. Bestalde, maileguak nola ahoskatu behar diren ere adierazia du Euskaltzaindiak (ikus *Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua* izeneko [87. araua](#)).

Data: 2000

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Ordena, hitz elkarketan

Galdera:

Tabako paketea / pakete tabakoa eta antzekoetan, zein da ordena zuzena?

Erantzuna:

Zer esan nahi den: **paketeaz** ari bagara, *tabako paketea* behar du, *poxpolo kaxa* bezalakoxe egitura duen hitz elkartua. Baina **tabako kantitateaz** ari bagara, *pakete tabakoa* nahiz *pakete bat tabako* (edo *bi pakete tabako*, etab.) esan beharko dugu. Adibidez: *hiru pakete tabako erosten ditut astero*, baina *hiru tabako pakete eskatu dizkit alabak eskulan bat egiteko*.

(ikus *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*, 93.-94. or.).

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Ordinalen eta banatzaileen idazkera

Galdera:

- a) [18. arauak](#) dioenez, ordinaletako *garren* ahoskatzeko, puntua jar daiteke. Baina *lehenengo* laburtzeko modua zein da: *1. nahiz eta garren ahoskatu ez?*
- b) Zergatik *batgarren* eta ez *bostgarren*. Beharbada, *stg* kontsonante multzoagatik ote?
- c) Bestalde, *garren* horren ordezeko puntua beti jarri behar al da? *2 eta 3. atalean* edo *2. eta 3. atalean*?

Erantzuna:

- a) Bai, noski.
- b) Bai, arauan bertan esaten den bezala, "batasunean kontsonante multzoak murritzeko hartu den erabateko jokabidea (*hiztegi* eta ez *hitztegi*) kontuan harturik, badirudi forma bakuna dela gomendatzekoa".
- c) Puntua behar du, bai. Beraz, *2. eta 3. atalean* nahiz *2. eta 3. atalean*.

Data: 1996

Erantzulea: Arauz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

Puntuazio ortografikoa: "koma"ren erabilera

Galdera:

Zer dauka arautua Euskaltzaindiak komaren erabileraz, edota non aurki dezaket gai horri buruzko argibiderik?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du ezer erabaki puntuazioari buruz, ez bada alor jakinen bati buruzko gomendio-saila (adibidez, hitz elkartuen idazkeraz). Beraz, ez dago ezer araturik komaren erabileraz ere.

Puntuazioarena-eta begiratzeko, bibliotekan-edo eskura dezakezu, besteak beste, honako liburu hau:

ZUBIMENDI, Joxe Ramon; ESNAL, Pello: *Idazkera-liburua*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1993.

Data: 2001/07/13

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Zenbakietako eta

Galdera:

Zilegi al dira *Mila bostehun lagun hil dira*, *Bost laurogeiko jauzia egin du* nahiz *Errealak bi bat irabazi dio Athletic-i* eta gisakoak ala, uste dudanez, horietan guztietan eta juntagailua erabili behar da?

Erantzuna:

Hobestekoak dira honako egiturak hauek:

Mila eta bostehun lagun hil dira.

Bost eta laurogeiko jauzia egin du.

Errealak bi eta bat irabazi dio Athletic-i.

Kasu horietan euskaraz juntagailua erabili izan da literatur tradizioan; gainera, lehen adibidearen kasuan, 1994an argitaratutako [7. arauak](#) dioen bezala, *mila berrehun eta bat* da euskara batuan hobesteko egitura.

Data: 1999/11/15

Erantzulea: Gramatika batzordea

Aditzaren ingurukoak (*Lexikoa*)

"iritzi" + "-eLA"

Galdera:

Zein da zuzena: "Gaixotasunaren diagnostikoa garaiz egitea komenigarria dela irizten diote" ala "Gaixotasunaren diagnostikoaRI garaiz egitea komenigarria dela irizten diote"?

Erantzuna:

Lehenbizikoa bakarrik da zuzena. Dirudienez, "-eLA" konpletiboarekin duzu zalantza. Ez dago arazorik "iritzi" aditzarekin "-eLA" menderagailua erabiltzeko. Badira era horretako egituren testigantzak literaturan, eta ugari samar gainera: "Etxe ona eta andre ohea izango dituala deritzot" (*Garoa*), "Neritzan neretzat bakarrik itz egiten zenduala" (Agirre Asteasukoa) eta abar. Datiboko marka ere eska dezake aditz horrek. Hala ere, ematen duzun bigarren perpausa, datiboduna, okerra da; izan ere, datiboaren markak "-t(z)ea" dun perpaus konpletiboan joan behar du eta ez perpaus horretako osagai baten

gainean; eta horrez gain, "-eLA" dun perpausik ez du behar. Beraz:
 OKERRA: "*Gaixotasunaren diagnostikoaRI garaiz egitea komenigarria dela irizten diote."
 ZUZENA: "Gaixotasunaren diagnostikoa garaiz egiteaRI komenigarria irizten diote."

Data: 20010912

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

ahal izan

Galdera:

Oso esparru zabala duen aditza da, era ezberdinetan erabiltzen duguna, gainera. Guk forma arruntenak eta erabilienak zein diren jakin nahi dugu eta nork, norekin, noiz, zertarako eta abar kontuan hartuz egokitasunez erabiltzen irakatsi ere bai. Esate baterako, mendebaldean bultzatu behar ote dugu *etortzen ahal zara* forma?

Erantzuna:

Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna liburuak dakarrena (420.-423. or.) gomendatuko nuke:

Ahal desirazkoa ("ez ahal da oinez etorriko!") / *ahal* ahalezkoa ("ez da oinez etortzen ahalko").

Ahalezko balioan, aditz laguntzaile guztiekin ager daiteke, beti ere aditz nagusiaren erregimenaren arabera: *joaten ahal da, egiten ahal dugu, joan ahal naiteke, egin ahal dezake...*

Eta ez dirudi, -kedun formetan, *ahal* erabiltzeak esanahia aldatzen duenik ("egin ahal dezake", "egin dezake").

Aspektuari dagokionez, aspektu burutua *izan* edo *ukan* partizipioen bidez adierazten da, aditz nagusia gehienetan partizipioa izanik (euskalki batzuetan aditz izena ere bai): *aski goiz etorri ahal izan da, liburuak erosi ahal izan ditu, horri esker ikasten ahal izan dut munduaren berri...*

Aspektu burutugabea, *ahalek* berak bakarrik adierazten du, aditz nagusia, euskalkien arabera, partizipioa edo aditz izena izanik: *etorri ahal naiz, etortzen ahal naiz...*

Geroaldia markatzeko, ostera, forma bat baino gehiago aurki daiteke; badirudi erabilienak, geroaldiaren marka *ahali* zuzenean erantsi, eta aditz nagusia -*tu* edo -*t(z)en* formak daramatenak direla: *ikusi ahalko dugu, ikusten ahalko dugu...* Nahiz geroaldiaren marka *izan* aditzari ere lot dakioken: *ikusi ahal izango dugu.*

Euskaltzaindiak ez du azterketa berezirik egin, ez araurik eman. Dena den, Gramatika batzordea ari da aditz "modal" hauen erabileraz arau-proposamena prestatzen, bai baitirudi gramatiketako forma horien artean, ez dutela guztiek pisu bera izan eta puntu batzuek (aditz nagusiaren aspektuari dagozkionak, edo geroaldiko forma nagusiak zein diren) hobeto aztertu beharrekoak direla.

Bestalde, ez dago bereziki bultzatu beharrik *etortzen ahal zara*; aski da jakitea/irakastea egitura hori zuzena dela euskaraz, erabil daitekeela eta, batez ere, Ekialdeko euskalkietakoa dela.

Data: 1999

Erantzulea: EGLkoaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

ahal eta ezin

Galdera:

Erabilera zuzena zein da? *Etortzen ahal naiz, etorri ahal naiz, etorri ahal liteke...* Bestalde, *jokatu ahal dut = jokatzeko ahal dut*. Horrako *ahal* biak ontzat ematen ote dira?

Joan ahal nahiz - ez dut joaten ahal, ezin dut joan / ezin eraman dezaket
Ezin naiz joan / ezin dut joan? Horrako *ezin* horrek beti laguntzaile trantsitiboa eskatzen al du?

Ba ote dago ñabardurarik *egin dezake* eta *egin/egiten ahal* duren artean? Edo berdin-berdin erabil ditzakegu?

Erantzuna:

Ezinek eta ahalek ez dute laguntzailea aldatzen: ezin naiz etorri; ez naiz joaten ahal.

Gainerako galderak aztertuko ditugu.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

behar izan

Galdera:

Etorri behar izan zer da: *naiz* ala *dut*?

Erantzuna:

[113. arauak](#) dio *behar izan* horrek *du* saileko aditz laguntzailea hartuko duela, salbu bertan aipatzen diren kasuetan. Beraz, *etorri/joan behar dut* da batasunerako forma zuzena.

Data: 2001

Erantzulea: Araua

behar izango / beharko, ezin izango / ezingo eta gisakoak

Galdera:

Zuzenak al dira *behar izango / beharko; balio izango / balioko; bizi izango / biziko; ezin izango / ezingo; ahal izango / ahalko; nahi izango / nahiko* forma horiek denak?

Erantzuna:

Bai, horiek denak dira zuzenak, Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, II* liburukian aipatzen denez. Liburuki horretan esaten da perifrasiaren osakide diren *izan* edo *ukan* aditzek hartzen dutela aspektu-marka; nahiz eta askotan, aditz horiek isildu ondoren, *nahi* eta *gura* izenek (447. or.), *beharek* (453 or.) eta *ahalek* (459. or.) hartzen duten *-ko* marka hori. *Balio izan*, *bizi izan* eta *ezin izan* aditzekin ere gertatzen da *izanen* elipsi hori. Hala erakusten dute behintzat *Orotariko Euskal Hiztegi*ko literatura corpuseko adibide ugariak (*balioko* formak, 83 agerraldi; *biziko* formak, 567; *ezingo* formak, 103...).

Oro har, gainera, zuk emandako aditz horietan ugariagoak dira *izan* aditza eliditutako formak (*beharko*, *balioko*, *biziko* eta abar), besteak baino (*behar izango*, *balio izango* eta abar baino).

Data: 2001/04/19

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

deitu**Galdera:**

Ez dugu oso garbi ikusten zergatik onartzen den *deitu didate*, *deitu naute*-ren orde.

Erantzuna:

[39. arauan](#), Iparraldeko eta Hegoaldeko tradizioak kontuan harturik, biak onartzen dira; beraz, ez da *deitu naute* baztertzen.

Data: 1998

Erantzulea: Araua

du eta da**Galdera:**

Inpertsionalaren erabilera orain arteko ohituren kontrakoa: *esaten da*, *ikusten da*...

Irauli, bestalde, hiztegieta *du* agertzen da; baina *Txalupa irauli egin zen*.

Erantzuna:

Du motako aditz askok onartzen dute *da* laguntzailea, subjektu jakinik adierazten ez denean, hau da, inpertsionala adierazteko. *Hiztegi Batuan*, hala ere, aditz horiek *du* ad. bezala azalduko dira, jakina.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

dut eta daukat**Galdera:**

Ez daukagu sartzerik: ez duzu sartzerik. Sinetsia dut: sinetsita daukat
Oso garbi dut: oso garbi daukat
Zerbait egin beharra nuen/neukan
 Zer alde dago batetik bestera? Bikote horietako forma biak zuzenak dira?

Erantzuna:

Bai, besterik erabakitzen ez den bitartean, bi formak ematen dira zuzentzat.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

egon eta izan**Galdera:**

Izan aditza erabiltzea egonen ordez: bilduta izan da goiz guztian, gaixorik izan da joan den astean... Ba al dago honetaz arau argirik emateko moduren bat?

Erantzuna:

Oso zabaldua dago aspalditik *egon* aditza, batez ere Hegoaldean. Oraingoz ez da inolako araurik eman horretaz; aztertuko da gaia.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

espero izan**Galdera:**

Ez al da egia *espero izan* aditza nominalizazioarekin erabiltzen dela normalean? Adibidez:
Zu etortzea espero dut.

Erantzuna:

Egia da *espero izan* aditza nominalizazioarekin erabiltzen dela normalean, eta zuzena da zure adibidea:

Zu etortzea espero dut.

Nolanahi ere, ez da molde bakarra; izan ere, *-ela*-dun perpaus osagarri bat lagun duela ere eman baitaiteke aipatu aditza:

Etorriko zarela espero dut.

Beraz, biak erabil daitezke *espero izan* aditzaren osagarri gisa.

Erregimen berbera dute beste aditz batzuek ere:

Jaialdira joatea agindu nion.

Jaialdira joango nintzela agindu nion.

Data: 1999/05/05

Erantzulea: Gramatika batzordea

ezin jaso / jaso ezina

Galdera:

Zuzena al da *hau ezin jaso da* esaldia? Badakigu ohikoagoa dela *jaso ezina*, baina uste dugu *eginahala* eta *ahaleginaren* antzekoa izan daitekeela.

Erantzuna:

Zuzena da, bai, *hau ezin jaso da* esaldia. *Orotariko Euskal Hiztegiko* literatura corpusean molde horretako adibide asko dago (baita *ezin* atzetik dela ere, jakina). *Jaso* aditzarekin bat bakarra (*tripa ezin jaso, ezer ezin jana*, Iturriaga, *Bertsoak*, 42. or.), baina ugari beste aditz batzuekin: besteak beste, *ezin askatua, ezin ahaztuzkoa, ezin agortuzkoa, ezin baztertuzkoa, ezin egona, ezin eramana, ezin esana, ezin jasana, ezin ikusia* eta abar. Marratxo eta guzti idatzita ere agertzen dira literatura tradizioan.

Data: 2001/04/19

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

ezin

Galdera:

Zein da forma zuzena: *ezin dut jan* ala *ezin jan dut*?

Erantzuna:

Biak dira zuzenak; baina bigarrena adierazkorragoa, askorentzat.

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

gose

Galdera:

Gose izan, goseak egon... gosea eduki. Gose naiz, goseak nago egiturak jatorrak dira; baina *gose handia daukat, izugarrizko egarria zuen* esaterik bai? (*Orotariko Euskal Hiztegi*an badaude *gosea izan/eduki* modukoak).

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du oraindik aztertu gai hori. *Hiztegi Batua* osatzeko bigarren itzulian aztertzen ahaleginduko gara, Gramatika batzordearekin batera.

Data: 2000

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

iritzi

Galdera:

Iritzi aditza erabiltzean konpletiboa erabil daiteke (polita dela deritzot, gaizki dagoela deritzogu)?

Erantzuna:

Orotariko Euskal Hiztegian, iritzi sarreran, badira konpletiboaren adibideak (bi arrazoiz deritzat herri honi hain izen hautua eman ahal izan ziotela), nahiz XX. mendekorik ez den ageri. Hiztegi Batuan ez da bereziki ezer esan konpletiboaz iritzi sarreran.

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

joan berri

Galdera:

Joan berri naiz ala joan berri dut? Jende askoren zalantza izaten da.

Erantzuna:

Joan berri naiz, zalantzarik gabe; berri ezartzeak ez baitu aditz laguntzailea aldarazten.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

merezi izan

Galdera:

Merezi izan aditza dela-eta, ontzat ematen ditut honelakoak:

Mikelek saria merezi du.

San Ferminetara joatea merezi du.

Donostiako Alde Zaharrera joatea merezi du.

Baina ondoko perpaus hau (Euskaltzaindiaren [31. arauan](#) esaten denaren kontra doana) ontzat eman al daiteke?

Arestian aipatutakoak (hau da), Donostiako Alde Zaharrera joateak, merezi du.

Erantzuna:

Gramatika batzordearen iritziz, azkeneko perpaus hori txartzat ematekoa da.

Izan ere, egia da merezi izan aditzak ergatiboa eska dezakeela (Mikelek saria

merezi du), baina aditz horren bi erabilera bereizi beharrea gara:

1. Subjektu ergatiboa eta objektu absolutiboa duena:

Mikelek saria merezi du.

Mikelek saria jasotzea merezi du.

2. *Merezi izan* aditzaren erabilera inperzonal, subjektu ergatiborik ez duena:

Merezi du lan egitea.

Merezi du Euskal Herria ongi ezagutzea.

Goian aipatzen den zalantzazko perpausa bigarren baliokoa litzateke, subjektu agerikorik ez duena. Beraz, perpaus hori erabili nahi izanez gero, honelako zerbait gomendatuko genuke:

Arestian aipatutakoa egitea, Donostiako Alde Zaharrera joatea, merezi du.

Data: 1999/05/05

Erantzulea: Gramatika batzordea

operatu

Galdera:

Operatu diote ala dute: hankan, hankaz, hankatik...?

Erantzuna:

Hiztegi Batuan, operatu du ad. dela esaten da. Bestalde, Sarasolaren Euskal Hiztegian: operatu, du ad. "Bihotzetik operatu; zango gangrenatua operatu".

Data: 2000

Erantzulea: Arauz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

oso eta asko

Galdera:

Oso aditzondo gisa harturik, zalantzarik ez dago maite izan, atsegin izan moduko aditzekin; baina asko gustatu zitzaidan. Orduan, asko/oso beldurtu?, asko/oso haserretu? Teorian oso behar litzateke horrelakoetan. Horrela erabiltzen al da? Gainera, hain/hainbeste arazoa ere horrekin lotuta dago: Hain maite nuen? Ez dakit zergatik beldurtu zen hainbeste.

Erantzuna:

Datuak ondo aztertu ondoren gomendatuko da batasunerako egokien ikusten dena. Erabili, *asko gustatu* modukoak maiz erabiltzen dira; *Orotariko Euskal Hiztegian* ere badira horrelako adibideak. Baina, berriro esan, *asko/oso*, *hain/hainbeste* bikoteen jokabidea aztertu ondoren ikusiko da araurik edo gomendiorik ematea komeni den.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Aditz esapideak: *faltan bota eta atentzioa deitu***Galdera:**

Faltan bota eta atentzioa deitu onartzekoak al dira?

Erantzuna:

Atentzio ez da oraingoz *Hiztegi Batuan* sartu.

Mira egin aditz esapidearen adiera definitzean, "norbaiten edo zerbaiten falta nabaritu" esaten da. Beraz, *mira egin* eta *falta nabaritu*, biak erabil daitezke.

Faltan bota ez da txukunegia euskara batuan erabiltzeko.

Ibon Sarasolaren hiztegia: *atentzioa deitu** e. *atentzioa eman*.

Data: 2000

Erantzulea: Arauaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

Ahalera eta ezina: joan ahal naiz, joan naiteke / ezin joan naiz, ezin naiz joan, ez(in) naiteke joan**Galdera:**

1. Ahalerazko formak (naiteke, dezake) AHAL eta EZIN aditzen baliokidetzat jo daitezke? Adibidez, "joan ahal nintzen" = "joan nintekeen"? Ezezkoan, zein da ñabardura?

2. Zuzena al da "ezin joan naiz" esatea?

Erantzuna:

1. Bai, elkarren baliokidetzat jo daitezke, bai baiezkoetan eta bai ezezkoetan. Joan ahal naiz = Joan naiteke

Ezin naiz joan = Ez(in) naiteke joan

Ñabardurak direla eta, nik ez dut halako alderik nabaritzen. *Orotariko Euskal Hiztegia*, (ikus OEH, VII, 666. or.), EZIN sarreran honako hau esaten da:

"Altube (Erderismos 248) señala una diferencia semántica [que Azkue (Morf. 998) confiesa no percibir] entre las oraciones "ezin etorri naiz", que indicaría la imposibilidad de un acto en el momento en que se intenta y "ezin etorri naiteke" imposibilidad más abstracta o intemporal". Ni, kasu honetan, Azkuerekin bat nator.

2. Bai, zuzena da "ezin joan naiz". OEHko orrialde horretan bertan honako hau esaten da: "con el auxiliar siguiendo inmediatamente a "ezin" ("ezin naiz etorri") es muy poco frecuente al Norte antes del s. XX. Al sur, no ocurre así en la mayoría de textos antiguos. En el s. XVIII sigue siendo bastante poco usual, pero su utilización va aumentando considerablemente desde principios del s. XIX".

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "ahal" eta "ezin" sarrerak.

Data: 2002/01/14

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Aspektuaz: egon/izan, ibili...**Galdera:**

Egoki egina al da ondorengo adibideokin egin dugun "zuzen/oker" sailkapena?
*Asteburu honetan ziza biltzen **egon gara** Isaban.* (oker)
*Asteburu honetan zizak **hartzen** izan gara Isaban.* (oker)
*Asteburu honetan ziza biltzen **izan gara** Isaban.* (zuzen)
*Asteburu honetan ziza biltzen **ibili gara** Isaban.* (zuzen)
*Pilotan jokatzeko **egon gara** 5:00etatik 6:00etara.* (oker)
*Pilotan jokatzeko **aritu gara**...* (zuzen)
*Atzo klinikan **izan nintzen**, ama bisitatzen.*(zuzen)
*Hamabost egun **egon naiz** klinikan, heste-soberatik operatuta.* (zuzen)
*Telebista ikusten **egon naiz.*** (zuzen)

Erantzuna:

Behin baino gehiagotan entzun dugu *lanean egon* dena ez zela gehiegi nekatuko. Gomendagarriagoak dira, noski, adibide horietan zuzentzat ematen direnak. Hala ere, ez da gomendio berezirik eman puntu horretaz (literaturako erabilera ez da berariaz aztertu), eta gerta daiteke, euskalki batzuetan eta besteetan erabilera desberdinak aurkitzea. Hobe, beraz, zorrotzegi ez jokatzeari.

Data: 1999**Erantzulea:** Miren Azkarate (iritzia)**Beldur izan: zeren beldur izan****Galdera:**

Zuzena al da "zeren beldur zara?" galderari "iluntasunaren, otsoaren eta zure" soil-soilik erantzutea?

Erantzuna:

Nik ez nuke txartzat emango, baina ez zait egokia iruditzen. Zaila da *Orotariko Euskal Hiztegian* egitura horien bilaketa egitea; baina, horrelakoen testigantzarik izatekotan, testigantza zahar samarrak aurkituko genituzkeela uste dut.

Patxi Altunak gramatikaltzat dauka egitura hori ("beldur" gabeko erantzunarena); baina gaur egun ohikoagoa eta egokiagoa da "iluntasunaren, otsoaren eta zure beldur" erantzutea; nahiz eta galderako "beldur" hitza errepikatu.

Data: 2002/01/08**Erantzulea:** Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.**berdin izan (jolastu/jolastea)****Galdera:**

Zalantza hauxe sortu zaigu: "berdin dit (zait) jolastu/jolastea". Zein da zuzena?

Erantzuna:

Orotariko Euskal Hiztegia, BERDIN IZAN azpisarreran (ikus IV. lib. 731. or.), bi aukera horiek ere ageri zaizkigu: "berdin dit (zait) jolastu" eta "berdin dit (zait) jolastea".

Dirudienez, "berdin dit (zait) jolastea" da gaur egun erabiliena; baina badira beste ereduaren adibideak ere literaturan:

- Berdin zitzaion iparrera igo edo egoaldera jetsi (T. Agirre, *Uztaro*, 212. or.)

Beraz, bai aditz-partizipioa, bai aditz-izena eta bai bestelako forma batzuk ere [batzuetan, aditz-erroa, "ba-(...) ere" egitura eta abar] erabil daitezke "berdin izan"en osagarri.

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "berdin izan" sarrera.

Data: 2001/11/05

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Bildu, bilera: bileran egon / bilduta egon**Galdera:**

"Bildu" aditzarekin, erabil daiteke "bilduta daude" egitura: alegia, jendea bilera batean dagoela adierazteko? Pertsonak "bilduta" egon daitezke?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du ezer erabaki horretaz; baina "bilduta egon" egiturak gaztelaniazko "estar reunido" esapidearen kalko ustela dirudi eta, beraz, erdarakada nabarmena (non eta ez den esan nahi "estar recogido"). Hortaz, "bileran egon" erabiltzea izango dugu egokiena.

Data: 2001/09/25

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Ezinezkoa da / ez du lasaitzerik**Galdera:**

Zuzentzat ematen al dira "urduri baino urduriago dago, ezinezkoa da bera lasaitzerik" eta "urduri baino urduriago dago, ez du lasaitzerik" esaldiak? Zer alde dago batetik bestera?

Erantzuna:

Lehendabiziko perpausa ez da zuzena, ez "lasaitu" aditzaren erabilera iragankorrean, ez eta iragangaitzean ere: "lasaitzea" behar du. Beraz, "urduri baino urduriago dago, ezinezkoa da bera lasaitzea".

Bigarren perpausa ondo legoke "lasaitu" aditzaren erabilera iragangaitzean. Erabilera iragankorrean ("guk hura lasaitu") ez litzateke egokia.

Data: 2001/05/25

Erantzulea: Beñat Oihartzabal, Jesus Mari Makatzaga

Ezintasuna: ezin dut, ezin dezaket, ez dezaket

Galdera:

Zein da ondorengo hauen artean formarik egokiena: "ezin dut hori egin / ezin diot ulertu / ezin dezaket hori egin / ezin diezaioket ulertu / ez dezaket hori egin / ez diezaioket ulertu"?

Erantzuna:

Ezintasuna adierazteko forma horiek guztiak dira zuzenak eta egokiak. Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak*, EGLU, II liburukian, "15.4.2. Ezina" atalean (ikus 461. or.), Gramatika batzordeak honela dio: "... perifrasi egitura oinarriz hartu eta "ezin" erasten zaio ("ezin naiz etorri", "ezin dut egin", adibidez). Ahalezko adizkiekin eta "ahal" daramatenekin "ez" soila ere erabiltzen ahal da ("ez dezaket egin", adibidez), "ezin" eta guztiko erabilera ("ezin dezaket egin") lehenagokotzat jotzen bada ere."

Data: 2001/06/14

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Izena + *egin* aditzarekin, *arazi* ala *eragin*?

Galdera:

Izenez osatzen diren aditzetan (hitz egin, barre egin...) zein erabili behar dugu, *arazi* ala *eragin*? Noiz bata eta noiz bestea?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du arau orokorrik eman **izena** + *egin* egiturako aditzen forma arazleaz. Praktikan, ordea, biei zabaldu die atea: *hitz* sarreran, bi azpisarrerok aurkituko dituzu *Hiztegi Batuan*: *hitz eragin* eta *hitz eginarazi*. Ostera, *barre*, *lan* eta *negar* sarreretan *barre eragin*, *lan eragin* eta *negar eragin* baino ez da sartu. Horiek ikusirik, ez da zalantzarik **izena** + *eragin* badela euskara batukoa; baina ez dut uste **izena** + *eginarazi* baztertua geratzen denik, *hitz eginarazi* azpisarrera hor dago-eta.

Data: 2001/05/04

Erantzulea: Miren Azkarate

Jakin: jakin badakit / jakin dakit

Galdera:

Zein da egokiagoa, "jakin dakit" ala "jakin badakit"?

Erantzuna:

Teorian behintzat, *jakin dakit* eta *jakin badakit* ez dagozkio egitura berari. Lehen kasuan aditza galdegai gisa hanpatua da; eta bigarrenean, mintzagai gisa.

Egia esan, aditza modu horretan adizkera trinkoekin galdegai gisa hanpatzea

itzuli markatua da eta gutxitan baliatua, bereziki jakin aditzarekin; adibide gutxi dira *Orotariko Euskal Hiztegiaren* literatura korpusean. Hona biga:

- Azkengabe jakintsu ta egiaren iturri zeran jaun aundi orrek, gauza guztiak **ezagun dezaguzkizu** ta egi guztiak **jakin dakizkizu** (Izenik gabea, *Gasteizko elizbarrutiko katixima*).
- Arras erreza ei zan izarren egitea eta **jakin zekian** berak, bainan orduan lan egin behar zuan (Oskillaso, *Kurloiak*)

Aditza mintzagai gisa hanpatzea, berriz (alegia, *jakin badakit*), egungo euskararen bederen, errazago egiten dela dirudi.

Data: 2001/05/25

Erantzulea: Beñat Oihartzabal

kapaz izan

Galdera:

Nola esan behar da pluralean, "kapazak gara" ala "kapaz gara"?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak argitaratutako *Orotariko Euskal Hiztegiaren* (ikus X. liburuko 414. or.), "kapaz" sarreraren, adibide hauek datoz (denak ere "kapaz" soilaren egokitasunaren lekuko):

- Artuteko kapaz gara / gu onen industria (*Bertso Bizkaitarrak*, 12. ahapaldia) (1688)
- Gu kapaz gaituk Josapateko zelaian sartzeko be (Kirikiño, *Abarrak*, II, 169. or.)
- Andre bana mantentzeko / kapaz ez geranak (Uztapide, *Lengo Egunak Gogoan*, I, 50. or.)
- Sakrifizio handien egiteko aihar (kapaz) [ziren] (Pierre Lafitte, CEEN 1973, 130. or.)

Data: 2001/08/08

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Nahi izan: *nahiago dut ez egin / bihar nahiago dut joan*

Galdera:

NAHIAGO erabiliz gero, berau NAHI aditza bezala erabili behar omen da. Erabilpen arrunta, ordea, bestelakoa da. Izan ere, hau bezalako perpausak esan ohi ditugu: *bihar nahiago dut joan*. Adibide horretan ez daukat zalantzarik, araua betetzen baita; nire zalantza, ordea, ezezko perpausak egiterakoan dator. Esate baterako, zuzena al da *nahiago dut ez egin* (baiezko perpausa)? Edo *ez dut egin nahiago* (ezezko perpausa) esan behar da?

Erantzuna:

Erantzuna (J. R. Zubimendi, JAGONETen arduraduna)

Zalantza bikoitza ageri zait zure galderan, eta bitan erantzungo dizut.

Batetik, *nahiago dut ez egin* zuzena da; baina *ez dut egin nahiago* okerra da. Bestetik, *bihar nahiago dut joan* bezalako esaldietako hitzen ordenarekin arretaz jokatu behar da; bestela, ordena aldatzean, esanahia ere aldatu egiten baita. Begira nola (samurrago ulertzeko, *lan egin* aditza erabiliko dut hurrengo adibideetan):

Bihar nahiago dut lan egin (greba egin baino).

Bihar lan egin nahiago dut (gaur lan egin baino).

Dena den, eta galderari gune ilun bat ere ikusten diodanez, Gramatika batzordeko lankideen iritzia ere azalduko dizut, ea auzi hau gehixeago argitzen dugun.

Erantzun osagarria (Beñat Oyharçabal, IKER sailburua)

Ezezkoetan du arazoa galdegileak. Halakoetan, Joxe Ramonek esan bezala, gaizki dago *ez dut egin nahiago*. Horrelakoetan, ezeztapena beti doa perpaus osagarrian, eta ez perpaus nagusian. Beraz: *nahiago dut ez egin* zuzena da, eta *ez dut egin nahiago* okerra da.

Kontrakoa gertatzen da NAHI IZANekin. Honekin, ezeztapena aditz nagusiarekin doa: *ez dut egin nahi* zuzena da, baina *nahi dut ez egin* okerra da. Semantikoki EZ DUT EGIN NAHI eta ??NAHI DUT EZ EGIN desberdinak dira, baina hizkuntza naturalean hauturik ez da (erdaraz ere ez : ??je veux ne pas travailler, ??quiero no trabajar).

Bigarrenean ere arrazoi guztia du Joxe Ramonek hitz ordenarekin oso kontuz ibili behar dela esatean. Hala, ondorengo esanahi hauek bereizi nahi baditugu, hitz ordena bat edo bestea erabili beharko dugu:

Bihar nahiago dut joan (etxean geratu baino).

Nahiago dut bihar joan (etzi baino).

Bihar joan nahiago dut (etzi joan baino)??

Oharra (Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazkaria)

Azkeneko *bihar joan nahiago dut* eta gisakoetan, askoz ere arruntagoa da *nahiago dut* aditza perpaus osagarriaren aurretik ematea: *nahiago dut bihar joan*. Hala dirudi, behintzat, literatura corpuseko adibideen argitan. Ez nuke, hala ere, txartzat joko *bihar joan nahiago dut*; baina bai markatutzat.

Data: 2001/04/26

Erantzulea: Aipatutakoen iritziak

NOR-NORI-NORK adizkia, NOR 3. pertsona ez denean

Galdera:

NOR-NORI-NORK kasuetan, NOR hirugarren pertsona ez bada, nola osatzen da aditz laguntzailea? Adibidez: *Nik zu poliziari entregatuko...*

Erantzuna:

Egia esan, oso bitxiak dira egitura horiek euskaraz. Hain bitxiak, non literatura-tradizio osoan ia erabili ere ez baitira egin (eta ageri diren bakanak, literatura zaharrean ageri dira).

Aipatu, *Euskaltzaindiaren Arauak* saileko bigarren karpetan aipatzen da kasu

hori (ikus 683. or.). Adibide batzuk jasotzen dira han: *zuk ni hari eraman naitzu* eta abar.

Patxi Altunaren *Euskal Aditza. Batua? Baturakoa* liburuan (Etor, 1971) ere aipatzen da auzi hori (ikus 66. or. eta ondorengoak). Han esaten denaren arabera, Hegoaldean ez dira jaso Azkuek Arratian entzundako hiru formak besterik (eta literatura idatzian, bat ere ez). Iparraldean, berriz, 15 agerraldi aipatzen ditu Altunak (horietatik 13, Leizarragaren testuetakoak). Adibide bat ere aipatzen du Altunak pasarte horretan: *Txominek ni hartu eta alkate jaunari eraman...* kasuan, aditz laguntzailea **N-A-U-KIO** edo horrelakoren bat litzatekeela dio.

Objektua 3. pertsona ez den kasu horietarako ez dago paradigmatik: *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, II* liburukian ez dira jaso. Baina, dirudenez, erabili behar handirik ere ez dago. Altunak berak dio normal-normalena dela objektua ia beti ZERBAIT izatea, eta ez NORBAIT.

Objektua 1. edo 2. pertsona bada, bestelako egitura batzuetara jotzea da ohiko baliabidea. Datiboko sintagma kentzea, adibidez: *Txominek alkatearen aurrera (alkatearengana) ekarri nau, Poliziaren eskuetan utziko zaitut, Komisaldegira eramango zaitut* edo horrelako zerbait.

Data: 2001/03/28

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Aditzen erregimena (*Lexikoa*)

entzun

Galdera:

Hiztegi Batuan ageri denez, **entzun** aditza *du* sailekoa da. Hortaz, *nik Urliari entzun diot kontu hori* egitura okerra da?

Erantzuna:

Ez, ez da okerra; *nik Urliari entzun diot kontu hori* egitura zuzena da. Egia da **entzun** aditza *du* sailekoa dela; baina Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegiak* (ikus VI. lib. 685. or.) honako lekukotasun hauek dakartza "*aditu diogu erraten, entzun diogu esaten, amari entzun diot eskualdun kanta bat...*" azalpen orokorraz gainera:

"Para "escuchar a alguien" los septentrionales usan exclusivamente el auxiliar transitivo bipersonal [*du*]; al Sur, desde mediados del siglo XIX, se emplea generalmente el tripersonal [*dio*], aunque parece que hasta esa época alternaban ambas construcciones (a menudo en un mismo autor), si bien predominando los ejemplos del tipo *entzun nauzu* sobre los del tipo *entzun didazu*. Para *-t(z)en entzun*, mientras al Sur encontramos sólo ejemplos con auxiliar transitivo tripersonal [*dio*], al Norte hallamos tanto *hori erraiten entzun diot* como *hori erraiten entzun dut*, abundando más tal vez el segundo tipo".

Hona datiboaren erabileraren adibide batzuk:

- *Gure legeak gaitzesten al du iñor, berari entzun gabe?* (Iraizoz)
- *Ari entzun ondoan, kezka aunditan yartzen zan* (Iraizoz)
- *Aitari entzun ta argandik ikasten duen edozein nigana etortzen da* (Iraizoz)

- *Neri entzun didatenai galdegiezu zer esan diedan (Iraizoz)*
 - *Neri entzun balit buru gogor arrek, ez genduan orain orrelako penarik izango (Zabala)*
 Bestalde, zuzenak dira *ni Euzkitze bertsotan entzunda nago, ni Euzkitzeri halako bertso entzunda nago, ni Euzkitzeren halako bertso entzunda nago* eta gisakoak.

Data: 2007/03/08

Erantzulea: J. R. Zubimendi, JAGONETen arduraduna

erantzun, ihardetsi (galdera/galderari erantzun)

Galdera:

Hiztegi Batuan ageri denez, erantzun aditza du sailekoa da (baita ihardetsi aditza ere). Hortaz, nik galdera erantzun dut esateaz gainera, nik zu erantzun zaitut esan behar dugu? Zuzenak al dira nik galderari erantzun diot, nik zuri erantzun dizut eta abar?

Erantzuna:

Bai, egia da **erantzun** eta **ihardetsi** aditzak, *du* sailekoak izateaz gain, *dio* sailekoak ere badirela. Gainera, *nik galderari erantzun diot* da gehien erabiltzen den forma.
Zuri erantzun dizut perpausari dagokionez, horixe da zuzena eta egokia; eta ez **zu erantzun zaitut*, bigarren egitura hori okerra baita.
 Baina *nik galderari erantzun diot* eta *nik galdera erantzun dut* zuzenak dira biak. Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegian* esaten da *galderari erantzun* dela ohikoena (ikus VI. lib. 773. or.): "En cuanto a su comportamiento sintáctico, encontramos algún ejemplo aislado del tipo *galdera erantzun* (Iraizoz, Mitxelena), pero la forma habitual es *galderari erantzun*."

Data: 2008/10/20

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

erdu

Galdera:

Bizkaierako erdu aditz arkaikoa pluralean erabil daiteke? Zuzena da erdu danok esatea?

Erantzuna:

Bai, zuzena da erdu danok esatea eta mintzakide pluralekoekin ere erabiltzea erdu aditza. Hona, horren erakusgarri, Orotariko Euskal Hiztegiko eta Ibon Sarasolaren Euskal Hiztegiko adibideok:

- *Erdu bijok ara (J.A. Mogel, Peru Abarka)*
- *Erdu, goazan guztiok lorakaz aldra baten (E.M. Azcue, Parnasorako bidea)*
- *Erdu, erdu gizon guztiok, handi eta txiki (Ibon Sarasola)*

Hala ere, Orotariko Euskal Hiztegian honako hau esaten da:

"En la mayoría de los ejemplos atestiguados, la forma **erdu** hace referencia a la segunda persona del singular. Emplean **erdu** tanto para el singular como para el plural J.J. Moguel, Añibarro, Astarloa, J.A. Moguel y E.M. Azkue. Sin embargo Astarloa, J.A. Moguel y Añibarro alternan para el plural **erdu** y **erdu(b)e**. Siguen el sistema **erdu** (singular) / **erdue** (plural) Arrese Beitia, Iturzaeta, K. Enbeita y E. Bustinza. La forma **erduze** para el plural, la encontramos en F. Bilbao y S. Mitxelena".

Data: 2008/10/20

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

gehitu

Galdera:

Zuzena al da lana izugarri gehitu zait esaldia?

Erantzuna:

Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan ageri denez, **gehitu** aditza da eta du sailetakoa da; baina, zaio sailekoak izan arren, zuzentzat dauzkat nik lana izugarri gehitu zait, zorrak gehitu zaizkio eta gisako esaldiak. Besteak beste, Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegian (ikus OEH, VIII. lib. 488. or.) aurkitu ditut **gehitu** aditza zaio sailean ere onartzearen aldeko lekukotasun hauek:

- itxumena geitzen edo azitzen zaie (Gerrico)
- geitu jakon itxaropena (Uriarte)
- Mendibururen euskal idazlanak bi halako gehitu zaizkigu orain (Mitxelena)

Data: 2008/10/20

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

gozatu

Galdera:

Zuzenak al dira jendea kirolaz gozaten da / jendeak kirolaz gozaten du / jendeak kirola gozaten du esaldiak? Hirurek esanahi bera al dute?

Erantzuna:

Hirurak zuzenak dira, bai; baina ez dute esanahi berbera. Hona nire ikuspegia:

Jendea kirolaz gozaten da esatean, **gozatu** aditzak "jendea gozoago, eztiago bihurtu" esan nahi du.

Jendeak kirolaz gozaten du esatean, **gozatu** aditzak "jendeak kirolaren atsegina bereganatu" esan nahi du.

Jendeak kirola gozaten du esatean, berriz, "kirolak bereganatuko luke jendearen atsegina".

Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegian aurkituko dituzu **gozatu** aditzaren gainerako adierak eta erabilerak (ikus OEH, VIII. lib. 820. or.).

Data: 2008/10/20

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

harritu

Galdera:

Zuzenak al dira harritzen naiz horrela izatea, harritzen naiz horrela izateaz, harritzen nau horrela izateak esaldiak? Eta harritzen zait horrela izatea zuzena da?

Erantzuna:

Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan ageri denez, **harritu** aditza da eta du sailetakoa da: hori da araua. Beraz, ontzat ematekoak dira galderaren hasierako hiru esaldiak.

Baina harritzen zait formari dagokionez, erabilerak erabilera, ez dirudi euskara baturako gomendatzekoa denik harritzen zait horrela izatea egitura: tradizio idatzian ez dago horrelakorik.

Tradizio idatzian agertzen dira NOR-NORI(-NORK) erakoak; baina objektua dutenak dira eta, seguraski, beste esanahi bat:

- Bihotza zait harritzen
- Satani bere bihotza diozu harritzen
- Harritzen darotazu osoki ene gorphutza

Data: 2008/10/20

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

itxaron (autobusari itxaron)

Galdera:

Zuzena al da autobusari itxaron behar diot esaldia?

Erantzuna:

Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan ageri denez, **itxaron** aditza dio sailekoa da "objektu biziduna denean" bakarrik (adib. Mireni itxaron diogu), gainerakoetan du sailekoa izanik (adib. itxaroten dut hilen piztuera).

Horren arabera, badirudi autobusari itxaron behar diot txartzat eman behar dugula; baina autobusa nolabaiteko biziduntzat har daitekeenez (berez mugitzen den ibilgailua delako), esaldi hori txartzat ematea desegokia iruditzen zait. Beraz, ez nuke esango okerra denik autobusari itxaron behar diot esaldia.

Gainera, Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiak (ikus IX. lib. 693. or.) honako argibide hau dakar **itxaron** sarreran: "el complemento va siempre en dativo si se trata de seres animados; por lo demás, el complemento suele ir tanto en caso absoluto como en dativo". Beraz, ontzat ematen da datiboa (NORI kasua) erabiltzea izen bizigabeekin.

Data: 2008/10/20

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

jarraitu, jarraiki

Galdera:

*Ba al da erabilera-desberdintasunik **jarraitu** eta **jarraiki** aditzen artean? Zeintzuk dira **jarraiki** aditzaren iraganeko forma trinko zuzenak euskara batuan? Zilegi da darraiote erabiltzea (Nor-nori-nork)?*

Erantzuna:

*1. Bai, bada desberdintasunik bien erabileran. Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiak (ikus X. lib. 109. or.) azaltzen duenez, **jarraiki** ekialdeko tradiziokoa da, batez ere; eta **jarraitu**, berriz, mendebaldekoa. Gainera, **jarraiki** iragangaitz moduan erabili izan da (DA eta ZAIO aditza); baina **jarraitu** bietara erabili izan da, iragangaitz nahiz iragankor moduan: XVIII. mendetik aurrera nagusitu da erabilera iragankorra mendebaldean (DU/DIO aditza). Horregatik hartu zuen Euskaltzaindiak arau maila duen Hiztegi Batuko erabaki hau:*

***jarraiki**, jarraikitzen. da/zaio*

***jarraitu**, jarrai(tu), jarraitzen. du/dio ad.: lanean jarraitu du; Jesusi jarraitu dio.*

2. Aditz trinkoei dagokienez, ez da erabili izan Nor-nori-nork paradigma, baizik Nor-nori paradigma. Euskaltzaindiaren argitalpenetan, bai Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, II liburukian (ikus 262. or.), bai Euskal Aditz Batua liburuan (ikus 105. or.), iraganeko adizki hauek jaso dira: NINDERRAION, HINDERRAION, ZERRAION, GINDERRAIZKION, ZINDERRAIZKION, ZINDERRAIZKIOTEN, ZERRAIZKION.

3. Gaur egungo araudiari jarraituz, darraiote erabili ordez, darraie erabili behar da (polizia lapurrei darraie).

Badira tradizioan darraiote bezalakoak; baina, gure irudirako, analogikoak dira, eta Nor-nori ereduari jarraitzen diote (bipertsonalak dira, eta ez tripertsonalak, OEHko terminologia erabilita). Hona Orotariko Euskal Hiztegitik hartutako adibide batzuk:

- Egizu kontu, egizu gogoeta ea zenbat urte dirian bekatuan zagozala ta bekatu egiteari darraiozula (Añibarro)

- Bestela, berba egiten dozun bitartean jakinik zagoz arrisku bildurgarrian bizi zareala, infernuko bide zabalari darraiozula ta azkeneko orduan estura larrian aurkituko zareala (Añibarro)

- Ontasunek, egitekoei darraioten barraiadurak, paganokeriak berak; hitz batez, deusek ere ez gaitzake gibela, gu nor bagare, sartzetik zeruan (Larreguy)

- Baiñan, ene semea, konsidera zazu nolakoa izanen den nekhe haukien fruitua, zeñ guti irauen duten eta zeñ sari handia darraioten (Chourio)

- Naturaleza lurreko gauzei darraiote, bozten da irabaziaz, tristatzen kalteaz, asarratzen eta sumintzen hitz ofensagarri batez (Chourio)

Horrez gainera, ikus JAGONETeko datu-base honetako jarraitu sarrera.

Data: 2008/11/28

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

jolastu, borrokatu (bizkaieraz)**Galdera:**

Bizkaieraz betidanik erabili dogu jolasten dogu, borrokatzen dogu. Txarto dago batuan?

Erantzuna:

*Euskaltzaindiak batasunerako arautu du **jolastu** eta **borrokatu** aditzak da sailekoak direla (ikus Hiztegi Batua). Beraz, **jolasten gara** eta **borrokatzen gara** dira egitura zuzenak.*

*Euskaltzaindiaren erabakiak euskalki guztietako erabilerak kontuan hartu ondoren arautzen dira. Beraz, argi balego, galdegileak dioen bezala, bizkaieraz aditz horiek trantsitiboak edo iragankorrak izan direla beti, orduan du sailean ere onartzekoak lirateke. Baina bizkaieraren tradizioa aztertuta ikusten da **jolastu** eta **borrokatu** aditzak da sailekoak direla bizkaieraz ere, nahiz eta **jolastu** aditza du sailean ere agertu adibide batzuetan.*

Hona Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiko bizkaierazko hainbat adibide:

jolastu DA

- Onekaz ikusbide eder guztiokaz, ondo jolastu oi-dira ondartzan bizi direanen begiak eta ikusmenak (Echeita)

- Biriamonean bere, batu zan Mati, Eladi ta onen lagunaz, da etzan aldendu eurakandik: jantzan-be egieban biakaz, da ondo jolastu zan arratsalde guztian (Echeita)

- Ollo edo txitaren bat eskuan eballa jolastu oi zan egunaro (Echeita)

- Alaitu ziran gure gaztiak; Etzan entzuten besterik: Jainkua geugaz daukogu eta Jolastu gaizan azkerik (K. Enbeita)

- Tanbolin-txistu alai gozoan lenago ziran jolasten, gaur eguneko dantza loturik ez eben ontzat artutzen; ondiño geiau: pekatu-pean jolas au eben zigortzen (B. Enbeita)

- Baratz eder-ederrenian Azke bizi zan Usoa, Alai, pozik kantau ta egaz, Jolasten zala naikoa, Lapurtzar bik gau illunian Arrapau eben gaixoa; Basamortu itzal bat orain Da bere bizi lekua (K. Enbeita)

jolastu DU

- Udagaien da neguan, olga edo jolastu oi eban, bere lagunaka, pelotan, da beste asmo askotan, etxeratu bear ebanarte (Echeita)

- Nire aittamak eztabe nai, Josetxo, nik zugaz jolastu daittan; baña zugandik alhenduta ibilli-arren, beti izango naz lengoa (Echeita)

- Umetzaroa barriz ez dot ikusiko, maite ninduen ama gaur be dot gogoko; mutil koskorretan lez ez dot jolastuko, Uzparitxa ez daukat aztuta uzteko (B. Enbeita)

- Zure atzeko mendi goiko tontorretan azke jolasten neban mutil koskorretan; amak dei egin arte beti jolasetan, gomuta asko gabe munduko gauzetan (B. Enbeita)

***Borrokatu** aditzaren adibide bakarra aurkitu dugu bizkaieraz (eta iragangaitza da):*

- Martizdi azkarrakaz burrukatu baaz ator bildur bagarik gudatuten geugaz (F. Mateo Zavala)

*Ikus, gainera, Orotariko Euskal Hiztegian (V. lib. 521. or.) **borrokatu** sarrera. Badira aditz-lokuzioak ere, tradizioan asko erabiliak; baina horiek,*

lokuzioaren egituragatik beragatik, erabilera iragankorra dute: JOLAS EGIN DU, BORROKA EGIN DU, BORROKAN EGIN DU.
Horrez gainera, ikus JAGONETeko datu-base honetako jolas sarrera.

Data: 2008/10/27

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

operatu (ebakuntza egin)

Galdera:

*Nola erabili **operatu** aditza? Zuzenak al dira bihotzetik operatu dute, hankan operatu dute esaldiak?*

Erantzuna:

*Euskaltzaindiak batasunerako arautu du **operatu** aditza du sailekoa dela (ikus Hiztegi Batua). Beraz, gaixoa operatu dute da egitura zuzena.*

*Ebakuntzako gorputz-atala aipatzeko, **-(e)TIK** atzizkia erabiltzen da (ablatiboa):*

- Boxeolaria izan nahi badu, operatu egin beharra zeukak sudurretik (B. Atxaga)

- Gernu debeketik operatu dute / Eria bihotzetik operatu (Ibon Sarasola)

- Urdaitetikan egin zizuten sekulako ebakuntza (Uztapide)

Beraz, zuzena da bihotzetik operatu dute esaldia.

Galderan aipatzen den hankan operatu dute bezalakorik ez da ageri literatura-tradizioan. Inesiboa erabiltzekotan, aditz-lokuziora joko nuke: hankan egin diote ebakuntza, hankan egin diote operazioa.

Beste egitura hau ere aukeran dugu: hanka operatu diote

- Begirik txarrena operatu zioten (X. Olarra)

Horrez gainera, ikus JAGONETeko datu-base honetako operatu sarrera.

Data: 2008/10/22

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

uste izan (ikusi uste du)

Galdera:

Zuzena da ezbaian jarri uste banauzu esaldia?

Erantzuna:

Zuzena da, bai, eta arrunta da egitura hori, literatura-tradizioko adibide hauek erakusten duten bezala: ekarri uste du; ikusi uste du; erabaki uste dutenen iritziak; horrelako zerbait irakurri uste dut...

Data: 2008/10/20

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

gustatuko litzaidake eta gustatzen zait

Galdera:

Zer alde dago gustatuko litzaidake eta gustatzen zaiten artean izaeran edo erabileran?

Erantzuna:

Lehena, gustatuko litzaidake, baldintza baten geroaldiko ondorio hipotetikoaren denean edota kortesiazko erabileretan eman daiteke; bigarrena, gustatzen zait, berriz, indikatiboko orainaldi ez-burutua da.

Data: 1999/01/07

Erantzulea: Gramatika batzordea

ihardun/jardun**Galdera:**


Zein da forma zuzena, ihardun ala jardun?

Erantzuna:

Jardun da batasuneko, Hiztegi Batuan jasotakoa.

Data: 2000

Erantzulea: Araua

**lagundu****Galdera:**

(39. araua)

Lagundu Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork egin daiteke, baina gomendatua dago semantikoki bereiztea bi esanahiak?

Erantzuna:

Ez dago halako gomendiorik; Iparraldean Nor-Nork bezala erabili baita bi adieretan, eta Hegoaldean Nor-Nori-Nork bezala.

Data: 1996

Erantzulea: Araua

menperatu**Galdera:**

Euskara menperatzen du perpausa gramatikaltzat jotzen al duzue?

Erantzuna:

Bai.

Data: 2000/03/02

Erantzulea: Gramatika batzordea

-tzea (egin/egitea)

Galdera:

Zuzenak al dira ondorengo hauek?

Nik lana egin dut.

Nik zuk lana egitea nahi dut.

Nik lana egin nahiago dut.

Nik lana egitea nahiago dut.

Nik zuk lana egin nahiago dut.

Nik zuk lana egitea nahiago dut.

Erantzuna:

Nik lana egin dut. (Zuzena)

Nik zuk lana egitea nahi dut. (Zuzena)

Nik lana egin nahiago dut. (Zuzena)

Nik lana egitea nahiago dut. (Zuzena)

Nik zuk lana egin nahiago dut. (OKERRA)

Nik zuk lana egitea nahiago dut. (Zuzena)

Perpauk nagusiko subjektua eta mendeko perpausekoa erreferentzikide direnean (subjektua bietan bera denean), ohikoena partizipioa erabiltzea da (nik lana egin nahi dut, nik lana egin nahiago dut). Hala ere, zenbait hiztunek -tzea aditz-izena erabiltzen dute (nik lana egitea nahiago dut).

Data: 1999/05/05

Erantzulea: Gramatika batzordea

-(e)kin + aditza

Galdera:

Zapuztu beharrekoak al dira "gai honekin bukatu", "euliekin amaitzeko", "gai horrekin jarraitu" eta antzekoak?

Bestetik, -ekin gelditu, halako orduan gelditu onargarriak dira?

Azkenik, -ekin ahaztu onargarria da?

Erantzuna:

a) Hiztegi Batuan ez da horrelakorik ageri. Literaturan ageri diren bizitza heriotza gaizto batekin bukatu eta horren antzekoetan, -kin adizlagunak beste zerbait adierazten du, noski. Beraz, erabilera berriak dira hor aipatzen direnak; eztabaidatu gabe dugu zein maila eman, onartu ala baztertu.

b) -ekin gelditu, halako orduan gelditu eta horrelakoak Sarasolaren Euskal Hiztegiaren gelditu aditzaren sarreran jasotzen dira, Hegoaldeko marka emanik. 1855. urtea ematen da lehen agerraldiaren urtetzat.

c) -ekin ahaztu onargarria da Hegoaldean, -z ahaztu erabileraren pareko. Ahaztu sarreran ez du honetaz ezer esan Euskaltzaindiak.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

-(e)la + aditza

Galdera:

Adibidez:

-(e)la informatu/mehatxatu

Erantzuna:

Sarasolaren Euskal Hiztegiak ez du -(e)la informatu/mehatxatu jasotzen. Gramatika eta Hiztegi Batuko batzordeek aztertuko dute aditz hauen erregimena nolakoa den. Nolanahi ere, Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU), V liburukiak azalpen luzea dakar konpletiboez.

Data: 2000

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

-(r)en galde(a) egin

Galdera:

Zuzena al da Txominen galde egin du esatea?

Erantzuna:

I. Sarasolaren Euskal Hiztegian jasotzen da -(r)en galde(a) egin. Beraz, ongi dago horko adibidea.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

aldatu

Galdera:

Kotxez aldatu naiz esaten badugu, zergatik esan behar da ideiaz aldatu dut? Zein erregimen erabili behar da aldatu aditzarekin?

Erantzuna:

Aldatu aditzaren erabilera ohikoena kotxea aldatu dut da (ikus Euskal Hiztegia): osagarria absolutiboan, alegia. Baina har dezake -z osagarria ere (ikus Euskal Hiztegia eta Orotariko Euskal Hiztegia).

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

bakean utzi, berdin izan***Galdera:***

Bakean utzi zer da: Nor-Nork ala Nor-Nori-Nork? Alegia, utz nazazu bakean ala utzidazu bakean?

Bestalde, berdin izan nola jokutzen da: berdin dit ala berdin zait?

Erantzuna:

Orotariko Euskal Hiztegia ikusirik, oro har, Mendebaldean bakean utzi zion erabiltzen da (Nor-Nori-Nork), eta Ekialdean, bakean utzi zuen (Nor-Nork):

*Agindu zion, bai, haren arrebari bakean uzten bazion, hark ere utziko ziola hari (Orixe)
Lehen Antiochus hark bakean utzi bazituen Juduak...
(Zerbitzari)*

Batasunerako ez da ezer hobetsi. Kontuan izan, lehen ere onartu direla euskalkien araberrako erregimen bikoitzak, lagundu, deitu eta beste aditz batzuekin. Beraz, biak dira onargarri, bai utz nazazu bakean eta bai utzidazu bakean.

Bestalde, berdin izan, tradizioko datuak ikusirik, laguntzaile batekin baino gehiagorekin erabiltzea onartu da batasunean.

Hiztegi Batuan, honela ageri da:

berdin izan da/zait/zaio ad.; du/diot/dio ad.

Data: 1999

Erantzulea: Arauaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

begiratu***Galdera:***

Begiratu zer da: Nor-Nork ala Nor-Nori-Nork?

Erantzuna:

Begiratu dio = so egin dio Nor-Nori-Nork (ikus Hiztegi Batua).

Begiratu du = zaindu, gorde, jagon egin du Nor-Nork (ikus Hiztegi Batua).

Data: 2000

Erantzulea: Araua

bihurtu***Galdera:***

Jakin badakigu Emakume ederra bihurtu eta Emakume eder bihurtu bezalako esaldiak egokiak direla; baina badirudi Euskaltzaindiak ontzat ematen dituela Emakume eder bat bihurtu bezalakoak ere. Horrela al da?

Erantzuna:

[40. arauaren](#) testuan aipatzen diren adibideek nahasmena sortu dute, antza denez; izan ere, bat daramaten adibideak badaudela adierazi nahi izan da, baina inola ere ez forma horiek gomendatu. Adibide-sorta hori, bihurtu aditzaren predikatu osagarria mugaturik ere erabili izan dela erakusteko zen batik bat. Beraz, emakume eder(a) bihurtu edo bihotz sendoko gizon(a) bihurtu.

Data: 1996

Erantzulea: Araua

bukatu

Galdera:

*Badago esaterik:
Hitz egiten bukatu du
Hitz egitea bukatu du
Idazten bukatu dugu
Idaztea bukatu dugu?*



Erantzuna:

Orotariko Euskal Hiztegian honako adibideok aurkitu ditugu:

*Amak bukatu zuenean garbitzez, hartu zuen palangana...
Esatez bukatu baino lehen
Jaten bukatu arte
Belen mintzatzen bukatu zenean...
Arrautza jatez bukatu rik
Horiek dira tradizioa dutenak. Ez da araurik eman,
batasunerako egitura jakin bat gomendatuaz.*

Data: 1999

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

darraia ala darraio?

Galdera:

*Horrek bere horretan darrai bezalako esaldietan "darrai"
forma trinkoak onartzen du Nor-Nork erregimena?*

Erantzuna:

Aditz batuko formak ematean, Euskaltzaindiak darraio arautu

*zuen, hau da, jarraiki aditzari dagokion forma trinkoa (Nor-Nori motakoa).
Datiborik (Nori sintagmarik) ez dagoenean azken urteotan erabili den darrai berria da, eta ez da horretaz ezer esan. Dena den, bere horretan jarraitzen du ere lasai esan daiteke, forma berririk sortu beharrik gabe.*

Data: 2000

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

ebatu/oratu

Galdera:

Zein da ebatu aditzaren erregimena?

Erantzuna:

Forma dialektala da ebatu, eta hobestekoa da Bizkaiko oratu forma (heldu); dio ad.

Data: 1996/04/09

Erantzulea: Hiztegi Batuko lantaldea

errukitu, damutu, damu izan

Galdera:

Aditz horiek zein erregimen behar dute: damutu naiz, damutu zait, damu izan naiz, damu izan zait...?

Erantzuna:

Damutu naiz / damutu zait, biak onartu ditu Euskaltzaindiak. Damu izan: damu dut nagusia; damu zaio askoz gutxiagotan ageri da.

Errukitu da ematen du Hiztegi Batuak (beraz, errukitu zaio ere erabil daiteke, literatura tradizioan behin baino gehiagotan ageri den bezala).

Data: 2000

Erantzulea: Arauaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

etorriko dela / etortzea + aditza

Galdera:

Adibidez:

etorriko dela espero dut / etortzea espero dut

Erantzuna:

-(e)la espero izan bai; nominalizazio adibiderik ez dator ez Mitxelenaren ez Sarasolaren hiztegieta.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

existitu, eboluzionatu, entrenatu...**Galdera:**

Aditz horiek (existitu, eboluzionatu, entrenatu...) Nor ala Nor-Nork dira? Existitzen dut ala existitzen naiz?

Erantzuna:

Existitu da dator Hiztegi Batuan. Entrenatu, berriz, du bezala erabiltzen da; nahiz ez den Hiztegi Batuan sartu. Eboluzionatu ere ez da sartu, baina badirudi hori ere du ad. dela.

Data: 2000

Erantzulea: Arauaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

-gatik + aditza**Galdera:**

Adibidez:

-gatik ari izan (nigatik ari zara).

Erantzuna:

Ez dago argi zein den zalantza. Orotariko Euskal Hiztegiak badakartza Chourioaren eta Duvoisinin adibideak, baina -gatik "por causa de" adieran, jakina:

Lan hori hartzen dutenek bazkagatik egiten dute gehienek. Ez dira gerokoagatik ari.

Ari izan "ocuparse de, tratar (sobre)" adieran, instrumentalarekin ageri da gehienetan. Adiera honi badagokio zalantza, hobeto aztertu beharko da zein leku izan dezaketen nigatik ari da bezalakoek, nitaz ari da egituraren ondoan.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

gustatu

Galdera:

Zuzenak al dira esaldi hauek?
 Mendira joatea gustatuko litzaidake.
 Pastela gustatuko litzazuke.
 Mendira joatea gustatzen zait.
 Pastela gustatzen zait.

Erantzuna:

Bai, zuzenak dira eta horiek guztiak erabil daitezke; izan ere, gustatu aditzaren erregimenak biak onartzen baititu: izena nahiz aditz-izena.

Data: 1999/05/05

Erantzulea: Gramatika batzordea

hobe dut esan/esatea/esaten**Galdera:**

Hobe dut esan/esatea/esaten bezalako esapideetan zein erabili behar dugu? Zein kasutan bakoitza?

Erantzuna:

- a) hobe izan + partizipio iragana (subjektu erreferentziakideekin). Adibidez: hobe dugu isildu, lotsagarri gelditu baino.
- b) hobe izan + -tzea. Adibidez: hobe da ez izatea, gaizki izatea baino.
- c) hobe izan + -tzen ez dago adibiderik; ez da horrelakorik erabiltzen.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

ibili, NON ala NONDIK?**Galdera:**

Ibili aditza zein kasu da: NON ala NONDIK?

Erantzuna:

Non ibili zara? bezain zuzena da Nondik ibili zara? Hori Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU), I liburukian argiro azaldua dator:

"Bi balio ditu, besteak beste, ablatibo markak, euskalki batzuetan bederen: abiapuntuaz gain (etxetik etorri zen), barrena edo zehar ere esan nahi du: basotik etorri da, hots, basoan zehar edo barrena" (406. or.).

Lafitten gramatikan ere honela esaten da: "Pour répondre à la

question par où, on emploie les mêmes formes élatives. Ex.: il est passé de près, hurbildik iragan da" (354. or.).

Data: 1996/04/17

Erantzulea: Gramatika batzordea

irten, igo

Galdera:

Irtten du edota Igo du esan daiteke?

Erantzuna:

*Hiztegi Batuan esaten da **irten** da ad. dela; Bizkaian (eta Gipuzkoaren zati batean) **irten** (erten) du esan arren, euskalki mailako erabileratzat hartuko genuke.*

***Igo** ere da ad. dela esaten da Hiztegi Batuan.*

Data: 1999

Erantzulea: Araua

izan/ukan/eduki

Galdera:

Aliziak bikiak izan ditu (zuzen).

Aliziak bikiak ukan ditu (zuzen).

Aliziak bikiak eduki ditu (oker).

Erantzuna:

Araurik ez da eman. Orotariko Euskal Hiztegiak dioenez, aditz laguntzaile gisa izan ezik, izan/ukan erabiltzen diren testuinguru guztietan erabili da eduki literaturan, batez ere bizkaierazko testuetan. Beraz, tradizioari begiratu, ezin da esan bikiak eduki ditu oker dagoenik.

Data: 1999

Erantzulea: Araua

jarraitu eta segitu

Galdera:

Nola da: jarraitu zion/zitzaion eta segitu zuen?

Erantzuna:

Hiztegi Batuan: jarraitu du/dio: lanean jarraitu du; Jesusi

jarraitu dio. Hau da, "zeri/nori" jarraitu eta "zertan" jarraitu. Segitu dio (Heg.) eta du (Ipar.)

Data: 2000

Erantzulea: Araua

jarraitu, jarraiki, barkatu

Galdera:

Ni bideari jarraitu natzaio ala Nik bideari jarraitu diot? Edo biok ondo?

*Eta nola jokatu barkatu aditza:
Barka nazazu ala Barkaidazu?*

Erantzuna:

*Hiztegi Batuaren arabera, Nik bideari jarraitu diot da; izan ere, **jarraitu**, du/dio aditza baita, eta Ni bideari jarraiki natzaio; izan ere, **jarraiki** aditzaren erregimena, da/zaio baita. Bestalde, Hiztegi Batuan **barkatu** sarreran du ad. dela esaten da, baina kontuan izanik du ad. gehienek onartzen dutela dio laguntzailea ere, ezin da ondoriorik atera barkaidazu formaren desegokitasunaz. Orotariko Euskal Hiztegiko adibideak ikusirik, eta Sarasolaren Euskal Hiztegiak dioena ("pertsone bati dagokionean, dio ad."), barkaidazu (edo barka iezadazu) da forma jatorra, Hegoaldean behintzat.*

Data: 1999

Erantzulea: Arauaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

jokatu/jostatu, jolastu

Galdera:

*Belokik oso ondo jokatu zuen (zuzen).
Eugik oso txarto jostatu zuen (oker).*

Erantzuna:

*Eugi eta Beloki pilotariak izanik, eta pilota jokoa denez, jokatu egiten da, jakina; ez jostatu edo jolastu.
Horrez gainera, ikus datu-base honetako "joko" sarrera.*

Data: 1999

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

jolastu, bihurtu, behartu

Galdera:

*Jolastuko dugu ala Jolastuko gara?
Emakume eder bihurtu da ala Emakume ederra bihurtu da?
Ikustera behartu naute? ala Ikusten behartu naute?*

Erantzuna:

*Da ad. ematen da Hiztegi Batuan, **jolastu** aditzaren erregimentzat; beraz, Jolastuko gara?
Bestalde, **bihurtu** aditza dela eta, literaturako erabilerak aztertu ondoren, hala zioen Gramatika batzordeak:
"Predikatua izen soila denean arautzat eman daiteke mugagabea dela (eguna gau bihurtu da). Baina izena bestelako ingurukariz (hala nola, izenondo, izenlagunez, partizipioz, adjektibo superlatiboz nahiz konparatiboz, eta abar) janztean, araua joera hutsa gertatzen da eta mugagabearen orde z predikatua mugatua duten salbuespenak nahitaezkoak dira."
Hona aurkitutako adibideetako batzuk:*

*ornamentik ederrena bihurtu baita
emakumerik ederrena bihurtu ahal banendi
arnas huts-hutsa bihurtu banintz bezala
zure bizi moldea guretzat damugarriagoa
bihurtzeko
bihurtu ziraden buztin kolorekoak
bihurtu ziren demonio itsusi nazkagarriak*

Beraz, biak daude zuzen, bai emakume eder bihurtu da eta bai emakume ederra bihurtu da.

*Azkenik, **behartu** aditza dela eta, Hiztegi Batuko batzordeak erantzun hau eman zuen 1996an:*

"Behartu aditzaren konplementazio hedatuena -tzera da (adibidez, lana ongi egitera behartu zuten, ikus Orotariko Euskal Hiztegia)."

Data: 1999

Erantzulea: Arauaz gainerakoarena, Gramatika batzordea eta Hiztegi Batuko batzordea

jolastu, dantzatu, mintzatu, solastu...**Galdera:**

Zer dira naiz ala dut?

Erantzuna:

Hiztegi Batuan:

dantzatu: *arratsalde osoan dantzatu naiz (ez *dantzatu dut);
aurrekua dantzatu dut*

jolastu da ad.
mintzatu da ad.
solastatu da ad.

Data: 2000

Erantzulea: Araua

lagundu + dizut/zaitut

Galdera:

Zein da egokiena: lagunduko dizut etxera ala lagunduko zaitut etxera?

Erantzuna:

Biak dira egokiak, Euskaltzaindiaren [39. arauan](#) aditzera ematen den bezala.

Data: 2000/03/02

Erantzulea: Gramatika batzordea

mozorrotu

Galdera:

*Nola esan behar da: indio mozorrotu ala indioz mozorrotu?
 Galdera zein litzateke Nola mozorrotu zara? ala Zer mozorrotu zara?*

Erantzuna:

Galdera egokia Nola mozorrotu zara? litzateke, eta ez Zer mozorrotu zara?

Bestalde, -z mozorrotu (indioz mozorrotu) ala mozorrotu (indio mozorrotu) egituretako zein erabili den (erabili bada) jakiteko literaturako datuak begiratu beharko genituzke. Nolanahi ere, batzordearen ustez, -z mozorrotu bezalakoak berri samarrak dira, eta euskarak horren orde bestea egitura batzuk erabili izan ditu: hala nola, indio jantzita, indio jantzia, indio mozorroan, indio arropetan (iparraldean) eta abar. Mozorrotu aditza erabili izan da literaturan, baina esango genuke bakarrik agertzen dela gehienetan: mozorrotuta joan zen kalera.

Data: 1997/04/07

Erantzulea: Gramatika batzordea

oinarritu

Galdera:

Zertan oinarritzen zara hori esateko galderari nola erantzun behar zaio aditz bat erabiliz?

Erantzuna:

Gramatika batzordearen ustez, galdera horri erantzuteko bide arruntena eta erabiliena inesiboko kasu-marka duen izen sintagma bat erabiltzea da. Adibidez: Liburu horretan oinarritzen naiz esan dizudana esateko.

Aditz bat erabili behar izanez gero (beti ere gogoraraziz ez dela bide ohikoena) nominalizazioa erabili beharko genuke, inesiboko kasu-markarekin ere. Adibidez: esatean, entzutean, egitean ...

Data: 1998/10/21

Erantzulea: Gramatika batzordea

oparitu / opari egin eta opatu / opa izan**Galdera:**

Gramatikala al da oparitu aditza? Zuzena al da onena opatzen nau forma?

Erantzuna:

Bai, oparitu aditza gramatikala da, formarik ohikoena ez bada ere. Hori baino tradizio hobekoa da opari egin (zerbait norbaiti) forma.

Bestetik, opatu forma (opa izan bezala) dio ad. da ia beti. Hots: "zerbait norbaiti opatzen diot" moduko erabilerak ditu, eta ez du onartzen opatzen nau, zaitut, gaitu modukorik.

Data: 1995/12/05

Erantzulea: Hiztegi Batuko lantaldea

-t(z)ean, -t(z)erakoan, -t(z)ekoan, -keran**Galdera:**

Zein da forma zuzena, etortzean esango dizut ala etortzerakoan esango dizut?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du auzi horretaz araurik ez gomendiorik eman. Gramatika batzordeak, berriaz, Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, VII liburukian aztertuko ditu aditz jokatu gabeko mendeko perpausak. Oraindik ez dugu, beraz, horren inguruko irizpenik.

Nire iritziz, galderako adibide biak dira ontzat ematekoak. Euskalkien arteko aldea nahiz erabilera-ñabarduraren bat gorabehera (EGLU VII liburukian aztertuko dugu hori), badirudi ez dagoela alde handirik forma bien artean. Luis Villasantek zioen (ikus Sintaxis de la oración compuesta, 106. or.) "de sentido similar" zirela -tzean eta -tzerakoan, eta horiekin batera -t(z)ekoan eta bizkaierazko -keran.

Data: 2001/04/04

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

-t(z)ekotan, -t(z)ekotz

Galdera:

Noiz eta zelan erabili behar da -t(z)ekotan? Ba al da araurik?

Erantzuna:

Ez, ez dugu forma horri buruzko araurik, eta Euskaltzaindiaren gramatika oraindik ez dira aztertu aditz jokatugabedun mendeko perpausak (Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, VII liburukian bilduko dira).

Hiru balio nagusi, behintzat, ikusten dizkiogu -t(z)ekotan formari: baldintza, helburua eta kontzesioa.

Baldintza

Luis Villasantek, *Sintaxis de la oración compuesta* liburuan, -t(z)ekotz aztertzen ari delarik, "de sentido similar" dela dio -t(z)ekotan ere; baldintza balioa duela, alegia. Koldo Mitxelenak ere hala dio liburu horretako oinohar batean (186. or.): "-t(z)ekotz es nuestro -t(z)ekotan. Hay algo elidido: kontu(t)an." Hona tradizioko adibide batzuk eta geuk asmatutako beste batzuk:

- Ematekotan, nik Luisi emanen nioke aritz-abarra. (Gaztelu, *Musika ixilla*, 30. or.)

- Niork jakitekotan, gazte onek jakinen du. (S. Mendiburu, *Idazlan argitaragabeak*, 390. or.)

- Egitekotan, ondo egin.

- Emango dizut, baina berriro itzultzekotan.

Helburua

Villasantek helburuzkoen edo "finalen" artean sartzen ez badu ere, izan lezake helburu balioa ere -t(z)ekotan formak. Kontua da eliditutako hitza besteren bat ere izan daitekeela, kasu honetan ikusten den bezala; alegia, baldintza kutsua baino areago, helburu kutsua duen izenen bat: adibidez, asmo. Beraz, -t(z)ekotan, -t(z)eko (asmo)tan formatik eratorria litzateke.

Hona adibide batzuk:

- Etsaia badabila gure ingurutan, errabian bezala gu irestekotan. (S. Monho, *Poemak*, 90. or.)

- Antzara jokua astekotan zegon. (Y. Etxaide, Joanak joan, 90. or.)

- Jai hartzekotan gaude/gara.

Kontzesioa

-t(z)ekotan formari ere lokailua erantsiz gero, kontzesio balioa ere har dezake perpausak. Gauza bera gertatzen da -t(z)ekotz ere formarekin: "pero otras veces el sentido es más bien concesivo" dio Villasantek arestian aipatutako liburuan (ikus 195. or.).

Hona adibide batzuk:

- Istilluak izatekotan ere, ez dira nik alde zurretik uste eta beldur nuen bezain bortitzak izan. (K. Mitxelena, Idazlan Guztiak, MEIG, 2, 163. or.)

- Lasai, joatekotan ere, ez diot inori esango.

Azalpen zehatzagoak, esan bezala, EGLU, VII liburukian.

Data: 2001/04/26

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.



-t(z)en, -(e)z + aditza (egiten ikasi / eginez ikasi)

Galdera:

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Zein da forma zuzena, egiten ikasten da ala eginez ikasten da?

Erantzuna:

Aukera biak dira zuzenak; baina desberdinak, esanahiaren aldetik. Batetik, -t(z)en ikasi "ZERTAN ikasi" galderaren erantzuna da: esaterako, "igeri egiTEN ikasten ari naiz".

Bestetik, -(e)z ikasi "NOLA ikasi zerbait egiten" galderaren erantzuna da: adibidez, "uretari sartuZ, besoak mugituZ eta oinei eraginEZ ikasten da igeri egiTEN" edo "taka-taka ibiliZ ikasten da oinez ibiltZEN".

Data: 2001/04/04

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

-tzat eman/jo

Galdera:

Badakit, jakin, galdutzat eman, jo... eta halakoak zuzenak direla; baina zuzendutzat eman, zuzendutzat jo, egintzat eman, amaitutzat eman eta horiek ere ondo dagoz?

Erantzuna:

Bai, zuzenak dira galdutzat, amaitutzat, zuzendutzat, egintzat eta gisakoak eman eta jo aditzekin.

Data: 2001/05/03

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

-tzea, -tzen eta -tzera**Galdera:**

Erraza da eskalatzea = erraza da eskalatzen?
Konpontzen saiatu da = konpontzera saiatu da?

Erantzuna:

Erraza da eskalatzea "escalar es fácil" esateko ondo dago; orobat, mendi hori eskalatzea erraza da. Baina erraza da eskalatzen ezin da izan "escalar es fácil"; bai, ostera, mendi hori erraza da eskalatzen. Laburbilduz, badirudi:

-tzea erraza da (irakurtzen ikastea erraza da)
zerbait -tzea erraza da (liburu hori irakurtzea erraza da)
zerbait erraza da -tzen (liburu hori erraza da irakurtzen)

Azken adiera horretan -tzeko ere erabiltzen dugu (liburu hori erraza da irakurtzeko).

Euskal Hiztegian ageri den bezala, -tzera saiatu gaur gutxi erabilia da; gaur erregimen nagusia -tzen saiatu da.

Data: 1996

Erantzulea: Patxi Goenaga eta Miren Azkarate (iritzia)

-tzea/-tzeko + aditza**Galdera:****Adibidez:**

-t(z)ea/-t(z)eko eskatu, agindu, exijitu
-t(z)ea/-t(z)eko/-t(z)era aholkatu, gomendatu.

Erantzuna:

a) -tzeko eskatu, agindu (ikus Euskal Hiztegia). Bestalde, Orotariko Euskal Hiztegiak badakar -tzea eskatu egituraren adibide bat. Gramatika batzordeak aztertuko du gai hau. Exijitu ez dator bi hiztegiotan; Euskaltzaindiak ere ez du sartu Hiztegi Batuan.

b) *-tzea eta -tzeko gomendatu ageri dira Orotariko Euskal Hiztegian; -tzeko bakarrik Euskal Hiztegian (gogoan izan I. Sarasolak erabilera nagusiak, maizenak, jaso dituela). -tzera aholkatu Ipar. eta -tzeko aholkatu (adibide bakarra Orotariko Euskal Hiztegian).*

Data: 2000

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

-tzen utzi / -tzera utzi

Galdera:

1994ko IHE 1eko "Aukera anitzeko galdekizun"etan honako hau agertzen zen:

Zergatik zaude hain haserre?

a) Ez zidatelako gaia azaltzera utzi

b) Ez zidatelako gaia azaltzen utzi

c) ...

d) ...

Erantzunetan ontzat ematen zen b) aukera. Ekialdeko euskalkietan -tzera da erabiltzen dena, beraz utzi-rekin -tzen erabili behar da beti ala biak erabil daitezke? Edo, non bata eta non bertzea?

Erantzuna:

Hiztegi Batuan, **utzi**, du ad. dela besterik ez da esaten.

Ibon Sarasolaren Euskal Hiztegian, utzi sarreran, (Ipar. eta naf. joatera utzi) ematen du. Beraz, euskaraz bi erregimenak dira zuzenak; eta Euskaltzaindiak bietatik bat hobesten ez duen bitartean, euskara baturako ere biak dira onargarri.

Data: 2000

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

-tzera/-tzen geratu, gelditu, ausartu

Galdera:

Egoki egina al da ondorengo adibideokin egin dugun "zuzen/oker" sailkapena?

Arotxanean geratu ginen afaltzera (oker)

Arotxanean geratu ginen afaltzen (zuzen)

Arotxanean sartu ginen afaltzera (zuzen)

Arotxanera sartu ginen afaltzera (zuzen)

Bestalde, nola da hurrengoa:

Ikustera/ikusten ausartu naiz?

Erantzuna:

Hiztegi Batuko batzordeak ez ditu sakon aztertu oraindik datuak. Gerta daiteke euskalkien artean erregimen desberdina izatea, honako adibide honek erakusten duen bezala:

*Behin ere gelditu gabe zuri gerla egitera
(Haraneder)*

Hurrengoa, euskalkien arabera: Ipar-Ekialdean -tzera ausartu da, eta Mendabaldean, berriz, -tzen ausartu. Batasunerako ez da aukerarik egin, bata hobetsiz. Beraz, zuzenak izateaz gain, euskara batuan biak erabil daitezke.

Data: 1999

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Aditz berriak: eskiatu**Galdera:**

Zein erregimen segitu behar dute aditz berriek? Esate baterako eskiatu, eskiatuko naiz/eskiatuko dut.

Erantzuna:

Horrako eskiatu hori du aditza da (ikus Hiztegi Batua).

Data: 2000

Erantzulea: Araua

Aditz jokatua + -danik atzizkia**Galdera:**

Gerraurreko liburu batean, bizkaierazko adizki bitxi batzuk aurkitu ditut, aditz jokatua + -danik atzizkia dutenak (zandanik, yakundanik, ebendanik...). Dirudienez, denborazko perpau mendekoen balioa dute.

Arruntak al dira? Euskara batuan lekurik izango al lukete?

Erantzuna:

Forma horiek, Gramatika batzordearen ustez, ez dira inondik ere arruntak eta ez dirudi euskara batuan lekurik izango luketenik gaur egun. Jakina da, bestalde, -danik atzizkia adberbioei atxekita erabiltzea dela ohikoena.

Data: 1999/05/05

Erantzulea: Gramatika batzordea

Aditzen erregimena: utzi/debekatu (sartzen utzi, sartzea debekatu...)**Galdera:**

Zuzenak al dira **sartu** aditza eta **utzi/debekatu** aditzak elkartuz sortutako esaldi hauek?

SARTZEN UTZI

- a) Ez didate utzi hor sartzea.
- b) Ez naute utzi hor sartzea.
- c) Ez didate utzi hor sartzen.
- d) Ez naute utzi hor sartzen.

SARTZEA DEBEKATU

- a) Debekatu egin didate hor sartzea.
- b) Debekatu egin didate hor sartzen.
- c) Debekatu egin naute hor sartzea.
- d) Debekatu egin naute hor sartzen.

Erantzuna:**SARTZEN UTZI**

- a) *Ez didate utzi hor sartzea: Okerra.
- b) *Ez naute utzi hor sartzea: Okerra.
- c) Ez didate utzi hor sartzen: Zuzena (utzi aditzak erregimen hori agintzen du: NORK-NORI aditza da erabilera horretan eta zertan utzi eskatzen du, -tzen alegia).
- d) *Ez naute utzi hor sartzen: Okerra.

Baina beste hau ere zuzena da iparraldeko tradizioan: Ez naute utzi hor sartzera.

SARTZEA DEBEKATU

- a) Debekatu egin didate hor sartzea: Zuzena (debekatu aditzak erregimen hori eskatzen du).
- b) *Debekatu egin didate hor sartzen: Okerra.
- c) *Debekatu egin naute hor sartzea: Okerra.
- d) *Debekatu egin naute hor sartzen: Okerra.

Baina beste hau ere zuzena da iparraldeko tradizioan: Debekatu egin naute hor sartzetik.

Ikus **debekatu** aditza Orotariko Euskal Hiztegian, (VI. lib. 52.-53. or.)

Data: 2001/03/12

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazkaria

Dokumentua: *Erlatiboaz eta utzi eta debekatu aditzen erregimenaz (irizpena) -*
<http://www.euskaltzaindia.net/jagonet/dok/Erlatiboaz1.pdf>

aldatu da/du

Galdera:

Zein forma dira zuzenak: "ni(k) neu(k) asko aldatu dut/naiz; harrezkero asko aldatu dira/dute gauzak/ek; iritziz aldatzen bazara/baduzu"?

Erantzuna:

Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuak dio aldatu aditzak "da" nahiz "du" laguntzaileak har ditzakeela. Zure galderako adibideak hartuta, hona egitura zuzenak:

Ni neu asko aldatu naiz.

Nik neuk asko aldatu dut langela.

Harrezkero asko aldatu dira nire lagunak.

Harrezkero nire lagunek asko aldatu dituzte gauzak.

Azkeneko "iritziz aldatzen bazara/baduzu" bietara jokatu da, noski.

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "aldatu" sarrera.

Data: 20011105

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

aukera izan (joan nintekeen, ikus nezakeen...)

Galdera:

Zer adierazten du joan nintekeen aditzak? Joateko aukera nuela, baina ez nintzela joan; ala, besterik gabe, joateko aukera? Edota ikus nezakeen esanez gero, zer: ikusi nuela ala ikusteko aukera izan nuela (nahiz eta gero ikusi ez)?

Erantzuna:

Jakina denez, joan nintekeen, ikus nezakeen eta horrelako aditz-formek adierazten dutena iraganeko aukera edo posibilitatea da. Esate baterako, etxea ikus nezakeen esaten dugunean, "etxea ikusteko aukera izan nuen" adierazten da. Besterik da perpausaren bigarren partean (aditz-forma horren ondoren) esaten dena: alegia, etxea edo dena delako zera ikusi nuen ala ez.

Data: 2001/04/04

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

axola izan: bost axola**Galdera:**

Zuzena al da bost axola dit zer egingo duzun esaldia?
 Horrelako esaldiekin daukadan zalantza zera da: aditz nagusia NOR-NORI-NORK motakoa izanik, NORK kasua menpeko perpausak betetzen du; baina NORK marka ez da ageri. Bestela esanda, bost axola dit egingo duzunak esango banu, ez nuke zalantzarik, menpeko esaldiak NORK kasuko atzizkia, -ak, agerian du eta (egingo duzunAK).

Erantzuna:

Zuzena da, bai. Ergatibodun sintagmak ez ezik, axola izan aditzak bestelako molde batzuk ere har ditzake osagarri.

Adibidez:

a) motibatiboko sintagma bat: neregatik ajolik ez diola (Orixe)

b) genitiboko sintagma bat: izkribatzaileari ez diyo ezeren ajolik (V. Iraola)

c) mendeko perpausen bat (zehargaldera nahiz baldintza perpausa)

Hona hemen, horren erakusgarri, literaturako adibide batzuk:

Zehargaldera izanik osagarri:

- Axola dio poza nondik dan. (Orixe, Aitorkizunak, 135. or.)

- Ez dit axola nora eramaten duzun, gartzela edo urkamendira. (G. Aresti, Tobera, 282. or.)

- Eztuzula axolarik nork hori erran edo manatu duen. (S. Pouvreau, Imitazionea)

Baldintza perpausa izanik osagarri:

- Oitura txarrik lendik baldin badu, iñundik batere ajola ez digu. (Uztapide, Sasoia joan da gero, 217. or.)

Data: 2001/04/26

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

axola izan: ez zait axola / ez dit axola**Galdera:**

Zein da zuzena, ez zait axola ala ez dit axola?

Erantzuna:

Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuak aditzera ematen duenez, **zaito** motako aditz laguntzailea hartzen du gehienetan (bost axola zaitzigu auzokoak adibidea dakar).

Ibon Sarasolaren Euskal Hiztegiaren bi eratara ageri da axola izan: **zaito** eta **dio**. Beraz, erabilera biak dira gramatikalak: ez

zait axola eta ez dit axola. Horrez gainera, ikus JAGONETeko datu-base honetan bertan bost axola sarrera.

Data: 2001/03/21

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

begira, begiratu

Galdera:

Zuzenak al dira "begiratu" aditzaren lau erabilera hauek?

1. *Begira katua!*
2. *Begira (zertan dabilen) ume hori.*
3. *Begiratu hitz hori hiztegian.*
4. *Nola sortzen dira klimak? Begira itzazu eskemak.*

Erantzuna:

Galderako "begiratu" aditzaren erabilera horiek direla eta, hona oharrak, hurrenez hurren:

1. *Begira katua! = Begira, hara; ikusi katua!*
2. *Begira (zertan dabilen) ume hori = Begira (ezazu) (zertan dabilen) ume hori.*
3. *Begiratu hitz hori hiztegian. ZUZENA DA BERE HORRETAN.*
4. *Nola sortzen dira klimak? Begira itzazu eskemak. ZUZENA DA, BAINA "aztertu, gainbegiratu, zaindu" ADIERA DUENEAN; BESTELA "zerbaiti edo norbaiti begia luzatu" ADIERAN, "-i begiratu" BEHAR DU.*

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "begiratu" sarrera.

Data: 2002/07/03

Erantzulea: Gramatika batzordea

behartu: -t(z)era/-t(z)en behartu

Galdera:

Zein da behartu aditzaren erabilera zuzena: Lana ongi egitera behartu zuten ala Lana ongi egiten behartu zuten?

Erantzuna:

Behartu aditzaren konplementazio hedatuena -t(z)era da: alegia, zure adibideko Lana ongi egitera behartu zuten. Ikus Orotariko Euskal Hiztegia.

Data: 1996/04/09

Erantzulea: Hiztegi Batuko lantaldea

bota, uretara bota**Galdera:**

Onargarria al da "mutikoa uretara bota zen" esaldia? Izan ere, Labayru Hiztegiak dioenez, "**bota**, da, dau: echar(se), tirar(se), arrojjar(se), lanzar(se)" erabil daiteke.

Erantzuna:

Ez, "uretara bota zen" ez da zuzena: "uretara bota zuen bere burua" erabili behar da.

Data: 2002/07/03

Erantzulea: Gramatika batzordea

damu izan**Galdera:**

Argibideak nahi nituzke "damu izan" aditzaren erabileraz.

Erantzuna:

Hiru aukera ageri dira Orotariko Euskal Hiztegian (ikus OEH, VI. lib., 9.-11. or.): "damu dut, damu naiz" eta "damu zait".

Adibide-kopurua eta esparru geografikoa ez dira, ordea, berdinak hiruretan.

DAMU DUT da erabiliena eta hedatuena. Hiztegi Batuan, erregimena aipatzen ez bada ere, trantsitiboko erabilera bakarrik jaso dute adibidean: "ez dute damu izango orain horrela ibilia". Era askotara eman daiteke "damu dut" horren osagarria: "ikasia" eta "ikasi izana" batez ere (iparraldean "-z" instrumentala dutelarik: "ikasiaz", "ikasi izanaz"); baita "ikastea" ere, nahiz gutxiagotan agertu. Badira beste forma batzuk ere: "zeren -en", "-lakotz", "-turik" eta abar.

DAMU NAIZ aurrekoa baino gutxiago erabilia da. Batez ere iparraldean erabili izan da, eta XX. mende arte ez da ageri hegoaldean. Beste erabileretan ikusten ez dugun "apenarse" esanahia ere ematen zaio. Orotariko Euskal Hiztegiko adibideetako konplementua izen-sintagma bat izaten da, "-z" instrumentalean emana ("ezertaz", "bizi-modu lizunaz"); baina iparraldeko kasuetan "-tzeko" ere erabiltzen da. Bestela, inongo osagarririk gabe ageri da: "damu naiz", "damu zaitezte"...

DAMU ZAIT ere jasota dago Orotariko Euskal Hiztegian (adibide gutxi, ordea). Horrekin batera "damutu zait" ere bai (Hiztegi Batuak dio "damutu zait" aditzak "sartua" eta "sartzea", biak onartzen dituela).

Data: 2001/12/03

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

eskegi/esekei**Galdera:**

Onargarria al da "garabi batetik eskegi dira, protestan" esaldia? Izan ere, Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiak adibide hau dakar, besteak beste: "Itxeki zan soka batetik eta aurkitu zuen zinzilika zegoala".

Erantzuna:

Erabilera hori ez da oso egokia: hobe da "bere(n) burua" erantsita erabiltzea "eskegi/esekei".

Data: 2002/07/03

Erantzulea: Gramatika batzordea

hasi da/du**Galdera:**

"Hasi" aditza IZAN laguntzailearekin erabili behar da ala erabil dezakegu UKAN laguntzailearekin ere?

Erantzuna:

Bai, "hasi" aditza DA nahiz DU erakoa dela dio Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuak; beraz, bi aukerak onartzen ditu. Izan ere, erregimen bat baino gehiagoko aditza izanik (beste asko bezala), "hasi" aditza bi era horietara erabili izan da euskaraz, edozein hiztegitan ikus dezakezun bezala (ikus Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegia, Ibon Sarasolaren Euskal Hiztegia eta abar).

Data: 20011127

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

iritzi (deitu): deitzen zaio, deritzaio, deritzo**Galdera:**

Nola esan behar da deitzen zaio adizki trinkoa erabiliz, deritzaio ala deritzo? Hau da, bereizten al dira deritzaio (deitzen zaio) eta deritzo (irizten dio)?

Erantzuna:

*Bi erabilera horiek, behintzat, baditu iritzi aditzak (ikus Orotariko Euskal Hiztegiko **iritzi** sarrera), eta biak erabil daitezke: Mikelek ongi deritzo afaltzera joateari eta Mikel deritzo mutil horri.*

Formari dagokionez, Euskal Gramatika: Lehen Urratsak,

EGLU, II liburukian, Gramatika batzordeak dio deritza nahiz deritzo erabil daitezkeela; baina ez deritzaio (ikus 1997ko argitaraldiko 313. orrialde barreneko oharra).

Data: 2001/04/02

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

izorratu

Galdera:

Zuzena al da "Nik ez dut uste gu IZORRA GAITEZEN egiten dutenik, baina kalte egiten digute" esaldia?

Erantzuna:

Ohikoena "gu izorratzeko" esatea da, baina "izorra gaitzen" ere zuzena da. Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuak dio "izorratu" aditza (bigarren adieran, arrunkeria gisa markatutakoan, "kalte egin, hondatu" adieran) "da/du" aditza dela; beraz, bietara joka daiteke (Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiak badakar adibiderik).

Data: 2002/01/14

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

lehortu, garbitu, orraztu

Galdera:

Zuzena al da "lehortu" aditzarekin "zaitez" erabiltzea? Adibidez, "eskuak lehortu ditu", "bustita zaude eta lehortu zaitez" gisakoetan.

Erantzuna:

Bai, zuzena da "lehortu, garbitu, orraztu" eta gisakoekin "zaitez" erabiltzea.

Data: 2002/07/03

Erantzulea: Gramatika batzordea

lotu

Galdera:

Onargarriak al dira "lotu" aditzaren hiru erabilera hauek?

1. Segurtasun-uhala lotu du.
2. Lotu zaitez ondo.
3. Kateekin lotu dira, protestatzeko.

Erantzuna:

Bai, zuzenak dira "lotu"ren erabilera horiek; baina hirugarrenean hobe da "katez lotu dira" erabiltzea, eta ez "kateekin".

Data: 2002/07/03

Erantzulea: Gramatika batzordea

neurtu, pisatu (zenbat?)**Galdera:**

Zein da egokiagoa "neurtu" aditza erabiltzean, "Zenbat luze zara?" ala "Zenbat neurtzen duzu?"? Eta "pisatu" aditzaren kasuan, zuzena al da "Zenbat pisatzen duzu?" galdetzea?

Erantzuna:

"Neurtu" aditzaren erregimena dela eta, Hiztegi Batuan "soka hori bost metro luze da" hobesten da, eta ez "soka horrek bost metro neurtzen ditu". "Pisatu" aditzari dagokionez, ostera, "du" ad. dela dio Hiztegi Batuak, bestelako azalpenik gabe; beraz, "Zenbat pisatzen duzu?" moduko egiturak guztiz ontzat ematen dira.

Xehetasun gehiago, Gramatika batzordeak Leioako biltzarrerako prestatu zuen txostenean (ikus Euskera, 1994, 3, 39. liburukia (2. aldia), 935.-939. or. eta 1.023.-1.031. or.). Horrez gainera, ikus datu-base honetako "zenbat/zenbateko/zenbaten" sarrera.

Data: 20010614

Erantzulea: Miren Azkarate

NORI + ari izan**Galdera:**

Adibidez:

-i ari izan (niri ari zara).

Erantzuna:

Ez da niri ari zara edo antzeko adibiderik azaldu Orotariko Euskal Hiztegian. Testuinguru zabalagoa beharko litzateke bai ala ez esateko.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

sentitu**Galdera:**

Zuzenak al dira "sentitu" aditzaren hiru erabilera hauek?

1. Estu hartuta daukatela sentitzen du.
2. Faxisten biktima sentitzen da.
3. Gazterik sentitzen naiz.

Erantzuna:

Bai, zuzenak dira "sentitu"ren erabilera horiek (bigarrenean, gaiski legoke "Faxisten biktima sentitzen du bere burua"); baina hirugarrenean, "gazte" behar du: "Gazte sentitzen naiz".

Data: 2002/07/03

Erantzulea: Gramatika batzordea

topo egin, topatu**Galdera:**

Zuzena al da "topatu" aditzarekin "Mikel topatu dut, Mikelekin topatu naiz" eta gisakoak erabiltzea? Izan ere, Labayru Hiztegiak dioenez, "topau/topatu, dau, da. encontrar(se), hallar" erabil daiteke.

Erantzuna:

Bai, zuzenak dira "topatu"ren erabilera horiek. Bi erregimen desberdin dira, eta sozietiboarekin "naiz" laguntzailea hartzen du "topatu" aditzak. Baina ondo gogoan izan behar da "Mikelekin topo egin dut" ere hor dugula, sozietiboarekin askoz ere tradizio handiagoa duena.

Data: 2002/07/03

Erantzulea: Gramatika batzordea

Atzizkiak (Lexikoa)**Galdera:**

Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan ez dira ageri "egoista" eta "egoismo". Beraz, "nirekoi, zeurekoi, berekoi, geurekoi" eta horiei dagozkien "-keriak" ageri direnez, horrela erabili behar ditugu, ezta?

Erantzuna:

Bai, inolako zalantzarik gabe.

Data: 20010709

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Galdera:

Erantzuna:

Hona hemen bost galde-erantzun, "bana"ren erabilerari buruzkoak:

1. Milatik gorako zenbakiekin bakarrik erabili behar da "bana"? Izan ere, Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegian "eun bana" eta "bost eun bana" ere ageri dira. Egia da OEHn esaten dena; alegia, "mila"rekin ez ezik, bestelako zenbakiekin ere erabili izan dela: batez ere "ehun"ekin eta "ehun"etik eratorriekin (berrehun, hirurehun...) eta "milioi"rekin.

2. Ontzat ematen al dira "bosna mila / bost mila bana / bost bana mila" eta gisakoak? Azken hori hizkuntza mintzatuan entzuna daukat.

Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, I liburukian (ikus 138.-139. or.) ontzat ematen da "bosna mila" ("bosna mila") eta txartzat "*bost milana". Egia da bestelako adibideren bat edo beste badela ("Urtean bost milla bana lauerleko irabazten dituzala", Eguzkitza, Gizarte auzia, 147. or.); baina arruntena, zalantzarik gabe, "bosna mila" da; "bost bana mila" baino arruntagoa, askoz ere.

3. Zein hobetsi, "bost mila eta hogeita hamarna" ala "bost mila eta hogeita hamar bana"?

Arruntena lehenbizikoa da: "bost mila eta hogeita hamarna".

4. Zein hobetsi, "bosna milioi / bost milioi bana / bost bana milioi" egituren artean?

Hor ere, "bosna mila"ren kasuan bezala, arruntena lehenbizikoa da: "bosna milioi", alegia.

5. Komuntzaduran, aditza singularrean ala pluralean erabili behar da? Edo bietara joan daiteke: "bosna gozoki eman dizkiet/diet"?

Bietara eman daiteke. Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, I liburukiko 131. orrialdean esana dago zenbatzaileekin ("bat"ekin izan ezik, eta sintagmak mugatzailezik ez badu) bi aukerak onartzen direla: singularra nahiz plurala.

Data: 2002/01/08

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

"-ganako/-kiko" maitasuna, gorrotoa, konfiantza...

Galdera:

Zein da hobestekoa, "elkarrenganako maitasuna" ala "elkarrekiko maitasuna/gorrotoa/konfiantza"?

Erantzuna:

Zalantzarik gabe, "elkarrenganako maitasuna" da hobestekoa: hain zuzen ere, horixe da euskal literatura-tradizioan gehien erabiltzen den egitura. Badira "elkarrekiko maitasuna"ren adibideak ere, baina oso-oso gutxi.

Bestetik, "-ganako gorrotoa" edota "-ren kontrako/aurkako gorrotoa" dira hobestekoak; izan ere, "-kiko gorrotoa" duen adibiderik ez baitugu aurkitu tradizioan.

Orobat "konfiantza"rekin ere: "-ganako konfiantza" da hobestekoa, askoz ere erabiliagoak baitira egitura hori edota "konfiantza ...-gan" modukoak. Bestea gaitzetsi gabe, ordea; izan ere, "-ki(la)ko konfiantza" modukorik aurkitu ez dugun arren, badira horren oinarri izan daitezkeen egiturak: alegia, "konfiantza ...-kin/-gaz" gisakoak.

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "-kiko" sarrera.

Data: 2001/10/22

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

**"-koi": nirekoi, zeurekoi, berekoi, geurekoi****Galdera:**

Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan ez dira ageri "egoista" eta "egoismo". Beraz, "nirekoi, zeurekoi, berekoi, geurekoi" eta horiei dagozkien "-keriak" ageri direnez, horrela erabili behar ditugu, ezta?

Erantzuna:

Bai, inolako zalantzarik gabe.

Data: 20010709

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

"-na": bana, bosna mila / bost mila bana / bost bana mila**Galdera:****Erantzuna:**

Hona hemen bost galde-erantzun, "bana"ren erabilerari buruzkoak:

1. Milatik gorako zenbakiekin bakarrik erabili behar da "bana"? Izan ere, Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegian "eun bana" eta "bost eun bana" ere ageri dira.

Egia da OEHN esaten dena; alegia, "mila"rekin ez ezik, bestelako zenbakiekin ere erabili izan dela: batez ere "ehun"ekin eta "ehun"etik eratorriekin (berrehun, hirurehun...) eta "milioi"rekin.

2. *Ontzat ematen al dira "bosna mila / bost mila bana / bost bana mila" eta gisakoak? Azken hori hizkuntza mintzatuaren entzuna daukat.*

*Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, I liburukian (ikus 138.-139. or.) ontzat ematen da "bostna mila" ("bosna mila") eta txartzat "*bost milana". Egia da bestelako adibideren bat edo beste badela ("Urtean bost milla bana lauerleko irabazten dituzala", Eguzkitza, Gizarte auzia, 147. or.); baina arruntena, zalantzarik gabe, "bosna mila" da; "bost bana mila" baino arruntagoa, askoz ere.*

3. *Zein hobetsi, "bost mila eta hogeita hamarna" ala "bost mila eta hogeita hamar bana"?*

Arruntena lehenbizikoa da: "bost mila eta hogeita hamarna".

4. *Zein hobetsi, "bosna milioi / bost milioi bana / bost bana milioi" egituren artean?*

Hor ere, "bosna mila"ren kasuan bezala, arruntena lehenbizikoa da: "bosna milioi", alegia.

5. *Komuntaduran, aditza singularrean ala pluralean erabili behar da? Edo bietara joan daiteke: "bosna gozoki eman dizkiet/diet"?*

Bietara eman daiteke. Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, I liburukiko 131. orrialdean esana dago zenbatzaileekin ("bat"ekin izan ezik, eta sintagmak mugatzailezik ez badu) bi aukerak onartzen direla: singularra nahiz plurala.

Data: 2002/01/08

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

"-xe" (horrekintxe/horrexekin)

Galdera:

Zein da zuzena "horrekintxe" ala "horrexekin"?

Erantzuna:

Forma horiek biak zuzenak dira. Euskaltzaindiaren Euskal gramatika laburra: Perpaus bakuna liburuak, "Erakusle indartuak" atalean (ikus 84. or.), hauxe dio:

Hiztun batzuek "-xe" atzizkia erakuslearen erroaren ondotik jartzen dute, kasu markaren aurrean ("honexeri, horrexeri, harexeri"); beste hiztun batzuek nahiago dute, ordea, azkenean

jarri atzizkia (" honixe, horrixex, harixex"). Eta gauza bertsua gertatzen da kasu hauekin guztiekin (batzuekin ezinezkoa den arren) "honexetan/honetantxe, honexekin/honekintxe, honexetara/honetaraxe", eta abar. Erakusleetatik sortzen diren adberbioekin ere ber gauza: "hementxetik/hemendixe, honelakoxe/honelaxeko" eta abar.

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "-xe" sarrera.

Data: 20010713

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

-(e)ko/-(e)rako: osasun publikoko/publikorako

Galdera:

Ondoko errotulazioa nola jarri beharko nuke?

OSASUN PUBLIKORAKO ZUZENDARITZA edo OSASUN PUBLIKOKO ZUZENDARITZA?

OSASUN PUBLIKOKO TEKNIKARIA edo OSASUN PUBLIKORAKO TEKNIKARIA?

Alegia, noiz erabili behar da "-(e)ko" eta noiz "-(e)rako"?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du gai horri buruzko araurik eman.

Praktikan, bietako adibideak ikusten ditugu, bai "-(e)ko"dunak (Ekialdean batez ere) eta bai "-(e)rako"dunak (Mendebaldean maizago). Beraz, biak eman daitezke ontzat (estilo-kontua ere izaten da askotan, bi "-ko" metaturik jartzea itsusia dela uste dutenak ere badira eta).

Horretaz informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna liburuko 166.-172. eta 494.-498. orrialdeak; eta Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, I, liburukiko 370.-373., 377.-381. eta 384.-386. orrialdeak.

Bestalde, argigarri gisa, hona zenbait zuzendaritza, negoziatu, atal eta abarren izenak, Euskal Herriko Erakundeen Barne Errotulazioa liburutik hartuak eta bietako ordainak dituztenak:

Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritza Nagusia = Dirección General de Promoción Económica

Jaurlearitza Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko

Harremanetarako Zuzendaritza = Dirección de Secretaría del Gobierno y Relaciones con el Parlamento

Gizarte Ekonomiako Zuzendaritza = Dirección de Economía Social

Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritza = Dirección de Atención Primaria

Lege Koordinazio eta Errekurtsoetarako Zuzendaritza = Dirección de Coordinación Jurídica y Recursos

Ekonomia eta Kudeaketa Laguntzarako Atala = Sección de Asistencia Económica y de Gestión

*Industria eta Meategien Kontrol eta Segurtasuneko Atala =
Sección de Control y Seguridad Industrial Minera
Osasun publikoko albaitekoak = Veterinarios de salud pública
Osasun publikorako udal zentroa = Centro municipal de salud pública*

Data: 2001/06/20

Erantzulea: Miren Azkarate

-ENO/*-EINO atzizkia (etortzen ez direno/*direino)

Galdera:

Zein da zuzena Etortzen direneino ez dugu alde egingo ALA Etortzen ez direneino ez dugu alde egingo? Eta zein da zuzena "zu joan arte ez naiz isilduko" adierazteko, Joaten ez zareneino ez naiz isilduko ALA Joaten zareneino ez naiz isilduko?

Erantzuna:

Etortzen ez dirENO ez dugu alde egingo da zuzena. Horren baliokidea da Etortzen ez dirEN BITARTEAN ez dugu alde egingo. Alegia, etorri arte (etortzen ez diren bitarte guztian), ez dugu alde egingo.

*Euskaltzaindiaren Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, VI, Mendeko perpausak, 2 liburukiko 118. orrialdean azaltzen du Gramatika batzordeak erabilera hori, eta **-ENO** menderagailuari dagozkion bestelakoak. Jakizu, gainera, **-ENO** forma dela nagusitu dena, eta horixe dela gaur egun erabiltzen den bakarra (ikus EGLU, VI, 114. or.).*

*Bigarren galderari dagokionez, Joaten ez zareno, ez naiz isilduko da zuzena; baina hor ere egokitu egin dugu forma, zeren eta **-ENO** menderagailuak adierazten duena denbora-bitarte bat baita, eta bitarte horretan esaten ari baita ez dela isilduko: alegia zu joan **gabe** zauden bitarte guztian. Horrez gainera, ikus JAGONETeko datu-base honetako **-(e)no** sarrera.*

Data: 2007/12/21

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

-go

Galdera:

Esanahia? Taldea adierazteko onargarri bihurtu behar al du? Irakasleago, biztanleago, gutxiengo, gehiengo... Edo lanbidea edo kualitateago adierazteko bakarrik erabili, Iparraldean bezala?

Erantzuna:

[73. arauan](#) azaldu zuen Euskaltzaindiak -go atzizkiaren erabilera zuzena zein den:

-go atzizkia erabil bedi:

a) ofizioa, lanbidea adierazteko (artzaingoa, zurgingoa, etab.)

b) tasuna adierazteko: euskaldungoa, ahaidegoa, etab.

Data: 2000

Erantzulea: Araua

-kada**Galdera:**

Termino berriak sortzeko garaian eratorpenaren bidea oso emankorra bada ere, sarritan zalantza egiten dugu. Zer egin: atzizkiez erreparorik gabe baliatu hitzak behar izan ahala sortzeko ala baliabide horren erabilera neurtu, hitz eratorria gabe hitz-elkarte edo izen-sintagma erabiliz? Adibidez: -(k)ada atzizkia: harrikada, makilada eta antzeko hitz jatorren bidetik ukondokada, belaunkada, ezpatakada, kulatakada sortu ala izena + -ukaldi/kolpe hitz-elkartearen bidea erabili? -gile atzizkia erabiliz euritakogile, jostailugile, pintzelgile, kortsegile... ala izena + -egile hitz-elkartea bultzatu. Badakigu auzi honetan ezin dela araurik eman, eta berezkoa duela euskarak atzizkibidea; baina irizpide orokorrak finkatzeak ez liguke kalterik egingo.

Erantzuna:

Oso zaila dirudi kontu horretan irizpide orokorrak finkatzea, eratorbidea zein hitz-elkarketa, biak baitira bide zuzen eta emankorrak euskaraz. Eta ezin esan daiteke bat ala bestea aukeratu behar den.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

-keta, -kunde eta -mendu**Galdera:**

Atzizki alomorfoen aukera hizkera teknikoan: kudeaketa, kudeamendu; antolamendu, antolaketa, antolakunde...

Erantzuna:

Atzizki desberdinak dira horiek, ez atzizki bakarraren alomorfoak. Hobeto aztertu beharra dugu atzizki horietako bakoitzaren balioa, tradizioan izan dutena. Behin baino

gehiagotan aurki daiteke aditzoin bera atzizki desberdinei lotua (adibide horietan ageri den bezala). Halakoetan, Hiztegi Batuan, tradizio handiena duten formak jasotzeko ahalegina egiten da.

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

-kiko, -kilako

Galdera:

NOREKIKO birdeklinabidea, izenlaguna denez, beti izenaren aurrean jarri behar al da? Hau da, errespetu handia du gurasoekiko edo gurasoekiko erakusten duen errespetua bezalako egiturak okerrak al dira?

Erantzuna:

Ez dirudi -kiko atzizkiak nahitaez izenlagun izan behar duenik; izan ere, badira zuk eman dizkiguzun adibideak bezalakoak (eta ez gutxi) euskararen literatura tradizioan. Ez nuke esango, beraz, zure galderako egitura horiek okerrak direnik.

Egia da iparraldeko tradizioan -kilako (alegia, -kikoren baliokidea) izenlagun gisa erabiltzen dela beti eta ez duela adizlagun erabilerarik. Hegoaldeko tradizioan ere, esan bezala, adizlagun erabileraren lekukotasunak badiren arren, izenlagunarenak askoz ere ugariagoak dira: alegia, gurasoekiko errespetu handia du edo gurasoekiko harremanak hoztu egin dira aspaldion bezalakoak.

Gehiago sakondu nahi izanez gero, hona hemen auzi horretaz luzeago diharduen artikulua baten erreferentzia:

-Jesus Mari Makatzaga (1999): "-kiko atzizki konposatuaz" in Zenbait Gai Euskara Teknikoaren Inguruan (artikulu-bilduma, Juan Carlos Odriozolak bateratua), EHU/UPVko Argitalpen Zerbitzua.

Data: 2001/04/02

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazkar

Dokumentua: BURUZ ala BURUZKOAK (irizpena) - <http://www.euskaltzaindia.net/jagonet/dok/Buruz.pdf>

-na (husna/hutsean)

Galdera:

Atzizki distributiboaren erabileran, bana, bina, hiruna

bezalakoen ondoan (hiruna liburu oparitu dizkigute), gaitzetsi egiten dut husna erabiltzea. Zuzen al nago?

Erantzuna:

Gramatika batzordea zure iritzi berekoa da eta gaitzetsi egiten du inongo tradizioz ez duen husna forma hori.

Badira horren ondoan beste egitura batzuk, kiroletarako-eta egokiagoak direnak. Adibidez:

Hutsean gelditu zen partida.

Huts eta huts egin zuten Errealak eta Alavesek.

Data: 2000/01/25

Erantzulea: Gramatika batzordea

-pen eta -keta

Galdera:

Euskaltzaindiak onartu ez dituen nominalizazioak, hau da, -pena edo -keta dituzten aditz-izenak, erabil daitezke? Hala hobe da -tzearen bidez egitea nominalizazioa? Irizpide orokorrik ba al da -pen eta -keta horiek erabiltzeko? Esaterako, iraungipena ez da Hiztegi Batuan ageri. Guk erabili izan dugu; baina, gaur egun, Hiztegi Batuan ez datorrenez, iraungitzearen aldeko erabakia hartu dugu. Zuzena al da gure erabaki hori?

Erantzuna:

Lehenik eta behin, jakizu Hiztegi Batuan ez azaltzeak ez duela esan nahi hitz jakin bat erabil ezin daitekeenik. Esan nahi duen bakarra da ez dagoela Orotariko Euskal Hiztegiko corpusean edota Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematiakoaren corpusean erabilienetakoan artean. Beraz, erabil daitezke Hiztegi Batuko lehen itzulian ageri ez diren -pen eta -keta atzizkiez osatutako izenak.

Bigarrenik, -tze atzizkiak, zerbait "gertatzea" adierazten du. Hori bada iraungitze izenarekin adierazi nahi dena, orduan guztiz egokia da atzizki hori erabiltzea. Baina -pen atzizkiak, ordea, bi esanahi izan ditzake: zerbait "gertatzea" (iraupen izenean, adibidez) edo zerbait "gertatu izanaren ondorioa" (etsipena, esaterako, ez da "etsitzea"; baizik "etsitzean, etsi ondoren sortzen den sentimentua"). Bigarren adiera horretarako ez du balio -tze atzizkiak. Beraz, zein adieratan erabiltzen den iraungipen, hori da kontua. Adiera batean guztiz baliokidea izango litzateke iraungitze; bestean, "iraungitzearen ondorioa" adierazteko, ez.

Azkenik, ez da erraza esatea noiz erabili behar den -pen eta noiz -keta. Atzizki horiekin sortutako izenik erabilienak jaso dira Hiztegi Batuan, eta hala egingo da bigarren itzulian ere.

Zaila da hortik aurrera joatea, oso azalpen teorikoak eman gabe.

Data: 2001/04/11

Erantzulea: Miren Azkarate

-tar eta -dun

Galdera:

Zer hobetsi behar dugu: txinatar kultura ala kultura txinatarra? Eta tirantedun kamiseta ala kamiseta tiranteduna?

Erantzuna:

Eratorpeneko -tar dela eta, ez da ezer hobetsi atzizki horrekin eraturako izenondoan kokalekuaz. Beraz, besterik esaten ez den bitartean, txinatar kultura zein kultura txinatarra, biak dira zilegi. Nolanahi ere, gogoan izan beharko genuke beti errusiar inperioa etab. erabili ordez, Errusiako inperioa ere tradizio handiko joskera dela euskaraz.

Beste horrenbeste diogu -dun atzizkia: tirantedun kamiseta eta kamiseta tiranteduna biak onartzen dira, batasunerako gomendiorik ematen ez den bitartean.

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

-tar eta -ko

Galdera:

Espainiar filologia nahiz Espainiar literatura biak gramatikalak al dira?

Erantzuna:

Egia da -(t)ar atzizkiak jatorria adierazten duela, herritar izenak osatzeko balio duela. Horrenbestez, agian, berez okerrak izan litezke Britainiar uharteak bezalakoak. Arrazoi beragatik, Azpeitiar basoak ere okerra litzateke, adibidez. Honen ordain zuzena, euskaldunak ongi dakikeenez, Azpeitiko basoak izango litzateke.

Hala ere, hedapen bat gertatu dela esan liteke -(t)ar-en erabileran, eta hedapen hori ez dela zabarkeriaz gertatu; arazo bati erantzun egokia eman nahiagatik baizik. Izan ere, Filologia española edo Literatura española modukoak itzultzeko, badirudi Espainiako filologia edo Espainiako literatura baino egokiagoak izan daitezkeela -(t)ar atzizkidunak. Espainiako bezalako izenlagun batek leku bati egiten dio erreferentzia batez ere (ez beti, nolana ere), eta argi dago batzordeari

egiten zaion galderan agertzen diren sintagmetan ez zaiola lekuari erreferentzia egiten, zuzenean behintzat. Horrenbestez, espainiar bezalako hitz bat, Espainiako baino definitugabeagoa denez, egokia izan liteke gure kasuan. Ematen diren adibideek, gainera, beste euskaldun batzuek ere gure aurretik horrela pentsatu dutela erakusten digute. Erabat garbizale jokatu z gero, oso irtenbide txarra geldituko litzai guke. Gainera, Italiar literatura bezalakoak erabiliz gero, halako anbiguitate bat gertatzen da. Hala, italiar literatura hurbilago egongo litzateke "italiarren literatura"tik, "Italiako literatura"tik baino. Izan ere, goian esan bezala, italiar markatugabeagoa dela dirudi Italiako baino. Horrenbestez, zilegi ikusten du batzordeak italiar literatura eta antzekoak erabiltzea. Baina garbi dagoenean lekuaz ari garela, orduan -(T)AR-en orde z -KO erabiliko da. Geografia española ez dugu itzuliko Espainiar geografia gisa, Espainiako geografia gisa baizik. Modu berean, gauza bat izango litzateke Frantziako literatura eta beste bat Frantziar literatura. Azkenik, gogorarazi behar da hizkuntzari erreferentzia egiten zaion kasuetarako badugula instrumentala oinarritzat hartuz eraikitako atzizki bat: -zko. Hala, italierazko literatura litzateke kasu horretan egitura zuzena.

Data: 1999/01/07

Erantzulea: Gramatika batzordea

-zale

Galdera:

Ez al da egia kamioizale, garraiozale eta abar ez direla egoki erabiltzen? Izan ere, zaletasuna edo afizioa adierazten dute eta ez langintza.

Erantzuna:

Egia da hori dela seguruenik -zale atzizkiaren erabilerarik hedatuena. Hala ere, oso sustraituak dira zenbait lekutan zuk ematen dituzun adibideak bezalakoak: ardozale, esnezale eta abar. Alegia ardoa edo esnea saltzen duenari esaten zaio hala. Gramatika batzordeak ez litzuke txartzat emango adiera horretan ere.

Data: 2000/07/19

Erantzulea: Gramatika batzordea

-dun: "-tz"+"-dun", *ardazdun/ardaztun*

Galdera:

Nola idatzi behar "ardatz" hitzari "-dun" atzizkia gehituz gero: "ardatzdun, ardazdun" ala "ardaztun"?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak, oraingoz, ez du ezer hobetsi "ardaztun" eta "ardazdun"en artean.

Eratorpenaren oraindik askatu gabeko bi korapilo aipatzen dituzu hemen. Bata, txistukaria frikari bilaka daitekeen ala afrikatua behar duen. Bestea, atzizkiaren leherkariak ahostuna ala ahoskabea izan behar duen. Euskaltzaindiaren LEF batzordeak prestatutako liburua, eratorpenari buruzkoa, laster kaleratzekoa da eta, agian, han izan dezakegu argibideren bat. Bien bitartean, eta kasu jakin honi buruz, honako hau esan daiteke:

1. Orotariko Euskal Hiztegiko datutegian, lehenbiziko auziari buruz, "-dun" atzizkia frikari bilakatu ohi dela ikusi dugu: "hiztun, irabaztun, bihoztun, akastun, gorpuzdun, kirasdun, adasdun...". Denak dira Euskaltzaindiak ontzat emandako formak (ikus Hiztegi Batua). Badira, jakina, afrikatua dutenak ere: esaterako, "gatzdun".

2. Bigarren auzia, kasu honetan korapilatsua goa da. Goiko adibideetan ikusi bezala, bietariko kasuak daude, ahostuna zein ahoskabeak dutenak. LEF batzordeak dio (ikus Euskera aldizkaria 39; 1994, 3; 1.050. or.) auzi hau seguraski atzizkiz atzizki (edota, agian, hitzez hitz) erabaki beharko dela; hain zuzen ere, hitz guztientzat jokabide bakarra hautatzea gogorregia litzatekeelako.

Beraz, ez da oraingoz ezer erabaki "ardazdun" hitzari buruz; agian Hiztegi Batuaren bigarren pasaldian helduko zaio txanda, erabilera berezitueta termino batzuk ere aztertuko baitira hemendik aurrera.

Data: 2001/10/22

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

-egi**Galdera:**

Nola lotu behar zaie "-egi" atzizkia "atzero, aurrera, barrura / atze, aurre, barru" eta abarri?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du ezer erabaki horretaz: arauetan ez da ageri. Bestalde, Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, II liburukian aipatu aipatzen da "-egi" atzizkia, baina ez da argitzen auzi hori. Gainera, Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiko corpusean ere ez da ageri auzia erabakitzeko

adinako lekukotasunik. Hona agerpenen maiztasunak:
Aurreraegi: 3 agerpen (Zaitegi, K. Mitxelena)
Aurreregi: 2 agerpen (Txirrita, Nemesio Etxaniz)
Aurregi: 2 (N. Etxaniz, Noe)
Aurreegi: 0
Atzeraegi: 1 (K. Mitxelena)
Atzeregi: 0
Atzeegi: 0
Atzegi: 0
Barruregi: 1 (Añibarro)
Barruraegi: 0
Barruegi: 0
Hortaz, Euskaltzaindiak esan beharko du, ahal duenean, zein hobetsi.

Data: 2002/01/08

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.



-garri, lur eraikigarri

Galdera:

Bertan eraikitzeke aukera legez onartua duten lurrak izendatzeko, lur eraikigarri erabili izan da azken urteotan (eraikitzeke lur ere erabiltzen da). Zuzena al da eraikigarri adjektiboa adiera horretan erabiltzea? Erabilera zaharrari begiraturaz gero, ez al du esan nahi eraikitzen duena (ezen ez eraikitzeke dena)?

Erantzuna:

Euskaraz -garri atzizkiak bi balio izan ditu historian zehar:

1. "Aktibo" deitu izan zaiona (egokiago litzateke arazle edo eragile deitzea): barregarri (barre eragiten duena), mingarri (min ematen duena), pozgarri (poz ematen duena), aberasgarri (aberatsarazten duena) eta abar.

2. "Pasiboa", aldi berean bi ñabardura izan ditzakeena, "merezki duena" (ikusgarri, esaterako) edo "daitekeena" soil-soilik (ulergarri, esaterako).

Bi balioetan, lehena izan da nagusia; baina ezin da esan bigarrena gaizki dagoenik. Bigarren horixe da, gainera, azken urteotan nagusitzen ari dena; izan ere, erdal -ble atzizkiaren ordainik ez baitu bestela euskarak.

Galderari erantzunez, lur eraikigarri zuzena da euskaraz, baita eraikitzeke lur ere. Nik neuk nahiago dut bigarrena, baina ikusi egin behar da administrazioan zer darabilten "suelo edificable" terminoaren ordaintzat (EUSKALTERMen lurzoru eraikigarri ageri da).

Argibide gehiago nahi izanez gero, irakur Miren Azkarateren

artikulu hau: "Euskal -garri vs. latinezko -bilis: bi balio desberdin" in Patxi Altunari omenaldia, Mundaiz, Unibertsitatea saila, Euskal Filologia, 5 (19.-39. or.), Donostia, 1990. Ikus, gainera, hausgarri/hauskor sarrera JAGONETeko datu-base honetan bertan.

Data: 2001/04/23

Erantzulea: Miren Azkarate

-oro (astero, egunero, segundoro)

Galdera:

Hor ditugu "astebururo, asteburuero" eta "asteburuoro". Zein da zuzena? XUXEN delako zuzentzaile ortografikoak txartzat ematen ditu "astebururo" eta "asteburuoro".

Erantzuna:

Euskaltzaindiak, "-oro" atzizkia dela eta, arau gisa eman dituen bakarrak honakook dira:

- Txartzat eman ditu "hiru astero, lau urtero" gisakoak; horien ordez, "hiru astean behin, hiru astetik behin" dira egokiak.
- Hiztegi Batuan "egunero", "hilerro" eta "astero" ageri dira.
- Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, I liburukiak "igandero" eta "urtero" formak dakartza (ikus 325. or.); arau mailarik gabe baina.

Hortik aurrera, hona Orotariko Euskal Hiztegiko corpusean ageri direnen maiztasunak:

- "minutuoro" (0)
- "uneoro" (1)
- "unero" (0)
- "orduoro" (2)
- "orduro" (1)

Bestalde, "segundo"ren adibiderik ere ez da OEHn, baina garbi samar dago zein den hobestekoa: "segundo" da Hiztegi Batuan erabaki den forma; beraz, "segundoro".

Ez dakit zein irizpideren arabera ematen dituen txartzat "astebururo" eta "asteburuoro" formak XUXEN zuzentzaile ortografikoak.

Data: 2001/11/19

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

-t(z)eagatik/-(e)lako (merkeagoa izateagatik/delako)

Galdera:

"Amak ez zuen bere alaba haurtzaindegira bidaltzen: aitona-

amonekin uzten zuen merkeagoa izateagatik" esaldian "-t(z)eagatik" zuzena da ala "-(e)lako" erabili behar da?

Erantzuna:

Egitura horretan "-t(z)eagatik" erabiltzea zuzena da, baina ez du "-(e)lako" formak duen esanahi bera.

Perpau horretan "-t(z)eagatik" formak helburu-balioa du, kausazkoa baino gehiago; alegia, "izatearren" formak lukeen bera. Jakina denez, "-(e)lako" ere erabil dezakegu hor; baina kausa-balioa emango genioke orduan.

Badira, alabaina, "-t(z)eagatik" eta "-(e)lako" baliokideak izan daitezkeen kasuak. Adibidez:

- Gaizki portatzeagatik zigortu dute.

- Gaizki portatu delako zigortu dute.

Horietan bietan kausa-balioa dugu.

Zein da, orduan, goiko "merkeagoa izateagatik" eta beheko "gaizki portatzeagatik" horien arteko desberdintasuna balio diferenteak izateko? Hain zuzen ere, aditzaren aspektua: goikoan ez da burutua, eta behekoan bai.

Data: 2001/07/04

Erantzulea: Gramatika batzordea

-t(z)ean/-t(z)erakoan (egitean/egiterakoan, jaikitzean/jaikitzerakoan)

Galdera:

Denborazko "-tzean" eta "-tzerakoan" nola bereizi elkarrengandik?

Erantzuna:

Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, VII liburukiko gaia dugu hau, eta oraindik ez dugu aztertu. Hala ere, susmora eta iritzira erantzungo dizut.

Jakina da -T(Z)EAN eta -T(Z)ERAKOAN denbora-atzizkiak ez direla baliokideak: biak dabilta aldiberekotasunaren inguruan, baina ñabardura hauek ikusten ditut:

-T(Z)ERAKOAN markatuagoa da, aldiberekotasunaren ñabardura "inkoatiboa" eta "puntuala" adierazten baititu.

Esate baterako "jaikitzerakoan" formak "jaikitze zihoanean" edo "jaikitzen ari zen unean" biak esan nahi ditu.

-T(Z)EAN, berriz, orokorrago da; -T(Z)ERAKOANen kasu guztietan erabil daiteke, hots, esandako "inkoatibo" edo "puntual" horietan eta baita beste batzuetan ere. Hala, esate baterako, ñabardura "burutua" denean. "Aita etortzean hasiko gara bazkaltzen" perpausean, konparazione, "aita etorri eta" esan nahi da, hau da, "etorritakoan". Eta, halaber, inoiz denbora balioaz gabetua ere erabil daiteke: "hori egitean maite gaituzula erakutsi duzu" perpausean, "egitean" ez da denborazkoa, modua-edo adierazten duena baizik.

*Beraz, -T(Z)ERAKOAN markatua da, baina -T(Z)EANek beste horrenak ere hartzen ditu eta, horietaz landa, beste erabilera batzuk ere baditu.
Horra nire iritzia, EGLU VII prestatzean egiaztatu beharrekoa.*

Data: 2001/07/04

Erantzulea: Jose Antonio Mujika, Gramatika batzordekoa

-t(z)eko /- t(z)earen ohitura

Galdera:

Zein da hobestekoa "erretzearen ohitura" / "erretzeko ohitura" formen artean?

Erantzuna:

Bi horien artean aukeratzeko orduan, bigarrena hobetsiko nuke zalantza izpirik gabe: alegia, "erretzeko ohitura". Izan ere, "-t(z)earen" oso gutxi erabili izan da euskararen literatura-tradizioan ("ohitura" hitzarekin ez dugu behin ere aurkitu); hori baino askoz ohikoagoa da "-t(z)eko". Gainera, "ohitura" hitzarekin erabilitako batzuk badira, Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegitik hartutako ondorengo aipuetan ikusiko duzunez:

- Baserritarrak dute oitura mauka-utsean plazan egotekoa. (Iztueta)

- ... oitura har zazu: hau da, hitz ederrak jartzekoa. (Arrue)

- ... antziñako oitura, itz neurtuak ematekoa. (Iztueta)

- Astero izaten da oitura emakumeak ildegira joatekoa. (Anabitarte)

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "-t(z)eko" eta "-tzeko" sarrerek.

Data: 2001/10/22

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

-tzakoa (norentzakoa)

Galdera:

"Nongo(a)", "norenganako(a)", "norekiko(a)" kasuek, izena kenduz gero, "-a" mugatzailea hartzen dute. "Norentzakoa" kasuak ere har lezake mugatzailea? Hots, "amarentzakoa" zuzena da?

Erantzuna:

Bai, zuzena da "amarentzakoa" forma hori. Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiak adibide hauek dakartza, besteak beste:

- *Oetxu bakartia, berarentzakoa soilik (E. Erkiaga)*
- *Lengo eskola, batzuentzakoa bakarrik zana (L. Akesolo)*
- *Jatorra da liburu honetakoa: arina, erraza, edozeinentzakoa (K. Mitxelena)*

Hori bai, ez dira adibide asko; ez dirudi, beraz, oso emankorra denik. Izan ere, logikaren arabera era horretakoak erabil badaitezke ere, eguneroko jardunean horiek baino forma arruntagoak erabiltzen ditugu askoz sarriagotan; hala nola, genitiboa ("amarena"), adizlaguna ("amarentzat") nahiz "-ko" atzizki hutsa ("gelakoa", "gelarakoa"ren orde). Esate baterako:

- *"Oparien artean, zein da amarentzakoa?" baino gehiago, "zein da amarena?"*
- *"Oparien artean, zein da amarentzakoa?" baino gehiago, "zein da amarentzat?"*
- *"Gortinetan, zein da gelarakoa?" baino gehiago, "zein da gelakoa?"*

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "-tzako" sarrerak.

Data: 2001/07/04

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Dokumentua: BURUZ ala BURUZKOAK (irizpena) - <http://www.euskaltzaindia.net/jagonet/dok/Buruz.pdf>

Marratxoa (Lexikoa)

Hitz elkartuak. merkatal / merkataritza-zentroa

Galdera:

Zein da zuzena merkatal zentroa ala merkataritza-zentroa?

Erantzuna:

Euskaltzaindiaren [25. arauan](#), Hitz elkartuen osaera eta idazkera izenekoan, I.2 ataleko b) azpiatalean esaten denez, erdal adjektibo erreferentzialak ordezkatzeko erabiltzen dira merkatal eta gisako hitzak, eta ez dira zuzenak. Bide zuzena, hitz-elkarketaz baliatzekotan, unibertsitate-esparrua, moneta-politika eta abar erabiltzea da.

Beraz, kasu honetan merkataritza-zentroa erabili behar da.

Data: 1998/10/16

Erantzulea: Pello Telleria

Zernahi (Lexikoa)

"nagiak atera" esapidea**Galdera:**

Zelan esan behar da, "nagiak atera nau" ala "nagiak atera ditut"?

Erantzuna:

Zure galderako "nagiak atera ditut" zuzena da; baina beste "nagiak atera nau" hori ez da zuzena, non eta beste esanahi bat ez duen: alegia, "[pertsona] nagiak atera nau [ni]" zuzena da, baina "alferrak atera nau" esango bagenu bezala, eta ez gara horretaz ari, noski, baizik eta "nagiak atera" esatean ulertu ohi dugunaz; hain zuzen ere, Ibon Sarasolaren Euskal Hiztegian azalduta dagoenez: **"nagiak atera"**: besoak eta zangoak zabaldu, giharrak tinkatuz, luzaz geldirik egon edo lo egin ondoren suspertzeko".

Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuak dakarren forma bakarra "nagiak atera" da, eta horixe da, zalantzarik gabe, egokiena. Badira, horrez gainera, inoiz edo behin erabiltzen diren formak ere. Esate baterako, Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegian aurkitu ditudan hauexek: "nagiak uxatu" (Orixe), "nagiak bota ditu/zituzten" (Lizardi, Txomin Agirre), "nagiak astindu zituenean" (Etxaniz)...

Data: 2001/06/15

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

"samar" eta "nahiko(a)"**Galdera:**

Zer alde dago "samar" eta "nahiko"ren artean (esanahian, erabileran...)?

Erantzuna:

Bada alderik "samar" eta "nahiko"ren artean. Batetik, kokaguneari dagokionez, "samar" beti doa izenondoaren edo aditzondoaren ondoren; "nahiko(a)", berriaz, izenondoen eta aditzondoan aurretik joaten da.

Bestetik, "nahiko(a)" zenbatzailea (zenbatzaile zehaztugabea) ere izan daiteke; baina "samar", ez. Alegia, izenei lagunduz ager daiteke lehena ("nahiko azterketa juntatu zait zuzentzeko", "nahiko(a) diru bildu dut"); baina "samar", ez (ikus Euskaltzaindiaren Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, I liburukiko 183. or.).

Aditzekin biak erabil daitezke, baina zenbaitetan esanahia ez da guztiz bera:

- Nahikoa jan dut (ez dut gehiago behar) / jan samartu dut (ia

dena jan dut)

- Nahikoa egin dut (ez dut gehiago egin behar) / egin samartu dut (ia-ia bukatu dut)

Izenondoan eta aditzondoan maila adierazterakoan, esanahiari (edo esanahi bereizketari) dagokionez, ez Euskaltzaindiak ez Gramatika batzordeak ez du ezer esan. Zenbaitek ikusten du alderik, esanez batak ("nahiko" k) balio positiboagoa duela besteak baino:

- Zer moduz lo egin duzu? Nahiko ondo

- Zer moduz lo egin duzu? Ondo samar

Hala ere, esanahiarena hobeto aztertu beharrean gaude.

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "nahiko" sarrera.

Data: 2001/06/13

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.



"zertan edo hartan" esapidea

Galdera:

Zein egoeratan erabil daiteke "zertan edo hartan" esamoldea?

Erantzuna:

Ohizko erabileran, "zertan edo hartan" esapidea egoera zehaztugabeetan erabiltzen da: zehaztu ezin halako egoeratan edo zehaztu nahi ez direnetan. Esapide horren balio beretsua du "zerbaitetan" formak.

Data: 20010711

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

-aia/-aje

Galdera:

Zein da zuzena, sabotaia ala sabotaje?

Erantzuna:

Sabotaje erabaki da batasunerako, oro har -aje gordetzea baita bidea; eta salbuespena, aldiz -aia modura emango direnak: pertsonaia, paisaia... (Hiztegi Batuan zehaztuko dira).

Data: 2000

Erantzulea: Arauaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

digestio, digestio-aparatu***Galdera:***

Baina "digerir"= txegosi, eta horren haritik, txegoste-hodia, txegos-apartua (Hauta-Lanerakoan daude biak), txegosi erraza, txegosgaitza...

Erantzuna:

Hiztegi Batuan sartzekoa digestio dela erakutsi nahi izan du Euskaltzaindiak. Areago, txegoste "digestioa" ematean, digestiori ematen zaiola lehentasuna adierazi du; definitzaile modura ematen denak beti baitu lehentasuna.

Data: 1996

Erantzulea: Araua

aldrebes/irulez, irulezetara, iruleztau, (h)irulesta***Galdera:***

Uste dut Hiztegi Batuko aldrebes hitzaren sinonimoa dela Markina aldeko (h)irulesta hitza. Zuzen al nabil?

Erantzuna:

Batetik, Hiztegi Batuak ez dakar (h)irulesta hitza. Bestetik, Azkueren hiztegiak irulez, irulezetara, iruleztau formak dakartza: aurreneko biak "al revés" esanahiarekin; azkena, iruleztau, "poner al revés" esanahiarekin. Ez zabilta oso oker, beraz.

Data: 2001/04/26

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

aparatu, aparailu eta tresna***Galdera:***

Zein kasutan erabili aparatu, aparailu eta tresna?

Erantzuna:

Aparailu sarreran, "arrantza tresneria, zamarien tresneria" erantsi zen esanahia argitzeko; aparatu izenaren erabilera argitzeko arnas aparatu adibidea eman zen. Hor garbi ikusten da, beraz, hitz bakoitzaren erabilera zein den.

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

aurki

Galdera:

*Gaueko hamarrak ziren, umeak goseak akabatzen zeuden;
baina aurki etorri ziren gurasoak (oker).
Goizeko hamarrak dira, umeak goseak akabatzen daude; baina
aurki etorriko dira gurasoak (zuzen)
Gure ustez, aurki hitzak, beti ere, geroaldian mintzatzeko balio
du, eta ez lehenaldian.*

Erantzuna:

*Orotariko Euskal Hiztegia hartuta, iraganaldiko aditz formekin
ere ageri da aurki.; nahiz adibide gehienak bestelakoak izan:*

*Aurki azaldu ziren etxe-ateetan beste ikuszale
gehiago ere (T. Agirre)
Aurki ipintzen zion amari aurrean beste
kalabaza batean esnea (Arrue)
Jainkoaren epai ikaragarria! Aurki bere
madarikazioak harrapatu zuen (Arana)
Bi mila duro nik eman arren / ukatu zituen aurki
(Pello Errota)*

Data: 1999

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

bare

Galdera:

*Zalantza bat, bare hitzaren ingurukoa. Esan daiteke leku
barea? Egokia da?*

Erantzuna:

*Orotariko Euskal Hiztegiko adibideak ikusi baino ez dago bare
bizigabeen izenekin ere erabiltzen dela ikusteko. Hain ezaguna
dugun "Ozeano Barea"z gain, hor ditugu leku barean zauzka
zuek, ezpain bare batzuekin, begiratu bare ori, ortze barea,
arratsalde barea eta abar, erabilera hori egokia dela ikusteko.*

Data: 2001/05/04

Erantzulea: Miren Azkarate

Bilboko Hiritar Itsasketaren Goi Eskola

Galdera:

Izen hori, itzulpen hori, egokia al da gure erakundearen euskarazko izentzat?

Erantzuna:

Lehendik erabilitakoren bat hobetsi beharrez (izen berriak asmatzen hasi gabe), egokia da, bai; izan ere, itsasketa hobeto dagokio erdal marinari, hau ez baita beste itzulpenetan ageri diren ontzisaila, itsasoa edo flota horien pare-parekoa. Bestalde, zibil mailegua onartzekoa den arren euskaraz, egokiagoa da tituluetan-eta forma "euskarazkoagoak" erabiltzea.

Data: 1995/12/05

Erantzulea: Hiztegi Batuko lantaldea

biziraun, bizirik iraun, bizirik atera**Galdera:**

NOR ala NORI kasuan erabiltzen da biziraun aditza? Nola euskaratuko litzateke "sobreviví a la guerra" esaldia?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du oraingoz onartu biziraun aditza: guztiz berria da. Euskaraz, bizirik iraun, bizirik atera bezalako esapideak erabili izan dira. Beraz, besteak beste, bizirik atera nintzen gerratik esan daiteke.

Data: 2001/04/23

Erantzulea: Miren Azkarate

ez bidezko / gaizki**Galdera:**

Berridazketa bat egiterakoan, ondorengo zalantza hau sortu zait: Zenbaitek droga legeztatzea ez du bidezkotzat jotzen esaldia berridazterakoan, Zenbaitek droga legeztatzeari ez bidezko deritzo idatzi nahi izan dut. Badakit arazoa konpontzeko aukera dudala ez bidezko horren ordez gaizki jarrita, baina jakin nahi nuke ea zuzena den ez bidezko erabiltzea.

Erantzuna:

Zuk erabili nahi duzun Zenbaitek droga legeztatzeari ez bidezko deritzo esaldia zuzena da (agian, egokiago honela: Zenbaitek ez

deritzo bidezko droga legeztatzeari). Zuzena izateaz gainera, gaizki hitzarekin baino samurragoa da horrela, zalantzarik gabe. Baina jakizu, hala ere, ez bidezko eta gisakoak ahalik eta gutxien erabili behar direla.

Data: 2001/05/08

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

ganbera/kamera

Galdera:

Zein hitz erabili behar dut la cámara de diputados, cámara alta, cámara baja esateko, ganbera ala kamera?

Erantzuna:

*Hiztegi Batuak **ganbera** hitza dakar diputatuen ganbera eta merkataritza-ganbera esateko. Beraz, hitz horixe erabili behar da cámara alta, cámara baja adierazteko: diputatuen ganbera, senatarien ganbera... Baina kamera beste zerbait da: argazki-kamera esate baterako.*

Data: 2000/09/18

Erantzulea: Pello Telleria

gaur / egun / gaur egun

Galdera:

Erabil al daiteke egun hitza gaur egunen orde? Balio bera al dute?

Sinonimoak al dira gaur egun eta gaur? Ezezkotan, noiz erabili beharko litzateke bata eta noiz bestea?

Gauza bera al dira gaur eta egun?

Erantzuna:

Gure literatura tradizioa biltzen duen Orotariko Euskal Hiztegia (OEH) aztertuz gero, hauxe da bil daitekeen informazioa:

2 egun [hau da, hitz horren bigarren sarrera]: «Empleado de forma general por autores septentrionales y alto-navarros; en textos más occidentales se encuentra, por un lado, como término fosilizado en la oración del Padrenuestro, desde Capanaga hasta casi nuestros días; también lo hallamos en unos versos vizcaínos de 1688 y en Barrutia. En textos guipuzcoanos es algo más frecuente: lo emplean Larramendi, Mendiburu, Iturriaga e Iztueta, y ya en el s. XX hay testimonios de bastantes más autores, especialmente desde 1950; Aguirre

de Asteasu sólo emplea egungo egun». (Ikus OEH, VI. alea, 479. or.).

Eta sarrera horren barruan dator EGUNGO EGUN "hoy en día" (v. GAUR EGUN), batez ere Iparraldeko autoreek darabiltena, baina baita Hegoaldeko batzuek ere. Adibidez: Egungo eguneko jendeak irakurtzea (Mitxelena); Bereizkuntza hori ez dela egungo egunez argiegi (Mitxelena). / EGUNGO EGUN "el día de hoy" egungo egun zoragarria (Xalbador); egungo egunak ordukoak ez bezalako begitartea du guretzat! (Larzabal).

gaur: "gaurko eguna" eta baita "hoy en día" ere.

Ez da gaur ezagutzen morroi ta nausirik (Arrese Beitia); Jente asko bizi-izan da ludi onetan, eta gaur be bizi da, teatrua ta ziñea zer diran be eztakiyenak (Kirikiño); Gaur ikusten da futbolak nola / dadukan indar geiago (Uztapide).

GAUR EGUN: «Lo emplean autores meridionales del presente siglo, siempre con el significado de "hoy en día"». Bietara ageri da: gaur egunean eta gaur egun forman. Gaur egunean euskaraz mintzarazten inor saiatzen baldin bada (Mitxelena); Amodioa, gaur egun ere hoin sendo bada ahalez (Xalbador).

GAUR EGUNEKO: O gaur eguneko yakintzea (Kirikiño); Gaur eguneko kristauen gerekoitasuna (Munita).

gaurko: "de hoy", "de hoy día".

Gaurko gazteak (M. Atxaga); Gaurko hizkuntzara itzulia (Mitxelena).

*Beraz, erabilerak ikusirik, eta Euskaltzaindiak honen gaineko araurik ematen ez duen arte, guztiak zilegi eta baliokide direla esan daiteke "hoy en día" adieran, gogoan izanik **egun** (eta dagozkion azpisarrerak) batez ere Iparraldeko autoreek erabili dituztela, eta **gaur** (eta dagozkion azpisarrerak) batez ere Hegoaldekoek. Kontuan hartu, gainera, Iparraldekoentzat **gaur** "gaur gauean" dela.*

Bestalde, gaur eguneko eta gaurko txandakatzea gomenda daiteke, batez ere pentsatzen badugu gaur eguneko guztiz nagusitzen ari dela, gaurkoren kaltetan.

Baina oraingo, une honetako, 24 orduz ari bagara, erabili gaurko berriak, gaurko albisteak, gaurko egunak utzi dizkigun albisteak...

Data: 2001/03/28

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

gizonduarazi

Galdera:

Gizondu zaitetze ondo badago, gizonduarazi ondo dago?

Erantzuna:

Bitxi samarra den arren, gizondu aditzaren forma arazlea, gizonarazi nahiz gizonduarazi izango litzateke, bere aditzoina gizon(du)araz izanik.

Data: 1999

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

hausgarri/hauskor**Galdera:**

Zein da bi hauetan egokiena: kontuz edalontziarekin, hausgarria da eta ala kontuz edalontziarekin, hauskorra da eta?

Erantzuna:

Gramatika batzordearen ustez, hauskor erabili beharko litzateke hor: kontuz edalontziarekin, hauskorra da eta. Baliteke zenbait hiztegitan (batez ere oinarritzat eta abiapuntutzat euskal testuak izan ez dituztenetan) hausgarri ere agertzea, erraz hausten den edo hauts daitekeen zerbait adierazteko; izan ere, hori ere bada -garri atzizkiaren erabileretako bat (gaztelaniazko -ble-ren ordain izan daitekeena). Hala ere, ez da hori -garri atzizkiak duen balio bakarra ez eta ere nagusia. Horretaz jabetuko gara literatur tradizioko datuak aztertzen baditugu. Ohartuko gara ez dagoela erabilera horren lekukotasun bat bera ere hautsi aditzarekin; beti agertzen da -kor atzizkia duela (34 agerraldi Orotariko Euskal Hiztegiaren corpusean). Adibidez:

Txirula hauskor.

Ontzi hauskor.

Kristala baino hauskorragoa den Jainkosa...

Bidrioa baino hauskorragoak gara...

Hausgarri forma, aldiz, bi alditan bakarrik agertzen da literaturan; beste erabilera batekoak biak, ordea. Kasu hauetan ez da "erraz hausten dena", baizik eta "hautsi egiten duena", balio eragilea duena. Hori da, hain zuzen ere, -garri atzizkiaren erabilera nagusia, aktiboa (hautsi egiten du) eta ez pasiboa (hautsi egiten da). Horren adierazgarri, ikus ditzagun literaturako bi adibide bakarrak:

Enetzat bihotz-hausgarri da ikhustea asko laborari ardirik gabe txarki bizitzen, izan letzazketelarik, berak nor balira, ongi bizitzeko behar bezenbat. (J. Duvoisin, Laborantzako liburua, 268. or.).

*Erromako gortetik, Aita Saindua ganik, jin dire
berriak Pontifo berrientzat, Apez zin egilentzat,
bihotz hautsgarriak eta latzgarriak. (S. Monho,
Poemak, 26. or.).*

*Bi adibide horietan bihotzak ez dira "hausten errazak" edo
"hauts daitezkeenak"; izan ere, "laborariak ardirik gabe
ikusteak" hausten du bihotza lehen adibidean, eta "Pontifo
berrientzat jin diren berriek" hausten dute eta lazten bihotza,
bigarren adibidean.*

Data: 1998/10/21

Erantzulea: Gramatika batzordea

hil eta hilabete

Galdera:

Elkarren sinonimoak al dira biak?

Erantzuna:

*Izan litezke sinonimoak; hala ere, bi erabilera bereizten ditugu
Euskal Herrian:*

*1) Hiztun batzuek ez dute hilabete baizik erabiltzen
(Iparraldean, adibidez).*

*2) Beste batzuek desberdindu egiten dituzte: hil (urtea banatzen
den hamabi zatietako bakoitza: hilen izenak, neguko hiletan,
maiatzeko hila...) eta hilabete (denbora hedaduratzat harturik,
30 eguneko-edo denbora bitartea: hilabetean egon naiz Grezian
= hilabete osoan).*

Data: 1999/05/05

Erantzulea: Gramatika batzordea

indaba/babarrun

Galdera:

*La Real Academia de la Lengua Vasca ha incluido en el
vocabulario unificado las palabras indaba y babarrun, y no
sabemos cual de las dos utilizar para la denominación
genérica.*

Erantzuna:

*Efectivamente, Euskaltzaindia ha incluido en su vocabulario
unificado, Hiztegi Batua, ambas palabras: indaba (Bizk.) y
babarrun.*

*En el caso de palabras o formas que no son de uso general, se
indica junto a la palabra una abreviatura que informa del*

dialecto o ámbito de uso o procedencia. El término babarrun no lleva ninguna marca dialectal, por ser de uso más general que indaba (Bizk.), que, en cambio, sí lleva marca dialectal. Por ello, teniendo en cuenta que se pretende diferenciar la denominación genérica de las subdenominaciones, sería más coherente el uso de babarrun para la denominación genérica: Euskal Herriko babarrunak.

Data: 1999/02/04

Erantzulea: Pello Telleria

itsasketa/nabigazio

Galdera:

Zuzena da Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganbera izena ala gaztelaniazko navegación esateko nabigazio hitza erabili behar da?

Erantzuna:

Erakunde horren izena zuzena da bere horretan, itsasketa eta guzti; izan ere, navegación orokorki esateko, Hiztegi Batuan onartua da nabigazio hitza, baina arruntzat jotzen da.

Data: 1998/09/30

Erantzulea: Jose Luis Lizundia

jakinarazpena eta beste

Galdera:

Zuzenak al dira ondorengo hauek?

**NOTIFICACIÓN / ART. 2.722 L.O.P.J.
JAKINARAZPENA / B.J.L.O. 2.722. ART.**

**SALA DE NOTIFICACIONES / 23 JUN. 2000 / RECIBIDO
JAKINARAZPEN GELA / 2000 EKAI. 23 / JASOA**

Erantzuna:

Bai, zuzenak dira.

Data: 2000/09/18

Erantzulea: Pello Telleria

krokodilo, orkestra...

Galdera:

Metatesi horiek ez al dira gehiegikeriak?

Erantzuna:

Horiek dira nazioarteko formak, baita Iparraldekoak ere. Kokodrilo eta orkesta gaztelaniaz bakarrik erabiltzen dira.

Data: 2000

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Laterandar kanonigoak, artxibo historikoa**Galdera:**

*Zuzenak al dira ondorengo forma hauek biak?
San Agustinen Erregeladun Laterandar kanonigoak
Elizbarrutiko Artxibo Historikoa*

Erantzuna:

Bai, zuzenak dira.

Data: 1998/10/27

Erantzulea: Pello Telleria

noski**Galdera:**

Esaldi honetako hutsunean ... egingo dudala! Zalantzan jartzen duk, ala? zergatik ipini behar dugu horixe eta noski txarto dago?

Eta Asmatuko ote dugu? galderari erantzuteko, zergatik dago txarto Noski baietz erantzuna? Noiz erabil ditzaket Noski baietz eta Noski ezetz?

Erantzuna:

... egingo dudala! Zalantzan jartzen duk, ala? esaldiko hutsunean, horixe edo jakina ipini behar da, eta hor noski erabiltzea tradizioaren kontrakoa da.

Asmatuko ote dugu? galderari, hor, Bai, noski edo Ez, noski erantzun behar zaio, arestian azaldutako arrazoi beragatik. Horrexegatik ez dira inoiz erabili behar Noski baietz eta Noski ezetz, baizik eta beti Bai, noski edo Ez, noski.

Data: 2001/04/19

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

nurtur**Galdera:**

Euskaraz, ba al da nurtur hitza?

Erantzuna:

*Orotariko Euskal Hiztegian (XII. liburuko 919. orrialdean), hor ageri da **nurtur** hitza, eta adibide bakartzat esaera zahar hauxe dakar: Iyerik ezta nurtur igarra eztuenik (AN-gip). "No hay árbol sin rama seca". Inza Eusk 1928, 277. or.*

Data: 2000/02/03

Erantzulea: Pello Telleria

ogi txigortua, ogi txigorra...**Galdera:**

Ongi esana al dago txigorkia?

Erantzuna:

Txigorki jaso da Hiztegi Batuan, baita txigortu aditza ere. Partizipioa, oro har, izenondo balioan ere erabil daitekeenez, ogi txigortu ere zuzena da, noski.

Data: 2000

Erantzulea: Arauaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

ohi, ezezko esaldietan**Galdera:**

Zein hurrenkeratan eman behar dira ohiren bidez osatutako perpaus ezezkoak? Ez da etorri ohi ala ez ohi da etorri?

Erantzuna:

Jakina denez, ez ohi da etorri hurrenkera sarriena ez bada ere literatur tradizioan, ez dira gutxi hurrenkera hori dutenak: Axularrek, Ziburuko eta Sarako Etxeberriek eta Mitxelenak badituzte, besteak beste, era horretakoak. Ez zaigu, hortaz, txartzat ematekoa iruditzen. Hona hemen adibide batzuk:

*Ingoikoa ez ohi da unhatzen [J. Etcheberri (Ziburukoa), Manual Devotionezcoa, 12. or.]
Gaztelaniaz ez ohi da letraz-letra irakurri (Koldo Mitxelena, Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak, IV, 129. or.)
... ez ohi da lan alferra izaten (K. Mitxelena,*

*Ibidem, 148. or.)
Zeren halakoek ez ohi dute erraiten ongirik (P.
Axular, Gero, 291. or.)
Ez ohi du, begi gorde anhitz higatzen (P. Axular,
Ibidem, 187. or.)*

Data: 2000/04/19

Erantzulea: Gramatika batzordea

Perituen eta Ingeniari Tekniko Industrialen Kontseilua

Galdera:

La denominación Euskal Autonomia Erkidegoko Perituen eta Injineru Tekniko Industrialen Kontseilua es correcta?

Erantzuna:

Si, es correcta, pero procede realizar la siguiente observación acerca de la palabra injineru: Euskaltzaindia, en su vocabulario unificado, Hiztegi Batua, ha optado por recomendar el uso de la palabra ingeniari, en detrimento de injineru, de cara a la unificación del idioma. De modo que es más adecuada la denominación Euskal Autonomia Erkidegoko Perituen eta Ingeniari Tekniko Industrialen Kontseilua.

Data: 1999/02/04

Erantzulea: Pello Telleria

Prokuradoreen Elkargo Ospetsua eta beste

Galdera:

Zuzenak al dira ondorengo hauek?

*ILUSTRE COLEGIO DE PROCURADORES DE LOS
TRIBUNALES DE VIZCAYA
BIZKAIKO AUZITEGIETAKO PROKURADOREEN
ELKARGO OSPETSUA*

*ES COPIA / KOPIA DA
SR. SECRETARIO / IDAZKARI JN.
SALA DE JUNTAS / BATZAR GELA
SALÓN DE ACTOS / ARETOA
BIBLIOTECA / LIBURUTEGIA
BAÑOS / KOMUNAK
SEÑORAS / EMAKUMEZKOAK
CABALLEROS / GIZONEZKOAK*

Erantzuna:

Zuzenak dira, bai.

Data: 2000/06/19

Erantzulea: Pello Telleria

saiatu**Galdera:**

Bere burua hiltzen saiatu da (oker).

Bere burua hiltzea intentatu du (zuzen).

Bere burua hil nahi izan du (zuzen).

Gure ustez, saiatu beti ez da intentaturen pareko, baizik "esmerarse" eta "intentar", bien alor semantikotik du apur bana, kontestuaren arabera.

Erantzuna:

Orotariko Euskal Hiztegia hartu eta intentatu sarrera ikustea nahikoa da, aditz horrek euskal literaturan zein erabilera urria izan duen ikusteko. Hiztegi Batuan, saiatu sarreran ere ez da horrelako argibiderik ematen. Hobe da zuhur jokatzeta, eta bere burua hiltzen saiatu da txartzat ez ematea, datuak ondo aztertu arte.

Data: 1999

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

topean ibili**Galdera:**

Olano topean dabil (zuzen).

Olano topera dabil (oker).

Erantzuna:

Gaztelaniaren kalko ustela den neurrian topean ibili delakoa, ez da batere erraza zein den hobea eta zein okerragoa esatea.

Data: 1999

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

txartel gorria**Galdera:**

*Arantzabalek txartel gorria ikusi du (oker).
Arantzabali txartel gorria atera dio (zuzen).*

Erantzuna:

Futbol kontuetan adituegiak ez izan arren, txukunagoa iruditzen zaigu bigarrena. Behar bada, txartel gorria erakutsi dio ere zuzena izan daiteke.

Data: 1999

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

uharte eta izaro elkarren sinonimo?**Galdera:**

Egia al da uharteren sinonimoetako bat izaro dela?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du ezer erabaki horretaz; baina litekeena da, bai, uharte eta izaro elkarren sinonimo izatea (ikus Orotariko Euskal Hiztegia, IX. liburua, 800.-801. or.):

***izaro:** Isla. / Nombre de la isla situada en la bahía de Bermeo. / Según Mogel, significa "círculo de mar". Tal vez signifique "isla" en general.*

Data: 2001/04/05

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

zerikusia izan / zer ikustekoa izan**Galdera:**

*Horrek ez du zer ikusirik nik esandakoarekin (zuzen).
Horrek ez du zer ikustekorik nik esandakoarekin (oker).*

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du araurik eman horretaz. Hala ere, argi dago lehena zuzena dela; zerikusi guztia batera idaztea ere ohikoa da, izen kategoria hartu duen neurrian. Ikusteko ere izena da, eta biak (zerikusi eta ikusteko) baliokide izan daitezke:

Honek ez du horrekin zerikusirik = honek ez du horrekin ikustekorik

Dirudienez, bi egiturak nahasi egin dira. Kontuan izan, hala ere, zer eta ikusteko perpaus berean ager daitezkeela, baina bakoitza osagai desberdina izanik:

Zer ikusteko dut nik zurekin?

Adibide horretan, zer galdetzailea eta ikusteko, izena ditugu; beste adibide honen pareko egitura du, beraz:

Zer palazio dauka maitia zuri emateko?

Data: 1999

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

alaena/halakoa

Galdera:

Zein da zuzena, "lapur halakoa!" ala "lapurra halakoa!"? Eta "alaena"rekin?

Erantzuna:

Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiak adibide hauek dakartza, besteak beste:

halakoa (1. liburukiko 614. or.): zatarra halakoa; astoa halakoa; lotsagabea halakoa; arloteak halakoak; lapurrari halakoari; zakarra halakoa...

alaena (1. liburukiko 598. or.): alferra, alaena; urde zikiña ta alaena; esteak aterata ez da ordaintzen ergel alen hori; eulimandoa, alena; txoroflauta, alena; zurrutero alena; parregarri alenak; lapur alena; zantar alena; zitala, alaena; makala, alena; ergel alaena...

Beraz, tradizio idatziaren arabera, "lapurra halakoa" da zuzena. Bestalde, "lapurra, alaena" eta "lapur alaena" forma biak agertzen dira.

Data: 2001/11/19

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

aste honetan / oraingo astean

Galdera:

Zer hobesten da batasunerako: "aste honetan" edo "oraingo astean"? Nire ustez, "aste honetan, urte honetan" eta horrelakoak "esta semana, este año" eta horrelakoen kalkoak dira.

Erantzuna:

Zalantzarik gabe, "aste honetan ibilaldia egingo dugu" zuzena eta egokia da, eta "oraingo astean ibilaldia egingo dugu" ez. Nik ez dakit non darabilten "oraingo astean", baina Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiko corpusean ere ez da inoiz ageri egitura hori. Bestalde, gehiegizkoa iruditzen zait

*"aste honetan" kalkoa dela esatea, eta gogorarazi nahi dizut
"urte honetan" erabili ordez, "aurten" erabiltzen dela.*

Data: 2001/12/20

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Aurrizkiak: ber- eta bir-

Galdera:

Noiz erabili behar da ber- eta noiz bir?

Erantzuna:

Badirudi joera nagusia dela ber- + bokala egitea eta bir- + kontsonantea. Baina Euskaltzaindiak ez du arau berezirik eman honetaz.

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

bakarrik / baino ez

Galdera:

Semantikaren aldetik berdinak al dira "bakarrik" eta "baino ez"? Eta erabilpenean?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du ezer erabaki gai horretaz; baina Ibon Sarasolaren Euskal Hiztegiak dakarrenez (ikus 95. or.),

"bakarrik" hitzak bi adiera ditu:

"bakarrik (1.): Lagunik, kiderik gabe."

"bakarrik (2.): Eta ez besterik, eta ez gehiago, eta ez bestetan...(dagokion hitz edo esaldiaren ondo-ondotik)."

Horiek horrela, nire iritzia emango dizut.

Lehenengo adiera duenean, ez dira elkarren sinonimo

"bakarrik" eta "baino ez". Adibidez: "Bakarrik bizi naiz".

Bigarren adieran, ordea, elkarren sinonimo izan daitezke

"bakarrik" eta "baino ez"; adibidez: "hauxe bakarrik esan nahi dizut = hauxe baino ez dizut esan nahi". Baina "bakarrik" hori ezezkoa denean, ez dira elkarren sinonimo; adibidez: "ez dirua bakarrik, nortasun-agiria ere kendu egin baitzioten".

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "bakarrik" eta "baino ez" sarrerak.

Data: 2001/10/22

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Eratorpenari buruzko bibliografia

Galdera:

Zein liburutan aurki dezaket eratorpenari buruzko informazioa?

Erantzuna:

Hona oinarri-oinarrizko bibliografia:

HABE: EGArako langaiak. Lexikoa lantzen, Donostia, 1985 (L.04 - L.18 ikasgaiak. Eratorriaren adiera da atzizkiak sailkatzeko irizpidea, eta horietako bakoitzaz azalpen zehatza eskaintzen du: atzizkiaren aldaerak, eratorriaren esanahia, oinarriaren nolakoa, testuetako adibideak...). Hor jasotzen da Villasanteren eta Azkueren doktrinaren funtsa.

VILLASANTE, L.: Palabras vascas compuestas y derivadas, EFA, Arantzazu-Oñati, 1981.

AZKUE, R.M.: Morfología vasca, Bilbo, 1925.

UHLENBECK, C.C.: "Suffixes du Basque servant à la Dérivation des Mots", in: RIEV, III (1909), 1.-16. or.; 192.-225. or.; 401.-430. or.

Beste batzuk, nahas-mahas:

IRAZOLA, J.M.: Hitz konposatuak. Aurizkibidea. Ariketak, Hizkuntz Eskola Ofiziala, Bilbao, 1985.

MUJICA, L.M.: Hitz konposatu eta eratorrien morfo-fonetika, Ediciones Vasca, Donostia, 1982.

MUGICA, Placido: "Afijos vascos", in: Diccionario Castellano-Vasco, El Mensajero del Corazón de Jesús, Bilbao, 1965.

ECHAIDE, I.M.: Tratado de sufijación, prefijación y composición en el idioma euskaro, I. Lopez-Mendizabal, Tolosa, 1931-2.

Data: 2001/12/14

Erantzulea: Jose Antonio Aduriz

esapide, esamolde, erramolde, erranairu

Galdera:

Euskaltzaindiak zein hitz hobetsi du "modismo, idiotisme, idiom, Redensart..." esateko euskaraz?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du bereziki erabaki zein forma hobetsi behar den euskara batuan; izan ere, aukeran ditugu "esapide, esamolde, erramolde, erranairu..." eta abar. Jakizu, hala ere, aipatu berri ditudan aukerako lau aldaera horietatik bat bakarra ageri dela Hiztegi Batuan: hain zuzen ere, "esapide" forma. Hortaz, eta Hiztegi Batua arau-mailakoa denez, "esapide" erabiltzea gomendatzen dizut.

Data: 2001/09/28

Erantzulea: *Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna*

Esapideak: berban-berban

Galdera:

Zuzena al da berban-berban esamoldea erabiltzea? Ez baita hiztegieta agertzen.

Erantzuna:

Zuzena da, bai. Hona hemen Orotariko Euskal Hiztegia zer ageri den esapide horretaz (OEH, IV. liburukia, 709. or.):
BERBAN-BERBAN. "(Vc), a cada palabra, en todas las palabras" A. (Adnominal). *Emeti agiri da, kristinaubak, orrako berban berbango guzurtegiari, guztiok ta bakotxa diriala pekatubak. (B Ic II 175s.)*
Herrian erabiltzen den esapidea bada, erabili lasai. Izan ere, hiztegieta ez agertzeak ez du esan nahi erabili ezin denik, nahiz eta erabilera murrizteko hitza izan.

Data: 2000/07/11

Erantzulea: Pello Telleria

Esnea galdu/mindu/garraztu...

Galdera:

Esnea zer egiten da, ozpindu ala garraztu?

Erantzuna:

Hitz asko ditu euskarak esnea galdu edo mindu egin dela adierazteko. Adibidez, Plácido Múgicaren Diccionario Castellano-Vasco delakoak 25 sinonimo dakartza "cortarse la leche" adierazteko (ikus 496. or.); baina 25 horien artean ez dira ageri ez ozpindu eta ez garraztu.
Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiak, ordea, garraztu sarreran, esnari buruzko bi aipamen dakartza (biak Bizkaikoak):
 - *Lenengo orduan ez dogulako egosi, esnia garraztu da.*
 - *Egun bian be ederto euki zeinke esnea, bat be garraztu barik.*
Horrez gainera, jakingarri izango zaitzu, agian, nik neuk adineko hainbat euskaldun elebakarri entzun izan diedana:
alegia, esnea jan egiten dela, eta ez edan.

Data: 2001/04/04

Erantzulea: *Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna*

ezertariko

Galdera:

Zer-nola erabiltzen da "ezertariko" esamoldea?

Erantzuna:

Erabileraren erakusgarri, ikus Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiak dakartzan adibide hauek:

- Biotzak itzegiten zuen, ba, danen agotik ezertariko gandurik edo estalkirik gabe. (T. Agirre, Uztaro, 198. or.)
- Alperrik esan erazo buruan beste ezertariko lorrik edo nasterik ebanik, neskatxak bein eta barriro galdetu arren. (E. Erkiaga, Arranegi, 70. or.).
- Maite biak, alkar idoro ondoren ez tatan daude, eskuak emanik; emazteak ez du ezertariko zaratarik gura. (Gaztelu, Musika ixilla, 155. or.)
- Ondasun guztiak, ezertariko mingarri bagarik, aurkituten diran egoera oso oso ona; infernuan barriz gatx guztiak, ezertariko pozgarri bagarik, aurkituten dira. (Iturzaeta, Azalduera laburrak, 198. or.)

Data: 20010925

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Gramatikako terminologia**Galdera:**

Gramatikako terminologian zer dago erabakita edo finkatuta?
 sujetua/subjektua
 objetua/objektua
 adjetiboa/adjektiboa
 jeneroa/generoa
 islada/isla
 menpeko perpausak/mendeko perpausak...

Erantzuna:

- a) Hiztegi Batukoak dira subjektu, objektu, adjektibo, genero, isla eta mendeko.
- b) Gramatikari dagokion gainerako terminologian, perpausen sailkapenari dagokionez, Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU III, IV eta V) har daiteke erreferentziatzat.
- c) Anlisi sintaktikoak egiterakoan erabiltzen den terminologia dela eta, erlazio atzizki eta kasu marka izenei dagokienez, mendeko perpausen loturei Gramatika batzordeak menderagailu deitzen die; erlazio atzizki orokorregia baita. Eta kasu marka, ostera, izen sintagmek hartzen dute. Matematika, Geografia eta Historiari dagokien hiztegi arrunta finkatzea ere beharrezko ikusten du jendeak (batik bat argitaletxeek) eta hala egitea eskatzen diote Euskaltzaindiari.

Hiztegi Batuko lantaldea ari da orain esku artean ditugun zerrendak osatzen, baina horrek ez du esan nahi arlo jakin bateko terminologia agortuko denik. Zer esanik ez, lan hori burutzeko lagungarri izango litzaioke Hiztegi Batuko lantaldeari, nahiz Euskara Batuko batzordeari, argitaletxe eta lantaldeek dituzten zerrendak eskuratu ahal izatea.

Data: 2000

Erantzulea: Arauaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

Haurtxo txikien hizkera: txitxi, fufu eta pupu

Galdera:

Ume txiki bati nola esaten zaio zerbaitek erre egiten duela, horrek txitxi egiten du edo horrek pupu egiten du?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du ezer erabaki horretaz; baina haurtxo txikien hizkeran, euskaraz, beroa dagoen zera fufu dago, eta beroaren beroak fufu egiten du, erre. Bestalde, pupu(a) mina da (min egitea, min ematea, min hartzea edo min izatea); eta txitxia, berriz, haragia da, okela (ikus Idazkera-liburua, 130. or.).

Data: 2001/04/05

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Hortaz/hortan

Galdera:

Guk, Eskoriatzan eta Aretxabaletan, "hortaz" esateko, "hortan" erabiltzen dugu. Zuen Hiztegi Batuan begiratu dut, eta ez dut aurkitu, eta gainerako hiztegietan ere ez. Jakin nahi nuke "hortan" hori erabiltzea zilegi den.

Erantzuna:

Zenbait lekutan, ondoriozko lokailuen erabilera hori ere badu "hortan" erakusleak. Hala ere, ez da ageri Euskaltzaindiaren Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, III, Lokailuak liburukian eta ez Hiztegi Batuan; hain zuzen ere, eremu murriztekoa delako eta nahasgarri gerta daitekeelako. Hortaz, ez da egokia batasunerako; baina bai "hortan" erabiltzen den herri horietarako.

Data: 2001/05/18

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

iradoki, idaroki

Galdera:

Lehengo batean zera irakurri nuen jatetxe batean: "Eguno iradokizunak" eta jarraian "Iradozikunak". Hitz hori horrela erabiltzea ez al da erdarakada galanta? Izan ere, iradokizuna ez ote da "norbaitek edo zerbaitek ernarazten digun sentipena"?

Erantzuna:

Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiak "iradoki" sarreran dio "idaroki" begiratzeko. Beste horrek, berriz, esanahi hauek omen ditu: "Hacer salir, sonsacar; sugerir, inspirar". Baina aurreraxeago dio: "Al Sur lo emplean Mendiburu y autores de léxico cuidado del s. XX, estos últimos con el sentido de "sugerir, inspirar" principalmente".

Ibon Sarasolaren Euskal Hiztegiak "idaroki" sarreran dio "iradoki" begiratzeko, eta hor ikusten da Sarasolak zaharkituztat daukala "iradoki" hitzaren "jalgiarazi" esanahia, eta beste hau dakarrela nagusiki: "Norbaitengan halako gogoetak, ideiak edo sentipenak ernarazi".

Egia da, hortaz, zuk diozuna: alegia, "norbaitek edo zerbaitek ernarazten digun sentipena" dela iradokizuna. Baina, "sentipenak" ez ezik, hor ditugu, gainera, "gogoetak" eta "ideiak" ere. Horiek horrela, eta OEHN aipatzen diren "sugerir, inspirar" adierak kontuan hartuta, ez dirudi inolako erdarakadarik dagoenik hor.

Data: 2001/05/23

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Jende, jende batzuk, zenbait jende, edozein jende

Galdera:

"Jende" hitza beti singularrean deklinatu behar da ala onartzen da pluralean? Eta "zenbait" eta "batzuk" zenbatzaile zehaztugabeekin edota "zein" eta "edozein" nolakotzaileen laguntzaz joan daiteke? Adibidez, "jende batzuk, zenbait jende, edozein jende" eta abarrekin?

Erantzuna:

Ohituraren arabera, Hegoaldean ez da erabiltzen "jende" hitza pluralean, baina Iparraldean bai. Bestetik, tradizioari begira, erabilera-kopuru hauek aurkitu ditut Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiaren

corpuseko datu-basean:

- "zenbait jende" 6 aldiz bakarrik ageri da idatziz (eta idazle bakarrik erabili izan du: Koldo Mitxelena).
- "zenbait", ordea, 2.455 aldiz ageri da.
- "jende batzuk" 6 aldiz bakarrik ageri da idatziz (Joanategiren testuetan behin, Xalbadorrenetan beste behin, Añibarorenetan bitan, eta Tartasenetan beste bitan).
- "batzuk", ordea, 2.525 aldiz ageri da.
- "edozein jende" ez da behin ere ageri idatziz.
- "edozein", ordea, 1.158 aldiz ageri da.
- "zein jende" ez da behin ere ageri idatziz.
- "zein", ordea, 4.412 aldiz ageri da.

Data: 2001/12/03

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

jokoa, jolasa, josteta

Galdera:

"Joko" hitzak badu esanahi generikoa: alegia, "jolasak" bere barnean sartzeko modukoa? Egokiak dira "haur-jokoak", "mahai-jokoak", "hitz-jokoak", "tokan jokatu" eta abar?

Erantzuna:

Jokoa ez da jolasa, eta jolasa ez da jokoa. Euskaltzaindiak ez du ezer adierazirik "joko" eta "jolas" hitzen arteko aldeaz; beraz, ondoren adieraziko dizudan bereizkuntza nik neure iritziz emango dizut.

Honelatsu adierazi nuen Idazkera-liburuan (ikus 257. or.), 1993an:

"Jokoa atsegin hartzeko izaten da (askotan gezurra badirudi ere); jolasa, aldiz, atsegin edota atsedean hartzeko. Jokoak baditu beti bere arauak; jolasak, beharbada ez. Jokoan diru-ondasunak edota harrokeria-harrotasunak izaten dira tarteko, jolasean ez bezala. Jolasean, zenbait jolasetan, garaitu egiten da. Jokoan, garaipenaz gainera, irabazi ala galdu egiten da; izan ere, bik elkarren aurka jokatzeko dutenean, biek ezin irabazi: lehen eta orain, hemen eta nonahi, batek behar nagusi".

Hortaz, "joko" ez da markagabea (generikoa), eta "jolas" ez da markatua: alegia, "jolasa" edo "josteta" ez da "joko" mota bat. Galderan aipatutako "mahai-jokoak", "hitz-jokoak", "tokan jokatu"... egokiak dira; baina "haur-jokoak" joko izan badaitezke ere, ohikoena da "haur-jolasak" edo "haur-jostetak" izatea.

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "jokatu" sarrera.

Data: 2001/06/13

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Letren izenak: x eta t

Galdera:

Batetik, x letraren izena *ixa dela* dio Euskaltzaindiak; hala ere, nola ahoskatu behar da maileguetan bokal artean gordetzen den "x" hori? Adibidez, taxi: taksi.

Bestetik, t letra, hitz amaieran, kontsonante-multzoa gertatzen denean nola ahoskatu: yogurt, Renault, Ford ... D/T ahoskatu?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak, euskal alfabeto letrak zein diren eta horien izenak nola diren argitu nahi izan zuen [17. arauan](#). Egia da, hala ere, ezinbestean sortzen direla ahoskera zalantzak, etorri diren galderetan argi asko ageri denez.

1998ko ekainean eman zuen Euskaltzaindiak ahoskerari buruzko araua ([87. araua](#)). Baina ez da ezer esaten halako hitzen ahoskeraz bereziki.

Galderan agertzen diren izenetatik Renault behintzat, beste hizkuntza bateko izen propioa denez, zentzuzkoa dirudi jatorrizko hizkuntzan bezala ahoskatzea.

Data: 2000

Erantzulea: Arauaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

Lexikoa: basoan zehar / basotik zehar; basoan barrena / basotik barrena

Galdera:

Badakit zuzenak direla "basoan zehar / basotik zehar / basoan barrena abiatu zen" egiturak, baina zuzena al da "basotik barrena" ere?

Erantzuna:

Bai, "basotik barrena" ere zuzena da. Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiak hainbat adibide dakartza (ikus IV. liburukiko 92. orrialdea, "precedido de ablativo"), batez ere hegoaldeko autoreenak: Lardizabal, Agirre Asteasukoa, Iztueta, Jautarkol, Txirrita, Uztapide eta abarrenak. Hona hemen batzuk:

- Ortik barrena joan adi (Txirrita)
- Zoaz kristaua ate oetatik barrena (Agirre Asteasukoa)
- Irundik barrena artu (Uztapide)

Data: 2001/05/18

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.


Mapak (geografia/kartografia)

Galdera:

Mapak-eta egiterakoan, Espainiako Instituto Geográfico Nacional delakoak erabiltzen dituen hitz generikoen, gaztelaniaz "accidentes geográficos" deiturikoen, euskal ordainak. Gaztelaniazko hitzen ondoan jartzekoak direlako erantsi zaie euskarazko hitzei bukaerako "-a" artikulua, ez hala behar dutelako (ikus Hiztegi Batua).

Erantzuna:

Geografia hitzen zerrenda (Euskaltzaindiak onartua)



abrigo de roca harpea
 acebo gorostia
 aeropuerto aireportua
 alto gaina
 arbolea zuhaiztia
 arena 1. hondarra, 2. legarra, 3. harea
 arroyo, regata 1. erreka, 2. errekastoa, 3. latsa
 ayuntamiento (institución) udala
 ayuntamiento (casa consistorial) 1. udaletxea, 2. herriko etxea
 Ipar. eta Naf.
 bahía badia
 balneario bainuetxea
 barranco 1. erreka-zuloa, 2. troka Bizk.
 cabo, punta lurmuturra
 camino bidea
 camping kanpina
 campo 1. alorra, 2. soroa, 3. landa
 canal 1. ubidea, 2. kanala
 canal (acequia) de riego 1. ureztabidea, 2. kanala
 canal (acequia) de molino 1. erretena, 2. kanala
 casa etxea
 cascada urjauzia
 castaño gaztaina
 castillo gaztelua
 cementerio hilerria
 cima 1. gaina, 2. gailurra, 3. tontorra
 colina, cerro muinoa
 collado lepoa
 comunidad erkidegoa
 cordillera mendikatea
 crestería gailur-lerroa
 cruz gurutzea
 cueva 1. haitzuloa, 2. hartzuloa, 3. koba Heg.

cueva artificial koba
dolmen trikuharria
embalse urtegia
ensenada senadia
ermita baseliza
espino elorria
estación geltokia
faro itsasargia
FF.CC. T.B.
fresno lizarra
fuelle iturria
fuerte gotorlekua
funicular funikularra
golfo golkoa
haya pagoa
hondonada sakana
hoyo, cavidad zuloa
iglesia eliza
isla uhartea
lago, laguna 1. aintzira, 2. lakua
llanada zabaldua
llanada (alavesa) (Arabako) lautada
llano 1. zelaia, 2. ordokia, 3. ordeka Gip., 4. laua
loma bizkarra
manantial iturburua
mar itsasoa
mina meategia
molino errota
monasterio monasterioa
montaña, monte mendia
muralla harresia
museo museoa
palacio jauregia
parador paradorea
parque natural natura parkea
paso entre montañas mendi lepoa
pastizal larrea
playa hondartza
prado 1. belaia, 2. belartsorua, 3. zelaia, 4. euntzea Naf., 5. pentzea
precipicio 1. amildegia, 2. erroitza
presa uharka
punte zubia
puerto (de mar) portua
puerto de carretera mendatea
punta punta
ría itsasadarra
ribera erribera
río ibaia
roble haritza



EUSKALERAINDIA
 REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
 ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

ruinas hondakinak
 ruinas arqueológicas arkeologia hondakinak
 santuario santutegia
 sima leizea
 soto zaldua
 torre dorrea
 túnel tunela
 universidad unibertsitatea
 valle 1. harana, 2. ibarra
 vega 1. ibarra, 2. landa Naf.

Data: 2001/07/20

Erantzulea: Euskaltzaindiak onartua

Menua: sagar-krepea

Galdera:

Bezeroentzat dugun menuan "Sagar krepa Calvadosarekin" dugu. Zuzena al da?

Erantzuna:

Hiztegi Batuan ez dira ageri, oraingoz, ez krepe eta ez calvados hitzak. Hala ere, zuena baino egokiagoa iruditurik, ondorengo idazkera hau proposatzen dizut zuen menurako: "Sagar-krepea, Calvados likorearekin".

Data: 2001/04/24

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Nahiko(a): nahiko lan, nahikoa lan

Galdera:

Hurrengo hiru esaldi hauetatik zein dira zuzenak?

- Nahikoa lan duzue umeak zaintzen
- Nahiko lana duzue umeak zaintzen
- Nahikoa lana duzue umeak zaintzen

Erantzuna:

Euskaltzaindiaren Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna liburuan esaten den bezala (ikus 139. or.), nahikotasuna adierazteko, besteak beste, "nahiko" eta "nahikoa" erabil daitezke, "biak aski berriak, orain dela ehun eta hogeit bat urtetik honakoak. Orobat NAHIKO gehixeago erabiltzen da, antza denez, eta NAHIKOA sortaldekoa da batez ere".

Hori bai, eman dituzun aukeretatik bi okerrak dira: "nahiko lana" eta "nahikoa lana" okerrak dira. Zuzenak dira "nahiko lan" eta "nahikoa lan".

Auzi horri buruzko argibide gehiago aurkituko duzu Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegian eta Ibon Sarasolaren Euskal Hiztegian. Horrez gainera, ikus datu-base honetako "nahikoa" sarrera.

Data: 2002/01/11

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Nor ala Nork?

Galdera:

Zein da forma zuzena, Itxiko al duzu ahoa, burugabe horrek ala Itxiko al duzu ahoa, burugabe halakoa?

Erantzuna:

Ez Euskaltzaindiak eta ez Gramatika batzordeak ez dute ezer esan horretaz, baina badirudi biak direla onartzekoak. Aztertzekoa izango litzateke bietatik bat hobetsi behar den.

Data: 1996

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
EUSKALTIKAKO AKADEMIA
ACADEMIE BASQUE

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Onomatopeiak

Galdera:

Euskal onomatopeien zerrendatxo bat ateratzeko premia ikusten da (lehendik eginik baldin bada, ez dugu ezagutzen).

Erantzuna:

Ez da halakorik. Jaso dugu eskaera.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Protokoloa: Txit ospetsu, goren, entzutetsu; Txit argi, prestu

Galdera:

Begirunezko tratamendurako forma bereziak direla eta, zalantza dugu "txit garai", "txit goren", "txit argi" eta "txit prestu" formen artean. Zein dira egokienak, zure iritziz?

Erantzuna:

Dakizuenetz, Euskaltzaindiak ez du ezer arauturik gai horretaz. Herrientzat eta erakundeentzat ikusten ditu egoki Gramatika batzordeak "txit ospetsu", "txit entzutetsu" eta "txit goren"

tratamenduak: esaterako, "Zubietako Udal Txit Gorena" edo "Altsasuko Hiri Txit Ospetsua". Egiturari dagokionez, ez zaio akatsik ikusten aposiziozko egiturari (Altsasu Hiri Txit Ospetsua); baina Gramatika batzordeak gogorarazi nahi du euskararen tradizioak erabat egin duela "-ko" dun egituraren alde (Altsasuko Hiri Txit Ospetsua).

Pertsonentzat, berriz (eta galderan nire iritzia eskatzen duzuenetz), esango dizuet komeni dela, nire ustez, pertsonaren izaera eta egoera bereiztea: alde batetik, "argia" eta "prestua" izaerazkoak dira, berezkoak; bestetik, "garaia" eta "gorena" egoerazkoak dira, pertsonaren karguari edo gizamailari dagozkionak, eta ez pertsonari berari. Horiek horrela, eta iritzia iritzi, pertsonekin erabiliko nuke "txit argi" nahiz "txit prestu" tratamendua; baldin eta pertsonaren beraren izaera (ez kargua edo gizamaila bakarrik) halakoa bada: esaterako, "On Jose Migel Barandiaran txit argi eta prestua".

Data: 2001/09/12

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Aditzaren ingurukoak (Morfologia)

EUSKALTZAINDIA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Galdera:

Zein da zuzena?

1. Ez daukat zertan zu engainatzen ibili beharrik.
2. Ez daukat zertan zu engainatzen ibili.

Erantzuna:

Bigarrena bakarrik da zuzena. Izan ere, "zertan" eta "beharrik" ez dira batera erabili izan literaturan. Hauek dira, beraz, aukera zuzenak:

- a) *Ez daukat zu engainatzen ibili beharrik*
- b) *Ez daukat zertan zu engainatzen ibili.*

Data: 20010619

Erantzulea: Miren Azkarate

"-(e)z" gerundiala (hartuz, eginez, esanez...)

Galdera:

Zuzena al da "Aspirina hartuz sendatu egingo zara" esaldia? Bestalde, zein da "-(e)z" gerundialaren erabilera?

Erantzuna:

Bai, "Aspirina hartuz sendatu egingo zara" zuzena da. Bestetik, "-(e)z" gerundialari dagokionez, Euskaltzaindiak ez du

eman oraindik horren erabileraren inguruko argibiderik; baina Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, VII liburukian aztertzekoa dugu gai hori, aditz jokatu gabeko mendeko perpausen sailean.

Data: 20010525

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

"-agatik, izanagatik"; kausazkoa ala kontzesiboa?

Galdera:

Badakit ez direla berdin "etortzeagatik" (kausa zein helburua) eta "etorriagatik" (kontzesiboa). Baina lehenaldi burutuak "izan" eskatzen duenean ez daukat hain argi. Hau da: "Aita etorri izanak poztu du" moldatu eta "Aita etorri izanagatik (kausa) poztu da" esan al daiteke? Ala "Aita etortzeagatik poztu da" esan behar al da? Nik lehena erabiltzen dut, baina ez dakit ongi dagoen.

Erantzuna:

Kausa balioan ez dago gure literatura-tradizioan "Aita etorri izanagatik poztu da" bezalako egiturarik. Ez, behintzat, Orotariko Euskal Hiztegiako corpus osoan. Baliteke kausazko perpausetan aspektu burutua adierazteko aditz-forma jokatuak ("Aita etorri delako/zelako poztu da") erabili izan direlako gertatzea hori, edo aditz-izena oinarri duen forma jokatu gabea ("etortzeagatik") erabili delako. Kontua da "izanagatik" formaren erabilera guztiak balio kontzesibokoak direla. Adibidez, honako hau:

- Polik maite zuan bizibide ura beti arriskoa bizi izanagatik (Anabitarte, Poli, 43. or.)

Data: 20020114

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

"ahala" aditz jokatuekin

Galdera:

Erabili izan al da inoiz "ahala" aditz jokatuekin? Adibidez, "etorri ziren ahala" bezalakoetan.

Erantzuna:

*Euskaltzaindiak 2002ko martxoko bilkuran hartu zuen erabaki bat "ahala" dela eta, baina hiztegi mailan. Hau da erabakia: **ahala** adlag 1 (aditzaren era burutuaren ondoan) "–en neurrian": iritsi ahala eseri dira; platerak atera ahala husten*

ziren 2 koka ahala jende sartu zen
 Beraz, badirudi erabilera hori bakarrik duela. Orotariko
 Euskal Hiztegiko adibideak ere horrelakoak dira. Hala ere,
 EEBSko corpusean lau adibide ageri dira (lau bakarrik, 358
 adibideren artean) aditz jokatuarekin. Hona hemen horietako
 bi:

- Erromantizismoarekin hasten den mundu-literaturaren
 deskubrimentu eta dehistorizazio hau Europaren inperialismoa
 zabaltzen den ahala gertatzen da (J. Gabilondo)

- Kilikadura somatzen duenean, gainean ezarritik, bere baitan
 sartzen du; eta hitz politikak esaten dituen ahala isurketa
 sentituko du (E. Antxustegi)

Baina erabilera horiek salbuespentzat hartu behar dira.

Data: 2002/09/17

Erantzulea: Pello Salaburu



"arau" eta "arabera"

Galdera:

Batetik, "arabera" dela eta, badakit aditz jokatuarekin ere -(e)N +
 NOREN egitura erabili ohi dela: adibidez, "esaten dutenaren
 arabera". Galdera da ea ohikoa den -(e)N soilarekin erabiltzea:
 alegia, "etortzen diren arabera" bezalako esaldiak ohikoak ote
 diren euskaraz ("etortzen diren neurrian/heinean/bezala"
 zentzuan).

Bestetik, zalantza bera daukat "arau" hitzarekin: ohikoak al
 dira "etorri diren arau" gisakoak?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ezer erabaki ez duenez "arabera" horretaz,
 idazleen erabilerari begiratu behar zaio. Orotariko Euskal
 Hiztegia kontsultatzen baldin bada, argi ikusten da "arabera"
 horrek IS bat behar duela aurretik, beti genitiboan, eta
 batzuetan genitibo marka gabe ere, egileak hitz elkartzat
 hartuko balu-edo (Beobidek instrumentala ere erabiltzen du).
 Dena dela, genitiboarena da, zalantza gabe, idazle gehienek
 erabilera maizena. Baina badira adibideak, oso gutxi badira
 ere, aurrean erlatiboazko esaldia dutenak genitiborik gabe:

- Orduan emanen zaitzu iakintasuneko argia, on eta behar
 izanen duzun arauera. (Pouvreau)

- Batzuk eta zailki besteak, guregan eta gure baitan nola ari
 izan diran arauz. (Umandi)

Angel Urrutia idazleak ere erabiltzen ditu "lagijak-arauz" edo
 "edesti-arauz" bezalakoak (ikus Gixadijaren azikera-bidiak,
 1959). Baina horiek salbuespentzat hartu behar dira. Beraz,
 inoiz erabili izan da; baina ez da ohikoa, eta horregatik
 esanahia ere ez du aldatzen.

Bestetik, "arau" dela eta, Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal

Hiztegiak esanahi horrekin dakartzan adibide guztiak dira genitiboan doan izen-sintagmaren ondokoak. Adibide bat bakarrik dator aurrean erlatiboazko esaldia duena, eta adibide hori -(e)N gabea da:

- Halatan, hor izan den oro behin, hor date berriro, lehen zen arau. (Mirande)

Baina adibide hori aski anbigua da, eta guztiz salbuespena.

Data: 2002/09/17

Erantzulea: Pello Salaburu

"diezaiozuen" bizkaieraz

Galdera:

Zelan esan ahal dot "diezaiozuen" bizkaieraz?

Erantzuna:

Zein bizkaieratan (edo nongoan) zehazten ez duzunez, jakizu bizkaiera literarioan "dagiozuen" forma erabili izan dela batuko "diezaiozuen" adierazteko, eta "deiozuen" forma ere bai.

Data: 20011122

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

"-en" menderagailua eta "-an" bukaera (bailuan, bailitzan, bailegoan...)

Galdera:

Badakit Euskaltzaindiak "bailitzan" bezalako formak ez dituela hobesten; baina, erabiltzekotan, jakin nahiko nuke nola behar duen "egon" aditzaren 3. pertsonak singularrean. Izan ere, ni "bailegoen" zelakoan nengoen arren, Xuxen zuzentzaile ortografikoak okertzat ematen dit, eta "bailegoan" zuzentzat.

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du ezer erabaki auzi horretaz. Gramatika batzordeak, ordea, horrelakoak baztertu gabe, beste egitura batzuk hobesten ditu: esaterako, "balego bezala" (ikus Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, V, Mendeko perpausak, 1 liburukiko 370. or.).

Hortaz, literaturan (XX. mendekoan, oso berria baita) nola erabili den bakarrik esan dezakegu oraingoz. Menderagailua -EN dela aitortu arren (ikus EGLU, V), literaturan -AN bukaeradunak dira nagusi ("bailuan, bailitzan, bailegoan" eta abar), mendebaldeko testuak direlako edo.

Data: 2001/09/12

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

"nahi izan" en eta "nahiago izan" en komunztadura

Galdera:

"Indabak jan nahi ditut" esaten badugu, zergatik ez esan "indabak jan nahiago ditut"?

Erantzuna:

"Nahi izan" eta "nahiago izan" bi aditz dira, eta desberdin jokatzen dute askotan.

Kasu honetan, "nahi izan"ekin doan "jan" aditzaren objektuak aditz nagusiarekin egiten du komunztadura:

Sagarra jan nahi dut

Indabak jan nahi ditut

"Nahiago izan"ek, ordea, mendeko perpaus jokatugabea du osagarri; baina mendeko perpaus horretako aditzaren objektua da "indaba", eta ez "nahiago izan" aditz nagusiarena:

Nahiago dut [sagarra jan]

Nahiago dut [indabak jan]

*Nahiago ditut [indabak jan]

Ezezko perpausetan ere desberdin jokatzen dute bi aditz horiek:

Ez dut egin nahi

*Ez dut egin nahiago

Nahiago dut [ez egin]

*Nahi dut [ez egin]

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "nahi izan" sarrera.

Data: 20010614

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

"oraintxe", ezezko esaldietan

Galdera:

Zuzena al da "Oraintxe ez daukat hori ikusteko gogorik" ala "Orain" beharko luke?

Erantzuna:

Ezezkoetan ere biak dira zuzenak: "orain" eta "oraintxe". Egia da gehienetan "orain" erabiltzen dela, baiezkoetan bezalaxe; baina "oraintxe" ere erabil daiteke.

Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiak, besteak beste, adibide hauek dakartza:

- Oraintxe ezin menderatu dut lemea, dio lemazainak. [Orixe, Mireio, 62. or.]

- *Eztira oraintxe asiak zeingeiagoka arerio oek biak. [Tomas Agirre, Uztaro, 68. or.]*
- *Oraintxe ez natxegon luzarorako. [Etxaniz, Lur berri billa, 65. or.]*

Data: 20010711

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

"zeren (...) bait/-(e)n"

Galdera:

Nahitaezkoa al da "bait-" edo "-n" eranstea aditzari "zeren" edo "zeren eta" lokailuarekin?

Erantzuna:

Ez, ez da nahitaezkoa (ikus Euskaltzaindiaren Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, III, Lokailuak liburukiko 178. or.). Bi erabilera ditu "zeren" horrek: bata lokailu erabilera (liburuki horretan aztertzen dena), menderagailurik gabekoa (ikus 179.-182. orrialde bitarteko adibideak); eta bestea, menderagailu erabilera, "zeren (...) bait-" nahiz "zeren (...) -en" egitura duena. Bietan erabiliena menderagailu erabilera da, eta EGLU, VI liburukia argitaratzean izango dugu informazio gehiago horretaz.

Data: 20010925

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

ihes egin

Galdera:

*Zer atzizki hartu behar du **ihes egin** aditzaren aurreko sintagmak? Euskalkiaren arabera ote da? Zuzenak al dira ondorengo esaldi hauek? 1. Irakasleari ihes egin zion, 2. Nire ihesi dabil, 3. Jonengandik ihesi etorri da.*

Erantzuna:

*Galderako hiru esaldiak zuzenak dira; izan ere, **ihes egin** aditzarekin datiboa erabil daiteke (-RI: irakasleari ihes egin zion), ablatiboa ere bai (-TIK: arriskutik ihes egin du / -RENGANDIK: etsaiarengandik ihes egin du) eta genitiboa ere bai (-REN: etsaiaren ihesi dabil; Absalon-en ihesi basora zihola; tentaldiaren ihesi ez dabiltzalako). Kontua da genitiboan erabiltzen denean **ihesi** forma dugula, hau da, adizlaguna, eta ez aditza (horrekin ere erabil daitezke ablatiboko -TIK/-RENGANDIK gisakoak: handik ihesi etorri direnak).*

Euskalkien arteko erabilerari dagokionez, erabilera orokorrekoak dira guztiak: euskalki eta garai guztietan erabili izan dira (ikus Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegia, OEH, IX. lib. 166.-168. or.).

Data: 2008/07/14

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Subjuntiboa: nahi(ago) izan, gura(go) izan, opa izan -eN/-eLA

Galdera:

*Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegia begiratu dut (ikus XIII. lib. 450. or.) eta adibide hauek aurkitu ditut **opa izan** sarreran: *Merezi du eta opa diogu zeruan goza dadila. Nik opa diet zeruan gerta daitezela. Luzaroan dabilela opa diogu. Orain opa dut izan ezazula zeruetan deskantsua. Zeruak opa diezagula osasuna eta eguneroko ogia.* Horiek horrela, jakin nahi nuke **-eN** bukaera ere zuzena ote den.*

Erantzuna:

*Gramatika batzordearen ustez, onartzekoak dira **opa izan** aditzaren menpeko **-eN** menderagailudun subjuntiboak. Euskaltzaindiaren Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, V, Mendeko perpausak liburukiko 137. orrialdean ikus dezakezunez, **-eN** da, hain zuzen, nahia edo desira adierazten duten aditz gobernatzaileen menderagailu ohikoena subjuntiboetan, **-eLA** baino areago. Salbuespen gisa edo ematen da halakoetan **-eLA** menderagailua (opa diogu zeruan goza dadila), eta, esan bezala, **-eN** menderagailua da osagarri arruntena **nahi(ago) izan, gura(go) izan, opa izan** moduko aditz gobernatzaileentzat. Zuk aipatutako OEHko XIII. liburuki horrek, **opa izan** sarreran, badakar halako adibide bat: "Opa dezun ezkeron neronek erakutsi deizudan". Horrez gainera, ikus JAGONETeko datu-base honetako opa izan / nahi zan / -eN sarrerak.*

Data: 2008/01/23

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

araz/arazi

Galdera:

Subjuntiboan nola behar du arazi aditzak: araz ala arazi?

Erantzuna:

Arazi aditzak ez du berezkoa -i hori; hortaz, subjuntiboan araz behar du.

Data: 1998/06/25

Erantzulea: Euskara Batuko batzordea

beldur izan / beldurra ukan**Galdera:**

Gaizki esana al dago beldurra dut?

Erantzuna:

Izatez, beldur izan aditz-esapidearen erabilera arrunta beldur naiz motakoa da; baina ezin esan daiteke beldurra dut gaizki dagoenik, ogia dut bezalakoan parekoa den heinean.

Data: 1996/04/09

Erantzulea: Hiztegi Batuko lantaldea

egindako lana**Galdera:**

Nire ustez, egindako lana bezalako egiturak ekintza burutuak adierazteko erabiltzen dira. Zuzen al nago?

Erantzuna:

Gramatika batzordea ez da zure iritzi berekoa; izan ere, aditz inguruak agintzen baitu: ingurua nolakoa, interpretazioa halakoa.

Adibidez: Gauez egindako lanak ez dira onak izaten bezalako perpaus batean ez dirudi ekintza burutua dugunik, adizki jokatu gabe horren formak besterik iradokitzen badu ere. Hain zuzen, perpaus horren parafrasia honako hau izango litzateke: Gauez egiten diren lanak ez dira onak izaten.

Data: 1996/12/03

Erantzulea: Gramatika batzordea

gogoratu + subjuntiboa**Galdera:**

Zuzenak al dira ondorengo hirurak?

Besteez gogoratzeko esatera etorri zara.

Besteez gogora nadin esatera etorri zara.

Besteez gogora nadila esatera etorri zara.

Erantzuna:

Besteez gogoratzeko esatera etorri zara.
 Besteez gogora nadin esatera etorri zara.
 Bi horiek zuzenak dira; ez, ordea, azkena:
 Besteez gogora nadila esatera etorri zara.
 Nolanahi ere, Euskaltzaindiak argitaratu duen Euskal
 Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU), V (Mendeko perpausak,
 1) delakoan, perpaus osagarrien atalean, azaltzen dira era
 horretako kontuak, subjuntiboaren erabilerari buruzkoak.

Data: 2000/03/02

Erantzulea: Gramatika batzordea

har ezazu / hartu ezazu**Galdera:**

Inperatiboaren kasuan, nola esan behar da har ezazu ala hartu ezazu, eta noizkoa da erabaki hori?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du araurik eman horretaz, nahiz euskara batuan, bateko eta besteko tradizioa kontuan izanik, har ezazu erabili den nagusiki (Gipuzkoan ere, ahoz, hartazazu esaten da). Euskaltzaindiak erabakia du aditzoinak erabiltzekotan **nola** erabili behar diren, baina ez **noiz** erabili behar diren. Ikus Euskaltzaindiaren Arauak, 1. alea, 147.-149. or. ([28. araua: Aditzoinen forma](#)).

Data: 1998/03/26

Erantzulea: Euskara Batuko batzordea

maite zaitugunok / zintugunok**Galdera:**

Zer testu idatzi behar genuke oroitidazkunean: Maite zintugunok gogoan zaitugu ala Maite zaitugunok gogoan zaitugu?

Erantzuna:

Gramatika batzordearen aburuz, galdera horrek ez du zer ikusirik gramatikarekin, biziak, heriotzaz edo maitasunaz izan ditzakegun iritzi eta ikuspegiekin baizik. Gramatika batzordeak esan dezakeen bakarra da biak zuzenak direla, nahiz eta denboraren ikuspegitik desberdinak diren.

Data: 1996/06/18

Erantzulea: Gramatika batzordea

nola zuk esan duzun / zuk esan duzunez / zuk esan duzunez gero

Galdera:

Zuzena al da nola zuk esan duzun egitura?

Erantzuna:

Gure ustez, gramatikalak dira nola zuk esan duzun, ez da gezurra izango modukoak. Beraz, ez da txartzat emateko perpausa; nahiz eta, hizkuntzaren erabilera jasorako, izan badiren hori baino egitura egokiagoak: adibidez, zuk esan duzunez, ez da gezurra izango edo zuk esan duzunez gero, ez da gezurra izango.

Data: 2001/04/11

Erantzulea: Gramatika batzordea

ohi + aditza

Galdera:

Aditzak aspektu burutua ala burutugabea behar du ohi partikularekin doanean? Etorri ohi da ala etortzen ohi da?

Erantzuna:

Badirudi, oro har, burutua dela nagusi hegoaldeko tradizioan, eta burutugabea iparraldekoan; nahiz eta, gaur egun, iparraldean ere nagusitzen ari ei den aditz burutua duen egitura. Beraz, ez dugu arazorik ikusten biak onartzeko: etorri ohi da eta etortzen ohi da.

Data: 2000/04/19

Erantzulea: Gramatika batzordea

-ten/-tzen partizipio burutugabeetan

Galdera:

Ba al da arau zehatzik noiz erabili -ten eta noiz -tzen partizipio burutugabeetan?

Erantzuna:

[85. arauan](#) eman zituen Euskaltzaindiak honi buruzko argibideak:

-tzen erabiliko da orohar

-ten erabiliko da partizipioa "n" letraz amaitzen duten aditzekin

-ten erabiliko da, halaber, aditz oina kontsonante txistukariz

amaitua bada (ikasten, uzten, gutxiesten, ahazten, hasten, hazten, hezten, hesten, hausten, lazten eta abar). Aditz arazleek ere, horrenbestez, -arazten egingo dute aditz izena.

Data: 2000

Erantzulea: Araua

Zer zabilta? / Zertan zabilta?

Galdera:

Zein da forma egokia: Zer zabilta ala Zertan zabilta?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du batasunerako ezer gomendatu eta Gramatika batzordeak ere ez du proposamen berezirik egin honen gainean.

XIX. mendeko eta XX. mendeko (1950 arteko) autoreak begiratuaz, hona hemen atera ditudan adibide batzuk:

Zer zabilta?

*Zer zabilta bada exezio oriekin? (Agirre Asteasukoa)
Jaungoikuak egun on dizuela, Maiñazi! / Zer zabilta zu emen makilla ta guzi? (Txirrita)
Ilarramendik, Labayenek eta bestek ere badarabilte zer zabilta.*

Zertan zabilta?

Gizona, zertan zabilta orrela eta zer bizi-modu da zuria? (Beovide)

Baña, oñatiarrak, zertan zabilzate Ergiñara-bidean euriaren eske? (S. Mitxelena)

Lagunak engaňatzen zertan zabilta? (Txirrita)

Laphitzek eta Udarregik ere badarabilte zertan zabilta.

Biak erabili izan dira, beraz, eta ez dut uste oraingoz bietako bat hobets daitekeenik; izan ere, biak dira zilegi eta erabilgarri, nire iritziz.

Data: 2001/05/04

Erantzulea: Miren Azkarate

Aditz trinkoak: emadazu/emaidazu, esaguk/esaiguk

Galdera:

Nik emadazu, esaguk eta antzeko adizki trinkoak emaidazu eta esaiguk formak baino batuagotzat eduki ditut oraindaino; baina zalantza sortu zait ea arau mailako erabakirik edo bestelakorik baden horretaz (ez dut aurkitu adizki trinkoen paradigmarik, nahiz inoiz ikusia naizen, ustez, halakorik).

Erantzuna:

Aditz horiek, Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, II liburukian esaten den bezala (ikus 2. argitaraldiko 388. orrialdeko oharra), ez dira benetan trinkoak; "semisintetikoak" edo sasitrinkoak direla esan dezakegu. Berez, aditz perifrastikoak dira; baina, erabiliaren erabiliz, gastatuz joan dira, maiztuz, aditz trinkoen forma hartzeraino. Hona adizki horiei buruzko xehetasun batzuk:

1. Gramatika batzordeak emadazu forma agertu zuen arestian aipatutako EGLU liburukiko ohar horretako adibideen artean.
2. Aditz perifrastikoetako forma batua eman iezadazu da, eta ez eman iezaidazu. Gisa berean, esan iezaguk, eta ez esan iezaiguk.
3. Euskaltzaindiak 1979an argitaratu zuen Euskal Aditz Batua liburuan badira era horretako adizkien paradigmak, aditz trinkoen sailean. Besteak beste, esan/erran aditzaren paradigmaman, forma hauek ageri dira (ikus 180. or.): esadak, esaguk, esadazu, esadazue eta abar. Gainera, eman aditzaren paradigmaman (ikus 170. or.), emadak, emadazu, emadazue, emaguk, emaguzu, emaguzue eta abar ere ageri dira.

Data: 2001/04/04

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Aditza+**Galdera:**

Nahasgarri gertatzen zait "arazi" aditz elkartuetan. Zuzenak al dira "hitz egin, lo egin, negar egin, hitzarazi, lotarazi, negarrarazi, hitz eragin, lo eragin, negar eragin" eta horrelakoak?

Erantzuna:

*Dakizunez (ikus 23. araua), "egin" aditzetik "eginarazi" dator: alegia, "egitera behartu". Bestalde, esanahi horrekin, elkarren sinonimoak dira "eginarazi" eta "eragin". Horiek horrela, "egin" duten aditz elkartuak eta "arazi" batzen direnean, orduan aukeran dauzkagu, bata nahiz bestea erabiltzeko, "eginarazi" eta "eragin". Zuk aipatutako adibideetan, beraz, zuzenak dira "hitz eragin, lo eragin, negar eragin" eta gisakoak, eta zuzenak dira "hitz eginarazi, lo eginarazi, negar eginarazi" eta gisakoak; baina okerrak dira "*hitzarazi, *lotarazi, *negarrarazi" eta gisakoak. Egia esan, horrako "lotarazi" hori zuzena da; baina beste esanahi batekin: "lotarazi" hori "lotu" aditzetik dator eta "lotzera behartu" esan nahi du. Izan ere, "lo egitera behartu" esateko, lehen aipatutako "lo eginarazi" eta "lo eragin" horiez gain, "loarazi" ere esaten baita, eta "loarazi" hori (agian*

*salbuespen gisa) zuzena da, "*hitzarazi" eta "*negarrarazi" ez bezala.*

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "izena + egin" sarrera.

Data: 20010620

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Aditzaren 3. pertsonaren markak

Galdera:

Aditz laguntzaile baten aditz-modua indikatiboko iragana izanik, NOR "hura" denean eta NORK "hark" denean, zein dira bakoitzaren pertsona-markak? Adibidez, "ahazten zuen" eta "eman zizkion" adizkien kasuan.

Erantzuna:

Euskaltzaindiaren Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, II liburukia osoki aditzari eskainia da, eta bertan duzu horren erantzuna.

Adibidez, "ahazten zuen" en kasuan (ikus EGLU, II, 184. or.), "z-" da 3. pertsona ergatiboaren marka. Objetuak, berriz, absolutuak, ez du kasu horretan marka agerikorik.

"Eman zizkion" en kasuan (ikus EGLU, II, 204. or.), "z-" da 3. pertsona ergatiboaren marka, eta "-o-" objetuarena, 3. pertsona absolutuarena.

Data: 20010704

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Aditzoia

Galdera:

Aditzoia noiz erabili behar da?

Erantzuna:

Indikatiboko ez diren aditz formetan erabili ohi da (Euskaltzaindiak ez du ezer arautu horretaz).

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Agintera, baiezkoetan (emadazu, eman iezadazu) eta ezezkoetan (ezidazu / ez iezadazu)

Galdera:

Aginteran, baiezkoetan, idatz daitezke "esaiozu" eta "emadazu/emaidazu" bezalako formak? Horrela idatzi behar dira? Zein aditzekin: esan, eman, ekarri, eraman, entzun, utzi, galdetu, egin...?

Ezezkoetan, idatz daitezke "eziozu, ezidazu...", edo beti idatzi behar da "ez iezadazu" eta abar?

Erantzuna:

1. Baiezkotan, adizki sasitrinkoa erabiltzekotan, "emadazu" forma da hobestekoa, eta ez "emaidazu" (ikus datu-base honetako "agintera" eta "aditz trinkoak" sarrerak). Baina ez dira nahitaez horrela idatzi beharrekoak; izan ere, beti dugu adizki osoa aukeran: "eman iezadazu". Euskaltzaindiaren Euskal Aditz Batua liburuan ageri dira galderako aditz horien guztien adizki sasitrinkoak, "galde egin / galdetu" aditzarenak izan ezik (Orotariko Euskal Hiztegiko corpusean ere ez dira ageri). Beraz, "galdeidazu" eta abar ez dira hobestekoak.
2. Ezezkoetan, ez dago araurik eta Euskal Aditz Batuan ere ez da ezer aipatzen sasitrinkoen erabilera horri buruz. Gainera, Orotariko Euskal Hiztegiko corpusean ere ez da ageri horrelako adibiderik idazleen lanetan. Beraz, ez dirudi "eziozu, ezidazu" eta abar gomendatzekoak direnik.

Data: 2001/07/04

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batordeko idazk.

Aginterako adizki perifrastiko laburtuak**Galdera:**

Adibidez, emadak/emaidak, uztak/utzizak, pasaidak/pasadak... Orain arteko arau-gomendioetan gai hau erabaki ez bada ere, zerbait aipatu da Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU) liburukietan, baina aipatu baizik ez.

Zenbait esparrutan guztiz premiazkoak dira: harreman pertsonaletan, kirol jardueretan, lan harremanetan, etab. Egokia litzateke hainbat zalantza eta bikoiztasun gainditzea eta forma erabilgarriak zein diren esatea, baina modu zabalean, ahozkorako eta idatzizkorako balio dutelarik. Eta eredu mordoxka eman beharko litzateke, nolabaiteko "eredu osoa" eskainiz.

Erantzuna:

Kontuan hartuko dugu eskaria eta ahaleginduko gara hor aipatzen diren formen artean egokienak zein izan daitezkeen argitzen.

Data: 2000

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

arrazoi(a) izan, eduki

Galdera:

Zein da zuzena, "arrazoi duzu" ala "arrazoia duzu"?

Erantzuna:

Biak dira zuzenak: "arrazoi duzu" nahiz "arrazoia duzu".

Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiaren bigarren liburukian ageri dira bi erabilera horiek, "arrazoi" sarreran (ikus 626.-627. or.): "arrazoi(a) izan, eduki" esapidea jasotzen da han. Axularrengandik hasi eta gaur egundainoko idazleetan bietariko adibideak irakur daitezke orrialde horietan.

- Dakusagun zeñek duen arrazoiña (Axular, Gero, 55. or.)

- Arrazoin dut eta arrazoin handia (Etxeberri Sarakoa, 120. or.)

Data: 2001/05/18

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Aspektuaz

Galdera:

Aspektu burutugabea erabiltzea zilegi ote da honelakoetan?

Realak hogeigarren minutuan sartzen zuen lehenengo gola.

Realak hogeigarren minutuan sartu zuen lehenengo gola.

Gauean zinera joaten gara?

Gauean zinera joango gara?

Aspektu puntukaria gaitzetsi, eta burutugabea erabili behar al da honelakoetan?

Zergatik ez zoaz salto batean dendara ogi berria ekartzera?

Zergatik ez zara joaten salto batean dendara?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du ezer arautu ez gomendatu kontu horren gainean. Hala ere, badirudi perpausa biak direla zuzenak, zer esan nahi den. Lehenak adieraziko luke iraganean Realak hogeigarren minutuan gola sartzea behin baino gehiagotan gertatu zela (sartzen zuen), behin eta berriro errepikatzen zen gertaera zela. Bigarren perpausak, ostera, hogeigarren minutuan gola sartzea iraganean behin gertatu zela ematen du aditzera (sartu zuen). Futbolean horrelako gertaerak

errepikatzea zein zaila den kontuan izanik, normalena, jakina, bigarren perpausa izango litzateke.

Etorkizuneko kontuez ari garela, sarri entzuten ditugu, azken urteotan honelakoak: Gauean, zinera joaten gara? Hala ere, badirudi jatorragoa dela bigarrena: Gauean, zinera joango gara?

Aspektu puntukaria gaitzesteko, literatura tradizioa hobeto aztertu beharko litzateke Zergatik ez zoaz salto batean dendara...? oker dagoela esan aurretik.

Data: 1999

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Baldintza hipotetikoa iraganean

Galdera:

Onargarria al da baldintza hipotetikoa iraganean erabiltzea?

Adibidez:

1. Nik gaur zera esan dut:

Loteria tokatuko balitzait, kotxe bat erosiko nuke.

2. Hurrengo egunean, eta zozketa bihar dela aintzat hartuta, onargarria al litzateke honelakorik erabiltzea?

Atzo esan zuen, loteria tokatuko balitzait (balitzaio), kotxe bat erosiko nukeela (zukeela).

3. Beste era batean azalduta, onargarria al da ondoko esaldion arteko ezberdintasuna egitea?

3.1. Atzo esan nuen, loteria tokatzen bazitzaidan, kotxe bat erosiko nuela. (Ekintza burutua da eta jakintzat ematen dut ez zaidala tokatu).

3.2. Atzo esan nuen, loteria tokatu izan balitzait, kotxe bat erosiko nukeela / nuela. (Ekintza burutua da eta jakintzat ematen dut ez zaidala tokatu).

3.3. Atzo esan nuen, loteria tokatuko balitzait, kotxe bat erosiko nukeela. (Ekintza ez da burutua eta, zozketa oraindik egin ez denez, loteria tokatzeko aukera dago).

3.4. Atzo esan nuen, loteria tokatzen bazait, kotxe bat erosiko dadala. (Ekintza ez da burutu eta, zozketa oraindik egin ez denez, loteria tokatzeko aukera dago).

Erantzuna:

Gramatika batzordearen ustez, onargarria da 2. adibide hori:

Atzo esan zuen loteria tokatuko balitzait (balitzaio) kotxe bat erosiko nukeela (zukeela)

Horrekin batera beste hau ere onar daiteke:

Atzo esan nuen (zuen) loteria tokatuko balitzait (balitzaio) kotxe bat erosiko nuela (zuela)

Hona hemen Gramatika batzordeak gainerako perpaus bakoitzari buruz egindako iruzkin, ohar edo zuzenketak:

3.1. Perpaus horren azpian bi egitura egon daitezke:

- ... tokatzen bazait, ... erosiko dut

- ... tokatuko balitzait, ... erosiko nuke

Edozein kasutan ere, ekintza burutua izan daiteke, baina ez nahitaez; burutua dela dakigun ekintza bakarra esan aditzak adierazten duena da. Parentesi artean ematen den azalpena gehiegizkoa dela esango genuke: "ekintza burutua da" (edo ez) eta "jakintzat ematen dut ez zaidala tokatu" (edo ez).

3.2. Bi egitura dira hor ere posible:

- ... tokatu izan balitzait (balitzaio), kotxe bat erosiko nukeela (zukeela)

- ... tokatu izan balitzait (balitzaio), kotxe bat erosiko nuela (zuela)

Kasu honetan garbi dago esan zuena esan zuenerako ez zitzaiola loteria tokatu.

3.3. Adibidearen bi aukerak hasieran eman ditugu.

3.4. Adibidean ere bi egitura onar litezke (denbora-komuztadurarekin bata, eta komuztadurarik gabe bestea):

- ... tokatzen bazait, kotxe bat erosiko dudala.

- ... tokatzen bazait, kotxe bat erosiko nuela.

Gatozen argi gehiago ekar diezagukeen beste adibide batera:

Javier Iruretak honako hau esan zuen partidu aurretik:

a. Irabazten badugu, Europara joango gara

b. Irabaziko bagenu, Europara joango ginatke

Iraganeko zehar-estiloan jartzeko -ela sartu besterik ez dugu:

a'. Iruretak esan zuen partidua irabazten bazuten, Europara joango zirela.

b'. Iruretak esan zuen partidua irabaziko balute, Europara joango liratekeela.

Edozein kasutan ere, ez dago partiduan zer gertatu den jakiteko modurik, zehar-estiloan jasotzen ari garena partiduaren aurretik esandakoa soil-soilik baita (desberdintasuna da oraingo honetan iraganean ematen dugula).

Azkenik, gogorarazi nahi genuke beti ez dagoela gaztelania-euskara baliokidetzarik egiterik; ez dagoela gaztelaniazko baldintza eta adizkeraren baliokidetzak sistematikorik egiterik kasu honetan euskaraz; euskarak bere sistema du eta gaztelania berea, eta, zorionez edo zoritxarrez, batzuetan desberdin egituratzen du hizkuntza bakoitzak berea. Hori dela eta, ez dago itzulpengintzarako dotrina jakinik ematerik (gaztelaniazko X egitura hau euskarazko Y egitura honi dagokio, eta Z egitura hau euskarazko beste bati) kasu askotan.

Data: 1997/06/20

Erantzulea: Gramatika batzordea

Baldintzaren ondorengoa

Galdera:

1) Ondo al leudeke ondorengo forma hauek biak?

*Lekurik badaukat kotxez eraman zaitzaket.
Lekurik baneuka kotxez eraman nitzake.*

2) *Zergatik erabil daiteke -z. gero formarekin eta ez baldintza hipotetikoarekin?*

*Lekurik edukiz gero, kotxez eraman nitzake
Lekurik baneuka, kotxez eraman nitzake*

3) *Jatortasun aldetik, zeintzuk lirateke hauen itzulpenak?*

*(a) Si trabajara en la oficina te podría hacer gestiones.
Bulegoan lan egingo banu, gestioak egin (ahal) niezazkizuke.*

*(b) Si hubiera trabajado en la oficina te habría podido hacer las gestiones.
Bulegoan lan egin izan banu, gestioak egin (ahal) niezazkizukeen.*

Erantzuna:

1) *Gure iritziz biak leudeke ondo, eta ondoko egitura hauek ere (mendebaleko zein iparraldekoak) ontzat emango genituzke: Aberatsa banintz, txalet handi bat eros nezake.
Aberatsa banintz, txalet handi bat erosi ahal izango nuke.
Aberatsa banintz, txalet handi bat eros ahal nezake.
Aberatsa banintz, txalet handi bat erosten ahal nezake.*

2) *Horiek biak ere ontzat ematekoak lirateke gure ustetan, eta ez legoke bigarrena erabiltzeko debekurik. Hala ere, ohar bat egin nahi genuke emandako adibide horietaz: askoz ere normalagoa eta erabiliagoa litzateke lekua badut/badaukat, horrako lekurik badut/badaukat horiek baino.*

3) *Ohartarazi nahi dugu baldintza baten ondoren ez dela normalena ahalezko edo potentzialeko formak erabiltzea, eta bai nizekizuke, nizekizun gisakoak. Beraz,*

*a) Bulegoan lan egingo banu, gestioak egingo nizekizuke.
b) Bulegoan lan egin izan banu, gestioak egingo nizekizun.*

Data: 1997/04/21

Erantzulea: Gramatika batzordea

Baldintzazko perpausak**Galdera:**

a) Baldintzaren aditza lehenaldia bada, ondorioak ere lehenaldia behar du?

b) Beti?

c) Ez dago beste aukerarik?

d) Honako esaldi hauetatik zein da zuzena?

Zuek dituzuen aukerak izan bagenitu, beste modu batera biziko ginateke orain.

Zuek dituzuen aukerak izan bagenitu, beste modu batera biziko ginatekeen orain.

Zuek dituzuen aukerak izan bagenitu, beste modu batera biziko ginen orain.

Urtean zehar gehiago ikasi (izan) bazenu, (datozen) oporretan ez zenuke hemen geratu beharko.

Urtean zehar gehiago ikasi (izan) bazenu, (datozen) oporretan ez zenukeen hemen geratu beharko.

Urtean zehar gehiago ikasi (izan) bazenu, (datozen) oporretan ez zenuen hemen geratu beharko.

Erantzuna:

Gramatika batzordearen erantzunak:

a) Ez.

b) Ez.

c) Bai, ondorioa etorkizunekoa ere izan daiteke.

d) Adibide sail bakoitzean lehendabizikoa bakarrik da, gure ustez, ontzat ematekoa. Honako hauek, beraz:

Zuek dituzuen aukerak izan bagenitu, beste modu batera biziko ginateke orain. (Zuzena)

Urtean zehar gehiago ikasi (izan) bazenu, (datozen) oporretan ez zenuke hemen geratu beharko. (Zuzena)

Gainontzekoak ez ditugu ontzat jotzen, ondorioko aditza iragana baita (biziko ginatekeen, biziko ginen, ez zenukeen geratu beharko, ez zenuen geratu beharko) eta adberbioa edo adberbio sintagma orainaldikoa (orain) edo etorkizunekoa (datozen oporretan). Beraz, ez dira ongi ezkontzen aditzaren denbora eta aditzaren ekintza gertatzen den unea.

Horrenbestez, ondokoak ez lirateke zuzenak:

Zuek dituzuen aukerak izan bagenitu, beste modu batera biziko ginatekeen orain. (Okerra)

Zuek dituzuen aukerak izan bagenitu, beste modu batera biziko ginen orain. (Okerra)

Urtean zehar gehiago ikasi (izan) bazenu, (datozen) oporretan ez zenukeen hemen geratu beharko. (Okerra)

Urtean zehar gehiago ikasi (izan) bazenu, (datozen) oporretan ez zenuen hemen geratu beharko. (Okerra)

Data: 2000/07/19

Erantzulea: Gramatika batzordea

behar/beharko

Galdera:

Zuzena al da, adibidez, "konpondu BEHAR lukete" (-KOrik gabe) egitura?

Erantzuna:

Bai, zuzena da "konpondu behar lukete" perpausa (ikus datu-base honetako "behar izan" sarrerak).

Data: 2002/01/14

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Bilakaera

Galdera:

Aditzen bilakaeran, zergatik dugu iragangaitzetan (trinkoetan) bilakaera osoa, eta iragankorretan ez?

Dabil > zebilen > balebil > dabilke/lebilke > zebilkeen / bebil
Darama > zeraman > (balerama > deramaile/daramake > zeramakeen) / berama. Zergatik hutsune hori?

Erantzuna:

Aditza erabaki zenean horrela geratuko zen, aditz paradigmak bere garaiko erabakitik hartu ziren eta. Paradigma horietako hutsuneak bete beharraz hitz egin dugu batzuetan. Aztertuko dugu.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia) INDIA

bizi izandako / bizitako

Galdera:

Bi forma hauek zuzenak badira "bizi izandako esperientziak / bizitako esperientziak", biotatik zein da egokiena?

Erantzuna:

Biak zuzenak dira, eta bietatik egokiena "bizi izandako esperientziak" da, zalantzarik gabe; euskal literatura-tradizioan askoz ere erabiliagoa baita egitura hori.

Euskaltzaindiaren Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, II liburukian, aditzari eskainitakoan, "Tratamendu berezia duten aditzak" sailean sartu zuen Gramatika batzordeak "bizi izan" aditza (ikus 161. or.), honako hau esanez:

"... aspektu-marka agerian jarri nahi delarik, etorkizuneko marka erabiltzen dugunean izan ezik, beste bietan IZANen edo UKANen laguntza behar dute" (ikus 159. or.).

Kasu honetan, iraganeko burutua markatzeko erabiliko genuke "bizi izandako esperientziak" forma. Hona adibide bat, erabileraren adierazgarri:

- Gipuzkoan bizi izandako bertsolari "Prantsesa"ri entzundako aldakuntza (Orixe, Euskaldunak, 118. or.).

Data: 2001/10/17

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

dagokionean/dagokionez; dagokidanean/dagokidanez***Galdera:***

Erabil al daiteke "dagokidanean" (adibidez, "niri dagokidanean") "dagokidanez" en ordain gisa?

Erantzuna:

Ez, "niri dagokidanean" denbora-balioa duen kasuetan bakarrik erabili behar da, perpau nagusian adierazten dena NOIZ gertatzen den adierazteko. Beraz, ez da bestearen baliokidea: ezin da "dagokidanean" erabili "dagokidanez" en ordain gisa.

Hona hemen adibide batzuk:

- Niri dagokidanean sartuko naiz azterketa egitera: alegia, irakasleak nire izena esaten duenean. (ZUZENA)*
- *Niri dagokidanez sartuko naiz azterketa egitera: alegia, irakasleak nire izena esaten duenean. (OKERRA)*
- Isabeli dagokionez, ez da etorri azterketa egitera. (ZUZENA)*
- *Isabeli dagokionean, ez da etorri azterketa egitera. (OKERRA)*

Data: 2001/10/19

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Deiki edo bokati boak (ez kezkatu, emakume/emakumea; irakurle/irakurlea!)***Galdera:***

Ondorengo adibideon artean, zein da zuzena?

- a) Ez kezkatu, emakume!*
- b) Ez kezkatu, emakumea!*
- c) Zuk, irakurle, ondo dakizu...*
- d) Zuk, irakurlea, ondo dakizu...*
- e) Eta zuk, azeri, zer egingo duzu mahatsa ikusita?*
- f) Eta zuk, azeria, zer egingo duzu mahatsa ikusita?*

Erantzuna:

Deiki edo sintagma bokati bo horiek denak zuzenak dira. Euskaltzaindiaren Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, I liburukian (ikus 225. or.) Gramatika batzordeak dio bokati bo bi erataria joan daitekeela: "-a" mugatzailearekin nahiz gabe. Beraz, ezin esan daiteke, zenbait gramatikak dioen bezala, bokati boak nahitaez mugagabea joan behar duenik. Hortaz, bietara ager daiteke ("Ez, mutil! (motel); Bai, gizona!"); eta euskalkiak zerikusia izan dezake forma bata ala bestea aukeratzerakoan.

Badirudi, ordea, zenbait izenen kasuan mugatuan eman behar dela nahitaez: "Bai, jauna!" (eta ez "Bai, jaun!").

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "Bai, gizona!" sarrera.

Data: 2001/06/14

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

-eN/-eLA: eskerrak etorri zarela/zaren/zarena

Galdera:

Zuzena al da "Eskerrak etorri zarena!" egitura? Hiztegi Batuan "eskerrak" hitza begiratu gero, "Eskerrak (...) -en!" eta "Eskerrak (...) -ela!" ageri dira; baina "Eskerrak (...) -ena!" ez.

Erantzuna:

Bai, zuzena da (ikus Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, V, Mendeko perpausak, 1 liburukiko 68. or.). Adibide bat ere ematen da horrelako egiturak zuzenak direla azaltzeko: "Eskerrak halakoren batean andra Adelaidak autua eteten ebana!" (E. Erkiaga, Irribarrea galtzen denean, 129. or.).

Data: 20011017

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Eta nago (...)-(e)la

Galdera:

Ustea edo iritzia adierazteko, zuzena al da "Eta nago (...)-(e)la" horrela erabiltzea? Eta ordena horretan? Adibidez, "Eta nago ideologia jakin bateko bertsozalea hoztu eta atzendu egin dela jokaera berri horrekin".

Erantzuna:

Bai, dagokion testuan ongi txertatuz gero, zuzena da "Eta nago (...)-(e)la" erabiltzea, eta ordena horretan. Horrez gainera, ikus datu-base honetako "-(e)la" sarrerak.

Data: 2001/06/13

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Euskara(z) hitz egin

Galdera:

"Hitz egin" aditzak onartzen al du (tradizioan, eta erabileran) "euskara" bezalako osagarria absolutiboan? Zenbateraino dira

ohiko/ezohiko euskararen tradizioan "horrek euskara hitz egiten du" edo "zein hizkuntza hitz egiten dute?" bezalako esaldiak?

Erantzuna:

Euskarazko tradizio idatzian ez da ohikoa zuk aipatzen duzun "euskara hitz egiten du" egitura. Askoz ere erabiliagoa izan da "euskaraz mintzatu / berba egin / hitz egin" egitura, izenondo bat duelarik inesiboan ("euskara ederrean mintzatzan da", "euskara goxoan" ...).

Beste aditz batzuekin maizago gertatzen da kasu absolutiboa erabiltzea: "euskara ikasi, jakin, irakatsi" eta abar. Adibidez, "bretona ikhasten dute frantsesa bezain ongi", "frantseraren ikasterat", "euskara bera ikasi zuen", "euskara jakitez gainera", "euskara ere irakatsi du" eta abar.

Hala ere, badira tradizioan "euskara hitz egin" moldeko adibide bakan batzuk:

- Etxauzkigu erdaran lokartu ezpainak, euskara baizik ez du mintzatzan artzainak (Xalbador, Odolaren mintzoa, 111. or.).*
- Eskolan ebilzanean, milla zema ta agirakaz bere, ezin itxi eutseen euskera berba egitiari (Mogel, Peru Abarka, 219. or.).*
- Zuri entzuten deusudazan izen, neuk eztakidazanak, iminiko ditut paperian, euskera ondo berba egiteko (Mogel, Peru Abarka, 81. or.).*
- Zuk lez, euskaldun guztiok erdera berba egingo bageunke, laster amaittuko litzake euskaldun da euskal-erriaren izatea; zegaittik, euskera barik, ezin egon leitteke euskaldunik ez euskal-erririk (Echeita, Josecho, 347. or.).*
- Euskera itzegitea, aurreratzea, galaitzea, apaintzea, gordetzea, eta loretu-azitzea, egoki, protxuzkoa ta onragarria da guztiz kanpoko jakintsuentzat, eta euskaldun danentzat are geiago (Arana, S. Ignacioren bizitzea, 204. or.).*

Data: 2001/11/22

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

ez (...)-t(z)ekotan, -tu ezean/ezik

Galdera:

Baliokideak al dira "ez (...)-t(z)ekotan" eta "... ezean/ezik"?

Erantzuna:

Gramatika batzordeak Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, VII liburukian aztertuko ditu aditz jokatu gabea duten mendeko perpausak. Oraingoz, Orotariko Euskal Hiztegioko datu-baseko adibide batzuk emango ditugu, "ez (...)-t(z)ekotan"en erabilera desberdinak azalduz.

A) "-tu ezean" egituraren ordain izan daiteke hemen:

- Gaxuxa ez uztekotan, oiñordekotza Mattini utzi bearrean naizela esan zidatek (Y. Etxaide, Joanak-joan, 78. or.).

B) Ez, ordea, hemen:

- Uste dut halaz ere, urteekin ahalgea gutxitu ta eztala asarretuko belarrira esaten badizut, zuk gero iñori ez esatekotan (Oskillaso, Kurloiak, 42. or.).

C) "-t(z)ekotan"en beste balio bat "-t(z)ekotan egon, -t(z)eko (asmo)tan egon" egituraren bidez ematen da; eta ez da baldintzazkoa. Kasu horren ezezko forma ere ez litzateke "-tu ezean"en bidez emango.

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "-t(z)eko" eta "-tzeko" sarrerak.

Data: 20011127

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Ikusi: ikusia dut, ikusiak ditut, ikusia naiz, ikusiak gara

Galdera:

Zuzenak al dira "ikusia dut", "ikusiak ditut" bezalakoak?

Erantzuna:

Zuzenak dira, bai. Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiak, besteak beste, adibide hauek dakartza:

- Ikusiak dauzkat zer modutan egiten diran mezkak (Jan-edanaren bertsoak, I, 28. or.).

- Muthilaren arabera, ikusiak omen ditugu etxeko ikusgarri guziak (J. Etchepare, Beribilez, 64. or.).

- Parisen izana naiz Txillardegirekin eta berak bidalirik ikusiak ditut prestatu dituenak (K. Mitxelena, Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak, 175. or.).

- Bi mendi oiek ezagutuak nola nituen antziña, len ikusiak nitun txokoak auxen da aztu eziña (Uztapide, Noizpait, 68. or.).

Ez da ahaztu behar, ordea, hor ditugula "ikusia naiz", "ikusiak gara" eta gisako egiturak ere. Hona hemen Orotariko Euskal Hiztegiak dakartzan erakusgarri batzuk:

- Ikusia naiz zer bizimodu zailla dan nekazalgora (Orixe, Euskaldunak, 202. or.).

- Horrelakorik ikusiak ginen lehenago ere, (K. Mitxelena, Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak, 195. or.).

- Asko ikusia naiz, geroztik, nere biziña luzean (Tx. Agirre, Garoa, 209. or.).

Data: 2002/02/04

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Iruditu (dirudi + -t(z)ea/-t(z)eak)**Galdera:**

Zein da zuzena, "Gezurra dirudi hain argal egotea" ala "Gezurra dirudi hain argal egoteak"?

Erantzuna:

Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegian bietariko adibideak aurkitu ditugu. Ez dira oso ohikoak "iruditu" aditzak "-t(z)ea/-t(z)eak" erako osagarria hartuz eratutako egiturak ("-ela"dunak askoz ere ugariagoak dira); idazle bakan batzuen lanetan bakarrik aurkitu ditugu aditz jokatu gabekoak, eta idazle horiek bi egiturak darabilzkite: "-t(z)eak" nahiz "-t(z)ea". Ikus Orotariko Euskal Hiztegiak dakartzan adibide hauek:

DIRUDI + -T(Z)EAK

- Erdal itzulpenik ez hori, ene iritzi, erdal hitzen faltaz izan da, baina bidezkoa dirudi pentsaTZEAK (Koldo Mitxelena, Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak, VII, 100. or.)
- Irakurleari ez zaio biderik gehiegi zabaldu behar, agian, baina arantzaz eta sasiz iraurTZEAK ere ez dirudi egoki (Koldo Mitxelena, Mitxelenaren Idazlan Hautatuak, 345. or.)
- Horretarako Madrila joTZEAK, izan ere, ez dirudi bidezko (Koldo Mitxelena, Mitxelenaren Idazlan Hautatuak, 144. or.)
- Orrez geiago, zure geroko, azkeneko orduko, gerorengo denporako ondasun emoTEAK dirudi guztiz gitxi balio dabela zuretzat (Añibarro, Geroko gero, 174. or.)
- Beraz, gatxago dirudi zeruan sartTZEAK, onetarako mandamentu guztiak gorde bear badira (Añibarro, Geroko gero, 309. or.)
- Kresala jaioterriko hizkeran, aski aldatuan, esan beharrik ez, idazTEAK berezko dirudi (Koldo Mitxelena, Mitxelenaren Idazlan Hautatuak, 383. or.)
- Orain, berriz, gazte maltzurak direla medio edo, itsuski xamar dirudi horrela iharduTEAK (Koldo Mitxelena, Mitxelenaren Idazlan Hautatuak, 216. or.)
- Zuzenago dirudi, hain zuzen, "afari, alfer, Nafarroa" idazTEAK beste edozein idazkerak baino (Koldo Mitxelena, Mitxelenaren Idazlan Hautatuak, 97. or.)

DIRUDI + -T(Z)EA

- Gatxa dirudi Jangoikoa ganako bidea ta bere agindu santuak gordeTEA (Añibarro, Geroko gero, 314. or.)
- R samurrarekin bukatzen diren hitzak urri ditugularik, ordea, gehienak bestelakoak baitira, merkeago dirudi, eta begientzat atseginago, "r" bakarra erabilTZEA horietan ere (Koldo Mitxelena, Mitxelenaren Idazlan Hautatuak, 98. or.)
- Betiko leloak utzirik, beraz, ez dirudi lan alferra dakarren mandatu horri begiraTZEA (Koldo Mitxelena, Mitxelenaren Idazlan Hautatuak, 320. or.)
- Eskutitz ori berorrek egin ta bidalTZEA dirudi egokiena (Azkue, Ardi galdua, 77. or.)

- *Gezurra dirudi praille batek orrenbesterañoko gatza ta grazia eukiTEA (Bilbao, Ipuin, 6. or.)
Horrez gainera, ikus datu-base honetako "-tzea" eta "-t(z)ea" sarrerak.*

Data: 2001/12/14

Erantzulea: Gramatika batzordea

Joan daiteke, joan ahal da, *ahal da joan?

Galdera:

Jakin nahi nuke zuzena ote den "Ahal da komunera joan?" horrela galdetzea.

Erantzuna:

*Oso bitxia da perpaus hori. Beste aditz modal batzuek bezala, "ahal"ek ere kokagune finko samarra du, lagun duen aditzaren ondoren, hain zuzen: "joan ahal, etorri ahal" eta abar. "Behar"en kasuan ere, askoz egokiagoa da "Etorri behar duzu?" galdetzea "Behar duzu etorri?" baino. Beraz, hobestekoak beste egitura hauek genituzke:
- Komunera joan ahal da?
- Komunera joan daiteke?
Bestalde, "nahi izan"en kasuan onargarria da aurrera ekartzea ("Nahi duzu komunera joan?"), nahiz aditzaren ostean uztea ("Komunera joan nahi duzu?").*

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "ahal" eta "ezin" sarrerak.

Data: 2001/10/19

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Keinua, imintzioa egin: ondo jartzearena egin / ez ikusiarena egin

Galdera:

Ohikoak al dira "betaurrekoak ondo jartzearena egin" eta "ez ikusiarena egin" egiturak?

Erantzuna:

Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegian "ez ikusiarena", "ez entzunarena", "ez ezagutuarena" eta gisakoak sarri aurki daitezke; baina erabilera horren ordain gisa aditz izenean oinarritutakorik ("betaurrekoak ondo jartzearena egin" gisakorik) ez dugu bat ere aurkitu euskararen literatura-tradizio osoan. Aski bitxiak diren egitura horien aldean, askoz ere arruntagoak dira honelakoak:

"Betaurrekoak ondo jarTZEKO IMINTZIOA (KEINUA, PLANTA(K)) egin z(it)uen".

Data: 2001/10/17

Erantzulea: Patxi Goenaga eta Jesus Mari Makatzaga

Komunztadura juntaduran: singularra ala plurala?

Galdera:

Bi esaldi hauetan zalantza sortu zaigu:

- 1. Frantsesa eta ingelesa ikasi nahi ditu.*
 - 2. Euskal literaturaren ospe eta entzutea ez da behar adinakoa.*
- Esaldi horiek biak zuzenak eta egokiak al dira?*

Erantzuna:

Bai, zuzenak eta egokiak dira esaldi horiek biak.

Lehen esaldian (eta horren gisakoetan), ohikoena aditzak plural komunztadura hartzea izaten da. Beraz, "frantsesa eta ingelesa ikasi nahi ditut" forma da egokiena, zalantzarik gabe (ikus Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, IV, Juntagailuak liburukiko 114. orrialdea).

Badira, ordea, juntadura pluralizat hartzen ez den zenbait kasu: perpausak juntatzen ditugunean eta juntagaiak sinonimoak edo erreferente berekoak direnean (edota izen abstraktuak juntatzen ditugunean), orduan singularreko komunztadura gauzatzen da, eta horixe da galderako bigarren esaldiaren kasua. Gramatika batzordeak Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, IV, Juntagailuak liburukiko 49.-57. orrialdeetan aipatzen du gai hori, "Singularreko komunztadura juntaduran" atalean. Zehazkiago, 53. orrialdean dator "Izen-sintagma abstraktuak" azpiatala; eta han esana dago izen-sintagma juntatuak abstraktuak badira, ez dela nahitaez plural komunztadura gertatzen, eta bi bideak (singularra eta plurala) zilegi direla. Horrez gainera, ikus datu-base honetako "komunztadura" sarrerak.

Data: 2001/07/23

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Nahi, behar: nahi nuke, nahiko nuke / beharko nuke, behar izango nuke

Galdera:

Zer alde dago "beharko nuke" eta "behar izango nuke"ren artean, "nahi nuke" eta "nahiko nuke"ren artean?

Erantzuna:

Ez dago alderik: biak berdinak dira. Tradizioan "behar" eta

"nahi" dira forma nagusiak alegiazkoetan, baldintza ondoretan. "Behar nuke" eta "nahi zenuke" dira erabilienak tradizioan (bigarrenaren kasua zehazki ageri da Orotariko Euskal Hiztegian).

Data: 2001/05/25

Erantzulea: Beñat Oihartzabal

Nahi: nahi ezta / nahi ezik

Galdera:

Besteak beste, "nahi"ren gerundialen artean "nahian" dago. Horren ezezkoa "nahi ezta" da, baina "nahi ezik" erabil daiteke?

Erantzuna:

Bai, "nahi ezik" ere erabil daiteke, literatura-tradizioko adibide ugariak argi erakusten duten bezala. Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiak, besteak beste, adibide hauek dakartza:

- Bañan ikusten zaitut erantzun nai ezik (Bilbao, 101. or.)
- Aitortu nai ezik ere, Iainkoak ezagutzen du giza-barrena (Orixe, Aitorkizunak, 244. or.)
- Esturasun gabe, arnas onean dijoa, orduz-leen iritxi nai ezik (Mokoroa, 11. or.).
- Esaten dute orain plazara jotzen duala jendeak,/ irabazirik ez dan tokian artu nai ezik nekeak (Basarri, 92. or.).

Data: 2001/10/01

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Nahi: nahi izanez gero / *nahiez gero, *nahi ezker

Galdera:

Zein da zuzena, "nahiez gero" ala "nahi ezker"?

Erantzuna:

Ez bata eta ez bestea: "nahiez gero" eta "nahi ezker" ez dira zuzenak; izan ere, forma burutua erabili behar baita beti. Alegia, "nahi izanez gero" bakarrik da zuzena.

Data: 2001/06/07

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Orain aspektugabea + "ba-/-(e)nean" (etor badadi, etor dadinean, etor dadin baino lehen)

Galdera:

Zuzena al da "Patxi etor dadinean jai handia egingo dugu" erabiltzea etorkizunari begirako denborazkoa egiteko?

Erantzuna:

Euskaltzaindiaren Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, II liburukian jasoak ditu Gramatika batzordeak era horretako adizkiak (ikus 423. or.), "Orain aspektugabea + "ba/-(-e)nean": etor badadi, etor dadinean, etor dadin baino lehen" atalean. Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiko corpusean ere oso ugariak dira "etor dadinean/nadinean", "egin dezanean" gisako adizkiak; ez bakarrik literatura zaharrea (Leizarraga, Axular...), baita autore berriagoetan ere (Añibarro, Azkue, Iraizoz, Orixe, Mitxelena, Etxaide...).

Villasantek dio (ikus Sintaxis de la oración compuesta, 103. or.) forma horiek zera dutela, "un cierto matiz de eventualidad, de acontecimiento un tanto hipotético". Mitxelenak, ordea, ezetz dio: "se trata de un hecho futuro (no hipotético)".

EGLU, VI liburukian aztertuko ditugu denborazko perpausak, adizki horiek barne.

Data: 2001/06/14

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

orain bertan / oraintxe bertan**Galdera:**

Forma bi hauen artean "orain bertan / oraintxe bertan", zein da zuzena?

Erantzuna:

Biak dira zuzenak eta biak erabili izan dira literaturan. Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiak 25 adibide dakartza "orain bertan"enak (Beovide, Zaitegi, Leizarraga, Alzaga, Etxaide, Berrondo, Villasante, Mitxelena...) eta 21 adibide "oraintxe bertan"enak (Txomin Agirre, Labaien, Orixe, Kirikiño, Lardizabal, Uriarte, Enbeita, Zaitegi, Lekuona, Nemesio Etxaniz...).

Kontuan izan behar da, bestalde, Ipar-Ekialdean "berean" forma erabiltzen dutela, eta "orai" forma (batuan "orain", jakina); eta horri dagokionez, Orotariko Euskal Hiztegiak 23 adibide dakartza "orai berean"enak (Joannateguy, Duvoisin, Barbier, Larreguy, Elizanburu, Pouvreau, Zerbitzari, Jean Etxepare...); baina "oraintxe berean", "oraixe berean" edo "oraitxe berean" egiturarik ez da ageri bertan.

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "oraintxe" sarrera.

Data: 2001/05/18

Erantzulea: Miren Azkarate

Partitiboa ezezko esaldietan

Galdera:

Arrunta al da (onargarria?) partitiboaren erabilera ezezko esaldietan, zenbatzaile zehaztugabe batek laguntzen duen sintagman? Esaterako, EZ DUGU HAINBESTE ARAZORIK IZAN / EZ DUGU HAINBESTE ARAZO IZAN.

Erantzuna:

Ez, ez da arrunta partitiboaren erabilera ezezko esaldietan; askoz ere erabiliagoa da "Ez dugu hainbeste arazo izan" egitura.

Onargarria ala baztertzekoa den? Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiko datuen argitan, zalantzarik gabe hobestekoa da partitiborik gabea: "Ez dugu hainbeste arazo izan" egitura hori baita nabarmen nagusi bai hegoaldean eta bai iparraldean. Baina badira bestearen adibide bakan batzuk, "Ez dugu hainbeste arazorik izan" guztiz txartzat jotzen uzten ez digutenak:

- etzenuke zuk hainbeste minik (Archu, Fableac, 93. or.).
- Bat txikia eta bestea haundia izanik, ez da izango hainbeste kalterik (Koldo Mitxelena, Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak, I, 96. or.).

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "partitiboa" sarrera.

Data: 2001/11/16

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Partizipio burutugabea kontakizunetan

Galdera:

Nola erabili behar da partizipio burutugabea kontakizunetan: Zenbat nahi duzu? -galdetu dio, ala Zenbat nahi duzu? -galdetzen dio?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du araurik eman horretaz, eta Gramatika batzordeak ere ez du oraindik gai hori sakon aztertu.

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Partizipioa ala aditzoia: ibil naiteke ala ibili naiteke?

Galdera:

Subjuntiboan, ahaleran eta agintekeran partizipiodun formak euskara batukoak al dira?

Hori dela eta, Euskaltzaindiak orain arteko araua aldatu egin al du, aditzoinaz gain partizipioa ere zilegizat joz?

Erantzuna:

Gai horri buruz, Euskaltzaindiak ez du orain arte araurik eman; beraz, ibil naiteke nahiz ibili naiteke, biak erabil daitezke.

Auzi honetaz, Euskaltzaindiak erabaki duen gauza bakarra da aditzoia (ibil) erabili nahi baldin badugu, zein forma izan behar duen horrek; eta ez besterik.

Ikus Euskaltzaindiaren [28. araua](#), Aditzoinen forma izenburua duena.

Data: 2000/07/19

Erantzulea: Gramatika batzordea



Partizipioa ala aditzoia?

Galdera:

Subjuntiboa, agintera eta ahalkera osatzeko, zer erabili behar da: partizipioa ala aditzoia?

Eser zaitez ala eseri zaitez? Utz, iezadazu ala utzi iezadazu?

Erantzuna:

Horrelakoetan aditzoia erabiltzen da batasunerako (nahiz Euskaltzaindiak ez duen arau berezirik eman horretaz).

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Subjuntiboaren erabilera: "ikus nezan / ikusteko"

Galdera:

Helburuzko esaldietan, subjektu berbera denean esaldi nagusian eta menpekoan, subjuntiboa erabil daiteke? Adibidez, "leihora hurbildu nintzen, kalea ikus nezan".

Erantzuna:

Erabiliena (eta egokiena), nominalizazioa duen egitura da, "-t(z)eko" duna: alegia, "leihora hurbildu nintzen kalea ikusteko". Ez nuke esango gramatikala ez denik "leihora hurbildu nintzen, kalea ikus nezan" esaldia, badira eta literaturan (gutxi izan arren) era horretako egituren adibideak.

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "subjuntibo", "-t(z)eko" eta "-tzeo" sarrerek.

Data: 2001/06/14

Erantzulea: Miren Azkarate

-t(z)ea: ikasi/ikastea

Galdera:

Zein da zuzena ondorengo esaldian?

- Egin behar dugun lehendabiziko gauza da ikastea/ikasi

Erantzuna:

Gramatika batzordean ez dugu epaitu gai hori, baina lehen emandako erantzuna osatu nahi genuke (ikus datu-base honetako "-tzea" sarrera). Orduko hura "nahi izan" aditzaren erabilerari zegokion, batez ere, ("nik lan egin nahi dut" / "zuk lan egitea nahi dut nik" eta abar). Beraz, haren osagarri zehatzagoa duzu oraingo hau.

"Egin behar dugun lehendabiziko gauza da ikastea/ikasi" perpausei buruz, biak ontzat ematekoak direlakoan gaude. Hala ere, Orotariko Euskal Hiztegiko corpusean "-t(z)ea" aditz-izendunak dira erabat nagusi (hain nagusi, bestelakorik ez baitugu ia aurkitu).

Ikus "-t(z)ea" dutenak:

- Lizardi: gure lehenbiziko lana folleto txukun bat ateraTZEA izan da.

- Mitxelena: Azkuerentzat lehendabiziko kontua zen beste modu garbiago batean ezin esan ahal izaTEA.

- Larreguy: Daviten lehenbiziko lana izan zen yabeTZEA Jerusalemeko Sion zaritzon gazteluaz.

- J. Duvoisin: Laborarien lehenbiziko lana da aberetegira joaTEA

- Arradoy: lehen lana zuen katixima berri baten nolazpait moldaTZEA.

- Uztapide: gaia aukeraTZIA da nere eginkizuna.

- Mitxelena: etxean, familian bizirik iraunarazTEA dugu lehen zeregina.

Aldiz, bakarra da "-tu" duena:

- Idazlearen eginkizuna erraz da adierazten, gaitz betetzen: hizkuntzari bere burua menderatuaz, hizkuntza menderaTU. (Mitxelena)

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "-tzea", "-t(z)ea" eta "nahi izan" sarrerek.

Data: 2001/06/13

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

zatoz/atoz/hatoz; zatozte/atozte/hatozte

Galdera:

Zein da zuzena "atoz" ala "hatoz"? "Atozte" ala "hatozte"?

Erantzuna:

Batasunerako, ez bata eta ez bestea; izan ere, "etorri" aditzak, agintaldian, "zatoz" eta "zatozte" formak hartzen baititu euskara batuan.

Data: 20011016

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Zenbait euskalkitako "-a" partikula: dea, duguia, badakizua...

Galdera:

Galderak egiterakoan euskalki batzuetan erabiltzen den "-a" partikula nola idatzi behar da? Adibidez, "Kepa etxean dagoa/dagoia/dagoea/dagoia" edo nola bestela?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du ezer erabaki gai horretaz. Beraz, "-a" partikula hori erabiltzen den euskalkietako literaturan nola erabili izan den bakarrik esan diezazuket oraingoz. Badirudi, oro har, "-a+-a = -ea" egin dela (dea, direa, zarea); "-e+-a = -ea" (zaretea, ziretea); "-o+-a" bi eratara, "-oa" (dagoa) nahiz "-oia" (diroia, zakoia, dakoia) eta "-u+-a" ere bi eratara, "-uia" (badakizua, duguia, dutuguia) nahiz "-ia" (dütüzia, dia). Bestalde, "dagoia, dagoea" bezalako formarik ez da inon ageri.

Data: 2001/09/12

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Zenbakidun sintagmen komunztadura

Galdera:

Zenbakien komunztadura nola, singularrez ala pluraleraz: 10 urte du ala ditu?

Erantzuna:

Hauxe da Gramatika batzordeak esana: "Nola egiten dute komunztadura aditzekin zenbatzaileraren bat determinatzailetzat hartzen duten izen sintagmek? Ekialdean eta mendebaldean

joera desberdinak daudela esan dezakegu. Oro har, beldurrik gabe esan daiteke mendebaldean singularrean nahiz pluralean egiten dela komuntadura, zenbatzailearen arabera: bat baldin bada singularrean eta, bestela, pluralean. Ekialdean ere horrela egiten dute hiztun eta idazle gehienek" (Euskal gramatika Laburra: Perpaus bakuna, 101. orrialdea). Kontuan izanda, gainera, galdera Bizkaiko euskaltegi batetik datorrela, 10 urte ditu irakatsi beharko litzaieke ikasleei.


Data: 1998

Erantzulea: EGLkoaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

zenbat/zenbateko/zenbatan

Galdera:

Neurriak eta adierazteko, nola erabili "zenbat" eta "zenbateko"?



Erantzuna:

Euskaraz, zenbat hitza erabiltzen da neurriak-eta galdetzeko; baita zenbat erroari -(e)ko atzizkia erantsita sortutako zenbateko izenlaguna ere. Lehenengoaren erabilera, oinarritzko zenbat soilarena, tradizio handikoa dugu; baina, gaur egungo testuak ikusita, ematen du zenbateko besterik ez dugula aukeran, hartaraino ari baita baztertzen zenbat soilari dagokion moldea.

- Zenbat da karratu horren azalera, alde bakoitzak bi metro baditu?
- Egizu kontu 5 m luze eta 26 cm zabal dela.
- Zenbateko azalera du karratu horrek, alde bakoitza 2 m-koa badu?
- Beraz, eman dezagun 5 m-ko luzera eta 26 cm-ko zabalera duela.
- Zazpi kilometroko aldapa latz hura oinez igo behar.
- Hamar kilometroko bide berri bat egiten ari gara.
- Zer alde atera dio bigarrenari? Bi minutu eta hiru segundoren aldea, zazpi tantoren aldea, lau traineruren aldea, kana erdiko enbor baten aldea... [**zenbatan** aldea]
- Zenbat da aurrekontua? Aurrekontua 1.000 € da/dira. Mila euroren aurrekontua.

Azken adibideko molde horren orde (zer aurrekontu), zenbateko ere erabiltzen da sarri. Onargarria da, aldeak alde; baina zenbateko izenlaguna den kasuan. Bestela, zenbat erabiltzea da egokiena. Beraz, hobe da azken adibide horretako molde erabiltzea ("Zenbat da aurrekontua? Aurrekontua 1.000 euro dira") eta ez "Zenbatekoa da aurrekontua? Aurrekontua 1.000 eurokoa da".

Egoki da molde biak erabiltzea; izan ere, biak beharrezkoak baitira (eta hainbat aldiz ezinbestekoak) neurketak zehazteko

eta bereizteko. Jokaera horri esker saihets daiteke, esate baterako, zenbateko formaren gehiegizko erabilera, sarritan nahasketa eta okerra eragiten duena:

*- Ekarri 3 euroko kafea! [kiloa hiru euroan saltzen dutena, **bakoitza**]*

*- Ekarri 6 euroren kafea! [kiloa hiru euroan saltzen badute, bi kilo kafe, **guztira**]*

Auzi hau hobeto aztertu beharra dago eta dagozkion mugak eta ondorioak erabaki. Bitartean, hona hemen Orotariko Euskal Hiztegiko corpusetik hartutako zenbait adibide, -(e)ko atzizkirik gabeko erabilerarenak:

- 380 metro luze zan eta 290 metro zabal (Anabitarte)*
- amabi-amalauna metro luze (Erkiaga)*
- ogei bat metro luze / bazan hamasei metro luze (Munita)*
- Zenbat legua bide egin biar dozak? (Otxolua)*
- 24 ordutan 20 legua bide egin (Orixe)*
- bost legua bide baizik etzegoan (Lardizabal)*
- zortzi legua bide dagoelarik batetik bestera (Iztueta)*
- hamar sosen zorra pagatzen duenak (Barbier)*
- Zenbaten zorra dukezu? (Hiribarren)*

Data: 20040302

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Zenbatzailedun sintagmekin aditzak egin behar duen numero komunztaduraz

Galdera:

Nik neuk singularreko komunztadura hobesten dut eta gehiagotan erabiltzen. Adibidez: Cavaillé-Coll organo ugari egin zen.

Zuzen ari al naiz?

Erantzuna:

Kontua da bi aukerak zilegi direla, bai singularrekoa bai pluralekoa:

Cavaillé-Coll organo ugari egin ziren

Cavaillé-Coll organo ugari egin zen

Zenbakiak direnean, ordea, askoz ere arruntagoa da pluraleko komunztadura, singularrekoa ere ontzat eman behar den arren:

Bi enpresa sortu ziren

Bi enpresa sortu zen (gutxiagotan)

*Ikus Gramatika batzordearen Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU), I liburukia (1985), 205.-208. or. Bertan aipatzen da zenbatzaileekiko komunztaduraren auzia. Ikus, gainera: Karmele Rotaetxe, "Numeral eta aditzen arteko konkordantziak", *Fontes Linguae Vasconum*, 32, 1979 (259.-267. or.).*

Data: 2000/07/19

Erantzulea: Gramatika batzordea

Zubererazko aditzaren taulak

Galdera:

Non aurki ditzaket zubererazko aditzaren taulak?

Erantzuna:

Ene ustez, Bonaparteren edo Inchausperen, edo Gèzeren gramatiketan behatzea da egokiena (hiruak XIX. mendearen bigarren partekoak dira). Bonaparteren taulak Euskaltzaindiaren bilduma handian aurkituko dituzu. Inchausperen eta Gèzeren gramatikak Hordago argitaletxeak faksimilean atera zituen (1979an edo), 27. eta 29. zenbakiekin. Taula ongi eginak dira hiruetan. Oraiko moduan aurkezturik, aldiz, hor duzu Jean-Louis Davant euskaltzainaren Euskal aditz laguntzailea zubereraz (ikus HABEren 2002ko agenda). Horrez gainera, uste dut duela zenbait urte HABErentzat egina nuela neuk ere horrelako lan bat, nonbait argitaratzeko; baina ez dakit batere nola gelditu zen kontua.

Data: 2002

Erantzulea: Beñat Oyharçabal, IKER sailburua

zugan/zutaz pentsatu

Galdera:

Zein erabili behar dugu, "zugan pentsatu" ala "zutaz pentsatu"?

Erantzuna:

Biak zuzenak dira: bi egiturak erabili izan dira euskararen tradizioan. Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiak adibide hauek dakartza, besteak beste:

ZUTAZ PENTSATU:

- Iñon ikusi gabe sei aste luziak / beti artaz pentsatzen negarrez pasiak. (Bilintx)

- Zutaz pentsatzen zenbat euskaldun on daude ezin egonak (Xalbador, Odolaren mintzoa)

ZUGAN PENTSATU:

- Hau guztia egiteko nigan pentsatu dut bakarrik (Txillardegia, Leturia)

- Eta leengo burubide ta xedeak aldaturik, beste batengan pentsatzen asi (E. Erkiaga, Arranegi)

- Bakarrik zugan pentsatuko dut (in , I. Sarasola; "pentsatu" sarreran).

Euskaltzaindiaren Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, I liburukian (ikus 291. or.) instrumentala eska dezaketen aditzen artean sartzen da "pentsatu" ere. NORENGAN kasu-markari buruz ari denean ez da ageri aditz hori, baina ez dirudi kasu horretan erabili ezin denik horregatik, aditz guztiak ez baitira jasotzen kasu-marka guztietan.

Liburuki berean, soziatiboaz ari denean (ikus 289. or.), esaten da zenbait tokitan instrumentala gutxi erabiltzen dela, eta normalean instrumentala eskatuko luketen zenbait aditz soziatiboarekin erabili ohi dela. Hala ere, adibideetan ("zurekin gogoratu", "zurekin ahaztu"...) ez da "pentsatu" aditza agertzen; nahiz eta ahozko erabileran badirudien "norekin pensatu" egitura erabiltzen dela.

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "maitemindu" sarrera.

Data: 2001/11/07

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.



Data (Morfologia)

Data: noiz arte?

Galdera:

Zuzenak al dira "irailaren 7 arte" eta "irailaren 7ra arte" egitura biak? Eta zein da zuzena, "etzi arte" ala "etzira arte"? Bestetik, nola irakurri behar da "7 arte": "zazpia arte" ala "zazpi arte"?

Erantzuna:

Euskaltzaindiaren 37. arauak, "Data nola adierazi" izenekoak, azalpeneko testuan, ontzat ematen ditu "otsailaren 24tik 27 arte" eta "urtarrilaren 5etik 7ra"; baina hor arautzen dena ez da "arte" postposizioaren erabilera, baizik eta data nola idatzi behar den.

Euskaltzaindiak ez du araurik eman "arte"ren erabileraz; ez du esan "arratsaldera arte", "arratsalde arte" edo "arratsaldea arte" hobetsi behar den. Horren arabera, eta Euskaltzaindiak xehetasun gehiago eman ezean, zure galderako "irailaren 7 arte" iruditzen zait aukerarik egokiena morfologiari eta idazkerari dagokienez; baina ez nuke okertzat joko "irailaren 7ra arte"

Ibon Sarasolaren Euskal Hiztegiak dakarren irizpidea "-(r)a arte" noiztik noiz arte" esaten dugunean baino ez erabiltzekoa" egokia iruditzen zait; baina ondo gogoan daukat badirela "egun handira arte" bezalako esapideak ere, eta ez nituzke txartzat emango, adibidez, "ordura arte" eta "datorren atera arte".

Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuak badakar, bai, "arte" postposizioaren erabilera-adibide bat (ikus 501. or.): "bihar

arte" adibidea dakar, eta horixe da agintzen duena "etzi arte" hobesteko.

Bestetik, "7 arte" nola ahoskatu behar den ere ez da arautu, mugatuan ala mugagabea; baina "7 arte" erabiltzea erabakiko balitz, mugagabeko irakurketa izango luke (eta "7a arte" mugatukoa).

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "arte postposizioa" sarrera.

Data: 2001/07/06

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Deklinabidea (Morfologia)

Herri-izenetako A itsatsia

Galdera:

Herri-izenetan A itsatsia erabiltzeko arau orokorrik ba ote dagoen jakin nahi genuke, Azpeiti/Azpeitia, Ibarrangelu, Getaria, Iruñea, Plentzia eta horrelako kasuetan.

Erantzuna:

Euskaltzaindiak argitaratutako Euskal Herriko Udalen Izendegian dator, artikulua dela eta ez dela, zenbait herri-izenen artean sortzen den bereizkuntza.

Batzuk beti josirik daramate berezkoa duten A itsatsia.

Horietakoa da Donostia izena, eta hortik dator Donostiatik, Donostiako eta abar esan beharra.

Beste batzuk, aldiz, -a marka daramatenak, deklinatu egiten dira eta, deklinatzean, galdu egiten dute artikulua hori.

Horietakoa da Bizkaia, eta hortik dator -a kendu eta Bizkaiko, Bizkaitik eta abar esan beharra.

Baina arau orokorrik ez dago eta banan-banan begiratu behar dira herri-izenak.

Euskal Herriko Udalen Izendegian begiratu gero zuek galdetutako herri-izenak, ikusiko duzue bi sailletakoak badirela bertan:

Plentzia eta Getaria markarik gabe datoz. Horrek esan nahi du beti josirik daramatela berezkoa duten A itsatsia. Beraz, Plentziako, Getariatik eta abar esan behar da.

Azpeitia, Ibarrangelua eta Iruñea, ordea, -a marka daramatenetakoak dira. Horrek esan nahi du deklinatzean galdu egiten dutela artikulua. Beraz, Iruñeko, Azpeititik, Ibarrangelura eta abar dira forma zuzenak.

Data: 2001/03/22

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

... eta abar**Galdera:**

Hiztegi Batuan besteak beste, bi laburdura hauek ageri dira: "etc." eta "etab." Zer esan nahi du horrek, horien ordezeko "e.a." baino egokiagozat jotzen direla? Zein eta nola erabili behar dugu? Bestalde, "eta abar" deklinatu nahi dugunean ("eta abarri, eta abarrentzat, eta abarretara...") laburdurak erabil daitezke?

Erantzuna:

Bai, Hiztegi Batuan orrialde berean datoz, "etc." laburduraz gainera, "eta abar" eta "etab." laburdura. Beraz, aukeran daukazu hiru horietatik zein erabili, horien ordezeko "e.a." alde batera utzita. Bestalde, "eta abar" deklinatu behar denean ("eta abarri, eta abarrentzat, eta abarretara..."), ez da batere egokia laburdurak erabiltzea.

Data: 2002/01/14

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

arte postposizioa**Galdera:**

Ondorengo hirurak zuzenak al dira?
Asteazkena arte
Asteazken arte
Asteazkenera arte

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du ezer erabaki, oraingoz, postposizio horren idazmoldeaz. Euskara idatziaren azterketa bat egin beharko litzateke hiru horien artean aukera egin aurretik.

Data: 2000/03/02

Erantzulea: Gramatika batzordea

Bahá-í**Galdera:**

Zein da aukerarik onena ondorengo hauen bien artean?
1. Bahá'íak, Bahá'íei, Bahá'íekin, Bahá'íentzat
2. Bahá'ítarrak, Bahá'ítarrei, Bahá'ítarrekin, Bahá'ítarrentzat

Erantzuna:

Gramatika batzordearen ustez, eta hitzaren bukaerako -í atzizkia genitiboari dagokiona denez, lehen aukera litzateke hobestekoa; hau da, -tar atzizkirik ez daramana.

Horrez gainera, hitzaren eta kasu-markaren artean marra idaztea gomendatzen dugu; baldin eta -í atzizkia mantendu nahi bada. Era honetara deklinatzea gomendatzen dugu, beraz: Bahá'í-ak, Bahá'í-ei, Bahá'í-ekin, Bahá'í-entzat eta abar.

Data: 1999/11/15

Erantzulea: Gramatika batzordea

zenbait, hainbat... mugatu pluralaren erabilera okerra

Galdera:

Zenbait, hainbat + mugatu pluralaren erabilera okerra (batez ere -a berea duten hitzetan) gero eta zabaltzenago ari da: zenbait animaliek, hainbat gauzek, zenbait elizek...

Erantzuna:

Hala da. Gramatika batzordeak ere horixe aipatu zuen Okerrak Zuzenduz txostenean, Leioako biltzarrean aurkeztu zuen hartan.

Data: 1996

EUSKALTZAINDIA

Erantzulea: Gramatika batzordea

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

-(r)ekin / -(a)z maitemindu

Galdera:

*Gramatikalak al dira hauek guztiak?
Zurekin maiteminduta nago.
Zutaz maiteminduta nago.
Berarekin maiteminduta nago.
Beraz maiteminduta nago.*

Erantzuna:

Bai. Hala ere, Beraz maiteminduta nago baino egokiagoa litzateke Hartaz maiteminduta nago; izan ere, testuinguru horietan ez baita bera erabiltzen instrumentala darabilten mintzoetan.

Data: 2000/03/02

Erantzulea: Gramatika batzordea

-(r)ik / -Ø / -etan / -en artean / -etatik / -etarik + adjektibo superlatiboa

Galdera:

Adjektibo bat superlatiboan jartzean, badira konplementua

deklinatzeko molde diferenteak. Irakasle gisa, badut nik partitiboa eta inesibo plurala bultzatzeko usaia (esaterako, mutilIK xarmantena edo mutilETAN xarmantena, adibidez); baina nire ikasleek ablatibo pluralera jotzen dute beti (demagun mutilETATIK xarmantena, adibidez). Horiek denak zuzenak al dira?

Erantzuna:

Ez dugu uste txartzat ematekoa denik zure ikasleek egiten duten ablatibo pluraleko erabilera hori (mutilETATIK xarmantena, alegia). Hala ere, zenbait zehaztapen egin nahi genituzke erabileraren eta, batez ere, maiztasunaren gainean.

1. Zalantzarik gabe, gehien erabiltzen den kasua partitiboa da: mutilIK xarmantena.

2. Horretaz gainera Ø marka ere askotan erabili izan da: mutil xarmantena. Sintagma mugatuak ditugunean, behintzat (perpaus erlatibo bat dugunean), oso normala da: "gogoratzen ahal diren pixitegi ederrenak", "izan ditudan itz pozgarri ta zintzoenak", "berari ezartzen dizkioten gertaera atsegin eta politenak" eta abar.

3. Inesibo plurala ere erabili izan da, baina gutxiagotan: mutilETAN xarmantena. Hor ditugu "neskatxetan politena", "illobetan zintzoena", "neskañoetan ederrenak", "filmetan onena" eta abar. Guzti eta denak agertzen direnean ere erabili ohi da: "neska guztietan onena".

4. Postposizio-sintagma ere (gutxitan bada ere) erabili izan da: mutilEN ARTEAN xarmantena. Batez ere guzti, erakusleak edo izenordainak erabiltzen direnean agertzen da: "jostailu guztien artean onena", "zuen artean aundiena", "beren artean aundiena" eta abar. Askoz gutxiagotan, izen arruntekin: "demonioen artean politena".

5. Besteko mutilETATIK xarmantena ere erabili izan da; baina gutxitan, eta erabili, batez ere, sintagma mugatuak direnean (erakusleak nahiz zenbatzaile mugatuak) eta guzti agertzen denean: "bietatik onena", "damu bi onetatik onena", "aur oietatik ederrenak", "aietatik onena", "otoitz guztietatik onena" eta abar. Askoz bakanago, ordea, izen arruntekin: "zein da erregetatik onena?".

6. Iparraldeko tradizioan erabili izan da mutilETARIK xarmantena; ez, hala ere, oso sarri. Forma hori ere sintagma mugatuekin ("bost lagunetarik abilena", "aietarik lehenak") eta, batez ere, guz(t)i agertzen denean: "guzietarik hotzena".

Beraz, ez zaigu iruditzen ablatiboaren erabilera hori gaitzestekoa denik; badirudi, hala ere, tradizioan bestelako molde batzuek izan dutela nagusitasuna: ikus Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, I liburukia (1985eko argitaraldiko 279.-282. or.).

Data: 2001/03/28

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

-an/-az

Galdera:

Badakit Urlia euskara batuan ari da hizketan zuzena dela, baina hizlari hori batuaz ari da ala batuan ari da?

Erantzuna:

Biak ere zuzenak dira, baina adiera desberdina dute: lehena, ZERTAZ ari da; bigarrena, NOLA ari da.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Aragoi leku-izena

Galdera:

Nola deklinatu behar da Aragoi NON kasuan: Aragoian, Aragoian edo nola?

Erantzuna:

Batasunerako, Aragoi forma hobetsi zuen Euskaltzaindiak; beraz, bokalez (nahiz diptongoz) bukatzen diren izen berezien deklinabide-legez, Aragoian da forma zuzena. Besteak beste, Orotariko Euskal Hiztegiko corpusean aurki daitezke hitz horren forma deklinatuak: Aragoiko, Aragoian, Aragoira, Aragoitik eta abar.

Forma mugatukoak ere badira, baina batasunerako ontzat eman ez den forma zaharraren gainean eratuak: Aragoan.

Data: 2001/03/28

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

asko-dun sintagmen komunztadura

Galdera:

Zuhaitz asko landatu genuen ala genituen?

Erantzuna:

Biak dira zuzenak.

Data: 1996

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

bero, gogo, maitasun, gorroto... handia ala asko?

Galdera:

"Izen zenbakaitz eta neurgaitzek (bero, gogo, maitasun, gorroto...) handi edo luze hartu behar dute, eta ez asko."
Hala dio Euskal Gramatika Laburrak; baina gogo gutxi zilegi al da, edo jaramon gutxi?

Erantzuna:

Zilegi da, bai.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

bestek / besteek / beste batzuek

Galdera:

Zer alde dago bestek / besteek / beste batzuek formen artean?
Esaterako, bestek zer dioen esaldian, bestek forma erabiltzen da.

Erantzuna:

Zuk eman duzun bestek zer dioen adibidean, beste izenordaina da; beraz, mugatzailerik gabe erabiltzekoa.
Gainontzeko kasuetan, beste determinatzailea da, eta izen bati edo izenordain bati lagunduz agertzen da; beraz, kasu horietan determinatzailearen bat izango du izen-sintagmak, mugatzailea nahiz zenbatzailea.

- Beste (gizon)ek besteek

- Beste (gizon) batzuek beste batzuek

Ez, ordea, beste izenordainak.

Zehaztapen gehiago nahi izanez gero, ikus Euskal Gramatika:
Lehen Urratsak, EGLU, I liburukiko 2.2.3. azpiatala, "Beste, izenordain" izenekoa.

Data: 2001/04/11

Erantzulea: Gramatika batzordea

denetik, denetarik, baina denetatik?

Galdera:

Erantzuna:

Aztertuko dugu.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Euroa

Galdera:

Zein forma dira hobestekoak euro hitzaren idazkera eta erabilera batuan?

Erantzuna:

Gramatika batzordearen ustez, forma hauek hobetsi behar dira: txanponak eurotan, txanponak euro(-)zentimotan, euro bat eta 5 zentimo, 10 euro(-)zentimo, 20 zentimo, 2 eurokoa, 5 eurokoa, 10 eurokoa, 50 eurokoa, 2 euro(-)zentimokoa, 2 zentimokoa, 5 zentimoko txanpona, 5 euro(-)zentimoko txanpona, 5 euroko billetea, 50 euroko billetea... Hala ere, txanponak eurotan/euroetan, salneurria eurotan/euroetan forma biak dira onartzekoak.

***Galderak** egiteko, berriz, forma hauek onartzen ditugu: Zenbatean? (ez *zenbatetan) edo Zenbat eurotan/euroan? (biak zuzenak). Jakina, ez dira onargarriak *zein euroan, *edozein euroan eta gisakoak.*

***Erantzunak** eta, honela: 3 euroan/eurotan dago ardoa, 100 eurora/eurotara igo da salneurria, 500 eurotik/eurotatik gora ekarri (euroan, eurora, eurotik... zuzenak dira diru-kopuruak kantitate osoak direnean).*

***Txanponak:** 1 euro (ahoz, euro bat esan), 2 euro, 1 euro(-)zentimo (ahoz, eurozentimo bat esan), 2 euro(-)zentimo, 5 euro(-)zentimo, 10 euro(-)zentimo, 20 euro(-)zentimo eta 50 euro(-)zentimo.*

***Billeteak:** 5 euro, 10 euro, 20 euro, 50 euro, 100 euro, 200 euro eta 500 euro. Jakina, [34. arauaren](#) arabera, 10 euroko billetea eta abar hobesten ditugu.*

Hitz elkarketaren bidez eman dugun euro(-)zentimo egituran, denboraren poderioz, lehen osagaia galduz joango da seguruenera, eta 2 euro(-)zentimo esan beharrean 2 zentimo esango da. Hala ere, hitz elkartu osoa emango genuke, oraingoan.

Txekeen idazkeraz, berriz, Euskaltzaindiak ez du ezer berezirik erabaki, zenbakien idazkera orokorraz araututakoaz besterik.

Data: 2002/03/01

Erantzulea: Gramatika batzordea

Dokumentua: EURO-A DELA ETA (irizpena) -
<http://www.euskaltzaindia.net/jagonet/dok/Euroa.pdf>

Dokumentua: 34. araua (araua) -
http://www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/Araua_0034.pdf

ezkerrean/ezkerretan

Galdera:

Zein da formarik egokiena, ezkerrean ala ezkerretan?

Erantzuna:

Biak erabili izan dira, ezkerrean eta ezkerretan. Batasunerako ez dugu oraindaino Euskaltzaindiaren erabakirik; nahiz eta, Orotariko Euskal Hiztegiaren corpuseko datuak ikusirik, ezkerrean gehiagotan erabilia izan.

Data: 2001/04/11

Erantzulea: Gramatika batzordea

gai, jai...

Galdera:

Instrumentalean, nola deklinatzen dira monosilaboak, gai, jai eta abar?

Erantzuna:

29. arauan azaldu zuen Euskaltzaindiak zein den diptongoz amaitzen diren izenen deklinabidea. Eta arau horretan zehazten da monosilaboek instrumentalean edozein gaiez edo jaietz jai behar dutela.

Data: 2000

Erantzulea: Araua

Hainbat litro ur

Galdera:

Kopurua mugagabea denean, nola deklinatu behar da neurri-unitatea? Adibidez: Zenbat balio du hiru litro urak / hiru litro urek / hiru litrok ur?

Erantzuna:

Ergatiboan hiru litro urek behar du; beraz, Zenbat balio du hiru litro urek?

Data: 2001/03/28

Erantzulea: *Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.*

inguru + ergatiboa**Galdera:**

Badakit "bost mila lagun inguru bildu ziren" zuzena dela; baina, NORR kasuko ergatiboaren marka jarri behar izanez gero, zein hitz deklinatu behar da?

Erantzuna:

Gramatika batzordearen ustez, "bost mila lagun inguru" sintagma osoak hartuko luke ergatiboaren marka; beraz, "bost mila lagun inguruk parte hartu zuten lasterketan", adibidez. Hala ere, esan behar da Euskaltzaindiak ez duela ezer adierazi, orain arte, egitura horri buruz; bestalde, Orotariko Euskal Hiztegiko corpusean ere ergatibodun adibiderik ez da ageri. Bai, ordea, bestelako kasu batzuk. Hona hemen adibide bi:

- Arribildik lau legua ingurutik at.
- Laur mila urte ingururen buruan.

Data: 2001/04/11

Erantzulea: *Gramatika batzordea*

-ko / -ren mapa**Galdera:**

Nola esan behar da: Euskal Herriko mapa ala Euskal Herriaren mapa? Agian Euskal Herri mapa?

Erantzuna:

Egitura horien artean erabiliena, dudarik gabe, Euskal Herriko mapa litzateke. Hori da erabili izan dena eta erabiltzen dena. Dena den, horrek ez du esan nahi Euskal Herriaren mapa gramatikalki gaizki dagoenik.

Data: 1997/04/07

Erantzulea: *Gramatika batzordea*

-ko eta -ren izenlagunak

Galdera:

*Zer-nola esan behar da:
ikastolako/ikastolaren zuzendari,
alderdiko/alderdiaren bozeramaile,
agiriak faltsutzeko delitua/agiriak faltsutzearen delitua,
nobela euskaratzeko lana/nobela euskaratzearen lana... ?*

Erantzuna:

Askotan, bi izenlagun-motak dira zilegi. Oso zaila da arau zehatza ematea. Adibidez, badirudi nobela euskaratzeko lana zuzenagoa dela; baina nobela euskaratzearen ondorioa erabat onargarria da. Ikastolako zuzendaria ere guztiz onargarria da. Dena den, azterketa patxadazkoagoa eskatzen du auzi honek, literaturako erabilerak aztertuz.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

-ko/-zko**Galdera:**

Nola da: kalitateko haragia ala kalitatezko haragia?

Erantzuna:

Erabaki gabe dago adibide konkretu hori. Bestela ere arazo korapilatsua da. Nolanahi ere, argi dago izenondoa erantsiko bagenu ez litzatekeela zalantzarik egongo: kalitate oneko haragia.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

kontuan/kontutan**Galdera:**

Hauek guztiak kontutan hartu behar dituzu, ala kontuan hartu behar dituzu?

Erantzuna:

Kontuan hartu da Hiztegi Batuan jaso dena. Hori da, beraz, batasunerako forma egokia.

Data: 2000

Erantzulea: Araua

nahikoa, hamaika eta abar: singularra ala plurala?***Galdera:***

Nahikoa, hamaika eta horrelakoen komunztadura nola egin behar da: singularrean ala pluralean? Hamaika buruhauste izan ditut ala dut?

Erantzuna:

Biak dira zuzenak.

Data: 1996

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

Nirekin bizi den lagunarekin / Ni bizi naizen lagunarekin***Galdera:***

Zuzena da Ni bizi naizen lagunarekin joan naiz mendira perpausa ala nahitaez esan behar da Nirekin bizi den lagunarekin joan naiz mendira?

Erantzuna:

Lehendabizikoa ere zuzena da, eta ez da nahitaez bigarrena erabili behar (ikus Euskal Gramatika. Lehen Urratsak, EGLU, V, (Mendeko perpausak, 1) liburukiko 184.-197. or., eta bereziki 189. orrialdean <<Kasu paralelismoa>> izeneko azpiatala).

Data: 2001/03/ 12

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazkaria

Dokumentua: *Erlatiboaz eta utzi eta debekatu aditzen erregimenaz (irizpena) -*

<http://www.euskaltzaindia.net/jagonet/dok/Erlatiboaz1.pdf>

nondik***Galdera:***

"Nondik" deklinatzerakoan, nola jokatu behar da hitz arruntekin, bukaeran -n edo -l duten hitzetan?

barrendik/barrenetik

ehundik gora / ehunetik gora

hurbildik/hurbiletik

urrungo, urrundik / urruneko, urrunetik

Erantzuna:

Bietako erabilerak aurki daitezke. Aztertuko dugu batasunerako araurik edo gomendiorik ematea komeni den.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

-ren- tartekatu ala ez**Galdera:**

Deklinazioko atzizkiaren aurretik, zenbait kasutan, ez dakit -ren- epentetikoa nola eta noiz erabili (ala ez erabili): aitarengandik ala aitagandik, semearekin ala semeekin?

Erantzuna:

Deklinabideko tauletan oso ondo ageri da noiz erabili eta noiz ez erabili -gatik. Kasu-markarekin, esaterako, mugagabea eta mugatu singularrean ez da beharrezko. -kin kasu-marka, ostera, beti doa genitiboaren gainean; beraz, semearekin.

Data: 1996

Erantzulea: Araua

-tzat/-tzako**Galdera:**

Zuretzat ala zuretzako, zein da zuzena?

Erantzuna:

Biak zuzenak dira. Berez, -tzat da adizlaguna eta -tzako izenlaguna, baina oso hedatua dago -tzako adizlagun bezala erabiltzea. Deklinabideko baturako formak eman zirenetik ez da ezer esan auzi honetaz.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

-tzat atzizkia ts, tz txistukari afrikatuen ondoren**Galdera:**

Nola erabili behar da -TZAT atzizkia ts, tz txistukari afrikatuen ondoren? Esaterako, trakets gehi -tzat: trakestzat/traketstzat/trakets-tzat...? Eta-tz gehi -tzat?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du ezer esan, oraingoz, arazo morfofonologiko horretaz. Hala ere, badirudi galderan ematen diren trakestzat/traketstzat/trakets-tzat formen artean dagoela hautua. Aukera horien artean zein nagusitu den ikusteko, Orotariko Euskal Hiztegia (OEH) aztertu dugu eta, OEHko corpuseko datuen arabera, honako ondorio hauek atera:

1. Trakets-tzat, motz-tzat: hau da, marratxo erabiltzea. Badirudi gaur egungo idazleren batek edo bestek erabili izan duela baliabide hori; baina OEHko corpusean ez dugu aurkitu horren aztarrenik.
2. Traketstzat, motztzat: hau da, txistukari afrikatua + txistukari afrikatua. Oso erabilera urrikoa dugu baliabide hori ere. OEHko corpusean oso adibide bakanak aurkitu ditugu: V. Mogelen utstzat, S. Pouvreauren motztzen eta pitzzen, eta J. Duvoisinen botztzen. Horiek besterik ez.
3. Trakestzat, moztzat: hau da, txistukari frikaria + txistukari afrikatua. Nahiz eta adibide gehiegi aurkitu ez OEHko corpusean, ezagun da forma hori nagusitu dela tradizioan. Txistukari afrikatua frikari bihurtu da honako adibideetan: ustzat, amestzat, arroztzat; eta aditzetan, zorrozten, pozten, orrazten, mozten, aberasten, histen, pizte... Jatorriz txistukari afrikatua izan beharrean frikaria duten kasuetan ere ez da arazorik izan kontsonante afrikatuz hasten den atzizkia hartzerakoan: deustzat, eskastzat, espostzat, ezdeustzat, mesiaztzat, apheztzat, arteztzat, ezereztzat; eta aditzetan, ikusten, pozten, ezerezten, naasten eta beste. Beraz, hirugarren baliabide horren alde daude tradizioko datuak.

Data: 2001/03/28

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

-tzat prolatiboa**Galdera:**

Nola deklinatu hitzaren bukaera afrikatua denean? Adibidez, ardatz:

ardatz + tzat: ardaztzat, ardatzat... ardaztako...?

Euskaltzaindiak ez du deus esan honetaz, guk dakigula. Dena dela, Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU), I liburukian behin agertzen da kasu hori idatzita. Zalantza dugu horrek berarekin ote dakarren gomendio-araua. Adibidea (224. or.): Jende zenbakiatzat hartua bait da (sic).

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du eman horretaz inolako araurik.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

-xe

Galdera:

Horrako -xe hori zer da, atzizkia ala tartekia? Alegia, zertan dira ezberdinak atzeraxeago eta atzeragoxe?

Erantzuna:

Baliokideak dira. Esana dago Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU) liburukian -xe- indartzailea bi lekuetan joan daitekeela.

Data: 1996

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

-z/-(r)ekin

Galdera:

Zer ezberdintasun dago -(r)ekin sozietiboaren eta -z instrumentalaren artean? Noiz erabili behar da bata eta noiz bestea? Labanaz hil zuen / labanarekin hil zuen. Buruz errematatu du / buruarekin errematatu du

Erantzuna:

Euskalkien arabera, instrumentalaren lekua asko aldatzen da (ikus Euskal Gramatika Laburra, 481.-486. or.). Erabileraz, berriz, Euskal Gramatika Laburrak dio "sozietiboa ere erabiltzen ahal da lasai aski". Hala ere Euskaltzaindiak ez du ezer erabaki horretaz. Literatura-tradizioa aztertu eta emango da erantzuna.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Adjektiboa nola deklinatu aditz kopulatiboekin: Ez, mutil! Bai, gizona!

Galdera:

Aditz kopulatiboekin atributo-funtzioa egiten duena adjektiboa bada, nola deklinatu behar dugu: mugatuan ala mugagabean?
 a) *Andoni irakasle ona da / Andoni irakasle on da*
 b) *Eta bokatiboekin? Ez, mutil! Bai, gizona!*

Erantzuna:

a) *Mugatua da hobestekoa: alegia, Andoni irakasle ona da. Beste egituraren testigantza batzuk badira literaturan, baina aspaldikoak dira (XVI. eta XVII. mendeetakoak). Orduz gero, mugatua nagusitu zaio mugagabeari, atributua (izena + izenondoa) den kasuetan behintzat.*

b) *Ezin esan daiteke, gramatika-liburu batzuetan esan izan den bezala, bokatihoak nahitaez mugagabeen joan behar duenik. Biak dira onartzekoak, Ez, mutil! eta Bai, gizona!. Horixe diogu Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, I liburukian ere (ikus 1991ko argitalpeneko 225. or.). Gainera, mugatua nahitaezkoa da zenbait izenekin (Bai, jauna!, adibidez). Bestalde, euskalkiak ere zerikusia izan dezake bataren eta bestearen erabileran.*

Data: 2001/05/08

Erantzulea: Gramatika batzordea

Deklinabidea: "n, l, s, z, tz" edo "r" letraz amaitzen diren leku-izenak: Irun, Madril, Paris, Zarautz, Eibar...

Galdera:

Lekuzko kasuetan nola deklinatzen dira "n, l, s, z, tz" edo "r" letraz amaitzen diren herrien izenak? Adibidez, Irun, Madril, Paris, Zarautz, Eibar...

Erantzuna:

Euskaltzaindiaren Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, I liburukian dator (ikus 412. or.) kontsonantez amaitutako leku-izen berezien deklinabidearen berri. Hor ematen direnak Euskaltzaindiak batasunerako eskaini dituen erabakiak liburuan ere (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saila, 1992) ageri dira.

Honela da kontua, adibidez, Eibarren kasuan: Eibar, Eibarreko/Eibarko, Eibarrera/Eibarra, Eibarrerantz/Eibarrantz, Eibarretik/Eibartik eta abar. Bi formak (Eibarreko/Eibarko eta abar) zuzenak dira.

Kontsonante guztietarako balio du paradigma horrek, non eta ez dagoen morfofonologiazko egokitzapenen bat egin beharrik (adibidez, bukaeran "-tz" duten izenetan, ondoren kontsonantez hasten bada kasu-marka, bukaerako hori "-z" bilaka daiteke: Zarautz, Zarautzik/Zarautzetik eta abar).

Beste kasu batzuetan, "-tik" ablatiboaren forma ahostundu egiten da (eta "-dik" bilakatu), baldin eta aurretik daraman izena "-l" nahiz "-n" bukaeraduna bada: Madril, Madrildik/Madriletik; Irun, Irundik/Irunetik eta abar.

Beste horrenbeste gertatzen da "-ko" kasu-markarekin ere: Madril, Madrilgo/Madrileko; Irun, Irungo/Iruneko eta abar.

Data: 2002/01/08

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Deklinabidea: taulak edo eskema orokorrak.

Galdera:

Non aurki dezaket deklinabidea? Orokorrean, alegia: taulak edota eskemak.

Erantzuna:

Deklinabideari buruz, jakizu, oraingoz hauxe bakarrik daukagula Interneten: "Euskaltzaindiaren Arauak" saileko 8.a ("Zenbakien deklinabideaz"), 12.a ("BAT eta BATZUK-en deklinabidea") eta 29.a ("Diptongoz bukatzen diren izenen deklinabidea"). Beraz, hortik aurrerakoa, eta bereziki zuk eskatzen duzun taula edo eskema orokorra, paperezko argitalpenean begiratu beharko duzu: hain zuzen ere, Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, I liburukiko 405. orrialdetik aurrerakoetan (1991ko argitalpenean).

Data: 2001/05/28

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Deklinabidea: zer edo zer, baten bat

Galdera:

"Zer edo zer" deklinatzekotan, zelan deklinatuko litzateke: "zerk edo zerk", "zeri edo zeri"?

Erantzuna:

Ez, ez dira zuk diozun bezala deklinatzen; baizik eta "zer edo zerk" eta "zer edo zeri".

Era horretako egiturak aipatzen dira Euskaltzaindiaren Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, I liburukian (ikus 51. or.), baina NOR kasuan, bestelako deklinabiderik gabe. EGLU horretan, "zer edo zerk" eta "zer edo zeri" horien zentzukidea (eta egituraz ere antzekoa) den beste egitura bat ematen da ergatiboan: "baten bat", alegia. Honela deklinatzen da: "baten batek lagunduko digu", "bat edoren batek esango zion"... "Zer edo zer"i dagokionez, ahozko hizkuntzari begiratu besterik ez dugu: "zeoze(r)k kalte egin dio, zeeze(r)tan pasatu beharko dugu denbora" eta abar.

Literaturan ere baditugu adibideak:

- Yainkoarekiko zer-edo-zerk bultzatzen bainau (J. Zaitegi, Sopokelen antzerkiak, 149. or.).
- Beste zer-edo-zergatik (M. Lekuona, Santa Klararen kanta zahar bat, 117. or.).

Data: 2002/02/04

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Delkinabidea: buruz/buruzko

Galdera:

Birdeklinabidearen inguruko hainbat zalantza:

“Zenbat liburu irakurri dituzu animaliei buruz?” ala “zenbat liburu irakurri dituzu animaliei buruzkoak?”; “komentario asko entzun dut gai horri buruz” ala “komentario asko entzun dut gai horri buruzkoa”? Beste esaldi honetan ez daukagu inolako zalantzarik: “irakurri ditudan liburuak maitasunari buruzkoak dira” eta ez “irakurri ditudan liburuak maitasunari buruz dira”. Ez da hala?

Erantzuna:

- Zenbat liburu irakurri dituzu animaliei buruz? ala Zenbat liburu irakurri dituzu animaliei buruzkoak? Biak ondo.

- Komentario asko entzun dut gai horri buruz ala Komentario asko entzun dut gai horri buruzkoa. Lehendabizikoa ondo; bigarrenak buruzkoak behar du.

- Irakurri ditudan liburuak maitasunari buruzkoak dira ala Irakurri ditudan liburuak maitasunari buruz dira. Biak ondo.

Era horretako perpausetan bi aukerak (buruz nahiz buruzkoak) ondo daude Gramatika batzordearen ustez; hori bai, betiere izenlaguna atzeratzen zaion izen-sintagma absolutiboan delarik. Ezinezkoa baita honako perpaus hau egitea: *Liburu batean irakurri dut nazionalismoari buruz.

Absolutiboan doalarik, bai, ordea: Liburu bat irakurri dut nazionalismoari buruz.

Data: 2001/03/12

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazkaria

Dokumentua: BURUZ ala BURUZKOAK (irizpena) - <http://www.euskaltzaindia.net/jagonet/dok/Buruz.pdf>

Denbora adieraztekoak

Galdera:

Zortzi ordu egon naiz zure zain zuzena da ala zortzi orduan egon naiz zure zain behar du?

Erantzuna:

Zortzi ordu egon zain bezalakoak ondo daude (ikus Euskal Gramatika Laburrak absolutibo kasuaz dioena). Eta, horren ondoan, zortzi orduan egon naiz eta zortzi orduz egon naiz ere zuzenak dira.

Data: 1996

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

Ehunekoak (%)

Galdera:

Ehunekoak idazterakoan nola deklinatu behar ditugu: mugagabearen eta mugatu singularraren artean zein hobetsi? Adibidez:

- Emakumezkoen %22k idatzi dute
- Emakumezko %22k idatzi dute
- Emakumezko %22ek idatzi dute
- Emakumezkoen %22ek idatzi dute

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du, oraingoz, ezer erabaki auzi horretaz; baina zuk emandako adibideetatik lehendabizikoa bakarrik da zuzena: "emakumezkoen %22k". Izan ere, "emakumezko" bezalako forma soilak ez dira zuzenak balio partitiboa emateko: "emakumezkoen", "emakumezkoen artean/artetik", "emakumezkoetatik" edo "emakumezkoetarik" (iparraldean) behar du.

*Bestalde, azkenekoa ere ez da zuzena; zalantza, izatekotan, mugagabearen (emakumezkoen %22k) eta mugatu singularraren (emakumezkoen %22ak) artean izango litzateke; baina mugatu pluralarekin ez dago zalantzarik, okerra baita (*emakumezkoen %22ek).*

Data: 2001/10/16

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Hainbat.

Galdera:

*Nola behar dute ondorengo hauek:
Indiotan ibili, heroietan jolastu...*

*marnier erara/eran prestatu
lagunetara, medikutara joan*

Erantzuna:

Hiztegi Batuan, bigarren itzulian, ahaleginduko gara aditz horien azpisarrerak osatzen.

Data: 2000

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Horrez gain, horrezaz gain, horretaz gain

Galdera:

Zuzenak al dira "horrez gain", "horrezaz gain" eta "horretaz gain" hirurak?

Erantzuna:

*Bai, forma zuzenak dira "horrez gain", "horrezaz gain" eta "horretaz gain". Hirurak euskara batukotzat ematen dira Bergarako Biltzar ondoko erabakiak liburuan (ikus Euskera aldizkaria, 1979koa). Komeni da argi uztea, okerbiderako tentaziorik egon ez dadin, "horrez" forma ontzat ematen dela "honez gain", "horrez gain" gisako erabileretarako bakarrik. Alegia, ez dela esan behar "*etxe horrez mintzatu gara": Bergarako Biltzar ondoko erabakiak liburuko 23. orrialdean dator zehaztaperen hori. Gramatika batzordeak behinola jakinarazi zidanez, euskara batukotzat ematen da "horretaz guztiaz gain" forma ere. Beraz, zuzena da.*

Data: 2001/05/31

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Inoren

Galdera:

Zein da zuzena, "ez dio inoren aholkuari kasurik egiten" ala "ez dio inoren aholkuri kasurik egiten"?

Erantzuna:

Zalantzarik gabe, mugatua dagokio "inoren" horri: "ez dio inoren aholkuari kasurik egiten". Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiak adibide hauek dakartza, besteak beste:

- Enaiz, neronez, inoren aultasunak agertzen zalea (R.M. Azkue, Ardi Galdua, 117. or.)*
- Irugarrenian, inoren kaltiagaz esaten dirian guzurak (Fray Bartolome, Ikasikizunak, 2, 172. or.).*

- Ez dira inoren barrena iharrosteko gai (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 130. or.).

Jakina denez, batzuetan, testuinguruak hala eskaturik, partitiboan (beraz, mugagabea) doan izenen batekin erabili behar da: "Ez dut inoren aholkurik entzungo".

Data: 2002/02/04

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Iraupena edo denbora-bitartea

Galdera:

Iraupena edo denbora-bitartea adierazten duten adizlagunak singularrean erabiltzea gaizki al dago?

Handik hiru urtera, lau egunean egin zuen lana, denbora gutxian... Kantitateekin eta magnitudeen unitateekin ere antzeko zerbait gertatzen da: 200.000 pezetatik gorako soldatak, ni nengoen tokitik lau metrora zegoen.

Erantzuna:

Iraupena eta maiztasuna adierazten duten sintagma zenbatzailedunetan mugatu singularra noiz erabil daitekeen izeneko arauan ([110. arauan](#)) hala esaten da:

"inesiboko sintagma hauei dagokienez (...) mugatu singularra erabiltzea hobesten da honako kasu honetan: zenbatzailedun sintagma horrek adierazten duen denbora etengabeko unitate bakar gisa hartzen denean (hiru astean, hiru urtean, lau urtean)". Beraz, lau egunean edo denbora gutxian.

Ez da oraindik araurik eman -ra atzizkiaren erabileraz. Hala ere, ezer esaten ez den bitartean, argi dago Hegoaldean tradizio handia dutela handik hiru urtera edo ni nengoen tokitik lau metrora bezalako egiturek. Gomendio edo araurik ematen ez den arte, beraz, guztiz zilegi da horrelakoak erabiltzea.

Data: 2000

Erantzulea: Arauaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

-ko/-ren (etxeko jabea / etxearen jabea) NONGO/NOREN

Galdera:

Zein da forma zuzena, etxeko jabea ala etxearen jabea?

Erantzuna:

Zalantza hori argitzeko, esanahi bereizkuntza hauxe egin beharra dago:

Batetik, *etxearen jabea* da eraikuntza horren legezko jabea. Bestetik, *etxeke jauna*, *etxeke nagusia*, *etxeke nagusi jauna* (edo *etxeakoandrea*) da egoitza horretan bizi direnen buru egiten duena. Sarritan, gainera, biak pertsona berbera dira; maizterrak izan ezean.

Data: 2001/04/19

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Mugagabea eta aditza: singularrean ala pluralean?

Galdera:

17 urte dut ala 17 urte ditut?

Erantzuna:

Biak dira zuzenak. Dena den gaur euskaldun gehienek *17 urte ditut* esaten dute, baina Iparraldean ere.

Data: 1996

EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

Mugagabeen, udalerrri eta kontsulatu

Galdera:

Errolda-agiri batean *zein udalerrriTIK* eta *zein kontsulatuTIK* formak ikusi ditugu eta, zalantza sortu zaigu mugagabearen erabileraz. Ez al luke behar *zein udalerrriTATIK* eta *zein kontsulatuTATIK* mugagabeen?

Erantzuna:

Bai, inongo zalantzarik gabe. Bokalez bukatuak, mugagabeen, -*tatik* (edo -*tarik*) atzizkia hartzen dute, eta Euskaltzaindiak horrelaxe arautu du. Beraz, *zein kontsulatutatik* eta *zein udalerritatik* dira forma zuzenak.

Data: 2001/03/21

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Mugagabearen erabilera: "bototan/botoetan galdu; urte luzetan/luzeetan"

Galdera:

Oso maiz irakurtzen ditut "halakok galdu du bototan" gisako esaldiak; baina, nire ustez, "botoetan" behar luke. Beste

batzuetan zalantza gehiago egiten dut: adibidez, "urte luzetan / urte luzeetan". Zein da egokiena?

Erantzuna:

Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, I* liburukian (ikus 78.-81. or.) azaltzen da mugagabearen erabilera. Gure ustez, "bototan galdu du" ez da egokitzen han azaltzen den kasuistikara. Honako kasu hau litzateke gertukoena: ""-n" edo "-z" kasu-markak dituztenetan mugagabea erabil daiteke, adverbio antzeko balioa hartzen dutenean: "elurretan, eguzkitan, sutan...". Baina esapideen gisako egiturak dira horiek, eta mugagabea ez da kasu honetan edozein izenekin erabiltzekoa. Beraz, "botoetan galdu" da hobestekoa.

Ibon Sarasolak ere *Euskara batuaren ajeak* liburuan dio (ikus 119. or., "kontuan izan" sarrera) oro har mugagabea ez dela burujabea, zenbatzaileraren bat behar duela edo, bestela, esapideetan baizik ez daitekeela erabili. Osterantzean, forma mugatuak (singularra "taldean, kontuan, dudan" nahiz plurala "taldeetan") erabili behar direla.

Gaztelaniaren eraginari egozten dio Sarasolak mugagabeko egituren ugalketaren errua: gaztelaniaz artikulurik gabe dagoena, euskaraz mugagabea. Neurri batean ados gaude baieztapen horrekin.

Gu geu "urte luzeetan" eta "jai arratsaldeetan"en aldeko gara, nahiz eta Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegia*n mugagabeko adibideak ere ugariak izan kasu horietan.

Data: 2001/06/14

Erantzulea: Beñat Oihartzabal, J.M. Makatzaga

Norako?/Zertarako? (bizikleta + -tzako/-rako)

Galdera:

Zuzenak badira "bizikletentzako bidea" eta "bizikletetarako bidea", zein hobesten duzue?

Erantzuna:

Bi horien artean, "bizikletentzako bidea" da hobestekoa. Berez, bizidunentzako da destinatiboaren forma hori; baina erraz ulertzen da "txirrindularientzako bidea"z ari garela. Bestea ("bizikletetarako bidea") bitxia egiten da. Badirudi "-rako" kasu-marka horren azpian NORA KO galdera dagoela gehientsuenetan, eta hori ez zaio ondo egokitzen zuk emandako egiturari. Alegia, NORA adlatibo kasu-marka dagoela horren azpian; hain zuzen ere, "bizikletetarako bidea" egituran inola ere ikusten ez duguna. NORA adlatiboa, ordea, garbi asko ageri

da "kalerako arropa" (kaleRA eramateko arropa), "etxerako moduko laguna" (etxeRA ekartzeko moduko laguna) bezalakoetan.

Bestalde, NORAKO kasu-marka erabili beharrian, ZERTARAKO erabiliko bagenu, egokia litzateke egitura; beti ere ekintza bat (beraz, aditz bat) dugularik. Adibidez, "bizikletaz IBILTZEKO bidea", ZERTARAKO BIDEAren erantzun izango litzateke.

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "-tzako" sarrerak.

Data: 2001/10/03

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Plural hurbila (-ok)

Galdera:

Artikulu hurbila zein kasutan erabil dezakegu? Gure burua tarteko denean bakarrik? Adibidez, "etxeok politak dira" zergatik da zuzena; nahiz eta "gu" ez izan "etxeak"?

Erantzuna:

Bai, zuzena da "etxeok politak dira" perpausa. Izan ere, plural hurbila ez da "gure burua tarteko" denean bakarrik erabiltzen; baizik eta hurbiltasuna adierazi nahi denean ere bai (adibide horretan, "honako etxe hauek" esango bagenu bezalatsu da). Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, I* liburukian bi adibideok jaso genituen (ikus 82. or.):

- Guk, irakasleok, geure biziko rolloak botatzen dizkiegu ikasle gizajoei.

- Zuek, funtzionariook, ez duzue kolperik jotzen.

Perpau horien esanahia gorabehera, gramatika-formarekin konforme gaude. Bigarrenean argi eta garbi ikusten da hiztuna ez dela tarteko, hurbil dituen solaskideak baizik.

Data: 2001/06/07

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Zenbakien deklinabidea: lau, lauan/*lauean

Galdera:

Azkenaldi honetan irratian nahiz telebistan behin eta berriro entzuten ditut "urtarrilaren lauEan, hilaren hamalauEan" eta antzekoak. Lehen ez nuen hainbestetan entzuten edo ez nintzen konturatzen. Ez al zuen, bada, Euskaltzaindiak "lauan" forma hobetsi, "lauEan" barik.

Erantzuna:

Bai, zuzen zaude: Euskaltzaindiak "urtarrilaren lauan" forma hobetsi zuen 29. arauan, "Diptongoz bukatzen diren izenen deklinabidea" delakoan. Beraz, okerra da "*lauEan" forma.

Data: 2001/11/27

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Zer egin: judo, karate, aikido...?**Galdera:**

"Zein kirol egiten du zure semeak/alabak?" galdetzean, "pilotan egiten du, arraunean, futbolean..." erantzuten dugu; baina "judo, karate, aikido..." eta gisako kirolen kasuan, zelan erantzun behar dugu?

Erantzuna:

Kirol horien tradizio idatzirik ez dugunez, hizkuntza-sena daukagu gidari bakartzat, eta horren arabera, ez dira oso egokiak "judoan egiten du" edo "karatean egiten du" egiturak. Horiek baino egokiagoak iruditzen zaizkigu "judoan aritzen da" eta "judoa egiten aritzen da". Ez gaude horren ziur "judoa egiten du" egituraren egokitasunaz.

Data: 2001/11/16

Erantzulea: Patxi Goenaga eta Jesus Mari Makatzaga

Erdarazkoen ordainak (*Morfologia*)**"cara de ..." (-aurpegia / -ren aurpegia)****Galdera:**

Gaztelaniazko "cara de cansado, cara de tonto" eta abar euskaraz esateko, genitiboa erabili behar al da? Ezin da esan "nekatu-aurpegia", besterik gabe, edo "nekatuaren aurpegia" esan behar da nahitaez?

Erantzuna:

Bai, zuzena da "nekatu-aurpegia" egitura. Genitiborik gabeko forma horixe da, gainera, egokiena; alegia, hitz-elkarketa bidezkoa: "nekatu-aurpegia, gaizto-aurpegia, tonto-aurpegia...". Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegiak* adibide hauek dakartza, besteak beste: "urre-aurpegi, haserre-aurpegi, haur-aurpegi, lelo-aurpegidun, aingeru-aurpegia, beldur-aurpegia, lapur-aurpegia...".

- ... bere izena eman zion Bak ardo-arpegi ta oiuzaleari. (Jokin Zaitegi, *Sopokel-en antzerkiak*, 62. or.)

Baina genitiboduna ere erabil daiteke, batez ere sintagma luzeagoen kasuan. Hona hemen literaturako adibide batzuk: "boxeadorearen aurpegiarekin, ihizi on baten aurpegia, gixajo huts-hutsaren aurpegia, afrikatarren itxurako aurpegia, zedenak jandako aurpegia, bakezko aurpegia, irribarrezko aurpegia...". Hala ere, esan bezala, arruntenak eta ugarienak hitz elkartu bidezkoak dira.

Data: 2001/09/12

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Cerrojo o pasador de seguridad

Galdera:

Gaztelaniazko hitz hori adierazteko, egokia iruditzen al zaizue *segurtasun-kisketa* hitza?

Erantzuna:

Bai, egoki ikusten dugu *segurtasun-kisketa* hitza erabiltzea horretarako.

Data: 1995/12/05

Erantzulea: Hiztegi Batuko lantaldea

echar en falta / mira egin

Galdera:

Hitz berri bat sortzeko proposamena dakarkizuet. Gaztelaniazko *echar en falta* esateko (ingelesezko *to miss*, alegia), euskaraz *norbaiten falta somatu* edo *norbait faltan hartu* omen dira egokiak. Nik proposatu nahi dizuedan hitza hau da: *gabetsi* edota *gabestu*. Adibidez, *Ander gabetsi egiten dugu*, *Ander gabesten dugu*. Zer deritzozue?

Erantzuna:

Hiztegi Batuan, **mira** sarreraren azpian, **mira egin** azpisarrera eman dugu (1. "harritu" / 2. "norbaiten edo zerbaiten falta nabaritu"). Beraz, gaztelaniazko "echar de menos / echar en falta" adierazteko, *mira egin*, *falta nabaritu* (eta horren kide den *falta somatu*) ditugu euskaraz. Proposatzen den *gabetsik*, berriz, ez du inolako tradizioirik; galderan diozun bezala, sortu egin beharko genuke. Ba ote dugu hitz berri bat sortu beharrik, lehendik euskal ordain tradiziodunak izanik? Bestalde, osaerari dagokionez, bitxi samarra litzateke *gabetsi*; izan ere, lehen osagaia postposizioa izango bailuke.

Nolanahi ere, Hiztegi Batuko lantaldeari eta Euskara Batuko

batzordeari helaraziko zaie zure proposamena, haiek ere azter dezaten.

Data: 2001/04/04

Erantzulea: Miren Azkarate

Haciendo la paz

Galdera:

Hori euskaraz adierazteko, zuzena al da *Bakegintzan* forma?

Erantzuna:

Bai, *Bakegintzan* zuzena da; baina nahikoa litzateke *Bakegintza* jartzea. Izan ere, *-gintza* atzizkiak "zerbait egiten aritzea, mugimendua" adierazten du, eta ez legoke hitzaren amaierako *-n* hori jarri beharrik.

Galdetutako forma hori izenburu bezala erabiltzeko dela ulertu dugu, eta ez esaldi batean egon litezkeen bestelako kasu batzuetarako: *bakea egiten, bakea eginez, etab.*

Data: 1997/10/17

Erantzulea: Hiztegi Batuko lantaldea

llamar al ascensor / igogailua(ri) deitu

Galdera:

Nola adierazi, euskara txukunean, *llamar al ascensor*?

Erantzuna:

Kontuan izanik gaztelaniaz *llamar al ascensor* dela eta frantsesez ere *appeler l'ascenseur*, ez dago arazorik euskaraz ere kalkoaren bidetik jotzeko. Beraz, *igogailua(ri) deitu*; aditz horrek erregimen bikoitza baitu (Ipar. *du ad.*, Heg. *dio ad.*). Beste modu batzuetara ere esan daiteke, jakina: adibidez, *igogailua igoarazi/jaitsarazi*.

Data: 2001/04/04

Erantzulea: Miren Azkarate eta Beñat Oiartzabal

Necesitamos libertad y paz

Galdera:

Bateko *askatasuna eta bakea behar dugu* eta besteko

askatasuna eta bakea da behar duguna harturik, zein da egokiena?

Erantzuna:

Egokiena da *askatasuna eta bakea behar ditugu* (komunztadura, *ditugu*, pluralean). Bestea, *askatasuna eta bakea da behar duguna*, aski traketsa eta gordina da: hobe duzu alde batera utzi.

Data: 2001/03/28

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

teléfono móvil

Galdera:

Nola esan behar dugu: *telefono mugikorra, telefono mobila, sakelako telefonoa* edo *segapotoa*?

Erantzuna:

Hiztegi Batuaren bigarren itzulian horrelako galderei erantzuna eman nahirik, lantalde berezia antolatu du Euskaltzaindiak *teléfono móvil, ordenador portátil* eta beste hamaika hitzen ordaintzat dabilzan formak aztertu eta proposamen bateratu bat egiteko. Beraz, oraingoz ezin diogu erantzun zuk egindako galderari. Hala ere, neure iritzia emanaz, *segapotoa* egokia izan daiteke nobelaren batean edo txisteren bat kontatzerakoan; baina ez edozeinen eskuetan ikusten dugun telefono txiki horren izen normaltzat hartzeko. Bestalde, *telefono mugikor* formari dagokionez, *-kor* atzizkia ez da hor oso egokia, "(berez) mugitzeko joera duen telefonoa" bailitzateke esanahia; egia da, osaera gora-behera, guztiz hedatua balego onartuko genukeela. Baina forma berria izan eta beste hainbat formarekin lehiatzen dabilenean, ahal den formarik txukunena aurkitzeko ahalegina egin beharko genuke. Ni neu, oraingoz, *sakelako telefono* edo *esku(ko) telefonoren* aldekoa naiz. Baina, berriro esan, onena dugu horretarako antolatu den taldeak proposamena egin arte itxarotea.

Data: 2001/04/11

Erantzulea: Miren Azkarate

Gaztelaniaz "o" letraz bukatzen diren hitzak

Galdera:

Gaztelaniaz *o* letraz bukatzen diren hitzak nola bukatzen dira euskaraz: *produkto* ala *produktu*?

Erantzuna:

Kasu konkretu honetan, *produktu*; baina ezin da esan gaztelaniaz *o* letraz amaitzen diren hitz guztiak euskaraz *-u* behar dutenik. Ikus, *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak*, bereziki II. atala, "Hitz-bukaerak". Oro har, iturri zaharra grekoa denean, amaierako *-o* gorde daiteke, mailegua bide arruntetik ez datorrenean. Nolanahi ere, hiztegiek argitzen dituzte horrelako zalantzak.

Data: 2000

Erantzulea: Arauz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

Gaztelaniazko *me gustaría* itzultzeko**Galdera:**

Gaztelaniazko *me gustaría ir a casa* egitura itzultzeko aukeran jarri ditudanak denak zuzenak ote diren jakin nahi nuke edota horien artean zein hobetsi behar dudan.

Etxera joan nahi nuke.

Etxera joango nintzateke.

Etxera gustura joango nintzateke.

Etxera joango banintz...!

Etxera joatea gustuko nuke.

Erantzuna:

Horiek guztiak jatorrak eta erabilgarriak dira, Gramatika batzordearen ustetan. Funtsean esanahi bertsua lukete guztiek, baina idazlearen estiloaren edo beharizanen esku legoke batzuen edo besteen aukeraketa.

Data: 1999/01/07

Erantzulea: Gramatika batzordea

Gaztelaniazko *no pude ir***Galdera:**

Nola esaten da *no pude ir* euskaraz: *ezin izan nuen joan* ala *ezin nintekeen joan*? Euskaraz desberdintzen al dira *hube podido* eta *gisakoak*?

Erantzuna:

Ahalezko laguntzaileaz baliatuz gertatzen den adizjokoan ez dago iraganerako forma bat besterik: *ezin nintekeen joan* nahiz *ezin joan nintekeen*. Hauek, jakina, ezin dute eman aspektu burutuaren ñabardurarik. Beraz, *no pude ir* bezalakoetatik urrun samar gertatzen dira.

Hala ere, badira zenbait perifrasi, behar bada hurbilagotik erantzuten ahal diotenak gaztelaniazkoari: *ezin izan nintzen*

joan, ezin joan ahal izan nintzen... (ez ezin izan nuen joan, laguntzailea joan aditzaren arabera hautatu behar baita); edo baita ere ez nuen joaterik izan.

Baina azken hori bezalakoak ezezkakoetatik kanpo ez dira gomendagarriak. Alegia, *izan nuen joaterik* baino hobe *joan ahal izan nintzen*; bestalde, *bazeukan joatea* eta horrelakoen ordeez ere, hobe *joan zitekeen* esatea.

Data: 1996/04/17

Erantzulea: Gramatika batzordea

Gaztelaniazko *por si viene*

Galdera:

Gaztelaniazko *por si viene* forma honela eman al daiteke euskaraz?

Ohartxo bat utziko diot badaezpada etortzen bada.

Erantzuna:

Gramatika batzordekideok ez dugu ontzat hartzen galderan proposatutako forma. Horren ordeez, honako hauek izan daitezke gaztelaniazko adibidearen itzulpen egokiak:

Ohartxo bat utziko diot badaezpada (ere).

Ohartxo bat utziko diot etortzen bada (ere).

Ohartxo bat utziko diot, etor daiteke eta.

Data: 1997/04/07

Erantzulea: Gramatika batzordea

Iragarkiak: "Hay caldo, Salda beroa"

Galdera:

Tabernako iragarki gisa, "Salda dago / Salda badago" aukeran, zein da egokia eta zein ez, eta zergatik?

Erantzuna:

Luzeegi joko luke-eta, ez dizut zergatikoa azalduko; baina jakizu "Salda dago" ez dela egokia. Bestea, "Salda badago", egokia da; baina, aukeran, egokiagoak dira beste hauek:

- Salda badugu / Badugu salda / Salda ere badugu / Badugu salda ere

Hizkuntzaren ikuspegiaz gainera salgaiaren aldarriarena ere gogoan hartuz gero, nik honela iragarriko nuke komunikazioaren mesedetan: "Salda beroa".

Data: 2002/01/03

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Izen-sintagmaren ingurukoak (*Morfologia*)

"baino ez", "baizik eta", "besterik ez" eta nominalizazioa

Galdera:

Nominalizazioa eskatzen al dute "besterik ez / baino ez" daramatenek? Ondorengo hauetatik zein dira zuzenak?

1. Zure lana hori egin baino/besterik ez da
2. Zure lana hori egitea baino/besterik ez da
3. Zure egitekoa ez da hara joatea, baizik eta hemen geratu
4. Zure egitekoa ez da hara joatea, baizik eta hemen geratzea
5. Zure egitekoa ez da hara joatea, hemen geratu baino/baizik
6. Zure egitekoa ez da hara joatea, hemen geratzea baino/baizik

Erantzuna:

Lehen perpausa okerra da. Izan ere, "zure lana" predikatua bada (edo subjektua, baina berdin da) predikatu horren subjektua "-t(z)ea" formakoa izan ohi da:

zure lana hori egitea da / *zure lana hori egin da.

zure lana da hori egitea / *zure lana da hori egin.

Horren arabera:

1. *Zure lana hori egin baino/besterik ez da OKERRA
2. Zure lana hori egitea baino/besterik ez da ZUZENA
3. Zure egitekoa ez da hara joatea, *baizik eta hemen geratu
LEHEN ZATIA ZUZENA DA ETA BIGARREN ZATIA
OKERRA
4. Zure egitekoa ez da hara joatea, baizik eta hemen geratzea
ZUZENA
5. Zure egitekoa ez da hara joatea, *hemen geratu baino/baizik
LEHEN ZATIA ZUZENA DA ETA BIGARREN ZATIA
OKERRA
6. Zure egitekoa ez da hara joatea, hemen geratzea baino/baizik
ZUZENA

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "baino ez" sarrerak.

Data: 20010607

Erantzulea: Patxi Goenaga

... baino ez / ... bakarrik

Galdera:

Erabil dezakegu "bakarrik" forma "baino ez" erabiltzen den kasuetan? Horrela bada, esaldiaren zein tokitan jarri beharko genuke?

1. Hauxe baino ez diozu eman behar.
2. Hauxe bakarrik eman behar diozu.
3. Hauxe eman behar diozu bakarrik.

1. Larunbatetan baino ez da zabalik egoten.
2. Larunbatetan bakarrik egoten da zabalik.
3. Larunbatetan egoten da zabalik bakarrik.

Erantzuna:

Bai, erabil daiteke "bakarrik" forma "baino ez" erabili duzun kasu horietan, eta "bakarrik" horren kokapen zuzena zure adibideetako bigarren esaldi horietakoa da:

- Hauxe bakarrik eman behar diozu.
- Larunbatetan bakarrik egoten da zabalik.

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "bakarrik" eta "baino ez" sarrerak.

Data: 2001/05/25

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

bainan**Galdera:**

Onartuta al dago *bainan* forma?

Erantzuna:

Hiztegi Batuan ez da sartu *baina* besterik.

Data: 1998

Erantzulea: Araua

bakarrik eta bakarra**Galdera:**

Zein da *bakarrik* eta *bakarraren* arteko ezberdintasuna?

Erantzuna:

Bakarrik aditzondoa da, eta *bakarra* izenondoa. Beraz, *bakarrik etorria da* eta *bakarra aukeratu dut*. Hala ere, galdera Nafarroatik datorrenez, gogoan izan behar da hango euskalkian (eta ingurukoetan) *bakarra* aditzondo bezala ere erabiltzen dela, eta *geldi-geldia* eta abar bezalaxe *bakar-bakarra*.

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

benetazko, benetako**Galdera:**

Benetazkoren ordeztu benetako erabiltzea, beste zein hitzetara zabal dezakegu?

Erantzuna:

Berez, araua ez dago pentsatua beste kasu batzuen eredutzat hartzeko. Baina gertatuko balitz existitzen ez den *benetaz* bezalako forma batean oinarritzen den izenlaguna sortzea, orduan berdin jokatu beharko genuke.

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

besterik**Galdera:**

Ariketak besterik ez dit egin ala Ariketak besterik ez ditut egin? Biak dira zuzenak?

Lau gizon besterik ez ditut ikusi.

Zuk esan zenituenak besterik ez nituen entzun.

Besterik honek egin dezake komuntadura pluralean, ala singularra baino ez du onartzen?

Lau gizon ikusi ditut, besterik ez.

Zuk esan zenituenak entzun nituen, besterik ez.

Erantzuna:

Ez da araurik eman auzi horren gainean. Gramatika batzordeak Areatzako txostenean aurkeztutako arau-proposamenak honela dio:

Besterikek ezkerretara daraman osagaia absolutiboan bakarrik joan daiteke, "absolutiboa + besterik ez + aditza" egituran.

Horrelakoetan perpauseko aditzak *besterikekin* egiten du komuntadura, oro har:

a) Pertsonari dagokionez, dudarik gabe (*zu besterik ez dut maite*).

b) Numeroari dagokionez ere, hori da gomendioa (*ez zegoen bakar batzuk besterik*).

Gogoan izan "x + beste" bezalako egiturak kasu guztietan erabil daitezkeela eta bi sintagmak kasu berean joango direla:

Zuk bestek ez dit esan.

Gertaturikoa ez diot zuri beste inori esango.

Asteburuetan ez omen zara mendira beste inora joaten.

Data: 1999

Erantzulea: Gramatika batzordea

bustita/bustia

Galdera:

Zein da zuzena: *bustita dago* ala *bustia dago*?

Erantzuna:

Bustita/bustia dago: biak daude ondo. Lehena, aditzondoa denez, pluralean ere ez da aldatzen ("bustita daude"); bigarrenak, adjektibo-sintagma denez, plurala hartzen du ("bustiak daude").

Data: 1998

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

dena/guzti

Galdera:

Zein da *dena* eta *guztiren* arteko ezberdintasuna?

Erantzuna:

Literatura tradizioa aztertuz ikusten da ez dagoela ezberdintasun nabarmenik. Araurik ere ez da eman batasunerako. Beraz, onena bakoitzak bere tradizioaren arabera erabiltzea izango da.

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

gure/nire

Galdera:

Egoki egina al da ondorengo adibideokin egin dugun "zuzen/oker" sailkapena?

Gure andreak, gure amak, gure senarrak dioenez... (zuzen)

Nire andreak, nire amak, nire senarrak dioenez... (oker)

Gure amak esan dit bazkaltzera goiz joateko (zuzen)

Batzuetan, erdararen eraginez, posesibo eta determinatzaile gehiegi erabili ohi dugu, ezta?

Erantzuna:

Beharbada, bai. Askotan genitiboaren beharrik ez dugu euskaraz. Dena den, Euskaltzaindiak ez du gomendiorik eman horretaz. Hala ere, ausarta da *nire andreak* edo *nire amak* oker

dagoela esatea; esan daiteke, nahi bada, euskaraz hainbat lekutan, behintzat, *gure* erabiltzeko ohitura dutela (edo izan dutela).

Data: 1999

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

hobe/hobeto

Galdera:

Realak gaizki jokatu du; hobe esanda, Zaragozak ondo jokatu du (oker)

Realak gaizki jokatu du, hobeto esanda, Zaragozak ondo jokatu du (zuzen)

Erantzuna:

Hobe izenondoa denez, okerra da lehen perpausako *hobe esanda* delakoa. Gramatika batzordeak Leioako biltzarrerako prestatutako txostenean argitu zuen kontu hori (ikus II.12. puntua).

Data: 1999

Erantzulea: Gramatika batzordea

horregatik

Galdera:

Horregatik (gauza) eta *horregatik* (pertsona) bereiztu behar al dira?

Erantzuna:

Horregatik da erakusleen deklinabidean onartu zen bakarra (pluralean *horiengatik*).

Data: 1998

Erantzulea: Araua

inolako, inongo

Galdera:

Jakina denez, *Ez dut inongo ariketarik egin* esaten da; baina nola da ondorengo hau:

Oporretan ez naiz inongo lekura joan ala inongo lekutara joan?

Erantzuna:

Ohikoena, *Oporretan ez naiz inora joan* dela esango nuke. Bestela, mugagabea erabili behar genuke.

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

inor gutxi, nor gehiago eta zenbat gehiago**Galdera:**

Nola deklinatu behar dira:

inor gutxi: inork gutxik, inork gutxi, inor gutxik?

nor gehiago: nori gehiago, nor gehiagori, nori gehiagori?

zenbat gehiago: zenbati gehiago?

Erantzuna:

Forma horien deklinabideri buruzko xehetasunik ez zen eman ez *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU)*, I liburukian, ezta *Euskal Gramatika Laburra* delakoan ere. Aztertuko dugu auzia.

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

-ko/-en, nongo/noren**Galdera:**

Nola esan behar da *ikastolako iritzia* ala *ikastolaren iritzia*?

Euskaltegiko/aren zuzendaria? *HABEko/ren zuzendaria*?

Erantzuna:

Askotan bi izenlagun-motak dira zilegi; baina oso zaila da arau zehatza ematea, *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU)*, I liburukian eta *Euskal Gramatika Laburra* delakoan esanaz haratago. Beraz, *ikastolako iritzia* / *ikastolaren iritzia* bikotean, "iritzia" pertsonena izaten den neurrian normalagoa dirudi *ikastolaren iritzia* beharko lukeela esatea; baina "(gure) ikastolan dagoen iritzia" adieran, esaterako, *ikastolako iritzia* onargarria izan daiteke. *Euskaltegiko/-aren zuzendaria*, *HABEko/-ren zuzendaria*; biek izan dezakete lekua.

Data: 1998

Erantzulea: EGLUkoaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

luzaro, luzaroan; sarri, sarritan**Galdera:**

Inesibo-marka erabili behar al da horrelakoetan?

Erantzuna:

Bietara ageri dira literaturan. Ez dago inesibo-marka erabili beharrik.

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

nahinora, nahinon, nahinor**Galdera:**

Onartzen al dira forma horiek?

Erantzuna:

Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegia*n azaltzen dira, Bizkaikoak direla esanez, eta gutxi erabiliak. Beraz, literaturan tradizioa duten neurrian ezin da esan erabil ez daitezkeenik, baina euskara batuan erabiltzerakoan, kontuan hartu behar da hedadura urrikoak direla. *Hiztegi Batuan*, orain arte, ez dira sartu; Euskaltzaindiaren Gramatikan ere ez dira orain arte aipatu (besteak beste perpaus bakunaren zatia egin zenean *Orotariko Euskal Hiztegiaren* corpusik ez genuelako). Hiztegia zabalduz doan neurrian, ikusiko da zein leku ematen zaien.

Data: 2000

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

noizko, norako**Galdera:**

Bostetarako? Bostetako? Biak erabil daitezke? Bilboko autobusa ala Bilborako autobusa? Zein da onargarriagoa? Biak? Noiz bata eta noiz bestea?

Erantzuna:

Galdera horietan ageri diren formak, *-ko* eta *-rako*, biak erabil daitezke, eta biak dira baliokideak (erabilera horietan). Honetaz, *Euskal Gramatika Laburrak* zer dioen ikus daiteke, bereziki 6.2.2. eta 21.10.5. puntuetan. Azpimarratzekoak dira, nik uste, honako hauek:

"Etxerako bezalako hitzak, dena den, tradizioan adizlagun

bezala erabili izan badira ere, ez dezagun ahantz *etxeko*, *laneko* eta *betiko* bezalako adizlagunak, inesiboaren gainean sortuak alegia, aski hedatuak daudela ekialdeko euskalkietan" (171. orrialdea).

"(...) galdetzailea inesiboan oinarritu beharrean adlatiboan ere oinarritzen ahal da, batez ere lekua eta ekintza adierazten duenean (ez hainbeste, bestela, denborarekin loturik dagoenean)" (494. orrialdea).

"*Nongo*, *noizko* eta *zertako* izenlagunak nahiz adizlagunak izan daitezke, testuinguruaren arabera. Tradizio handia du euskarak honetan eta egun ere hala erabiltzen da euskara mintzatuan leku anitzetan, batez ere ekialdean" (495. orrialdea).

Data: 1998

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

nornahi, nonahi, non-nahi



Galdera:

Euskaltzaindiaren 10. arauak dioenez, bi dira "*edozein-ek*" esateko modu zuzenak: hain zuzen ere, *nornahi* ("k" gabe) eta *nork-nahi*. Nahasgarria da lehendabiziko adibidea. Gaizki emana ote dago araua?

Erantzuna:

Presaka-edo irakurriko zenuen araua, ez baitu inon esaten *nornahi* behar duela ergatiboan. Hauxe da 10. arauak dioena: "Lehen osagaia *n-z*, *t-z* edo *k-z* bukatzen bada (hau da *non*, *nondik* edo *zenbat* bezalakoetan), hitz batean (*nonahi*, *zenbanahi*, *nondinahi*, *nonahitik*), edo marratxo baten bidez bereziak (*non-nahi*, *zenbat-nahi*, *nondik-nahi*, *non-nahitik*) idatz daitezke."

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

-raino/arte

Galdera:

Aski mugatuak al daude *-raino* eta *arteren* eremuak?

Erantzuna:

Benetako erabileran, ez, *Euskal Gramatika Laburra* delakoan (476.-478. or.) esaten den bezala. Erabilera nagusia, *-raino* lekua adierazteko erabiltzea izan arren, batasunerako oraindik ez da ezer hobetsi edo arautu.

Data: 1998

Erantzulea: EGLkoaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

-tzat/bezala (prolatiboa)

Galdera:

Egoki egina al da ondorengo adibideekin egin dudan

"zuzen/oker" sailkapena?

Bizitzari zentzua emateko, fedea hartu zuen oinarri (zuzen)

Bizitzari zentzua emateko, fedea hartu zuen oinarritzat (oker)

Zure erabakia ontzat eman dugu (zuzen)

Zu zinen, beraz! Bada, nik Olegiko Patxitzat utzi zintudan

(zuzen)

Maisutzat hartu eta apaiza izaki (zuzen)

Txomin hartu dugu musika-irakasletzat (oker)

Txomin hartu dugu musika-irakasle (zuzen)

-TZAT prolatiboa sarri askotan oker erabiltzen ote dugun susmoa daukat. Gauza segurua eta ziurra denean, uste dut ez dela prolatiboa erabili behar, beti ez behintzat, ustea edo iritziarekin baizik.

Bestalde, hemen sartu dut hurrengo zalantza ere, predikatu osagarriei baitagokie hau ere:

Mariaje hartu dugu laguntzaile bezala (oker)

Mariaje hartu dugu laguntzaile (zuzen)

Erantzuna:

Euskal Gramatika Laburra hartuz gero (491.-493. or.), prolatiboa aditz jakin batzuei loturik doan predikatu osagarriak hartzen duen atzizkia dela esango genuke, eta ez ziurtasunari edo usteari. *Orotariko Euskal Hiztegiko* adibideek erakusten dute, EGLUko interpretazioa zuzena dela. Beraz, *kriadu hartu / kriadutzat hartu* kontuan hartuz, ezin da esan okerrak direnik galderako *Txomin hartu dugu musika-irakasletzat* edo *fedea hartu oinarritzat*. Ikus *Orotariko Euskal Hiztegikoak*:

Nik Martin hi Joanna hartzen haut neure alarozatzat eta hik har nazan hire esposotzat
Bere etxean hartu legian kriadutzat (*Kapanaga*)
Zorigaiztoan hartu hindudan neure etxean kriadu (*Irazusta*)

Ni naiz erregeren andregaiia, nahi banauzu maitetzat hartu, gidatuko zaitut haren ikustera (*Pouvreau*)

Esaten zuten Jesus bera (...) beren erregetzat hartu behar zutela (*Mendiburu*)

Lahirigoien-Garat hartu du suhitzat (*Hiribarren*)

Nogez sarjanta, gizon galanta / hartu du kontseilari (*Zerbitzari*)

Gizonaren semea hartu behar duzue exenpluztat
(Larreguy)
 Meditazioneko geitzat edo sujetzat hartu behar
 du bat bederak bere beharrei dagokoten egia
(Duhalde)

Egia da, hala ere, adibide batzuetan argi ikusten dela "ustezko" izaera hori:

Badira kristinau (...) hartu daruezanak pekatutzat
 pekatu ez dirianak *(Mogel)*
 Horrela bizi dena ez da gizon, ametsezko
 gaztelua egiazkotzat hartu du-eta *(Villasante)*

Anbiguitasuna ere gerta daiteke *zu erregetzat hartu zaitut* bezalakoetan, bi esanahi izan baititu "errege zarela uste izan dut (baina ez da hala)" eta "errege izateko asmotan hartu zaitut". Bestalde, **bezala** dela eta, *Euskal Gramatika Laburrak* hauxe dio:

"Erabilera dela eta, gero eta zabaltzenago ari da *bezala*, *legez*, *gisa* eta antzeko elementuez osaturiko esapideren bat erabiltzeko joera *-tzaten* ordez: *Sorgin bezala hartu ninduten* Askoz ere zuzenago ematen du beste honek: *Sorgintzat hartu ninduten.*"

Data: 1999

Erantzulea: EGLkoaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

Besterik ez, baino ez, baizik ez

Galdera:

Zein da egitura zuzena?

- Liburuak besterik ez dut erosi / liburuak besterik ez ditut erosi
- Liburuak baino ez dut erosi / liburuak baino ez ditut erosi
- Liburuak baizik ez dut erosi / liburuak baizik ez ditut erosi

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du ezer arautu horretaz, baina badirudi "besterik" alde batetik eta "baino" eta "baizik" beste batetik aztertzeakoak direla; ez baitute berdin jokatzen. Izan ere, "besterik"ek joera handia du (baina joera, nolahi ere) singularreko komunztadura egiteko eta, pertsonari dagokionez, hirugarren pertsona erabiltzeko. Beste biek, ordea, singularreko nahiz pluraleko komunztadura onartzen dute. Pertsonari dagokionez, hirugarren pertsona dute ohikoena ("zu baizik ez dut maite").

Edozein kasutan, gogoan izan badela beste egitura bat aukeran,

inongo zalantzarik gabekoa:
 Ez dut INOR maite zu baizik
 Ez dut BESTE INOR maite zu baizik
 Ez dut BESTE EZER erosi liburuak baizik
 Argibide gehiagotarako, ikus Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, IV* liburukia (217.-218. or.). Horrez gainera, ikus datu-base honetako "besterik" sarrera.

Data: 2002/01/08

Erantzulea: Gramatika batzordea

Erakuslea + mugatzaile hurbila

Galdera:

Egoki egina al da ondorengo adibideekin egin dugun "zuzen/oker" sailkapena?
Honako erabakiekin (oker?)
Honako erabakiokin (zuzen)
Honako erabaki hauekin (zuzen)

Erantzuna:

Hirugarren graduko erakusletik datorren artikulua, *-a*, aspaldi gailendu zitzaien gainerakoei, eta gogorregia da *honako erabakiekin* oker dagoela esatea. Besterik da beste egitura batzuk ere badirela irakastea (hor ageri diren biak, esaterako) edo *honakorekin* askotan lehen graduko erakuslea erabiltzen dela esatea. Beste hitz batzuetan esanda, *honako erabaki hauekin* hobets daiteke, lehena okerra dela esan gabe.

Data: 1999

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

-i/-t(z)ea besterik ez / baino ez (irakurri/irakurtzea besterik ez duzu)

Galdera:

Forma hauek guztiak zuzenak dira?
 a) -Irakurri besterik ez duzu
 b) -Irakurtzea besterik ez duzu
 c) -Irakurri besterik ez duzu egin behar
 d) -Irakurri baino ez duzu
 e) -Irakurtzea baino ez duzu
 f) -Irakurri baino ez duzu egin behar

Erantzuna:

Bai, zuzenak dira guztiak. Hala ere, zehaztapen batzuk egin behar dira: Batetik, "a" eta "b"ren artean, "a" (partizipioduna)

ugariagoa da *Orotariko Euskal Hiztegi*ko autoreetan, "b" baino. Bestetik, "a", "b" eta "c" gisakoak ("besterik" daramatenak, alegia) ugariagoak dira, "baino" daramaten "d", "e" eta "f" gisakoak baino.

Bestalde, "d" gisako partizipiodunak erabiliagoak dira "e" gisako aditz-izendunak baino.

Egitura horiez gain, beste bi hauek ere zuzenak dira:

- Irakurtzea besterik ez duzu egin behar
- Irakurtzea baino ez duzu egin behar

Azkenik, "-t(z)ea" formakoien erabileraren alde eman daitekeen beste arrazoi bat ere bada: "garaiz etortzea dauka" esaten bada, "garaiz etortzea baino/besterik ez dauka" esan daitekeela dirudi. Esanahiari dagokionez, berriz, ez dago alde handirik honako hauen artean:

- Irakurri besterik ez duzu / Irakurri besterik ez duzu egin behar
- Bietan eginkizun bat aipatzen da: eginkizun bat eta bera. Horrez gainera, ikus datu-baseko "-tzea (egin/egitea)".

Data: 20010613

Erantzulea: Patxi Goenaga

Inor/norbait

Galdera:

Badakit "Ba al dator beste inor?" galdera zuzena dela, baina "Ba al dator norbait gehiago?" ere zuzena al da?

Erantzuna:

Zuzena da, bai. Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, I* liburukian ageri da gai hori (ikus 1991ko argitaraldiko 54. orrialdea, izenordain zehaztugabeena). Hor "uste" kontua dago jokoan: izan ere, "norbait" erabiliz galdetzen duenak baietz uste du; baina "inor"en bidez galdetzen duenak ez du halako usterik. Beraz, "Norbait etorri da?" eta "Inor etorri da?" ez dira berdin-berdinak. Lehena dioenak "norbait etorri dela" uste du; baina "Inor etorri da?" dioenak, ez. Zure galderan, berdintsu.

Data: 20010525

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Izenlaguna / adizlaguna

Galdera:

EGA Ikaslearen liburukia II (IKA) liburukian, 171. orrialdean, honako galdera hau agertzen da:

9. _____ gorrotoa mantentzen dutenekoa naiz

a) Heriotzeraino

b) Heriotzegandiko

c) Heriotzerainoko

Onartzen den erantzuna hirugarrena da (c). Zergatik dago gaizki a) erantzuna?

Horren antzeko galderak agertzen dira EGA edo IHERako *Aukera anitzeko galdekizunak* delakoan, eta beti toki horretan, hau da, izenlagunaren tokian, *-ko* duena izaten da hautatu behar dena, *-rako*, *-rentzako*, *-rekiko*, *-rengatiko*... bertzeak txartzat jotzen baitira. Zer arrazoi dago *-ko* gabekoak gaitzesteko?

Erantzuna:

Hain zuzen ere, izenlagunaren tokian doazelako dute beharrezko *-ko*. Ariketa horren kasuan berez a) aukera ere posible da, baina orduan esanahia aldatzen da: *heriotzerainoko gorrotoa* osagai bakarrean joatekotan nahitaezkoa da *-ko* ematea ("Nolako" gorrotoa? Heriotzeraino irauten duena). Beste aukerak, *gorrotoa*, *heriotzeraino mantendu* azterketa dakar berarekin. Baina hori ere aukera zuzena izango litzateke.

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Izenlagunaren lekua

Galdera:

Nola behar du:

Barakaldoko nire laguna ala *Nire Barakaldoko laguna?*

Patxi nire lehengusuarekin ala *Nire lehengusu Patxirekin?*

Erantzuna:

Bi egiturak dira zuzenak eta erabil daitezkeenak. Zehazkiago aztertu eta gomendioren bat ematea komeni dela ikusiko balitz, hala egingo litzateke.

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Izen-sintagmen arteko juntadura

Galdera:

Sintagmen arteko juntadura dela eta, nahikoa arautua gelditu da nola jokatu behar den izenordeekin, nola sintagma singularrekin eta nola sintagma pluralekin. Baina izen bereziak direnean juntatu nahi ditugunak nola jokatu behar dugu? Zuzenak al dira hauek guztiak?

- Leirek eta Enekok garbitu dute autoa.
- Leire eta Enekok garbitu dute autoa.
- Leire eta Enekoren artean garbitu dute autoa.
- Leireren eta Enekoren artean garbitu dute autoa.

Erantzuna:

Bai, zuzenak dira horiek guztiak. Egia aitortzeko, 111. arauaren lehendabiziko bertsioan (arau gisa argitaratu ez zen bertsioa, baina bai arauaren lehen aurkezpen gisa 1998ko Gramatika jardunaldietan, Areatzan egin zirenetan, jende aurrean aurkeztu zena) ematen ziren izen berezien juntaduraren adibide batzuk; hala ere, ondorengo bertsioetan eta azkenengoan (araua denean), ez naiz oroitzen zergatik, ez dira ageri (ez behintzat bietako bat txartzat ematen genuelako edota zalantzak genituelako). Aurreneko bertsio hartan bi adibide ematen ziren izen berezien juntaketetan aukera biak onak zirela agertarazteko:

- Pelloz eta Maddiz mintzatu zara.
 - Pantxika eta Urkori kantatu diet.
- Bi egiturak zuzenak dira, beraz.
Horrez gainera, ikus 111. araua.

Data: 2001/12/17

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Leku-denborazko kasuak

Galdera:

A) *Bi metroko aldea dago hemendik hara, baina bi metrotara/metrora aurkituko duzu?*

Era berean, hurrengo hauetatik zein aukeratu:

Handik bost urtera ala urtetara?

Handik bost kilometrora ala bost kilometrotara?

Hiru urtetan ala hiru urtean?

Hiru kilometrotara ala hiru kilometrora?

Hiru egunetan ala hiru egunean?

B) *Nola esan behar da: hirutik bat, hirutatik bat edo hiruretatik bat? Denak erabil daitezke?*

C) *Bi egunez, bi egunetan edo bi egun egon gara? Astebetez, astebetean edo astebete egon gara?*

Erantzuna:

A) *Iraupena eta maiztasuna adierazten duten sintagma zenbatzailedunetan mugatu singularra noiz erabil daitekeen izeneko [110. arauan](#) hala esaten da:*

"inesiboko sintagma hauei dagokienez (...) mugatu singularra erabiltzea hobesten da honako kasu honetan: zenbatzailedun sintagma horrek adierazten duen denbora etengabeko unitate bakar gisa hartzen denean (*hiru asteen, hiru urtean, lau urtean*)". Beraz, *hiru urtean* edo *hiru egunean*.

Ez da oraindik araurik eman *-ra* atzizkiaren erabileraz. Hala ere, ezer esaten ez den bitartean, argi dago Hegoaldean tradizio handia dutela *handik bost urtera* edo *handik bost kilometrora* bezalako egiturek. Gomendio edo araurik ematen ez den arte, beraz, guztiz zilegi da horrelakoak erabiltzea.

B) galderari dagokionez, *Orotariko Euskal Hiztegia* hartu eta *hiru sarreran* hauxe aurkituko dugu:

Hiruetarik bat (L, BN, S); *hirutatik bat* (G-goi-to); *hirutik bat* (V-m-gip, G-azp-goi), Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikotik jasotakoa.

Euskalkien arabera guztiak dira tradiziodunak. Batasunerako ez da orain arte ezer hobetsi.

C) Gramatika batzordearen txostenean ikusten den bezala, guztiak dira zilegi. *Egon* aditzarekin instrumentala, inesiboa nahiz absolutiboa erabil daiteke: *zortzi orduz / zortzi orduan / zortzi ordutan / zortzi ordu egon da zure zain*.

Data: 2000

Erantzulea: Arauz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

Leku-denborazko kasuak: *metrora/metrotara*

Galdera:

Nola esan behar genuke: *Beasaindik hiru kilometrora dago Ataun* ala *Beasaindik hiru kilometrotara dago Ataun*?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak adlatiboaren erabilera horri buruz ez du orain arte araurik eman; *-ko* atzizkiarena da erabaki den bakarra zenbatzailedun sintagmetan (*hiru kilometroko bidea, bi urteko haurra*, eta abar). Inesiboarena, berriz, bidean da (*lau urtean bizi izan da Afrikan*).

Horrezaz gain, jakinarazi nahi dizuegu hegoaldeko literatur tradizioko erabileran *-ta-* gabeak izan duela ia erabateko nagusitasuna (*Beasaindik hiru kilometrora*).

Iparraldeko hizkeretan, berriz, ez dute adlatiboa erabiltzen era horretako egituretan (inesiboa gehiago). Hala ere, haietan mugagabea hegoaldean baino gehixeago erabiltzen dela dirudi leku-denborazko kasu-marka duten zenbatzailedun sintagmetan. Horregatik eta azken urteotan hedatua izan den erabilera *-ta-* duena izan delako, ez zaigu iruditzen baztertzeko egitura denik hori ere.

Beraz, goiko bi egiturak, hegoaldean nagusi den *-ta-* gabea eta iparraldean eta azken urteetako euskararen erabili izan den *-ta-*

duna, biak, ontzat ematen ditu Gramatika batzordeak.
 Hegoaldeko erabilerarako, ordea, *-ta-* gabeak dirudi arruntagoa.
 Bestalde, literatur tradizioko lekukotasuna begiratu dugu
Orotariko Euskal Hiztegian. Ikus zer aldea dagoen bataren eta
 bestearen maiztasunean:

10 metrotara: 2 adibide / *10 metrora*: 21 adibide

10 kilometrotara: adibiderik ez / *10 kilometrora*: 6 adibide

10 zentimetrotara: adibiderik ez / *10 zentimetrora*: 12 adibide

Data: 2000/03/27

Erantzulea: Gramatika batzordea

Mugatzailea/bat

Galdera:

Aitak auto berria erosi du (zuzen)

Aitak auto berri bat erosi du (oker)

Normalean auto bakarra izaten dugu, beraz *bat*, sarriegitan,
 batere beharrik gabe erabili ohi dugu. Baina, halabeharrez,
 bigarren automobila balitz, *Aitak beste auto bat erosi du* izango
 litzateke esaldi zuzena, ezta?

Erantzuna:

Hala da. Ikus *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU)*, I,
 173.-183. orrialdeak.

Data: 1999

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

NORK edo NORI ezkutuan duten perpausak

Galdera:

Zuzenak al dira ondorengo egitura hauek?

Penizilina asmatutako gizona...

Plaza Barria eraikitako pertsona...

Bere zortzi emazteak hildako erregea...

Erantzuna:

Gramatika batzordearen iritzia da horiek denak, dagozkien aditz
 jokatzeko erlatiboak bezala, zuzenak direla; nahiz eta testuetan
 ez den adibide gehiegirik atzematen. NORK sintagma isilpean
 duten era horretako perpausak zuzenak ote diren galdetzen da.
 Datiboaz, NORI sintagmaz, ez da galdetzen; baina hona hemen,
 batzorde honetako kideentzat gramatikaltasun osoa izango
 lukeen adibide hau:

*Non da nik jaten emandako mutila? Esan nahi baita nik jaten
 eman diodan mutila.*

Data: 1996/12/03

Erantzulea: Gramatika batzordea

Predikatu sintagmak

Galdera:

*Gaur bero dago, bai; baina: Zopa bero dago ala beroa dago?
Babarrunak eder daude ala ederrak daude?*

Erantzuna:

Bietako adibideak ageri dira *Orotariko Euskal Hiztegian*:
Siku dago?

Hain daude ederrak, gozoak

Motela dago ardoa

Sustraia samur dago

Erbia gozo egon zen ala?

Gazia dago zopa

Hegoaldean behintzat guztiz normalak dira predikatu sintagma mugatuak (*beroa, ederrak...*).

Data: 1999

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)



Zenbakiak (*Morfologia*)

% ehunekoa adierazteko

Galdera:

Portzentaiak nola deklinatu behar dira: *%1ak* ala *%1ek*?
Portzentaien deklinabide markak. Mugagabeen deklinatu behar diren arren, zenbaitetan singularra dagokio: *%25ekoa*. Hala ere, ondoko hauetan zein da araua: *%25etik* ala *%25etatik*? *%25era* ala *%25etara*?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du oraindik ehunekoaren deklinabidez araurik eman.

Data: 1999

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Kopuruak: izena + "gehiago"

Galdera:

Zuzenak al dira ondorengo esaldiak?

1. Mila urte baino gehiagoan, euskaldunak balearen arrantzan aritu ziren.
2. Mila eta gehiago urtean, euskaldunak balearen arrantzan aritu ziren.
3. Mila urte eta gehiagoan, euskaldunak balearen arrantzan aritu ziren.

Erantzuna:

Lehenbizikoa eta hirugarrena zuzenak dira. Zalantza gehiago dut bigarrenarekin; izan ere, bitxia dirudi zenbatzailea ("gehiago") izenaren aurrean duela ematea. Egitura hori ez du Euskaltzaindiaren gramatikak jasotzen, eta ondo aztertu beharreko kontua da.

Beste biak arruntak dira, bai lehenbizikoa ("mila urte baino gehiagoan/gehiagotan"; eta horrekin batera, Gramatika batzordeko ohikoagotzat jotzen dugun hau: "mila urteAN baino gehiagoan"; ikus Euskal *Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU*, V liburukiko 420. or.) eta bai hirugarrena, hori ere EGLU horretako 419. orrialdean aipatua: "200 orrialde eta gehiago ditu", adibidez. Literaturan ere normalak dira horrelako adibideak ("40 urte eta geiagoan" Orixe, "illabete eta geiagoan" Tx. Agirre, "17 urte eta geiagoan" Lardizabal, eta abar).

Data: 2002/01/08

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Zenbakiak**Galdera:**

Bi milioi zazpiehun mila pezeta tokatu zaizkit idaztean, koma jarri beharra dago milioien eta milakoen artean?

Erantzuna:

Horrelako zenbakiak ematen direnean, *eta* ipini behar da: *bi milioi eta zazpiehun mila pezeta* (edo *bi milioi, zazpiehun mila eta bostehun pezeta*, etab.).

Data: 1999

Erantzulea: Araua

Zenbakiak eta proportzioak: hirutatik bi, lautik hirutan...**Galdera:**

Zenbakien erabileraren inguruan, proportzioak ematerakoan,

bada esapide gisako molde bat euskaraz: "lautik hiruk", "hirutik bitan", "bostetik hirutan", "seitik bostean" eta abar.

Horrelakoetan:

- Lehen terminoaren erabilera singularrean egiten al da?
- Bigarren terminoari dagokionean beti mugagabea ematen al da?

Erantzuna:

Ez dago araurik ez gomendiorik egitura horien erabileraz, baina Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegi*ko datuek agerrarazten dutenez:

- Lehen terminoaren erabilera ez da beti singularrean egiten: "lautatik" (6 aldiz ageri da); "lautik" (4 aldiz); "hirutatik" (17 aldiz); "hirutik" (behin); "seitatik" (2 aldiz); "seitik" (3 aldiz); "hamarretatik" (6 aldiz); "hamarretik" (7 aldiz); "ehunetatik" (5 aldiz); "ehunetik" (2 aldiz), eta abar. Kopuruak ez dira altuak eta nahiko paretsu ageri dira, oro har.

- Bigarren terminoari dagokionez, egitura hori erabiltzen den kasu bakanetan, "lautik hirutan", "seitik bostetan" aurkitu dugu inesiboan. Mugatuko kasurik ez dugu aurkitu. Beste kasuetan, "seitatik bostek", "bostetatik lau", "hirutatik bi", "lautatik bat"... mugagabeak aurkitu ditugu.

Data: 2001/11/19

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Zenbatzaileak

Galdera:

Irratian entzundako adibidea:

Hiru kidetik bik jaso zituzten tratu txarrak.

Ez al da *Hirutik bi kidek...* Zergatik? Zein da egokia?

Erantzuna:

Irratian entzundako horrek guztiz zuzena dirudi. Hala erakusten dute, behintzat, *Orotariko Euskal Hiztegitik* hartutako adibideok:

Bi hitzetarik bat (*Hiriart Urruty*)

Etsaien hirurogei ontzietatik hiruk baizik ez zuten ihes egin (*Mendiburu*)

Begiztatuak zeuzkaten lau zezenetarik hirurak atzemanik... (*Iztueta*)

Ehun artzainen artean laurogeita hamar gutarrak izan ohi dira (*Azkue*)

Badira *hirutik bi kidek* egituraren parekoak ere, baina askoz gutxiago erabiltzen dira:

Hamarreti hiru bidar ez diriala etxean sartuten...
(*Fray Bartolome*)

Izan ere, halako egituretan, izena bi zenbatzaileei dagokie, eta badirudi errazagoa dela ulermenerako ezkerrekoarekin agertzea (hau da, lehen aipatzen den zenbatzailearekin), eta eskuinekoan uztea aipatu gabe. Oro har, joera, elementu guztiak lehen aldian azaltzea da (beraz, ezkerrean), eta gero, errepikatzen direnak, aipatu gabe utzi.

Data: 1999

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Zernahi (*Morfologia*)

urte + buru

Galdera:

Zuzenak al dira ondorengo esaldi hauek?

Urten buruan horrek sagar asko jaten du.

Urteren buruan horrek sagar asko jaten du.

Urteen buruan horrek sagar asko jaten du.

Erantzuna:

Aurreneko biak ez dira zuzenak euskaraz; hirugarrena, bai.

Urten buruan horrek sagar asko jaten du. (Okerra)

Urteren buruan horrek sagar asko jaten du. (Okerra)

Urteen buruan horrek sagar asko jaten du. (Zuzena)

Bestalde:

Urte bete buruan (Okerra)

Urtebeteren buruan (Zuzena)

Urte betereren buruan (Okerra)

Urteren buruan (Okerra)

Urteburuan (Zuzena, *urtemugaren* erabilera berean).

Data: 2000/03/02

Erantzulea: Gramatika batzordea

arazi

Galdera:

23. araua dela eta, beharbada komeni da osatzea *-t-* har

dezaketenen zerrenda: *sortarazi* eta *agertarazi* bakarrik agertzen dira; ez da besterik?

Erantzuna:

[23. arauak](#) dio "bi hautakizunak *-t-dunak* eta *-t-* gabeak zilegi utzi behar direla", aditz-erroaren forma nolakoa den erabaki arte. Auzi hori [28. arauan](#) ebazten da, aditzoinen forma erabakitzean. Eta, hain zuzen ere, galderan aipatzen diren bi kasu horiek *-t-* gabeak dira: *agerrarazi* eta *sorrarazi*.

Data: 1996

Erantzulea: Araua

***bat* eta *batzuen* deklinabidea**

Galdera:

Bat bakarrik agertzen denean eta *beste* hitzaren agerraldi baten eraginpean dagoenean, gaur egun ere forma mugatuan gertatzen da, batez ere Hegoaldean, eta badirudi horrelakoak gomendatu behar direla euskara baturako (*batarengan* eta *bestiarengan*, *batari nahiz besteari...*).

Kasu absolutiboan, agian, ez da hain arrotza gertatzen, baina beste kasuetan urrunegi doa.

Adibideak: *Batek (batak!) ostikoa eman dit eta besteak masailekoa. Bati (batari!) ezetz esan diot eta baietz besteari. Bi laguneren etxeetan izan naiz; batenean (batarenean!) hamaiketako egin dut eta bazkaria bestiarenean. Batekin (batarekin!) badakit zer egin, baina bestearekin ez. Batengana (batarengana!) pozik joaten naiz, ez ordea bestiarengana.*

Erantzuna:

[12. araua](#), dagoen-dagoenean, gogorregizat jo dute batzuek. *Orotariko Euskal Hiztegiaren* lekukotasuna ere aipatu dute. Hona, ordea, kontrakoa erakusten duten adibide batzuk:

Naikua zan batak eguna zala esatia, bestiak gaba zala esateko (*Kirikiño*)

Au da, ez batak eta ez besteak ez zioten egun onik eman (*Fernando Amezketarra*)

Baiña gero ongi ori era askotara ikusten eta asmatzen dute batak eta besteak (*Villasante*)

Hizkuntza hori berez baitzeturren ahora batarekin eta bestearekin mintzatzeko (*Mitxelena*)

Data: 1996

Erantzulea: Arauaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

batez beste / batatz beste**Galdera:**

Bietatik zein erabili behar dugu: *batez beste* ala *batatz beste*?

Erantzuna:

Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuan* dator erantzuna: *batez beste*.

Data: 2000

Erantzulea: Araua

berezko, geurezko, neurezko / berekoi, geurekoi, neurekoi**Galdera:**

3. pertsonari dagokionean *berezkoa* esaten den bezala, zuzena al da *neurezkoa* erabiltzea 1. pertsonan? Adibidez: *bertsolariak etorria berezkoa duen bezalaxe, nik hori neurezkoa dut*.

Erantzuna:

Zuzena da, bai; baina *neurezko* forma litzateke egokiena batasunerako. Hortik aurrera, *berekoi, neurekoi, geurekoi* eta abar erabiltzen diren bezalaxe, horren egokiak dira *berezko, neurezko, geurezko* eta abar ere.

Hala ere, praktikan, hona zer dugun *Orotariko Euskal Hiztegian*:

- a) *neurez* forma 32 aldiz agertzen da: hain zuzen ere, Orixe, Lardizabal, Lizardi, Duvoisin, Xenpelar, Xalbador, Salbatore Mitxelena, Mendiburu, Kardaberaz, Gerriko, Uztapide eta Koldo Mitxelenaren testuetan.
- b) *neurezko* eta *neurezkoa* formek bina agerraldi dituzte OEHn.
- c) *neurez* formak bederatzi agerraldi ditu: Lauaxeta, Kirikiño, Arrese Beitia, Eusebio Azkue, Txomin Agirre, Etxeberri Ziburukoa eta Orixerenak.
- d) *neurezko* forma ez da behin ere ageri OEHn.

Beraz, egia izan arren *berezkori neurezko* dagokiola 1. pertsonan, praktikan badirudi forma arruntak gehixeago erabili izan direla.

Data: 2001/05/14

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

betiko eta gisakoak**Galdera:**

Etziko eta *etzirako*, *datorren urteko* eta *datorren urterako*,

geroko eta *gerorako*, *betiko* eta *betirako* bereiztearen aldeko iritziak azaldu dira, bi forma-sailak desberdinak direlakoan, eta biak ondo daudelakoan. Zuzenak al dira iritzi horiek?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak [20. arauan](#) emanak ditu ez bereiztearen aldeko arrazoiak: hain zuzen ere, idazleen erabilera eta deklinabideko egituratze formala. Hala ere, arauak dio *aditzondoa + ko*; beraz, hortik kanpo geratzen da *datorren urteko*, izen-sintagma baita (edo adizlaguna, nahiago izatera). Araua adizlagunetara ere hedatu behar den ala ez, aztertu gabe dago.

Data: 1996**Erantzulea:** Arauz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da***hau guz(t)ia*****Galdera:**

Hau guztia deklinabide guztietan erabili beharko genuke?
Horietan guztietan, horiengan guztiengan, horienganako guztienganako... "

Erantzuna:

Biak deklinatu behar dira, [4. arauan](#) erakusten den bezala: *bide hartan guz(t)ian, horiekin guz(t)iekin*.

Data: 1996**Erantzulea:** Araua***hiru kiloko haurra...*****Galdera:**

a) [34. araua](#) dela eta (*hiru kiloko haurra* eta abar), galdera egitean ere horrela erabili beharko genuke? Esate baterako: *zenbat denborako/denboratako? Zenbat kilometrora/kilometrotara? Bost egunean/egunetan?*

b) *Sei urteko* ez da berdin *sei urtetako* (ardoaren kasuan ulertzen da, baina bestelakoetan ez da hain argi suertatzen).

Erantzuna:

a) Bi galdera desberdin daude hor: batetik, *-ko* izenlagunari dagokiona, *zenbat denborako?* Beste bi kasuetan, aldiz, *-ra* eta *-n* adizlagunez egiten da galdera.

Iraupena adierazten duen *-n* inesiboaz, 2000ko maiatzean eman zuten Euskaltzaindiak araua. Horren arabera, *bost egunean*

hobesten da, beti ere bost egun horiek etengabeko unitate gisa hartzen badira, jakina. Egundez, bata bestearen ondoren ez doazenez, ari bagara, nahitaez *bost egunetan* esan beharko dugu.

Bestetik, *-ra* kasu-markari dagokionez, ez dago araurik. Bi erabilera-modu daude, euskalkien arabera: *zenbat kilometrora* eta *zenbat kilometrotara*; biak dira zilegi, baina gaia xehekiago aztertu ondoren ikusiko da araurik eman behar den ala ez batasunerako.

b) Adibidez, noiz ez da hain argi?

Data: 2000

Erantzulea: Arauz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

Hori gezurra esatea bezala/bezalakoa da

Galdera:

Zuzena al da *Hori gezurra esatea bezala da* esaldia ala *Hori gezurra esatea bezalakoa da* behar luke?

Erantzuna:

Hori gezurra esatea bezala da perpausa zuzena da. Eta horren esanahia da *Hori eta gezurra esatea antzeko gauzak dira*.

Perpaus horretan ez zaio erantzuten *Hori nolakoa da?* galderari, *Hori zer da?* galderari baizik.

Bidezkoa da nobela bat nolakoa den galdetzea, baina ez nobela bat idaztea nolakoa den. Hor dago erantzunaren gakoa, eta horixe dio Gramatika batzordeak ere (ikus *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak*, EGLU, V, 384.-385. or.).

Beraz, *Hori gezurra esatea bezalakoa da* ez da zuzena.

Aipatutako EGLU liburukiak dioenaren arabera, *-t(z)ea* moduko perpausetan ez da oso itxurosoa *nolako* galdera erabiltzea. Eta, horrenbestez, ezta *bezalakoa* erabiltzea ere.

Data: 2001/05/10

Erantzulea: Patxi Goenaga

nirekiko / nire ustez

Galdera:

Inoiz, ondorengo honen antzeko esaldiak aurkitu izan ditugu:

Nirekiko, horrek ez dauka ez hankarik ez bururik. Gure zalantza da *nirekiko* hori *nire ustez*en baliokidetzat har ote dezakegun.

Liburuetan begiratu, eta adibide bakarra aurkitu dugu (Plazido Muxikaren hiztegia, 1.193. or.):

nirekiko = a mi ver, a mi juicio, para mis adentros; **zurekiko** = a tu juicio, etc.

Erantzuna:

Bai, badira erabilera horren agerpenak han eta hemen. Batetik zuk diozun hiztegian, *-kiko* sarreran (eta *nerekiko* sarreran ere bai: hor ANG oharra dakar, goinafarreraren eta gipuzkeraren esparrukoa dela adierazteko). Bestetik, *Orotariko Euskal Hiztegi*ko datu-basean ere badira horrelakoak, asko-asko ez badira ere; erabiliagoa baita *nirekiko pentsatu, jardun, esan...* gisako moldea.

Hona hemen *-kiko* hori *-(r)en ustez* esanahiarekin, OEHN aurkitutako adibideotan:

- Nerekiko, urrengo auxe da egia, ta auzi ontako iltzea. (Lizardi)
 - Erokeri andia oi dek, nerekiko, akulloa jotzea bortizki ostiko. (Iturriaga)
 - Gizon aundi bat etorri zaigu mai ontara, nerekiko; / bestela nere aorik ez nuen onela irikiko. (Uztapide)
- Hortaz, badirudi ontzat har daitekeela *-kikoren* erabilera hori.

Data: 2001/05/10

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.



Ongi etorri!

Galdera:

Ongi etorri, baina *Zaretela ongi etorriak*. Lehenengoa esaten denean, ez al dago ulertzerik beti dagoela "elidituta", azpian "ezkutatuta" *zaretela...*delakoa?

Erantzuna:

Beharbada, bai. Baina [33. arauan](#) argi ikusten den bezala, literatura-tradizioak erakusten du *Ongi etorri!* dela erabiliena, esplikazio logikoak gorabehera.

Data: 1996

Erantzulea: Araua

51. araua: Ameriketara/*Amerikatara

Galdera:

Zein da zuzena "Ameriketara" ala "Amerikatara"? 51. arauan biak ageri baitira (azken oharretan).

Erantzuna:

Biak ageri dira, bai; baina "Ameriketara" bakarrik da zuzena

(hiru aldiz ageri da zuzen, behin bakarrik oker).
Eskerrik asko ohartarazteagatik.

Data: 20010607

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Aditzoina gehi -tu

Galdera:

Aditzoin gisa erabil al daitezke *burutu ezazu*, *areagotu ezazu*, *landu ezazu*?

Erantzuna:

Bai, [28. arauan](#) esaten denaren arabera, hirurak dira-eta aditz eratorriak.

Data: 1998

Erantzulea: Araua

Aditzoinen forma

Galdera:

- a) Aditzoina jartzerakoan zailtasunak daude arauen arabera. Memoria erabili behar da?
- b) Nola idatzi behar dira -t letraz amaitzen diren aditzoinak: *ert*, *ohart*...?

Erantzuna:

Ez da memoria kontu hutsa. Bada aditzoin-moten sailkapena [28. arauan](#), hartu diren erabakiak zergatik hartu diren ulertzeko lagungarri izan beharko lukeena.
-t letraz amaitzen diren aditzoinak horrelaxe idatzi behar dira: *laket*, *ohart*, *ezagut*, *hant*, *ert*.

Data: 2000

Erantzulea: Araua

Aditzoinen forma: *lotu*, *ohartu*, *ezagutu*, *ausartu*, *batu*, *oroitu*, *landu*, *handitu*, *erditu*

Galdera:

Zein da aditz horien aditzoin forma?

Erantzuna:

Aditz horien aditzoin forma zein den jakiteko, ikus

Euskaltzaindiaren [28. araua](#).

Hiztegi Batuan ere kontsulta daiteke aditz bakoitza, han baitatuz guzti-guztiak.

Data: 2000/03/02

Erantzulea: Gramatika batzordea

Aldaketak arauetan

Galdera:

Arauk erabakitzean, zergatik aldatu dira lehendik finkatuak zeuden egitura edo idazkera batzuk? Adibidez: *berrogehi eta hamar / berrogeita hamar, elkarte/erkidegoa, eritzi/iritzi, bait naiz / bainaiz, bapatean/bat-batean, guzti hau / hau guztia...*

Erantzuna:

Arau bakoitzean ematen da, besteak beste, literaturako erabileraren berri, eta hor argi eta garbi ageri da kontuak ez zeudela hain finkatuak, ezta azken urteotan ere. Datuak ikusirik, gaurkoak eta lehengoak, batasunerako egokientzat jo dugun bidea markatu dugu.

Beste kasuren batean (ikus *elkarte/erkidego*), zehazki azaldu da zergatik ez den egokia *elkarte* izena "comunidad" adierazteko.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Arauk, aldakor?

Galdera:

«Zergatik aldatzen dira arauak?» galdetzen digute ikasleek.

«Guk ikastaroa amaitzen dugunerako, arau berri gehiago agertuko da?».

Nik ulertu egiten dut beraien jarrera. Askotan ez dakizu gauza bat ondo azaltzen ari zaren ala ez. Zurekin lan egiten duten beste irakasleekin elkartu eta ikusten duzu elkarri galdetzeko gero eta zalantza gehiago dugula. Zer gertatzen da? Gero eta gutxiago dakigu ala genekiena ez da orain jakin behar duguna?

Erantzuna:

Euskara, oraindik ere, estandarizazio bidean da: batasunerako eredia ez da guztiz amaitua. Egunero heltzen zaizkigun galderek berek adierazten dute oraindik badugula zer arautua (edo honelako edo halako egitura batasunerako onargarri den ala ez erabaki beharra). Eta arauak emateko, Euskaltzaindiak literaturako erabilera hartzen du batik bat oinarri; baina

literatura-tradizioa ezagutzeko datu-baseak ez ditugu oraintsu arte eskuratu (eta oraindik ere, euskarri erosoagoetan izan beharko genituzke). Horrek guztiak denbora eskatzen du. Baina bitartean ezin gara mutu geratu: liburuak eta egunkariak egunero argitaratzen dira, irradi-telebistek beren eguneroko lanean jarraitzen dute... Eta forma jakin batzuk hedatzen dira. Euskaltzaindiak kontuan hartzen du zein den azken urteotan nagusitu den erabilera; baina ezin dio azken urteotakoari bakarrik begiratu. Arauak ematerakoan, tradizio osoa izan behar dugu kontuan, iraganaren eta etorkizunaren artean eten handiegirik gerta ez dadin.

Data: 1999

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Arauak, iraukor?



Galdera:

Euskaltzaindiak ematen dituen arauak ez al dute izango, gutxienik ere, lau-seiren bat urteko iraupenik? Besteak beste, idazkerari dagokionean, aldatu egin ditu, esaterako, *batezbeste / batez beste, herriska/herrixka, gutxi gora-behera / gutxi gorabehera, bait gara / baikara...*

Erantzuna:

Euskaltzaindiak ez du inoiz **erabaki**, esate baterako, *bait gara* edo *herriska* idatzi behar dela. Besterik da zein forma nagusitu den azken urteotako testuetan, eta, gai jakin baten gainean araua ematean, zenbateraino hartzen den kontuan idazkera jakin baten edo forma jakin baten hedadura. Alde horretatik, Euskaltzaindiak ez du zalantzarik tradizio osoa hartu behar dela kontuan, ez azken urteotakoa bakarrik (hori bera ere ez baita, askotan, uste izaten dugun bezain bateratua eta bakarra).

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Arautu gabeko kontuetan zer-nola jokatu

Galdera:

Zer-nola jokatu behar dugu aukera bat baino gehiago dugunean edota arautu gabeko sintaxi-egituren kontuan?

Erantzuna:

Euskaltegietan, komunikabideetan, administrazioan eta, oro har, euskalgintzan diharduten langileek, behin baino gehiagotan,

arauaren aldeko kezka larriegia dute. Komeni da ardura izatea, bai, entzuten eta erabiltzen dugun euskara zuzena ote den, egokia ote den. Baina ardura horrekin batera, normaltzat hartu beharko genuke, aukerakoetan, aukera bat eta bestea, guztiak onargarri izatea euskara batuan, guztiak erabilgarri.

Baztertu egin behar dira, hala ere, gramatikalak ez diren egiturak eta, ondoren, batasunerako hain gomendagarri ez direnak, eremu urri batean baino erabiltzen ez direnak (baina horiek ere erabil daitezke leku jakin bateko ñabardura eman nahi bazaio testuari).

Oro har, beraz, sintaxi-egituren kontuan ere, *Hiztegi Batuko* irizpide berak izan beharko genituzke gogoan.

Data: 1999

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

arazi: *haserrearazi*



Galdera:

Hiztegi Batuak haserrarazi dakar sarrera batean, baina *narratatu* sarrerarekin batera *haserrearazi* dio. Bietatik zein dago oker?

Erantzuna:

Euskara batuan *haserrearazi* behar du (ikus *haserrealdi* ere). Bestea, *haserrarazi*, inprentako huts egitea da.

Data: 2001/04/11

Erantzulea: Miren Azkarate

Denbora sintagmak

Galdera:

5 kilometrora aurkituko duzu ala 5 kilometrotara?
3 metrotik 5 metro bitartera ala 3 metrotatik 5 metro bitartera?
5 minutuan egin du lana ala 5 minututan egin du?
Zenbat urtetik zenbat urtera ala zenbat urtetatik zenbat urtetara
Azken hiru urtetik hona ala azken hiru urtetatik hona
Ezkerretara jo ala ezkerrera jo?
Azken zortzi urte hauetan ala azken zortzi urte honetan?

Erantzuna:

Aurretik zenbatzailea duen unitatearekin denbora adierazteko, instrumentala erabiltzen denean, beti doa mugagabea: *Hiru orduz hitz egin. Bi urtez behin elkartzeko dira.*

Inesiboan, mugatua erabiltzea hobetsi da denbora etengabeko

unitate bakar gisa hartzen denean (*hiru astean*); baina denbora ezberdinetakoa adierazteko mugagabea erabili behar da soilik: *hiru egunetan etorri izan da herrira* (hiru egun ezberdinetan). Inesiboaz gain, absolutiboa ere erabil daiteke *egon* aditzarekin: *zortzi orduan / zortzi orduz / zortzi ordu egon da zure zain*. Maiztasunaren kontzeptua adierazteko zilegi da ondorengo edozein forma erabiltzea: *lau urtez behin / lau urterik behin / lau urtetarik behin / lau urtetik behin elkartzen dira. Lau urtetarik lau urtetara / lau urtetik lau urtera*. Euskalkien arabera, forma bat edo beste nagusitzen da. *-ra* atzizkiaz ez da araurik eman, beraz, ez da gomendiorik eman *ezkerretara* ala *ezkerrera* behar lukeen euskara batuan. Erakuslea erabiltzean, singularrean ere erabil daiteke, denbora unitatea osotasun bezala hartzen bada: *azken zortzi urte honetan*. Dena den ez da araurik eman bietatik (*azken zortzi urte hauetan / azken zortzi urte honetan*) zein den hobestekoa. Eta ez da aztertu batak eta besteak zein hedadura duten ere.

Data: 1998

Erantzulea: Arauaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

Esapideak. *Bai horixe! Horixe baietz!*

Galdera:

Nola behar dugu esan?

Erantzuna:

Bai horixe! Ez horixe! Bai, jakina! Ez jakina! Horiek dira tradizioa dutenak. Besteak, *Horixe baietz! Horixe ezetz!*, etab. berriagoak dira; nahiz asko ari diren hedatzen. *Hiztegi Batuan* ez da horrelako azpisarrerarik eman *horixe* sarreran.

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Esapideak. *Bai, ba! / Ba, bai!*

Galdera:

Maiz entzuten diren *Ba, bai! Ba, ez!* horiek onartu behar ditugu jatorragoak diruditen *Bai, ba! Ez, ba!* formen ordezkot?

Erantzuna:

Gauza desberdinak dira (ikus *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU), III*, 153.-154. orrialdeak).

Data: 1998

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

Esapideak. *beti legez* / *betiko legez*

Galdera:

Zein da bizkaierazko *legez* postposizioaren erabilera zuzena?
Beti legez ala *betiko legez*?
Atzo legez ala *atzoko legez*?

Erantzuna:

Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU), V, (Menderakuntza-I)* liburukiak honela dio 358. orrialdean:
 "Denborazko aditzondo bat baldin badugu, berriz, -KO atzizkiaz horniturik agertuko zaigu.

Nik lanian jardun det betiko moduan (Txirrita,
Bertsoak I, 159. or.)

Zenbait euskaldunek, beharbada analogiaz, *legez* hitzari ere aplikatzen diote arau hori: *nire legez*, *ni legezen* ondoan, *atzoko legez*, *atzo legezen* ondoan, etab. Baina jokabide honek berria ematen du, horrelakorik ez baita literaturan ageri, dirudienez." Gramatika batzordearen hautua, beraz, *beti legez* eta *atzo legezen* aldekoa da.

Data: 2001/02/06

Erantzulea: Gramatika batzordea

Dokumentua: ..ezta / ez da? / beti(ko) legez (*irizpena*) -
http://www.euskaltzaindia.net/jagonet/dok/Ezta-beti_legez.pdf

Euskalkiak nahastea

Galdera:

Euskalki desberdinetako hitzak nahastea zilegi al da batasunean?
Engoitik alferrik da eta ez dut ezer galdetu gura. (oker)
Horrezkero alferrik da eta ez dut ezer itaundu gura. (zuzen)
Honezkero alferrik da eta ez dut ezer galdetu nahi. (zuzen)
Engoitik alferrik da eta ez dut deus galdetu nahi. (zuzen)
 Apika, ur handiegitan sartu gara hemen; baina koherentzia testualak eta lexikalak ez ote dute euskalkiekin txukun antzean jokatzera behartzen?

Erantzuna:

Behin baino gehiagotan eztabaidatu da auzi hori; baina

Euskaltzaindiak ez du ezer erabaki, eta euskaltzaleen iritziak bereiz dabilta. Batzuen iritziz, benetako batasuna hango eta hemengo hitzak eta egiturak nahasi erabiliaz lortzen da. Beste batzuen ustez, ostera, hobe litzateke euskalkiak ez nahastea.

Data: 1999

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Euskara batua, lagunarterako?

Galdera:

Baturako erabaki diren formak berriketan jardutean ere erabili behar al dira? Esate baterako, *ohizko/ohiko, guzti hau / hau guztia* eta abar.

Erantzuna:

Beti esan izan da euskara batua zein eremutarako den: alegia, euskara landua, zaindua, erabili behar denerako. Beraz, lagunartean, kalean, etxean... egoera informaletan euskalkiak erabiltzea zilegi bakarrik ez, gomendagarria ere bada.

Data: 1996

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Gomendioak, derrigorrezko?

Galdera:

Derrigorrez betetzekoak al dira Euskaltzaindiaren gomendioak eta hobespenak?

Erantzuna:

Ez. Gomendio edo hobespen diren neurrian, argi dago Euskaltzaindiak ez dituela betearazi nahi; baina gomendioen bidez erakutsi nahi du bide horretatik egin behar dela batasuna. Hala ere, askatasuna utzi nahi du eta, bidea markatu ondoren, jendeak onartzen duen ala ez ikusi.

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Hitanoaren formak

Galdera:

Zergatik baztertu dira hitanoa gehien erabiltzen den inguruetakoko formak?

Erantzuna:

Hitanoa ez da Gipuzkoan bakarrik erabiltzen, Bizkaian eta Iparraldean ere badu indarra. Alde bateko eta besteko formak konparatuz, aditz laguntzailearen batasunerako erabili ziren irizpide berak aplikatzeko ahalegina egin da. Gaiari dagokion [14. arauan](#) ageri dira irizpide horiek.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Iragarkietako egiturak

Galdera:

Jaietako karteletan egitura hauek erabiltzen ditugu:
JAIK ANDRE MARIA ZURIAREN OHORETAN

JAIK
ANDRE MARIA ZURIAREN OHORETAN A

JAIK, ANDRE MARIA ZURIAREN OHORETAN
Ontzat ematen al dituzue?

Erantzuna:

Bai, Gramatika batzordeak ontzat ematen ditu era horretako egiturak. Hain zuzen ere, izenburuetan eta perpausean txertatu gabeko egituretan dira ontzat ematekoak; baina ez perpaus barruan. Adibidez:

OMENALDIA BASARRIRI (Zuzena)
OMENALDIA BASARRIRI IKUSGARRIA IZAN ZEN
(Okerra)

Beste auzi bat litzateke egitura hori baino arruntagoak erabil daitezkeen, gaztelaniazko erduei hertsiegi jarraitu beharrean. Adibidez:

ANDRE MARIA ZURIAREN JAIK

Data: 2000/01/25

Erantzulea: Gramatika batzordea

Irudi korporatiboaren antolaketa: *Durango*

Galdera:

Nola antolatu behar genuke Durangoko Udalaren irudi korporatiboa?

Erantzuna:

Gramatika batzordearen ustetan, isolaturiko egiturak dira hor irudiaren hiru osagaiak:

a) DURANGO, b) Udala eta c) Ayuntamiento

Esan bezala, era isolatuan ematen denerako bakarrik litzateke baliagarria (paper ofizialetako menbrete gisa edo izenburu gisa, adibidez). Ezin liteke erabil, ordea, testu edo perpaus batean txertatua. Ondorengo hau, beraz, baztertzekoa litzateke:

DURANGO UDALAK erabaki duenez, ...

Horren ordez DURANGOKO UDALAK behar litzateke, zalantzarik gabe, euskal gramatikaren arauak agintzen duten bezala.

Azkenik, gogorarazi nahi da ontzat eman den goiko ereduaren ondoan badela euskal eta erdal gramatikei atxikiagoa den bat, hitz bat gehiago eman behar bada ere molde horretan. Ondoko hau litzateke:

DURANGOKO UDALA (armarria) AYUNTAMIENTO DE DURANGO

Data: 1999/01/07

Erantzulea: Gramatika batzordea

Izenordainak: *ber(a)* erakuslea / izenordaina, instrumentalean

Galdera:

Zuzena al da *beraz* formaren erabilera ondoko esaldiotan?

Gai beraz hitz egin du.

Ez nintzen beraz oroitu.

Erantzuna:

Zuzena da, bai.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Izenordainak: *bera, berak, beraiek, berek*

Galdera:

Zuzenak dira esaldi hauek?

Langile bera etorri da.

Langile berak kotxea ekarri du.

Langile beraiek etorri dira.

Langile beraiek kotxea ekarri dute.

Langile berak etorri dira.

Langile berek kotxea ekarri dute.

Langilea bera etorri da.

Langileak berak kotxea ekarri du.

Langileak beraiek etorri dira.
Langileek beraiek kotxea ekarri dute.
Langileak berak etorri dira.
Langileek berek kotxea ekarri dute.
Bera etorri da.
Berak kotxea ekarri du.
Beraiek etorri dira.
Beraiek kotxea ekarri dute.
Berak etorri dira.
Berek kotxea ekarri dute.

Erantzuna:

Langile bera etorri da: BAI
Langile berak kotxea ekarri du: BAI
Langile beraiek etorri dira: ZALANTZAZKOA
Langile beraiek kotxea ekarri dute: ZALANTZAZKOA
Langile berak etorri dira: BAI
Langile berek kotxea ekarri dute: BAI
Langilea bera etorri da: BAI
Langileak berak kotxea ekarri du: BAI
Langileak beraiek etorri dira: BAI
Langileek beraiek kotxea ekarri dute: BAI
Langileak berak etorri dira: BAI
Langileek berek kotxea ekarri dute: BAI
 Gogoan izan *Hiztegi Batuan auto, automobil, beribil* hobetsi direla, eta ez *kotxe*.
Bera etorri da: BAI
Berak kotxea ekarri du: BAI
Beraiek etorri dira: BAI
Beraiek kotxea ekarri dute: BAI
Berak etorri dira: BAI
Berek kotxea ekarri dute: BAI
 Azken hauek denak daude ongi euskara batuan, Euskaltzaindiak oraingoz ez baitu hauturik egin izenordain horien artean. Hurrengo baterako, eskertuko genizuke bidali behar dituzun egiturak testuinguru zabalagoan, luzeagoan bidaliko bazenizkigu; errazagoa izango da hartara horien gainean iritzia ematea.

Data: 1999/05/05

Erantzulea: Gramatika batzordea

Izenordainak: *bera eta berdin*

Galdera:

Zein da egokiagoa?

Kolore bera dute bi kotxe horiek / kolore berdina dute bi kotxe horiek; ideia bera izan dugu / ideia berdina izan dugu...

Erantzuna:

Euskal Gramatika Laburra liburuan ageri denez, *kolore bera*, *ideia bera*.

Data: 1996

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

Izenordainak: *edozer gauza, edozein gauza, edozer*

Galdera:

Hiru horietan, zein da zuzena?

Erantzuna:

Hirurak dira zuzenak.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Izenordainak: *elkar / bata bestea*

Galdera:

Zein da zuzena: *Elkar maite dute / Bata bestea maite dute / Batak bestea maite dute...?*

Erantzuna:

Aztertzeko auzia. Nolanahi ere, *batak bestea maite du* behar du izan.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Izenordainak: *geure eta gisako indargarriak*

Galdera:

Genitiboa eta aditza subjektu berekoak badira (*Geure kotxean joango gara*, adibidez), genitiboa indartu behar omen da. Hori beti egin beharra dago? *Gure kotxean joango gara* gaizki al dago?

Erantzuna:

Ez, ez dago gaizki. Ikus zer dioten *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU)* liburukiek horretaz.

Data: 1996

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

Izenordainak: *haren, bere, beren, haien, beraien...*

Galdera:

Zer desberdintasun dute eta nola erabili behar dira?

Erantzuna:

Euskal Gramatika Laburra liburuan (72. or.) esanaz gain, ez dago ezer arauturik.

Data: 1996

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

Izenordainak: *bakoitza, norbera, nor bere*

Galdera:

Informazioa nahi nuke "bakoitza, norbera" eta "nor bere"ri buruzkoa.

Erantzuna:

Eskuratu Euskaltzaindiak argitaratutako *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, 1* liburukia, 1991koa, eta ikus ondorengo orrialde-zenbakiok:
bakoitz: 58., 59., 72. eta 136. or.
norbera: 58., 72. eta 97. or.
nor bere: 58. or.

Data: 2001/11/08

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Izenordainak: *berdin eta bera*

Galdera:

Nola argitu bien arteko aldea?

Erantzuna:

Ikus *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU), I*, Euskaltzaindia, Iruñea, 1985: 149. orrialdeko 3.1.2.3.4. "bera" / "berdin" atala (1991ko argitalpenean, 92. orrialdean dago).

Data: 2000/07/19

Erantzulea: Gramatika batzordea

Menderagailuak: *-(e)no/-(e)ino, deno/deino, gareno/gareino, duguno/duguino*

Galdera:

Ezin izan dut inon argitu *den bitartean* formaren esanahikide den *deino* forma horrela idatzi behar ote den ala, gaurko idazle batzuk egiten duten bezala, *deno* idatzi behar ote dugun. Berdin beste adizlagunekin: *gareno/gareino, duguno/duguino* eta abar. Ba al da horren gainean zerbait erabakirik?

Erantzuna:

Menderagailu horretaz ez dago ezer erabakirik. Hala ere, Gramatika batzordea orain ari da aztertzen, besteak beste, aditz jokatudun denborazko perpausak, eta atal hori jasoko duen *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU), VI, (Menderakuntza, 2)* liburukian honelako zerbait esango dugu: "Batez ere iparraldeko euskalkietan erabiltzen den forma hau -*eNO* eta -*eINO* aldaerekin ageri da lehengo autoreetan. Gaur egun, ordea, -*eNO* aldaera nagusitu da eta hori da erabiltzen den bakarra. Hegoaldean -*eINO* forma darabilten autore bakanak dira salbuespen". Beraz, gaur egungo erabilerarako, -*eNO* hobesten du Gramatika batzordeak.

Data: 2001/04/11

Erantzulea: Gramatika batzordea

Orduak nola esan

Galdera:

Hona hemen zenbait zalantza:

- a) *Erdia* adierazteko, bi modu aipatzen dira oro har, *sei t'erdiak* (Hegoaldean), *seiak eta erdiak* (Iparraldean). Laburpenean, oster, Hegoaldeko forma baino ez da ageri.
- b) *Ordu bat eta erdiak* ala *ordu bat eta erdia*?
- c) "Orduen" adibideetan ez dira agertzen honelako kasuak: *13,45tan* (?).
- d) Nola idatzi, *12.10* ala *12:10*? Orain arte aurrekoak erabili ditugu.

Erantzuna:

- a) [35. arauak](#), datuen eta azken laburpenaren artean, proposamena dakar. Eta honela dio:

"*Erdia* adierazteko, pluraleko marka bigarren osagaien bakarrik ezartzea gomendatzen da batasunerako (...). *Oren* ezartzen denean, berriz -Iparraldean maiz egiten den bezala- bi osagaietan emango da pluraleko marka."

b) Arauaren laburpenean *ordu bat eta erdiak* ematen da.

c) Arauan hauxe esaten da: "orduei pluraleko kasu-marka ezarriko zaie, eta minutuei singularrekoa". Beraz, 13:45ean.

d) Nazioartekoa konbentzioa bi puntu ezartzea da; beraz, 12:10 idatzi.

Data: 1996

Erantzulea: Araua

Orduak nola esan

Galdera:

Orduetan erraten du idatzi behar dela *bi ordu eta erdiak*, baina anitzetan ikusten da *kilo t'erdiko patata* etab. Orduetan ematen den araua hedatzen da bertze erabileretara ala orduetako araua orduetako bakarrik da?

Bestetik, *Ordua nola esan* delako arauak erakusten du arazo bat komunztadurarena dela; baina gero ez du aipatu ere egiten.

Arazoa konkretuki gertatzen da *ordu bat*aren kasuan, adibidez: *ordu bata eta hamar da/dira, ordu bat eta erdiak dira/da?* Zein hobetsi behar da kasu bakoitzean?

Erantzuna:

Orduen [arauan](#), *eta* osorik idaztea gomendatu zen, oro har, erabilera idatzi zainduan egokiena forma osoa idaztea delakoan. Bestetik, arauan ez da ezer aipatzen, adibiderik ere ez gurelako aurkitu *Orotariko Euskal Hiztegiko* corpusean. Badirudi *ordu bat eta erdiak* den neurrian, hau da, plural marka ezartzen zaion neurrian *dira* izango litzatekeela, baina onena bakoitzaren euskalkiko erabilera gordetzea izan daiteke.

Data: 1998

Erantzulea: Arauaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

Orduak nola esan: 00:30, 01:00, 01:01 eta 01:02

Galdera:

Nola esan behar dira ordu horiek?

Erantzuna:

00:30 = *Gauerdiko* (edo *gaueko*) *hamabi eta erdiak*.

01:00 = *Goizeko ordu bata*.

01:01 = *Goizeko ordu bata eta bat dira* (edo *goizeko ordu bata*

eta minutu bat dira).

01:02 = Goizeko ordu bata eta bi dira (edo goizeko ordu bata eta bi minutu dira).

Horrez gainera, Gramatika batzordeak jakinarazi nahi du *ordu bata eta (minutu) bat dira* bezalakoak ez direla erabili izan euskaraz (ordua oso zehazki eman behar denean izan ezik, kiroletan-edo), eta bai *ordu bata pasea da* edo *ordu bata da* formak.

Data: 1997/12/02

Erantzulea: Gramatika batzordea

Orduak nola esan: *laurden*

Galdera:

Euskaltzaindiaren arauetan ontzat ematen dira *hirurak eta laurden* eta *hiru eta laurdenak*, biak. Era berean, *hirurak eta laurdenetan* eta *hiru eta laurdenetan* ere.

Gaizki esana al dago *hirurak eta laurdenean*, minutuekin egiten den bezala?

Eta *hamarrak laurden gutxian* forma gaizki al dago?

Erantzuna:

Kontua da, minutuak erabiltzen direnean ez bezala, *laurden* hitza erabiltzen denean mugagabeen erabiltzen dela normalean. Alegia, *hirurak eta laurden* esatea da usadio hedatena, mugagabeen. Beraz, mugagabeko beste sintagma guztiei bezala, *-(e)tan* hondarkia eransten zaio. Horrek ez du esan nahi, leku desberdinetan erabiltzen den neurrian, gaizki dagoenik *hirurak eta laurdenean*, Euskaltzaindiak **batasunerako** mugagabeko formak hobetsi nahi izan dituela baizik.

Horren ondoren, galdetzen diguzu ea *hamarrak laurden gutxian* forma gaizki dagoen. Ez dugu uste esan daitekeenik gaizki dagoela, forma hori ere erabiltzen baita. Hala ere, **batasunerako**, *hamarrak laurden gutxitan* (mugagabeko forma) bultzatzea erabaki du Euskaltzaindiak kasu honetan ere, mugagabeko erabilera [*hamarrak laurden gutxi d(ir)a*] izaki forma hedatuena.

Data: 1997/12/02

Erantzulea: Gramatika batzordea

Partitiboaren erabilera okerra

Galdera:

Partitiboa baiezkoko perpausetan, noiz eta nola erabili? (15. eta 30. arauak).

Txostenari zertxobait falta zaiola dirudi. Hau da, hizkuntza-erabiltzaile berri gehienek kasuan, arazorik nagusiena ez da partitiboa baiezko perpausetan nola erabili; baizik eta ez dutela erabiltzen ezezko perpausetan. Kalkoak eginez, eta kasurik gehienetan ezezkotasunak daraman orokortasun mugagabe kutsua galtzen da: edo plurala barra-barra erabiltzen da, edo singular mugatua. Horixe gertatzen da, batez ere, eskolako testuetan.

Beraz, ongi dagoelarik baiezko perpausaz esaten dena, goraki esan behar da ezezko perpaus gehien-gehienek dutela partitiboa, eta, agian, argitu noiz den ezezko perpausetan beharrezkoa partitiboa.

Erantzuna:

[30. arauaren](#) amaieran esaten dena nahikoa argigarria da.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Zenbatzaile orokorrak: *denok, guztiok, oro* IA

Galdera:

Zuzenak dira ondorengoak?

Ana, Mikel, Jon, Carlos eta ni joan gara.

Ana, Mikel, Jon, Carlos eta bostok joan gara.

Ana, Mikel, Jon, Carlos eta denok joan gara.

Ana, Mikel, Jon, Carlos eta guztiok joan gara.

Ana, Mikel, Jon, Carlos eta orok joan gara.

Erantzuna:

Azkenekoa izan ezik, beste guztiak zuzenak dira; eta azkeneko horrek, zuzena izateko, *oro* behar du:

Ana, Mikel, Jon, Carlos eta ni, oro joan gara.

Data: 1999/05/05

Erantzulea: Gramatika batzordea

Leku-izenak (*Onomastika*)

Bidania

Galdera:

Bidania herri izenak *-a* organikoa al du?

Erantzuna:

Bai.

Data: 1996

Erantzulea: Onomastika batzordea

Buenos Aires**Galdera:**

Buenos Airesetako ala *Buenos Airesko*?

Erantzuna:

Usadio zaharra pluralean ematea bazen ere euskal amerikanoen artean, azken urteotan singularra nagusitu denez, hobe singularrari lehentasuna ematea, plurala zilegi bada ere.

Data: 1996

Erantzulea: Onomastika batzordea

Deustu**Galdera:**

Zein da Bilbo handiak irentsitako udalerrri horren izena, *Deustu* ala *Deustua*?

Erantzuna:

Herri horren euskal izena *Deustu* da (oraingo erdaraz *Deusto* izan arren).

Data: 2007/09/24

Erantzulea: Mikel Gorrotxategi, Onomastika batzordeko idazkaria

Ermua**Galdera:**

Herriaren izena Ermua ala Ermu ote den jakin nahi nuke.

Erantzuna:

Bizkaiko herri horren euskal izena Ermua da, baina *-a* ez du berezkoa (ikus Euskaltzaindiaren *Euskal Herriko Udalen Izendegia* argitalpena); beraz, Ermutik, Ermura, Ermuko eta abar deklinatu behar da.

Data: 2001/04/02

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Haga / La Haya

Galdera:

Nola da euskaraz gaztelaniazko *La Haya* hiriaren izena?

Erantzuna:

Herbeeretako bigarren hiriburuaren euskal exonimoa *Haga* da.

Data: 1998/07/23

Erantzulea: Euskaltzaindiaren erabakia

Igaratza

Galdera:

Aralar mendian bada *Igaratza* izeneko leku bat eta Euskaltzaindiaren pertsona-izendegian ere azaltzen da *Igaratza* izena; baina dendari batek *Igaratz okindegia* darabil, eta jakin nahi nuke *Igaratza* izena horrela erabil daitekeen: alegia, bukaerako *-a* hori berezkoa (organikoa) duen ala mugatzailea.

Erantzuna:

Igaratza izenak *-a* organikoa du eta, beraz, *Igaratza okindegia* da forma zuzena.

Data: 2001/03/28

Erantzulea: Mikel Gorrotxategi, Onomastika batzordeko idazk.

Iruña/Iruñea

Galdera:

Iruña ala *Iruñea*, bietarik zein erabili behar dugu?

Erantzuna:

Arazoa absolutiboan baino ez da agertzen; izan ere, deklinatzean, udalak berak ere, *Iruña* hobetsi arren, *Iruñeko*, *Iruñean* eta abar erabiltzen baitu. Onomastika batzordeak bi maila desberdin daudela ikusten du; baina argi du euskal izen jatorra *Iruñea* dela, *Iruña* erdaldunek erabilitako izena izanik. Besterik da udalak edo foru administrazioak zer erabaki duten, irizpen akademikoari jaramonik egin gabe.

Data: 1996

Erantzulea: Onomastika batzordea

-rena, -ena, -(r)en etxea

Galdera:

Nola adierazi behar genuke, hitz bakarrean, norbaiten etxearen izena: *Joxeren etxea*, adibidez, *Joxena* ala *Joxerena*?

Erantzuna:

Onomastika batzordeko idazkariaren ustez, bigarrena da egokiena: alegia, *-rena* amaiera duena; baina forma hipokoristikorik gabe (ez *Joxerena*, nahiz eta hitz egiterakoan horrela ahoskatu, zilegi den bezala). Beraz, *Joserena*. Izena kontsonantez amaitzen denean, *-ena* hartzen du: *Mikelena*, adibidez. Hala ere, amaieran bilakaera izan duen etxe izenik balego inguruan (*Arotzenea*, *Petrinea*, ...), hobe da inguruko izenen arabera jokatzera; lekuan lekuko erabilerari eman behar baitzaio lehentasuna.

Data: 1998/10/27

Erantzulea: Onomastika batzordeko idazkaria

Sopela

Galdera:

Zein da herriaren euskal izena, Sopela ala Sopelana?

Erantzuna:

Euskaltzaindiak argitaratutako *Euskal Herriko Udalen Izendegian* ageri denez, Sopela da Bizkaiko herri horren euskal izena.

Data: 2001/03/28

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Arabako Izki mendia

Galdera:

Jakin nahi nuke zein den Arabako mendi horren izena, Izkiz mendia ala Izki mendia.

Erantzuna:

Arabako mendi horren euskal izena Izki da eta, oker ez banago,

hango parke naturalak ere izen ofizial horixe du (Euskaltzaindiak hala proposatuta). Bestea, Izkiz forma, ezaguna bada ere, azken urteotako aldaera okerra da. Beraz, *Izki mendia* da zuzena.

Data: 2001/03/22

Erantzulea: Mikel Gorrotxategi, Onomastika batzordeko idazk.

Bilbo/Bilbao, Areatza/Arenala

Galdera:

Zein da euskal hiri nagusiaren izena euskaraz: Bilbo ala Bilbao? Bestetik, jakin nahi nuke Bilboko San Nikolas elizaren ondoan dagoen pasealekuari zelan deitu behar zaion, "Arenala" ala "Areatza".

Erantzuna:

Biak euskarazko izenak dira: "Bilbo" eta "Bilbao". Hala ere, "Bilbao" ere euskal izena izan arren, Euskaltzaindiak erabaki zuen "Bilbo" dela gure hiri nagusiaren euskal izen ofiziala, eta horrelaxe eman zuen argitara bere *Euskal Herriko Udalen Izendegia* delakoan, 1979an. Euskaltzaindiak "Bilbo" erabaki izana zertan oinarritu zen jakiteko, ikus *Eusker*a aldizkaria (1983-1 alea, 125.-129. or.).

Horiek horrela izanik ere, Bilboko Udalak, dirudienez, "Bilbao" erabiltzea erabaki zuen hiri horren izena euskaraz aditzera emateko ere (baina deklinatzerakoan "Bilbo" erabiltzekotan). Hauxe da, beraz, Bilboko Udalak eskubide osoz erabaki omen duena: "Bilbao, Bilboko, Bilbotik, Bilbora, Bilbon" eta abar erabiltzea euskaraz.

Bestetik, "Areatza" izena bildu zuten bai Azkuek eta bai Uribarrik, eta horixe da Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak hobetsi eta Bilboko Udalak ofizialki erabiltzen duen izena: "Areatza". Izen hori deklinatzean, "Areatzeko, Areatzetik, Areatzean..." formak sortzen dira, eta horixe da idazkera zuzena.

Data: 2001/06/07

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Enkarterri, Enkartazioak

Galdera:

Zelan da ENKARTERRI ala ENKARTERRIAK?

Erantzuna:

Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak "Enkarterri" izena

hobetsi zuen, tradiziozko "Enkartazioak" izenaz gain erabiltzeko (Enkartazioetatik, Enkartazioetara eta abar deklinatzen da izen zaharra). Erabaki horren azalpen zehatza gure *Euskera* aldizkarian irakur dezakezu (1999ko 2. alea, 1.205. or.).

Data: 2001/05/04

Erantzulea: Mikel Gorrotxategi, Onomastika batzordeko idazk.

Geografia hitzen zerrenda: Arrate=mendilepoa

Galdera:

Eibarko Andramariren izena da Arrate, baina egia al da izen horrek *paso entre montes* esan nahi duela?

Erantzuna:

Egia da, bai: esanahi berekoak dira **arrate** eta **mendilepo**, eta Euskaltzaindiak **mendilepo** (*paso entre montañas*) hobetsi du batasunerako (ikus *Geografia hitzen zerrenda*, 2001ekoa) eta **harrarte** (*haitzen arteko igarobidea*) ere arautu du (ikus *Hiztegi Batua*).

Data: 2008-02-04

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Dokumentua: Geografia hitzen zerrenda (*irizpena*) -

<http://www.euskaltzaindia.net/jagonet/dok/Geografiahitzak.pdf>

Dokumentua: Hiztegi Batua (*araua*) -

<http://www.euskaltzaindia.net/hiztegibatua>

Nafarroako herrien izenak

Galdera:

1990ean Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren artean landutako *Nafarroako herri izendegian* "N.t.e.e.c." oharrarekin utzi diren kasuetan bi interpretazio sortu dira euskalgintzako langileen artean: gaztelaniazko forma aukeratu (*Viana*, esaterako) edo Euskaltzaindiak 1979an ateratako *Euskal Herriko Udalen izendegiak* zekarrena hartu (*Biana* eta abar).

Erantzuna:

1990ean egindako *Nafarroako Herri Izendegia* zaharkituta zegoenez, Euskaltzaindiak berriro aztertu ditu bertako izen guztiak, eta behar dituenaren irispidean jarri erabakiak. Bertan, besteak beste, *Viana* hobetsi du.

Data: 1996

Erantzulea: Onomastika batzordea

Toponimia txikia: herriko kale, baserri eta abarren izenak

Galdera:

Herriko kale, baserri eta abarren izenak biltzen ari naiz. Badakit ez direla idatzi behar ahoz esaten diren bezala, baina ez dakit zein den idazkera zuzena. Nora jo behar dut horri buruzko informazio bila? Zein liburutan aurki dezaket?

Erantzuna:

Horretarako egokiena Euskaltzaindiak argitaratutako *Toponimia txikia arautzeko irizpideak* liburukia duzu (ikus Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkariaren 2000ko iraileko separata).

Data: 2001/10/25

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Pertsona-izenak eta deiturak (*Onomastika*)

lezamar/lezamatar

Galdera:

Zein da forma zuzena Lezamako jendea aipatzeko: *lezamar* ala *lezamatar*?

Erantzuna:

Elizate horretako herritarren izena, alegia, gentilizioa, *lezamar* da eta ez *lezamatar*, eta horrela ageri da *EAEko Biztanle Entitateen Izendegian*.

Hizkuntza Akademia honek *Udal Izendegia* prestatu zuenean, galdera horixe egin zion, hain zuzen, herri horretako seme eta euskaltzain urgazle zen Mikel Zarateri, eta *lezamar* izan zen erantzuna. Geroztik, oraintsu ere, *lezamar* euskaldun zaharrei galdetu zaie, eta erantzuna argia izan da: "familian, *lezamarra* esaten dogu beti". Besterik da belaunaldi berriak eta euskaldun berriak *lezamatar* formara lerratzea, baina hori ez da inondik inora egokia.

Data: 1998/06/04

Erantzulea: Onomastika batzordea

Izen hipokoristiko edo txikigarriak: Xanti/Santi, Joxe/Jose

Galdera:

Ni *Iñaki* naiz, *Iñigo*ak ere badira; *Iruñea* eta *Oñatiren* kasuan Euskaltzaindiak onartu egin zuen izen horien bustidura. Hortaz, zergatik ez du onartzen *Xanti*, *Joxe* eta halako izenak ofizialki ezartzea? Badakit legeak debekatu egiten duela izenen aldaera txikigarriak ofizialki erabiltzea; baina *Xanti*, *Joxe* eta iparraldeko *Xarles*, *Xan* eta horrelakoak euskal izenak dira eta horrela ahoskatzen dira.

Erantzuna:

Lekeitio herri-izena ahoskatzeko *Leketxo* edo esan ohi da, baina Euskaltzaindiak ez du horrelakorik onartu ofizialki; onartu dituen bakarrak aspaldian finkatutakoak dira, eta *Markiñe* esan arren, *Markina* normalizatu da. Gizonezkoen izenetan, *Txomin* ere hipokoristikoa edo txikigarria zen; baina onartua da izen ofizial moduan erabiltzea, *Patxi* edota *Pello* onartu diren bezalaxe.

Santi edo *Xanti* izenari dagokionez, Euskaltzaindiaren *Euskal Izendegia* (2001ekoa) hartuz gero, hor ikusiko duzu ez dela ez bata eta ez bestea agertzen; izan ere, *Santiagoren* hipokoristikoa baita *Santi*. Gure artean oso erabilia bada ere, *Santiago* erdal izena da, *Migel* edo *Pedro* bezalaxe. Argi dago aurreko gure argitalpenetan *Santi* agertzea okerra izan zela: dagoeneko zuzendu dugun huts egitea.

Joxe, berriz, Gipuzkoako zati batean bakarrik erabiltzen da, eta ez Malerrekan ez Bizkaia osoan ez da *Joxerik* erabiltzen: lehenengoan *José* esaten da eta bestean *Jóse*. Izan ere, *Joxe* (hipokoristiko nabarmena) azpieuskalki bati dagokion aldaera da, ez hizkuntza osoarena (nahiz eta azken urteotan Gipuzkoa aldean izen izaera hartu).

Iparaldekoiei dagokienez, *Karlos* eta *Jean* izenen euskal ordainak ez dira *Xarles* (hipokoristikoa edo, agian, euskal itxurako frantses izena) eta *Xan*; baizik *Txarles* eta *Joan*.

Data: 2001/10/17

Erantzulea: Mikel Gorrotxategi, Onomastika batzordeko idazk.

Zernahi (*Onomastika*)

Britainiar Museoa / Britainiako Museoa

Galdera:**Erantzuna:**

Atlantiko itsasoa ez bezala, *Museo Británico* ez da jatorriko izena, gaztelaniaz egindako itzulpena baino, eta munduko

gainerako hizkuntzek ere itzuli egiten dute. Beraz, itzulpena egin nahi izanez gero, zuzen egin behar da ingelesetik (*British Museum*), eta *Britainiar Museoa* erabili.

Data: 1996

Erantzulea: Onomastika batzordea

Euskotren

Galdera:

Euskotren izen propio bezala erabiltzeko oztoporik badago ala *Eusko Tren* hobetsi behar dugu?

Erantzuna:

Euskotren izen propio bezala erabiltzeko, gramatikaren aldetik ez dago oztoporik (*Tximist*, *Piper*, *Indar* eta hainbat marka- eta enpresa-izen, lekuko). Siglekin gertatzen denaren antzeko zerbait litzateke hau.

Baina izen propiotzat hartzeak badu beste ondorio bat, izen propio gisa deklinatu beharra, alegia. Mugagabeen, hortaz, agian marra batekin:

Halakok Euskotren-en egiten du lan.

Euskotren-i sari bat eman diote.

Euskotren-ek arazo larriak ditu.

Hobe, halaber, deitura hori hitz bakar batean idatzita:

Euskotren.

Data: 1996/07/11

Erantzulea: Gramatika batzordea

Portale/Portalea/Portalekoa

Galdera:

Eibarko kultura etxeari ezarri nahi zaion izenak artikulurik behar du ala ez? *Portalek* ez luke eramango, baina *Portaleak* nahiz *Portalekoak*, bistan denez, bai.

Erantzuna:

Jakina da izen arruntek artikulua eskatzen dutela. Toponimiako hainbat izen berez arruntak izan ohi dira. *Portaleren* kasua ere horrelakoa da. Hala ere, toponimian, bi jokabideak aurki ditzakegu. Urruti joan gabe, hor ditugu *Arrate* bera, *Errekatxo*, *Etxebarri*, eta beste hainbat, artikulurik gabe, gainerako artikuludunen ondoan. Gauzak horrela, gramatikaren ikuspegitik, berez, lehian dauden hiru deiturak zilegi izango lirateke kultura etxearen izen gisa.

Berez, zilegi da izen arrunt batetik izen propiora pausua ematea.

Hori da hainbat erakunderekin gertatzen dena. Kasu honetan ere

etxearen izena izen propiotzat har liteke. Arazoa, ordea, praktikoa da. *Portale* hautatzen bada, izen arrunt hori izen propio gisa erabiltzera beharturik egongo ginateke, deklinabidean bereziki. Orduan, honelakoak esatera bortxatuak izango gara: *Portalen izango da hitzaldia*, *Portalek itxura ederra du* etab. Beldur gara, ordea, berez zilegi litzatekeen jokabide horrek eibartar euskaldunen belarriei min emango ez ote liekeen. Kasu hauetan ere jendeari entzun behar zaio. Eta jendearen usadioa bestelakoa bada -eta hala dela pentsa daiteke- gramatikaren aldetik *Portale* zilegi izan arren, beste bi deiturak egokiago direla uste izatekoa da. Hauetako edozein hautatuz gero, azken -a hori artikulua denez, izen mugatu singularrean deklinatu beharko da beti: *Portalea*, *Portaleak*, *Portalean*, *Portaletik* (ez *Portaleatik*), *Portaleko* (ez *Portaleako*) etab.; nahiz *Portalekoa*, *Portalekoak*, *Portalekoan*, *Portalekotik*, *Portaleko* (ez *Portalekoko*, jakina) etab. Deklinatzeko modu hori seguruenik guztiz ohikoagoa gertatuko zaie hiritarrei, *Portale* oinarritzat hartuta ateratzen diren deklinabide formak baino. Horiek horrela izanik, Gramatika batzorde honen iritzia *Portalea* nahiz *Portalekoaren* aldekoa da.

Data: 1996/10/11

Erantzulea: Gramatika batzordea

San Ferminak?

Galdera:

Hori horrela idaztekoa al da? Ez da hobe *Sanferminak*? Egia esateko, jai iragarpenetan eta jaien berri ematean erruz agertzen dira forma hauek: *Sanferminak*, *Sanjoanak*...

Erantzuna:

Horrelakoak hitz bakarrean eta letra xehez idatzi behar dira. Beraz, *sanferminak*.

Data: 1996

Erantzulea: Onomastika batzordea

Zaraitzu-Erronkari mankomunitatea

Galdera:

Nola erabili behar genuke Zaraitzu eta Erronkari biltzen dituen mankomunitatearen izena? *Zaraitzu-Erronkarietako mankomunitatea* ala *Zaraitzu-Erronkari mankomunitatea*? Badirudi Koldo Mitxelena lehendabiziko horren aldekoa zela, tradizioko hainbat lekukotasunek erakusten duten legez.

K. Mitxelena, *Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak VIII* - 116: Erronkari-Zuberoetan izan ezik
 KM MEIG VII - 97: Araba-Gipuzkoetako eremuetan batipat
 KM MEIG VI - 69: Bilbo-Donostietako burgesak
 KM MEIG V - 90: Bizkai-Gipuzkoetako burdingintza

Erantzuna:

Milesker, oso ongi dokumentaturik azaldu baituzu auzia. Nolanahi ere, Mitxelena ez da pluraleko formak erabiltzen dituen autore bakarra. Ikus:

Bizkai-Gipuzkoetan Olentzaro (Orixe, *Euskaldunak*, 139. or.).
 Bizkai-Gipuzkoetan, Santagedaz (Orixe, *Euskaldunak*, 141. or.).
 Mundaka-Bermeoetan kalietan kantaten ebezan (Echeita, *Josecho*, 135. or.).
 Mundaka-Busturietako gazteak (Echeita, *Josecho*, 208. or.).

Dena den, zure galderaren oinarri den egiturarako honako beste egitura hauetako bat erabiliko genuke:

Zaraitzu-Erronkariko mankomunitatea

Zaraitzu-Erronkari mankomunitatea

Horrela erabiltzen ditugu honakook ere:

Baionako hiria

Baiona hiria

Pluralekoa (*Zaraitzu-Erronkarietako mankomunitatea*) zilegi litzateke, plurala den kontzeptuak baliatzeotan. Horrelakoak dira goiko adibideak: *Afrika-Asietako herriak* dira Afrikako herriak eta Asiako herriak, ez bietakoak diren herriak; gauza bera Araba-Gipuzkoetako eremuak egituran: Arabako eremuak eta Gipuzkoako eremuak alegia, eta ez bienak diren eremuak edo bien artean dituzten eremuak.

Erakundeak (maiz bi edo gehiago batuz osatzen diren entitate banakoak diren neurrian) izen berezi gisa erabili beharko dira.

Beraz,

Busturia-Mundaka-Bermeoko partzuergoa

**Busturia-Mundaka-Bermeoetako partzuergoa*

Zaraitzu-Erronkariko mankomunitatea

Zaraitzu-Erronkari mankomunitatea

**Zaraitzu-Erronkarietako mankomunitatea*

Baina bai *Busturia-Mundaka-Bermeoetako itsasgizonak* eta

Zaraitzu-Erronkarietako biztanleak.

Data: 2000/03/01

Erantzulea: Gramatika batzordea

Arabako *Cuadrilla* hitza

Galdera:

Erantzuna:

Cuadrilla hitza adierazteko *Taldea* ere erabili izan da, baina izen hori generikoezia da. Beraz, *Kuadrila*, *Koadrila*, *Kuadrilla* eta *Koadrilla* formak dauzkagu aukeran.

Badirudi *Kuadrilla* dela lau aldaki horietatik aukerakoena, eta *Hiztegi Batua* osatzeko bigarren itzulian horrela arautzea gomendatuko omen du Hiztegi Batuko lantaldeak.

Data: 1999/03/04

Erantzulea: Onomastika batzordea

Asturiasko/Asturietako

Galdera:

Nola da, "Asturietako Printzerriko Gobernua" ala "Asturiasko Printzerriko Gobernua"?

Erantzuna:

Euskaltzaindiaren 32. arauak, "Espainiako erresumako probintzia eta elkarte autonomoen izenak" delakoak dioenez, "Asturias" singularrean deklinatu behar da: "Asturiasen, Asturiasko" eta abar.

Baina 32. arau bereko "Izen historikoak" atalean, hitzez hitz aipatzen da "Asturietako Printzerria", eta horixe dugu erabiliko beharreko forma; izan ere, Asturiasen izen historikoa hartu baitu bertako gobernuak. Beraz, "Asturietako Printzerriko Gobernua".

Data: 2001/07/23

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Espainiako erresumako probintzia eta autonomia erkidegoen izenak

Galdera:

[32. arauaz](#) gainera, kontuan harturik *Frantziako Errepublikako eskualdeen izenak* ([36. araua](#)), *Munduko estatu izenak*, *hiriburuak eta herritarren izenak* ([38. araua](#)) eta *Munduko geografiako zenbait izen* ([52. araua](#)), hona bizpahiru zalantza-edo:

a) Zergatik *Murtzia*; baina *Cadiz*, eta ez *Kadiz*?

b) *Espainiako Erresumako probintzia eta elkarte autonomoen*

izenak atalean, ez ote zen komeni bidea erraztea: Kordoba, Eivissa... ?

c) Eguneroko lanean oinarriturik eta, ustez, aplikazio egoki bati begira, honako bereizketa egitea proposatzen dut:

- Izen ofizialak: legez duten izena (*Iruña, Marcilla, Tudela...*).
- Izen kulturalak: ofizialak ez izanagatik, gure esparruan izen propiotzat hartzen ditugunak eta, nolarebait, guztiok "onartuak" direnak (*Iruñea, Martzilla, Tuter...*).
- Kanpoko izenetan ere argi utzi beharko litzateke zein den izen horien euskal ordain ofiziala, hau da, jatorrizko izena (*Madrid, Barcelona, Valencia, Cordoba...*) eta zein kulturala. Izugarri sinplifikatuko genuke arazoa. Agian izenaren "izaera kulturala" heda liteke euskaldunontzat harreman handikoak diren herri izenetara (*Paris, Madril, Bartzelona...*), baina izen kultural gisa.

Erantzuna:

a) Zerrenda horietako izenak erabakitzean, kontuan izan zen euskaldunek nola erabili dituzten, zer tradizio duten gure artean. Batzuetan, euskal fonologiaren arauetara egokiturik erabili izan dira (zati batean, behintzat): *Valentziaren* kasuan, argi eta garbi. Ez hainbeste, agian, *Murtziarekin*; baina analogiaz jokatu zen. *Cadizen* kasuan ez dago bestelako tradizio nabarmenik, eta bere horretan utzi da.

b) Gure tradizioa eta beste hizkuntzetako izen ofizialak kontuan izanik, egokienak iritzi dizkiegun arauak eman ditugu.

c) Euskaltzaindiak ez du ikusten "izen ofizial / izen kultural" bereizketaren beharrik. Inguruko hizkuntzek ere, hizkuntza horretan hiriburu eta hirien izen ofizialak ematean, ez dute beti errespetatzen jatorrizko izen ofiziala (*Londres/London*).

Data: 1996

Erantzulea: Onomastika batzordea

Europar Batasuna

Galdera:

Erantzuna:

Gainerako erakunde politikoen izenentzat Euskaltzaindiak proposamenak egin dituen bezala, Europan sortzen ari den batasuna izendatzeko orduan dagoen anabasari aurre egin beharra ikusi du Onomastika batzordeak. Aurkeztu diren aukerak bi dira: *Europako Batasuna* eta *Europar Batasuna*. Euskara Batuko batzordearen iritzia erdibitua ageri omen da: lau kide *europaren* alde, hiru *Europakoren* alde. Zenbait euskaltzainek beren iritzia eman dute eta, azkenean, botoetara jo da. Hona hemen emaitza: hamar euskaltzain *Europar Batasunaren* alde eta zazpi, *Europako Batasunaren* alde. Boto

zuri bat ere izan da. Horrenbestez, *Europar Batasuna* deitura onartu da. Ikus *Euskera*, 1999, 2 (1.125. or.).

Data: 1999/05/28

Erantzulea: Euskaltzaindiaren adierazpena

Ez dok amairu

Galdera:

Non aurki dezaket *Ez dok amairu* ipuina?

Erantzuna:

Zu bila zabiltzan ipuinak "San Martinen estutasuna" du izenburu eta Euskaltzaindiak argitaratutako *Euskalerrriaren Yakintza-Literatura Popular del País Vasco* izeneko bilduman dago, bigarren liburuan, *Cuentos y leyendas* izenekoan, 312.-314. orrialdeetan. Hor aipatzen da, ipuinaren bukaera aldera, gerora horren ospetsu egin zaigun "Ez dok amairu" esaldia. Ipuin-bilduma horren egilea, biltzailea, Resurrección María de Azkue dugu, eta "San Martinen estutasuna" delako ipuin hori Bizkaian ikasi zuen, Ermuan.

Data: 2001/07/23

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Herri-izena eta deitura

Galdera:

Zergatik ez dira biak berdin idazten?

Erantzuna:

Espainiako lege-prozedurak eskubidea ematen dio herritarrari bere deitura euskal grafian jartzeko (edo katalan grafian nahiz galizierakoan), baina herri-izenak eta deiturak ez dute zertan era berean joan: esate baterako, *Yanci*, *Yabar*, *Yaben* eta *Yurreren* kasuan.

Deiturak eta herri-izenak, izan ere, bilakaera historiko ezberdinen emaitza dira.

Data: 1996

Erantzulea: Onomastika batzordea

Herritarren izenen atzizkiak: "-ar, -tar, -dar, -oztar"

Galdera:

Bizkaiko herritarren izenak direla eta, "sopeloztarra"

(Sopelakoa) eta "getxoztarra" (Getxokoa) entzutea egokitu zait. Herritarren jentilizioa osatzerakoan, zein irizpide dira zuzenak "-tar, -dar" edo "-ar" erabiltzeko?

Erantzuna:

Oso erantzun zaila du galdera horrek; izan ere, joera batzuk nagusi izan arren, ez dago lege zehatzik. Esaterako, Bizkaiko Uriberen mendebaldean "-oztar" erabiltzen da: "berangoztar, dimoztar, sopeloztar" eta abar.

Orokorrean "-ar" amaiera dela nagusi esan genezake, nahiz eta XX. mendean asko zabaldu zen "-tar" atzizkiaren erabilera.

Inguruko hizkuntzetan ere berdintsu gertatzen da: esaterako, gaztelaniaz "Valencia" eta "Palencia" oso antzekoak izan arren, hango herritarrek jentilizio desberdinak dituzte: valenCIANO/palenTINO.

Zuhurrena herriz herriko zerrenda osoa eskuratzea da, eta bertatik ikastea. Horretarako, jo ezazu EUDELEk 2001ean argitaratu duen *Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-Entitateak* izeneko liburukira (Bizkaiko herritarren izenak 87. orrialdetik aurrera daukazu).

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "-tar" sarrera.

Data: 2001/11/11

Erantzulea: Mikel Gorrotxategi, Onomastika batzordeko idazk.

Toponimia. Hainbat

Galdera:

a) Nola idatzi behar dira izen hauek?

Córdoba?

La Coruña?

Viana/Biana

Bilbao/Bilbo

b) *Antonio de Urrutia de Avellaneda* bezalako izenak, pertsonaia historiko aspaldikoei dagozkienak, nola eman behar dira euskaraz?

c) Azterketa historiko bat egiten ari garenean, toponimoak (batik bat herrien izenak) gaur egun duten izen ofizialarekin jarri behar al dira? Zalantza sortzen zaigu, batzuetan egungo izena ez baitator bat hitzez hitz transkribitutako pasarteetan azal daitekeenarekin.

Erantzuna:

a) *Kordoba* (ikus [32. araua](#), *Espainiako erresumako probintzia eta elkarte autonomoen izenak*)

A Coruña / La Coruña (biak aukeran).

Viana; izan ere, Euskaltzaindiak *Biana* eman zuen *Euskal*

Herriko Udalen Izendegian, baina gerora berraztertu egin du bere irizpena eta *Viana* hobetsi.

Bilbo da *Euskal Herriko Udalen Izendegian* emandakoa.

b) Exonomastika batzordeak gaia aztertuko du eta batasunerako proposamenak egin, egoki baderitza. Oro har, erdal izenak erdaraz dagokien idazkeran eman behar dira, eta euskal izenak, euskarazko idazkera arautuan.

c) Oro har, egungo euskal idazkera arautuan ematen dira. Hala ere, testu zaharretan ageri bezala ere eman daitezke (baina jatorrizko idazkera ukitu gabe): *Goizubieta* (*Goizueta*).

Data: 1998

Erantzulea: Onomastika batzordea

Juntagailuak (*Sintaxia*)

"baita ere" lokailua

Galdera:

Komunikabideetan sarritan entzuten da "Baita ere esan digute (...)" egitura. Zuzena al da? Ez al du behar "Baita (...)" ere" zuzena izateko.

Erantzuna:

Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, III, Lokailuak* liburukiko 48. orrialdean ageri denez, ez da erabat txartzat ematen "Baita ere (...)" egitura (Mitxelenak berak baditu, adibidez, horrelakoak); baina Gramatika batzordeak nolabait markatutzat dauka. Arruntena, zalantzarik gabe, "Baita (...)" ere" egitura da, *EGLU, III, Lokailuak* liburukiko 50. orrialdeko eskeman ikus dezakezunez.

Batzuetan, ordea, lokailua perpaus guztiari dagokionean eta ez sintagma bati, perpausaren hasieratik eman nahi izaten da emendio kutsua, eta hortik dator perpaus hasieran "Baita ere" erabiltzeko nolabaiteko beharra. Hori dela eta, gogoan izan hor ditugula zeregin horretarako arruntagoak eta egokiagoak diren beste lokailu batzuk: "halaber", "orobat", "era berean" eta abar.

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "ere" sarrerak.

Data: 2002/01/08

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

"ere" lokailuaren erabilera

Galdera:

Ondoko esaldian zuzen erabilia dago "ere" lokailua?
 - Lurrak bi higidura mota ditu: errotazioa eta translazioa, biak ERE biraketa-higidurak.

Erantzuna:

Bai, adibide horretan zuzen erabilia da "ere" lokailua.
 Euskaltzaindiaren EGLU liburukietan aurkituko duzu lokailu horren berri zehatzik: ikus *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, III, Lokailuak* liburukiko 2.1. atala (35.-51. or., 50. orrialdeko laburpen eta guzti) eta *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, IV, Juntagailuak* liburukiko 73.-83. or.

Data: 20020107

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

edo eta ala**Galdera:**

Noiz erabili behar da *ala* eta noiz *edo* juntagailua?

Erantzuna:

Galde-perpausetan nahiz adierazpenezkoetan erabiltzen da *ala* juntagailua. Galderazkoetan, elkar baztertzen duten aukerak (*bai ala ez* edo *hil ala bizi* gisakoak) juntatzen ditu *alak*: adibidez, *Zer nahi duzu, ardoa ala sagardoa?*; *Zinemara joango gara ala nahiago duzu etxean gelditzea?* Adierazpen-perpausetan (batez ere Ipar-Ekialdean) berdintsu zaizkigun aukerak juntatzen ditu *alak*, nolabaiteko orobatasuna adierazteko: adibidez, *Berdin zait nire lagunak aberats ala pobre izan.*

Bi erabilera horietan *edo* ere berdin-berdin erabil daiteke (bigarren erabileran *nahiz* eta *zein* ere bai). Kontua da zenbait euskaldunek *edo* bakarrik ezagutzen edota erabiltzen dutela. Beste batzuek, biak: *edo* eta *ala*. Azken horientzat, Gramatika batzordearen iritziz, normalagoa da *ala* hautatzea. Zehaztapen gehiago nahi izanez gero, ikus Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, IV (Juntagailuak)* liburukia. Han aztertzen dira, xeheki aztertu ere, *edo* (120. or.) eta *ala* (155. or.) juntagailuak.

Data: 2001/04/04

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

edo, ala

Galdera:

Komeni da *edo*-ren eta *ala*-ren erabileraz ahal den guztia argitzea. Eta, ahal bada, salbuespen gutxirekin.

Erantzuna:

Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU), IV, Juntagailuak liburukian, ahalegina egin da.

Data: 1996

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

ere lokailua**Galdera:**

Zein da *ere*, *baita ere*, *ere bai* eta horrelakoen erabilera zuzena?

Erantzuna:

Zure galderari erantzun luzea dagokio, nik hemen ager dezakedana baino erantzun luzeagoa eta jantziagoa. Beraz, jo ezazu *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, III* liburukiko 2.1. atalera (35. or.). Hor aurkituko duzu erantzun betea (ikus 50. orrialdean dakarren laburpena ere).

Data: 2001/05/02

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

eta**Galdera:**

Etarekin elkartutako izen sintagmetan noiz ken diezaiokegu lehenengo parteari deklinabide-atzizkia? Noiz ez? Zergatik?

Erantzuna:

Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU), IV liburukian azaldua dago hori. Labur esanda, oro har, pluraleko sintagmetan dugu aukera *guraso eta lagunekin* nahiz *gurasoekin eta lagunekin* esateko. Singularrean, kasu-sintagmak elkartzen dira oro har: *etxean eta kalean*. Baina ezkerrean izenlaguna, edo eskuinean izenondoa egoteak, erraztu egiten du singularrean ere izenak juntatzea: *bere emazte eta alabarekin*, etab. Ikus [111. araua](#).

Data: 2000

Erantzulea: Arauz gainerakoa, Gramatika batzordearen argitalpena

eta

Galdera:

Gramatika auzietan: esaldi koordinatuetan, *eta* erabiltzen denean, zeinekin komuntatu behar da subjektua, bi esaldietako aditzen erregimena ezberdina bada. Esate baterako:
Jon etorri eta afaldu du ala *Jonek etorri eta afaldu du?*
Jon afaldu eta joan egin zen ala *Jonek afaldu eta joan egin zen?*

Erantzuna:

Esan, bietara esaten da, entonazioaren arabera. Idatzirako, aztertu egin behar da.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

ta/eta, edo



Galdera:

- a) *Agur t'erdi* ala *agur eta erdi*?
 b) *15 urte edo izango nituen* ala *15 edo urte izango nituen*?

Erantzuna:

- a) [35. arauan](#), *Orduak nola esan* izenekoan, *eta* osorik idatzi behar dela esaten zen (*hiru eta erdiak* eta abar). Hala ere, ez da ezer esan *agur t'erdi* esapideaz; beraz, horretaz araurik ematen ez den arte, zilegi da *agur t'erdi* erabiltzea.
 b) *15 urte edo izango nituen* da zuzena; bestea, ez.

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Juntagaiak bi baino gehiago direnean

Galdera:

- 1.) Juntagailuei buruzko azken gomendioen artean, hau agintzen da hitzez hitz: "ez da onartzen juntagaia kasu markarik gabeko izen sintagma izatea eta bigarren kasu markaduna izatea". Hori dela eta, lehenik jakin nahi genuke gomendio-erabaki horrek ere indarra ote duen juntagaiak bi baino gehiago direnean. Alegia, nola idatzi behar genuke: *Toki Entitateen Antolakuntzari*, *Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko legea* ala

Toki Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Legea?

2.) Delako arauak, bertzalde, juntagaia izena + adjetiboa + adjetiboa denean ere balio du? Erran nahi baita: *Sección de Gestión Técnica y Administrativa* izeneko zer da, *Kudeaketa Tekniko eta Administratiborako Atala* ala *Kudeaketa Teknikorako eta Administratiborako Atala*?

3.) Araua betetzeak, bertzalde, arazoak sortzen dizkigu izenlagunak elkarren ondoan pilatu behar ditugunean; izan ere, testuak ilun samarturik gelditzen baitzaizkigu. Konparazione, emandako arauari jarraituz: *Langileriaren Kudeaketarako eta Administrazioarako Atala* berdin izan daiteke: *Sección de Gestión de Personal y Administración* edo *Sección de Gestión y Administración de Personal*. Aldiz, *Langileriaren Kudeaketa eta Administrazioarako Atalak* zilegia balitz, ordain bakarra izanen luke erdaraz: *Sección de Gestión y Administración de Personal*.

4.) Berdintsu gertatzen da kasu honetan: *Segurtasuneko Ikerketaren eta Ikasketen Atala*. Hala behar luke, behintzat, Euskaltzaindiaren azken erabakien ariora. Alabaina, nola jakin kasu horretan "segurtasuneko" hori "ikerketari" soilik dagokion ala "ikasketei" ere? Modu bakarra erdarazko izenari begiratzea da: *Sección de Estudios de Seguridad y Formación*.

Erantzuna:

1.) Juntagaia kasu markarik gabeko izen sintagma izatea ez dela onartzen esatean, hauxe esan nahi da: artikulua bai, baina kasu markarik ez duena. Beraz, gaitzesten dena, *Toki Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoari buruzko legea* da.

Bestalde, izenak juntatu ala kasu sintagmak juntatu hautatzean, *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU)*, IV liburukian esaten den bezala, ezkerrean izenlaguna eramateak asko errazten du izenak juntatzea, eta ez kasu-sintagmak. Beraz, aipatutako bi aukerak dira zilegi.

2.) Hor ere, eskuinean doazen izenondoak zuzenean junta daitezke. Beraz, *Kudeaketa Tekniko eta Administratiborako Atala* erabat zuzena da.

3.) Lehen esan bezala, *Langileriaren Kudeaketa eta Administrazioarako Atala* zuzena da euskaraz. Baina ohart gaitezen, erdaraz ere *Sección de Gestión y Administración de Personal* esatean ere badela anbiguotasuna; ez baitago jakiterik "de Personal" izenlaguna bi izenei dagokien (*Gestión y Administración*) ala bigarrenari bakarrik dagokion (*Administración*). Baina erdaraz ohituak gaude eta ez dugu

anbiguotasunik ikusten. Euskaraz ere berdin jokatzen ikasi beharko genuke.

4.) *Segurtasuneko Ikerketa eta Ikasketen Atala* jartzeak ez luke konponduko hemen azaltzen den zalantza. Bestalde, erdal izena ere anbigua da: nola ulertu behar da, *Estudios de Seguridad y (de) Formación* ala *Sección de Estudios de Seguridad y Sección de Formación*? Anbiguotasunak hizkuntza guztietan daude. Erdaraz, izena eta izana, biak batera hartzen ditugu, eta hasieratik ohitzen gara modu bakar batean ulertzen.

Data: 1996

Erantzulea: Arauz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

Singularra ala plurala?

Galdera:

Komunztadura, emendiozko perpaus juntatuetan: *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU)*, IV liburukian hauxe dator: "Emendiozko juntadurak aditza plural komunztadura hartzera behartzen duela esan daiteke oro har".

Hala ere, salbuespen batzuk egiten dira, horien artean izen-sintagma abstraktuak juntatzen dituzten perpausak (2.4. atala). Abstratuak soilik? *Bazkaria geuk egingo dugu, zuek ogia eta ardoa ekarri behar duzue, besterik ez esaldia zuzena al da?* Deskribapenetan, adibidez: *Serafin hartza... ugaztuna, 16 cm inguru luzeko gorputza eta 20 cm-ko isats orakorra duena.* Horrelakoetan, singularra nahiz plurala erabil al daiteke?

Erantzuna:

Bai, biak erabil daitezke. Komunztadura singularrean eginez gero, entonazioa desberdina izango litzateke, etena eginaz: *16 cm inguru luzeko gorputza / eta 20 cm-ko isats orakorra duena.* Beste modu batean esanda, juntagaiak, erlatiboko perpausak direla ulertuko genuke, baina lehenengoan aditza isilpean utzi dela: *16 cm inguru luzeko gorputza (duena) eta 20 cm-ko isats orakorra duena.*

Data: 1996

Erantzulea: Patxi Goenaga (iritzia)

Zernahi (Sintaxia)

"-(e)z gero", baldintza-perpausetan

Galdera:

Nola berridatzi behar dugu "-(e)z gero": alegia, ez alegiazko ala alegiazko bezala? Adibidez, "Talibanek ez digute ikasten uzten, ikasiz gero aurre egingo diegulakoan" esaldia nola berridatzi, "ikasiko bagenu aurre egingo geniekeelakoan" ala "ikasten badugu aurre egingo diegulakoan"?

Erantzuna:

Berridazketa: "Talibanek ez digute ikasten uzten, ikasten badugu, aurre egingo diegulakoan."

Aditz jokatu gabe oinarritzen den baldintzazko forma horrek, berez, bietarako balioko luke; aditzaren forma jokatu gabeak ez baitigu era horretako informaziorik ematen: ez digu adierazten alegiazkoa ala ez alegiazkoa den. Hori da forma ez jokatuak duten alde ona (edo alde txarra, nondik begiratzen diogun). Kasu honetan izan dezakeen balioaren aztarna bakarra, pista bakarra, baldintza-perpaseko apodosiko aditzak (DIEGULAKOAN formak) eman diezaguke: "Talibanek ez digute ikasten uzten, ikasiz gero, aurre egingo DIEGULAKOAN".

DIEGULAKOAN aditza erabiltzen badugu, "-(e)z gero" forma "ikasten badugu"ren baliokide izan daiteke.

Data: 2001/10/23

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

"ea" partikula zehar-galderetan**Galdera:**

Badirudi zehar-galderetan "ea" partikularen erabilerak badituela bere mugak, zalantza baten ordez objektu bat adierazten denean zehar-galderaren egiturarekin. Esaterako: "Ez dakit nor etorri den" bezalako batek ez du onartzen "ea" partikula zalantzazkorik. Gauza bera "Ikusi dut nork egin duen" edo "Aitortu diot zer ikusi dudan" itxurakoetan. Kontua da ez dudala inon aurkitu halako debekurik. Non begira dezaket?

Erantzuna:

Ikus Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, V, Mendeko perpausak*, 1 liburukiko 101. or. eta hurrengoak. Hor aurkituko duzu "ea" partikula horren erabilerari dagokion azalpenik zehatzena.

Data: 2002/09/17

Erantzulea: Pello Salaburu

... eta gero, hori eta gero / ...-(r)en ondoren, horren ondoren

Galdera:

Zuzenak al dira "aurkikuntza eta gero," edota "hori eta gero," gisakoak?

Erantzuna:

Ez, ez dira zuzenak. Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuan* esana dago, "gero" sarreran, "gero" hori partizipioaren ondotik erabili behar dela, ez izenaren ondotik. Beraz, "*aurkikuntza eta gero," izan beharrean, "aurkikuntza egin eta gero," beharko genuke. Edo, izenari edo izen-sintagmari eutsi nahi badiogu, beste era honetara: "aurkikuntzaren ondoren," edota "horren ondoren,".

Data: 2001/10/19

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

ikusiz ala ikusiaz?**Galdera:****Erantzuna:**

Literaturan biak erabili izan dira, eta batasunerako ez da erabakirik hartu. Bestalde, Gramatika batzordea ez da hasi mendeko perpaus jokatu gabeak aztertzen. Errazago izango da galdera horri erantzuna gero ematea.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

-(e)nean / -(e)larik**Galdera:**

Gurasoak etorri direnean, alde egin duzu.
Gurasoak etorri direlarik, alde egin duzu.
 Ontzat ematen al dira horiek biak?

Erantzuna:

Bai, biak ontzat ematen ditugu. Izan ere, ez dago inongo eragozpenik ekintza burutuetan *-elarik* erabili ahal izateko.

Data: 2000/03/02

Erantzulea: Gramatika batzordea

baizik, baizik eta

Galdera:

Zuzena al da ondoko esaldi hau?
Ez gara horretara bakarrik etorri, baizik eta...

Erantzuna:

Zuzena da, bai (ikus *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak EGLU, IV, Juntagailuak*), nahiz oso erabilera urrikoa izan. Askoz gehiagotan aurkituko dugu *baizik* soila.

Data: 1999

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

bezala, bezain, hain...**Galdera:**

Zer dira horiek? Kategoria-arazoak.

Erantzuna:

Adberbioak dira.

Data: 1996

Erantzulea: Patxi Goenaga (iritzia)

bina maleta / maleta bina**Galdera:**

Badakit *bina maleta* zuzena dela, baina *maleta bina* ere zuzena al da?

Erantzuna:

Bietara esan daiteke, *maleta bi* nahiz *bi maleta*. Hortaz, zure galderako adibide biak ere zuzenak dira: *bina maleta* eta *maleta bina*.

Begira zer adibide dakarren Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegiak* (151. or.):

- Kutzak, aldareak eta mahaiak alboetan urrezko eraztun bina zituzten.

Data: 2001/03/28

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

-elako/-en/-enaren gehi izena

Galdera:

Zalantzarik ez dut forma hauen zuzentasunaz: *ezkondu delako berria, hori gaizki dagoelako ustea oso zabaldua dago*; baina ez dakit beste hauek zuzenak ote diren: *zerbait larria gertatu den susmoa dut, ordainduko ez didaten beldur naiz, hemengo den seinale...*

Erantzuna:

Hor aipatzen diren adibide guztiak zuzenak dira. Ikus *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU)*, V, (145.-158. or.). Baliteke, gainera, laster arau bilakatzea iritzi hau; izan ere, Gramatika batzordeak oraindik orain prestatu du gai horri buruzko txostena, arau izatera iristeko helburuarekin.

Data: 2000**Erantzulea:** Gramatika batzordearen argitalpena**-eneko****Galdera:**

Batzuek diotenez, *-eneko* delakoa baztergarria da. Horrela bada, zergatik sartu da forma hori? Ez da inondik ere beharrezkoa? Beti da gaitzesgarria? Ez al dago ondo *gogoratzen duzu ni uretara erori nintzenekoa* esaldia?

Erantzuna:

Bai, esaldi hori ondo dago *erori nintzen momentu/une/garaikoa* esan nahi baitu. Bestalde, *-(e)neko* beharrezkoa da erlatiboaren ondoko izena (gehienetan, denbora adierazten duena) isilpean uzten denean. Baina, oro har, ez da beharrezko *liburua erosi dudaneko denda* bezalakoetan; hor nahikoa da *liburua erosi dudan denda*.

Hala dio *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU)*, V liburukiak (196. or.): "Badirudi halere, tradizio zabalduenaren arabera deusetan ez dela beharrezko *-eKO* atzizkiaren eranste hau".

Data: 2000**Erantzulea:** Gramatika batzordearen argitalpena**ere****Galdera:**

Komeni da *ere* lokailuaren erabileraz ahal den guztia argitzea.

Esaterako: *Lehendakariak esan zuen, baita ere (beste zerbait esan ondoren), laster jakinaraziko duela bere proposamena.*

Erantzuna:

Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU, III eta EGLU, IV) liburukietan, lokailuak eta juntagailuak aztertzean, azaldua dago zein diren ere lokailuaren erabilera zuzenak eta zein ez. Galderan aipatzen dena ez da zuzena, nahiz oso hedatua egon.

Data: 1996

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

ezezik / ez ezik

Galdera:

Nola idatzi behar da: *ezezik* ala *ez ezik*?

Erantzuna:

Hiztegi Batuan, ez ezik bakarrik dator. Bestalde, Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU), IV, Juntagailuak liburukiak honela dio (89. or.):

"Bi idazkera izan ditu: bereizia ez ezik eta lotua ezezik. Hala ere, aztertu diren testuen arabera, idazkera bereizia izan da erabiliena."

Data: 1999

Erantzulea: Araua

jakitera eta jakin izatera

Galdera:

Biak berdin erabil daitezke? Ba al dute ezberdintasunik?

Erantzuna:

Gramatika batzordea ez da hasi mendeko perpaus jokatu gabeak aztertzen. Datuak ondo aztertu gabe ezin da erantzun zehatzik eman.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

-kotan

Galdera:

Erabilera argitu. *Negua izatekotan, hotzak egongo ginateke = negua izanez gero?*

Erantzuna:

Erabilerarik zabalduenean, *zerbeza edatekotan, edan ezazu holandesa* bezalako perpausak dira ohikoak. Hau da, *-kotan* = etorkizunari buruzko baldintza ("zerbeza edan nahi baduzu" edo horrelako zerbait).

Dena den, Gramatika batzordea ez da hasi mendeko perpaus jokatu gabeak aztertzen.

Data: 1996

Erantzulea: Patxi Goenaga (iritzia)

-la, -larik

Galdera:

Moduzkoetan *-larik* erabil daiteke?

Erantzuna:

Orain ari da Gramatika batzordea horrelako egiturak aztertzen. Laster izango gara gai, beraz, zerbait esateko.

Data: 2000

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

-n eta -la

Galdera:

Subjuntiboko adizkiek *-n* atzizkia hartzen dute, batzuetan, eta beste batzuetan, *-la*. Noiz erabili *-n* eta noiz *-la*? *Etor dadin ala etor dadila? joan zaitezzen esan dit / joan zaitezela esan dit.* Biak onartzen dira? Noiz bata eta noiz bestea?

Erantzuna:

Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU), V liburukian aurki daiteke galdera horren erantzuna (136.-145. or.). Labur esanaz: *-eN* da menderagailu nagusi eta orokorki erabiltzen dena. *-eLA* erabiltzen da Hegoaldean *eskaera* eta *agindua* adierazten dutenetan; baita Iparraldean ere, zenbaitetan, *agindua* adierazten duten predikatuekin.

-eLA erabiltzen da oro har, mendeko perpausa, perpaus nagusitik "bereiz" denean edo lokabe itxura duenean: *horixe nahi dugu, ondo senda dadila.*

Nolanahi ere, hori guztia deskribapena da, erabilera nolakoa izan den eta den. Ez da araua.

Data: 2000

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

-nez geroztik

Galdera:

Gramatikalki okerrak al dira ondorengo bi perpaus hauek?

- (1) *Etorri denez geroztik ez da bisitan etorri.*
- (2) *Orain dela hiru urte etorri denez geroztik ez da bisitan etorri.*

Erantzuna:

Galderako perpausak, berez, ez dira gramatikalki okerrak:

- (1) *Etorri denez geroztik ez da bisitan etorri.*
- (2) *Orain dela hiru urte etorri denez geroztik ez da bisitan etorri.*

Baina perpaus horiek baino egokiagoak dira denbora-erlazioa edo aldi-komunztadura gordez egindakoak; erabiliagoak eta neutroagoak baitira. Hona hemen:

- (3) *Etorri zenez geroztik ez da bisitan etorri.*
- (4) *Orain dela hiru urte etorri zenez geroztik ez da bisitan etorri.*

Horiez gainera, denbora-erlazioa gordez egindako beste hau ere egokia da:

- (5) *Gaur goizean etorri denez geroztik ez da isildu.*

Data: 1997/06/20

Erantzulea: Gramatika batzordea

-nez, -nez gero

Galdera:

Argitu.

Erantzuna:

Gramatika batzordeak esku artean duen liburukian, mendeko perpausei dagokien bigarreanean, aztertuko ditu egitura horiek.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

nola ez naizen etorri...

Galdera:

Zuzenak ote dira *nola ez naizen etorri* bezalakoak?

Erantzuna:

Gramatika batzordearen erantzuna ahobatekoa da: *nola ez naizen etorri* bezalakoak ongi daude. Bestelako ordainak ere baditu, jakina: *etorri ez naizenez (gero)*, adibidez. Nolanahi ere, erregistro desberdinen kontua ere bada hemen.

Data: 1996/12/03

Erantzulea: Gramatika batzordea

nola... -(e)n/bait-**Galdera:**

Ondoriozko egitura onargarria al da? (*Orotariko Euskal Hiztegiak* adibiderik badakar).

Erantzuna:

Gramatika batzordeak orain arte aztertu dituen egituretan, *nola ... -en* egitura bildu du, adierazpen-perpauzak eratzen dituena (*Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, V: 77.-78. or. eta 96.-98. or.*):

Ikusiko duzu nola ahaztuko zaion Mireni dirua ekartzea.

Horrelakoek badute tradizioa. Liburuki horretan bertan aztertzen dira ondorio perpauzak ere, eta horiek adierazteko erabiltzen diren lokailu eta menderagailuak: *hain... non... bait/-en* eta *hain... ezen... bait/-en* ageri dira jasoak, baina ez *nola*. Hortik aurrerakoak aztertu gabe ditugu oraindik.

Data: 2000

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

nukeenean, lukeenean**Galdera:**

Idia adar eta guzti jango nukeenean nago (zuzen)

Etxea salduko lukeenean dabil (zuzen)

Forma horiei eta antzeko esaldiei buruzko argibiderik ez dugu aurkitu inon.

Erantzuna:

Geuk ere ez dugu horrelako egituren berririk. *Orotariko Euskal Hiztegian*, *egon* aditzari buruzko informazio luzean ere ez dator egitura horren lekukotasunik. Ez dirudi, beraz, forma hedatuegiak direnik, literaturan behintzat. Lagungarri izango

litzaiguke non erabiltzen diren jakitea, etorkizunean argibideren bat eman ahal izateko.

Data: 1999

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

-tearren, -tzearren, -teagatik, -tzeagatik

Galdera:

Atzizki horien erabilera, helburua adieraziz, gogorra egiten da. Azaldu, adibideak emanaz.

Erantzuna:

Gramatika batzordea ez da hasi mendeko perpaua jokatu gabe aztertzen. Mogelek nola erabili zituen, Adolfo Arejitak aztertu du horretaz egin duen doktore-tesian, (Deustuko Unibertsitatean aurkeztu zuen tesi hori).

Data: 2000

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

-z gero

Galdera:

26. arauak dioenez, aditz jokatuekin *-z gero* idatzi behar da, eta gainerakoetan (adizki jokatu gabeekin, zenbakiekin...), *ezkero*. Adibidez, *jo ezkero, igo ezkero, etorri ezkero, edan ezkero, hamar t'erdiak ezkero...* Idazkeraz gain, erabaki al duzue nola ahoskatu behar den?

Erantzuna:

Idazkerari dagokionez, [26. arauak](#) dio "orduekin, eta oro har denbora postposizio gisa, *ezkero* ere idatz daiteke". Baina "kasu guztietan *-(e)z gero* idatz bedi". Beraz, *joz gero, igoz gero, etorri gero* edo *edanez gero* beharko luke.

Ahoskerari dagokionez, [87. arauak](#) X. puntuan, kontsonante biltzen ahoskeraz ari delarik, " eta ahoskeran biltzen diren guztietan ahoskabetzea onargarria da hizkera maila zainduan ere" dio. Beraz, *esan duzunez gero* idazten dena [esan duzun *ezkero*] ahoskatzea guztiz onargarria da.

Data: 2000

Erantzulea: Araua

-z gero (eta baliokideak)

Galdera:

Etorri zealazkoa, eamazu zeorrek (zuzena, Gipuzkoako Goierrin).

Etorri zarelazkora, eraman ezazu zerorrek (zuzena, batuan).

Etorri zarenez gero, eraman ezazu zerorrek (aurrekoaren esanahia).

Esamodu hori herriko zaharren artean sarritan entzun izan dut. Agian, lokalismo hutsa da. Bestalde, fonetika aldetik, baliteke hiztun alfabetatu gabeen ahozko aldaketa izatea. Beharbada, *zarenez gero* horren eboluzio-dejenerazioa da goiko hura: *zarenez gerora?... zarenezkora?...* etab. Beste probabilitate bat ere bada: *zarelako*-tik eratorri izana.

Horrez gainera, jakin nahi nuke *-z gero* egitura erabiltzerakoan, noiz erabili behar den *-(e)z gero*. Kontsonantez bukatzen denean bakarrik? *Hartuz gero* ala *hartuez gero*?

Erantzuna:

Eskualde jakin batekoak diren neurrian, zaila izaten da, askotan, literaturan lekukotasunak aurkitzea. Areago, zaila izaten da, batzuetan, ahoz sarri erabiltzen ditugun egiturak nola idatzi behar diren jakitea. Baliteke horrelakoa izatea kasu hori ere. Dena den, azterteke dago.

Bestalde, partizipioa kontsonantez amaitzen denean erabili behar da *-ez gero*; beraz, *hartuz gero*.

Data: 1999

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

zeinen eta**Galdera:**

Zeinen eta bizkorra zaren, ni ez nauzu zure zepo horretan harrapatuko (zuzen).

Bizkorra bazara ere, ni ez nauzu... (zuzen).

Esaldiok, gure ustez, biak dira zuzenak; baina lehenengo horri buruzko aipamenik ez dugu aurkitu gramatiketan.

Erantzuna:

Egitura horien hedadura, zein leku duten tradizioan... aztertu gabe dugu oraindik (lehenengo egitura hori, *zeinen eta*, ezezaguna zaigu).

Data: 1999

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

zenbat eta... hainbat eta...

Galdera:

Zenbat eta gehiago ikasi, orduan eta hobeto / hainbat eta hobeto / hobeto / gero eta hobeto...

Onartu egin behar al dugu azkeneko forma hori?

Erantzuna:

Gramatika batzordeak, 1997ko ekainean, honela erantzun zion antzeko galdera bati:

"zenbat eta ... -ago, orduan eta ... -ago

zenbat eta ... -ago, hainbat eta ... -ago

zenbat eta ... -ago, hainbat ... -ago

Gramatika batzordearen iritziz, horiek hirurak ontzat jotzekoak dira. Beraz, ondorengo hau da ontzat hartzen **EZ** dugun bakarra:

zenbat eta ... -ago, gero eta ... -ago"

Data: 1999

Erantzulea: Gramatika batzordea



zergatik... -(e)n

Galdera:

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Edo *-(e)n* gabe, onargarria al da? *EGLU III* lanean, literaturako adibideak agertzen dira, menperagailu zein lokailu gisa. Egitura horrek duen "debekua" eta fama txarra desagertzea komeni da? Euskaltzaindiak *EGLU III* liburukian azaltzarekin nolabaiteko "onespena" eman diola dirudi. Hala bada, argiago esaterik merezi al du?

Erantzuna:

Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU), III liburukian, horrelako egiturak literaturan badirela besterik ez da adierazi nahi izan. Hortik aurrera, Euskaltzaindiak ez du esan batasunerako gomendatzekoak diren ala ez. Aztertuko da.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Aditzaren ingurukoak. Aditza perpausaren hasieran**Galdera:**

Noiz da zilegi eta noiz ez *Diot nik*, aditza aurrean jarrita inolako partikularik gabe?

Azkenean onartu egin beharko al ditugu *Da arront ona; Dago etxean; Diot nik* eta horrelako erabilerak?

Erantzuna:

Aditz sintetikoa (edo trinkoa), inolako partikularik gabe, hasieran jartzea ez da oso ohikoa, baina badira adibideak literaturan. Batasunerako ez da bereziki gomendiorik eman, baina badirudi egitura hedatuenak hartu beharko genituzkeela eredu.

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Aposizioak**Galdera:**

Ondorengo aukera hauek guztiak zilegi al dira?

Axularrek, nafar idazle fina, iragarri zuen...

Axular, nafar idazle finak, iragarri zuen...

Axularrek, nafar idazle finak, iragarri zuen...

Axular nafar idazle finak iragarri zuen...

Denak zilegi badira, batasunerako zein hobetsi behar da?

Eta hurrengo adibide honetan?

Nire lagunak, zuek ezagutzen duzuenak...

Nire lagunak, zuek ezagutzen duzuenak...

Erantzuna:

[109. arauan](#) azaldu du Euskaltzaindiak zein komunztadura mota eskatzen duten aposizioek euskara batuan:

1. Aposizioa izen sintagmaren barneko izenen artean egiten denean ez da komunztadura arazorik sortzen:

Unibertsitateko errektoreorde Edurne Mendiluzek aurkeztu du txostena

Edurne Mendiluze Unibertsitateko errektoreordeari aurkeztu diote txostena

Aposizioa sintagmen artean gertatzen denean, komunztadura egitea da ohikoena, mugatzailea eta hondarkiak sintagma bietan ipiniz, hala dagokien neurrian:

Mariasun Landak, haur literatura hain ongi ezagutzen duenak, beste liburu bat kaleratu du egun hauetan

Laurogei urteko gizon bati, munduaren berri ondo dakienari, ez zaio ia ezer harrigarri gertatzen

2. Komunztadurarik gabeko aposizioak lekukotasun urriagoa du tradizioan, batez ere perpaus barruan kokatua dagoenak, eta, hortaz, ez dirudi gomendatzekoa denik: *Nire lagun Ferminek, piano(-)jotzaile trebea, kontzertu asko eman ditu aurten.*

Beraz, bi aukera izango genituzke:

Axularrek, nafar idazle finak, iragarri zuen...

Axular nafar idazle finak iragarri zuen...

Bigarren kasuan, berriz, aukera bakarra:

Nire lagunak, zuek ezagutzen duzuenak...

Data: 2000

Erantzulea: Araua

Aposizioak ziurtagirietan

Galdera:

Ziurtagirietan, sintagma barruko aposizioaren eta sintagma aposatuaren erabilera dela eta, lasai erabil ditzakegu ondorengo forma biak ala bigarren aukera hobetsi behar dugu?

a) *Pello Urzelai Gabiola Eusko Legebiltzarraren Mahaiko Lehen Idazkari naizen honek ziurtatzen dut...*

b) *Pello Urzelai Gabiolak, Eusko Legebiltzarraren Mahaiko Lehen Idazkari naizen honek ziurtatzen dut...*

Erantzuna:

Gramatika batzordearen iritziz, *ziurtatzen dut* lehen pertsonan erabiltzeak zailago bihurtzen du kontua. *Ziurtatzen du* erabili ahal izateak, berriz, ikaragarri erraztuko luke auzia, hirugarren pertsonarekin aukera biak lirateke-eta egokiak.

Baina *ziurtatzen dut* lehen pertsonan eman behar izanez gero, bi aukerak ontzat emanda ere, bigarrena hobesten dugu:

Pello Urzelai Gabiolak, Eusko Legebiltzarraren Mahaiko Lehen Idazkari naizen honek, ziurtatzen dut...

Agian egokiagoa litzateke bigarren hori *nik* izenordaina aurrean erantsita:

Nik, Pello Urzelai Gabiolak, Eusko Legebiltzarraren Mahaiko Lehen Idazkari naizen honek, ziurtatzen dut...

Data: 2001/02/02

Erantzulea: Gramatika batzordea

Dokumentua: Ziurtagirietan nola erabili sintagma barruko aposizioak eta sintagma aposatuak (*irizpena*) - <http://www.euskaltzaindia.net/jagonet/dok/Ziurtagiriak1.pdf>

Armarriko testua

Galdera:

Berastegiko udaleko armarriko idazkunak gaztelaniazko testu hau dakar: *Nobleza con Libertad*. Horren euskal ordain jatorra zein ote da: *Leialtasunez askatasuna* edo *Askatasunez leialtasuna*?

Erantzuna:

Gramatika batzordearen ustez, eta kasu honetan bi izenen arteko erlazioa nagusiki kopulatiboa dela kontuan harturik, honako hau

izan daiteke ordain egokia *Nobleza con Libertad* adierazteko armarrarian:

Leialtasuna eta Askatasuna

Eta, horrekin batera, egokitzen joko genuke ondoko hau ere:

Leial eta Aske

Galderan proposatutako egiturak (*Leialtasunez askatasuna* eta *Askatasunez leialtasuna*) ez dira, batzordearen ustez, tradiziokoak.

Data: 1997/06/20

Erantzulea: Gramatika batzordea

Baldintzak

Galdera:

Ezeren okerrik ez duela, pilotari bikaina aterako da (zuzen)
Ezeren okerrik ez baldin badu, pilotari bikaina aterako da (zuzen)

Horiek biak elkarren sinonimoak dira. Kontua da, gure eskuetatik hamaika liburu eta gramatika pasa arren, oraindik ez dugula aurkitu baldintzazko "-ela"ri buruz ezertxo ere.

Bigarren zalantza:

Ikasi behar zenuenean estudiatu izan bazenu gaur egun hobeto... "biziko zinen" ala "biziko zinateke"?

Kasu horretan *zinen* ere onartzen da ala *zinateke* erabili behar dugu derrigorrez?

Bestalde, *joatekotan* (baldintza) eta *joango bagara* esanahi berekoak al dira?

-*tzekotan* baldintza?

-*tzekotan* = -z. gero noiz?

-*tzekotan*: nahia ere adierazten du?

Erantzuna:

Baldintza-egiturak *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU)*, VI liburukian aztertuko ditu Gramatika batzordeak. *Ezeren okerrik ez duela* bezalako egiturak kontuan hartuko ditu Gramatika batzordeak.

Bigarren galderari dagokionez, batasunerako gomendiorik edo araurik ematen ez den bitartean, argi dago *hobeto biziko zinen* bezalakoak sarri askotan erabiltzen direla, baita literaturan ere. Hirugarren galdera-sortari erantzuna emateko ere gramatikako hurrengo liburukian datuak aztertu beharko dira. Dena den, *joatekotan* eta *joango bagara* ez dira baliokideak. Bigarrena "xedezkoa" da (*joango bagara, autoa utzi beharko digute*).

Data: 1999

Erantzulea: EGLUkoaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

Bi ezeztapenen itzulpena

Galdera:

Bi ezeztapen dituen egitura baten itzulpenak eragin digu zalantza; izan ere, gaztelaniazko *de no comparecer al juicio ni alegar causa justa que se lo impida*, euskaraz honela eman baitugu: *eta bidezko arrazoirik eman gabe judizioan agertzen ez bazara...*

Zuzen jokatu al dugu?

Erantzuna:

Egia da perpaus batean bi ezeztapen ditugunean esanahia ez dugula ongi ulertzen kasu asko eta askotan (adibidez, *dirurik gabe etortzen ez bazara, ez duzu liburua erosiko*); azkenean ez baita erraza zer esan nahi izan den jakitea). Hala ere, galdetu duzuen kasuan ez dirudi zailtasun berezirik dagoenik ongi ulertzeko (ulergarriak eta egokiak lirateke zuek egindako itzulpena bezalakoak: *eta bidezko arrazoirik eman gabe judizioan agertzen ez bazara...*).

Arazo hori saihesteko eman izan den *agertu ezean bidezko arrazoirik alegatzen ez bada...* egitura baino egokiagoa da, gure ustez, zuek eman duzuen. Hori bai, agian ordena aldatuta erraztu liteke kontua: *judizioan agertzen ez bazara bidezko arrazoirik eman gabe...*

Bestalde, Gramatika batzordearen ustez, beste egitura batzuk ere izan litezke kasu honetarako baliagarri. Hala nola, *judizioan agertzen ez bazara bidezko arrazoirik ematen ez duzula...*edo koordinazioaren bidez: *bidezko arrazoirik (eman) ez eta judizioan agertzen ez bazara...*

Data: 1998/11/02

Erantzulea: Gramatika batzordea

Bizkaierazko "hau mutilau, honek mutilak..."

Galdera:

Batasunerako onargarriak al dira bizkaierazko molde hauek: "hau mutilau; honek mutilak esan du; hauek mutil guztiak; honek gizon guztiok"?

Erantzuna:

Gai honetaz dagoen batasunerako erabaki bakarra 4. arauan jasotzen da, "Hau guz(t)ia"ri dagokion arauan. Besteak beste, 4. arau horretan esaten da "hau guz(t)iau" eta "hori guz(t)iori" oso

bidezkoak direla, baina ez ordea "*gizonau" modukoak.
 Gatozen galdetutako kasuak banan-bana aztertzeraz:
 - "hau mutilau": Ez dago erabakita horrela idatz daitekeen.
 - "honek mutilak esan du": Ez dago ezer erabakita, baina goikoaren egitura berari buruz ari bagara, izatekotan "honek mutilonek" beharko luke.
 - "hauek mutil guztiak": "Mutil hauek guztiak" erabili behar dela dio 4. arauak.
 - "honek gizon guztiok": "Gizon hauek guztiak" egitura dago onartuta. "Honek" forma ez da zuzena euskara batuan pluraleko erabileretarako; lehen graduko ergatibo singularrari bakarrik baitagokio.

Data: 2001/10/22

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Galdegaiari buruzko bibliografia

Galdera:

Adieraziko al didazue galdegaiaz dagoen bibliografia?

Erantzuna:

Hona hemen zerrenda aski osatua:

ALTUBE, Sebero (1975): *Erderismos*, Bilbo, Indauchu.

ALTUBE, Sebero (1956): "Literatur - Euskera", in *Euskera*, I. (2. aldia): 3-13.

ESNAL, Pello (2003): "Hitzaurrea", in *Loiolako San Ignacioren Gogojardunak* [Patxi Alunaren itzulpena], Bilbo, Klasikoak.

EUSKALTZAINDIA (1987): "Hitz ordena", in *Euskal Gramatika: Lehen urratsak, EGLU, I (Eranskina)*, Bilbo, Euskaltzaindia: 19.-46. or. (Bigarren argitalpena:

EUSKALTZAINDIA (1991): *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, I*, Bilbo, Euskaltzaindia: 355.-379. or.

Laburpena: EUSKALTZAINDIA (1993): "Osagarrien ordena perpausaren barnean: mintzagai hanpatua eta galdegaia", in *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*, Bilbo, Euskaltzaindia: 22.-31. or.)

GARZIA, Juan (1997): *Joskera lantegi*, Gasteiz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. IVAP.

HIDALGO, Bittor (1994): *Hitzen ordena euskaraz*, Doktoretesia (EHU / UPV).

HIDALGO, Bittor (1995): "Ohar estatistiko garrantzitsuak euskararen hitz ordenaren inguru. Euskara S.V.O.?", in *Fontes Linguae Vasconum*, 70.

HIDALGO, Bittor (1996): "Hurbiltze bat euskal hitz-ordenaren tradizioari", in *Fontes Linguae Vasconum*, 71.

HIDALGO, Bittor (1996): "Euskal joskeraren mito kaltegarriak (I). Nola idatzi euskaraz modu arin, ulergarri eta aberats

batean", in *Zutabe*, 35: 39-51.

HIDALGO, Bittor (1996): "Euskal joskeraren mito kaltegarriak (II). Euskararen hitz-ordena librea", in *Zutabe*, 36: 21-27.

HIDALGO, Bittor (1996): "Euskal joskeraren mito kaltegarriak (III). Aditza maiz euskaraz esaldi hasieran", in *Zutabe*, 37: 23-31.

HIDALGO, Bittor (1998): "Baina zer da euskal joskera", in *Administrazioa euskaraz*, 21: 18-19.

HIDALGO, Bittor (2002): "Hitzen ordena esaldian", in *Senex*.

IRIGOYEN, Alfonso (1980): "Sebero Altube eta euskal hizkuntzaren pleguak", in *Euskera*, XXV. (2. aldia): 325 - 353.

KALTZAKORTA, Mitxel (2003): "Galdegai-lekua testu hastapenetan (I)", in *Hizpide*, 54: 39-56.

KALTZAKORTA, Mitxel (2004a): "Galdegai-lekua testu hastapenetan (eta II)", in *Hizpide*, 55: 43-59.

KALTZAKORTA, Mitxel (2004b): "Galdegai-lekua testu osoetan (I)", in *Hizpide*, 56: 61-79.

MITXELENA, Koldo (1988b): "Galdegaia eta mintzagaia euskaraz", in *Euskal idazlan guztiak VI: Hizkuntzalaritzaz I*.

Euskal Editoreen Elkarte: Klasikoak, 26: 137.-167. or.

ORIXE (ORMAETXEA, Nikolas) (1918): "Acento vasco" in *Revista Internacional de Estudios Vascos*, IX. Liburukia: 1-15.

ORIXE (1991): "Uno de los eslabones perdidos de la fraternidad universal", in *Idazlan guztiak, III: Artikuluak eta saiakerak*: 883.-894. or., Donostia, Eusko Jaurlaritza; Etor.

OSA, Eusebio (1990): *Euskararen hitzordena komunikazio zereginaren arauera*, Leioa, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua.

RIJK, Rudolf de (1969): "Is Basque an S.O.V. Language?", in *Fontes Linguae Vasconum*, 1: 319-351.

VILLASANTE, Luis (1952): "Literatur-euskara laphurtar klasikoaren gain eratu", in *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, año VIII, Cuaderno 1º: 91-119, Cuaderno 2º: 259-298.

VILLASANTE, Luis (1956): "Comunicación del P. Villasante sobre la réplica del Sr. Altube al Sr. Michelena acerca de la sintaxis vasca", in *Euskera*, I: 14-18.

VILLASANTE, Luis (1975): "Hitzaurre gisa", in ALTUBE, Sebero: *Erderismos*: V-XII.

Data: 2004/12/14

Erantzulea: Pello Esnal, Jagon sailkidea

geroago eta gehiago, gero(ago) eta ...-ago

Galdera:

Zuzena al da "geroago eta zera gehiago dago" egitura?

Erantzuna:

Bai, zuzena da. Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, V, Mendeko perpausak*, 1 liburukian ageri da egitura hori (ikus 436.-437. or.), "Gero(ago) eta ...-ago" izenburua duen azpiatalean. Han esaten da bi aukerak direla zuzenak:

- Gero eta hobeto ikusiko dituzu zenbakiak.
- Geroago eta ederrago dago gure herria.

Literatura-tradizioko adibideak ere (bietarikoak) badatoz aipatutako orrialde horietan.

Data: 2001/11/05

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Gerundioaz**Galdera:**

Musika entzunez ikasten da lezioa (zuzen)

Zigarroa errez sartu da gelan (zuzen)

Txurroak salduz ateratzen du bizimodua (zuzen)

Kolpeak hartuz ikasten da oinez (zuzen)

Hegazkina erori da, ehun pertsona hilez (oker)

Hamarna kopa hartu genituen, egundoko mozkorra harrapatuz (oker)

Hegazkina erori eta ehun pertsona hil dira (zuzen)

Hamaika kopa edan genituelarik, egundoko mozkorra harrapatu genuen (zuzen)

Gure ustez aldi berean gertatzen diren bi ekintza, eta instrumentaltasuna adieraz daitezke "-z"rekin, baina ondoriorik ez. Horrela al da?

Erantzuna:

Gramatika batzordeak oraindik ez ditu aztertu egitura horiek. Hala ere, argi dago galdera egin dutenek zuzentzat eman dituzten egiturak zuzenak direla. Bestalde, badirudi okertzat eman direnak berri samarrak direla, eta erdal gerundioaren erabileraren kalkoz-edo sortuak. Baina gomendio zehatzagoak eman ahal izateko, berriaz aztertu behar da gaia. Beti bezala, hobe dugu egitura seguruak erabili eta irakastea; izan ere, ondorengo egitura hauek oraindik aztertu gabe ditu Gramatika batzordeak.

Data: 1999

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Joskera bereziak

Galdera:

Txirritaren bertso batean *alde batera pena artzen det / zu modu hortan uztia; lastima egiten zuen / nere ikustea*. Perpaus horietan bi nor sintagma daudela dirudi; zuzenak al dira?

Erantzuna:

Zuzenak dira, bai. Besterik da euskara zainduan lekurik izan behar duten ala ez; hori aztertzeko dago.

Data: 1996

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Konparaziozkoak**Galdera:**

Erljioa norbanakoaren barruko joera izan dadila, gizartearena baino (oker).

Erljioa norbanakoaren barruko joera izan dadila, gizartearena ez baino (zuzen).

Erantzuna:

Hala dio Gramatika batzordeak, *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU)*, V liburukian:

"Esamolde hauek osorik ematea askoz egokiago eta gomendagarriagoa dela esan behar.

Telebistak urdailera zuzendu behar du burura baino areago/gehiago.

Hemen bi baieztapenen egiatasuna jartzen da erlazioan: bata bestea baino egiago dela, nolabait. Perpaus hauek guztiz egokiak gertatuko lirateke *baino*-ren ordeztatik *barik* ezarrita ere, Bizkaiko moldea erabiliz.

Telebistak urdailera zuzendu behar du burura barik

Baina hauetan ez dira bi baieztapenak onartzen eta bata bestea baino egiago dela esaten: *A barik B* diogunean, *A ez, baizik B* esaten dugu eta ez, *A baino areago B*.

Data: 1999

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

Konpletiboak: -(e)la/-(e)na**Galdera:**

Non eta nola erabiltzen da *-(e)na*? Adibidez: *Badakit etorri dena*.

Erantzuna:

Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU), V liburukiak (136.-145. or.) dakarrenez, *-(e)na* batik bat Bizkaian erabiltzen da. Bestalde, ez da edozein testuingurutan agertzen. Horregatik, Gramatika batzordeak, zein motatako aditzekin erabiltzen den aipatzen du (*aditu, aitortu, erakutsi, ezagutu, gogoratu, gomutatu, igerri, ikusi, jakin, sinetsi, susmatu...*), zaila baita hortik aurrera joatea. Beste predikatu hauekin ere erabili izan da *-(e)na* menderagailua: *egia izan, ezagun izan, gezurra izan, itxura ukan, jakina izan, seguru egon/izan, zer esanik ez, zalantzarik gabe, bistan egon...*

Adibideak:

Ikusi dugu kristaua zarena

Erakuts dezagun geure berba guztietan, egiaren semeak garena

Ezagun da gaztea zarena

Data: 1998

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

Konpletiboak: -(e)la/-(e)na + subjuntiboa**Galdera:**

Subjuntiboko adizkiek batzuetan *-n* atzikia hartzen dute eta beste batzuetan *-la*. Noiz erabili *-n* eta noiz *-la*? *Etor dadin ala etor dadila? Joan zaitezzen esan dit / joan zaitezela esan dit.* Biak onartzen dira? Noiz bata eta noiz bestea?

Erantzuna:

Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU), V liburukian aztertu da auzi hau ere (69.-76. or.). Laburbilduz:

Hegoaldean erabiltzen da menderagailu hau *uste izan, iritzi, iruditu* eta horrelako predikatuen osagarrietan, ezezka edo galdera erretoriko moduan emanak direnean.

- esan, entzun, ikusi, jakin eta horrelakoekin *-eLA* nahiz *-eNIK* gisakoak erabiltzen dira. Aldea ezetzaren esparruan eta presuposizioei uzten zaien lekuan egon daiteke:

ez du esan egin duela

ez du esan egin duenik

ahaztu, duda egin, egia izan eta horrelakoek *-eLA* gisako osagarria izaten dute: *ezin duda egin daiteke horrela dela*

Data: 2000

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

Konpletiboak: -(e)la/-(e)nik

Galdera:

Konpletiboetan esaldi nagusia ezezkoa denean, zein lotura erabili behar dugu *-ela/-enik*? Esate baterako: *ez dut uste joanen direnik / ez dut uste joanen direla*. Noiz bata eta noiz bestea? Zein tokitan bata eta zeinetan bestea? Ezezkoetan beti *-enik* erabili behar al da? *Ohartu naiz etorri zarela*. *Ez naiz ohartu etorri zarela* ala *Ez naiz ohartu etorri zarenik*?

Erantzuna:

Gramatika batzordeak aurkeztutako *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU), V (Menderakuntza-1)* liburukian azaltzen dena labur bilduz:

-(e)nik menderagailua, erabiltzekotan, perpaus nagusia ezezkoa nahiz galderazkoa denean erabili behar da, *-(e)la* menderagailua erabiltzea ere zilegi da (hala egiten dute ekialdean eta mendebaldeko zenbait euskalkitan):

Ez dut uste hori horrela denik
Nork esan dizu Zinkunegi italianoa denik?

Hala ere, perpaus nagusia ezezkoa edo galderazkoa izan arren, ez da beti *-(e)nik* erabiltzen. Salbuespenak hauek dira:

a) **egia da, gezurra da** eta horien kidekoekin:

Ez da egia gaupasa egin dudala

b) **jakina da, nabari da, bistakoa da, bistan izan/egon** edo antzeko esapideekin:

Denentzat ez da gauza jakina lurra eguzkiaren biran dabilela

c) **ez A, B baizik** bezalako egitura duten perpausetan:

Ez zizun esan Bilbon bizi zela, Bilbon bizi nahi zuela baizik

d) **ahaztu, ukatu** eta orohar esanahi ezezkorra duten aditzekin:

Ukatu egin zuen hilketaren egunean anaia ikusi zuela

Data: 2000

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

Konpletiboetan, zehargalderak nola azaldu?**Galdera:**

Konpletiboak azaltzerakoan, nola azaldu behar ditugu zehargalderak: konpletiboen barnean ala bereiz?

Erantzuna:

Gramatika batzordekideok, *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, V (Mendeko perpausak, 2)* liburukian, perpaus osagarrien artean (konpletiboen artean) sartu genituen zehargalderak. Horretarako, osagarritasunaren

(konplementazioaren) nozioa hartu genuen irizpide: aditz bat edo predikatu bat (edo izen bat) konplementatzen edo osatzen duten perpausak bildu genituen perpaus osagarrien barruan. Eta, jakina, horien artean zehargalderak (galderazkoak diren perpaus konpletiboak). Eta, horiekin batera, bestelako perpaus konpletiboak ere bai: adierazpen perpausak, subjuntibozkoak eta perpaus izenlagunak.

Hona hemen zehargalderen adibide batzuk, EGLU V-etik aterak:

- Gogoratu zaio [nork eman dion]
- Ez dago garbi [nork hil duen]
- Jakin nahi nuke [Baskoniak irabaziko duen]

Data: 2001/05/14

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Menderakuntza: *-(e)ino*

Galdera:

Bizi naizeino ala bizi naizeneino?

Erantzuna:

-(e)ino forma bakarrik ageri da Villasanteren *Sintaxis de la Oración Compuesta* liburuan. Gramatika batzordeak aztertu gabe du oraindik puntu hori.

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Menderakuntza: *-(e)n/-(e)la*

Galdera:

Uste dut etorri den edo ez dut uste etorri den bezalakoak onargarriak dira?

Erantzuna:

Gramatika batzordeak landutako *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU)*, V liburukian bi bider aipatzen dira horrelakoak:

Lehenik, *-(e)nik* menderagailua, *-(e)la* nahiz *-(e)n* menderagailuen ordean erabiltzen dela esatean, adibide hau emanaz:

Ez dut uste hori etorri den/denik

Bigarrenik, ondorengo aipamenak dioenez: "Ekialdean eta mendebaldeko zenbait euskalkitan, beraz, nahiz eta perpaus nagusia ezezkoa edo galderazkoa izan, perpaus osagarrietan -(e)la menderagailua (kasuren batean -(e)n atzizkia) erabili izan da eta erabiltzen da."

Data: 2000

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

Menderakuntza: -(e)n/-(e)lako + izena

Galdera:

EGA. Ikaslearen liburua, I liburuan ageri diren ariketak direla eta, honako galdera egin digute:

"Noiz -(e)n eta noiz -(e)lako?"

Norgehiagoka irabaziko _____ itxaropenaz zelairatu ziren

- a) zutelaren
- b) zutenaren
- c) **zutelako**

Mamua etorriko _____ aitzakiaz ez nintzen oheratzen

- a) **zen**
- b) zelaren
- c) zenaren

Azterturik dago kontu hori?

Erantzuna:

Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU), V liburukian aipatzen da kontu hori, aukeran, -(e)n eta -(e)lako daudela esanaz, nahiz badirudien -(e)n izen jakin batzuekin ageri dela: ... -(e)n ustea, esaterako.

"Kontua da ea modu hauek beti aukeran ditugun ala ez. Behar bezalako erantzuna emateko perpaus osagarri hauek gobernatzen dituzten izenak banan-banan aztertu beharko dira eta jokabide nagusiak aztertu:

Euskara Afrikatik datorrelako hipotesia defendatu dute batzuek.

Bazuen laguntza emango zioten ustea.

Bi horiez gain, bada beste egitura bat ere, predikatu egituretan ageri dena (*sospetxa ukan, erabakia hartu, berria hedatu, berria ekarri...*):

Herriko etxeak hartu zuen erabakia, kaperak behar zirela berritu."

Data: 1998

Erantzulea: EGLUkoaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

Neurri sintagmak: *baso bat ur*

Galdera:

- a) *Zenbatean dago azukre kiloa / kilo azukrea? Zenbat balio du azukre kiloak / kilo azukreak?*
 b) *Baso bat ur:* baso bat urek, baso bat uri, (al vaso de agua se le añaden dos cucharadas...) edo ur basoari?

Erantzuna:

- a) Gramatika batzordeak aztertuko du.
 b) *Baso bat uri* beharko luke, berez; baina aztertuko da ea literaturan zer ageri den.

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Noiz erabili *ba-* eta noiz *ez*

Galdera:

Noiz ez da erabili behar aditz multzoko *ba-* osagaia? Adibidez, EGA azterketa prestatzeko ateratako liburu batean esaten da *ba-* ez dela erabili behar menpeko esaldi zenbaitetan, hala nola erlatibozkoetan edo moduzkoetan. Beraz, okerrak dira *badiozun guztia*, *badakizun bezala* eta gisakoak. Horiek txarto daude, zalantzarik gabe. Baina konpletiboetan edo zehargalderetan erabil daiteke? Adibidez, zuzenak dira ondorengo bi esaldi hauek?

1. Badator. Badatorrela esan du.
2. Badaukazu boligraforik? Boligraforik badaukazun galdetu dizu.

Erantzuna:

Badirudi *ba-* erabil daitekeela mendeko perpausetan ere. Euskaltzaindiko Gramatika batzordeak *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak*, EGLU, V liburukian aztertu zituen, besteak beste, aditz jokatudun perpaus erlatiboak eta osagarriak edo konpletiboak (horien artean, zehargalderak): ikus 202. eta 217. or. (perpaus erlatiboak) eta 109.-112. or. (zehargalderak). "Badatorrela esan du" perpausa zuzena da. Perpaus konpletiboetan *ba-* erabil daitekeela dirudi, baldin eta mendeko perpausean aditzaren baiezkotasuna bada galdegai. "Boligraforik badaukazun galdetu dizu" perpausa ere zuzena da

(ikus EGLU, V, 109.-112. or.), besteko "Boligraforik daukazun galdetu dizu" ere zuzena den bezalaxe.

Bestelako mendeko perpausak (kontzesiozkoak, denborazkoak, kausazkoak eta abar) orain ari da aztertzen Gramatika batzordea, eta EGLU, VI liburukian epaituko da auzi hori.

Azterketa horren ondoren ikusiko da zer gomendatu edo zer hobestu kasu bakoitzean, edota zer gaitzetsi.

Oraingoz esan daitekeen gauza bakarretakoa da *ba*-dunak iparraldeko literatura tradizioan direla nagusi, eta badirela adibideak kontzesiozkoetan ("nahiz bertze lanik baduen"), kausazkoetan ("zeren ogi-buruaren itxura baduen") eta denborazkoetan ("baden bitartean zenbait trabu).

Data: 2001/04/02

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Nominalizazioez: *hobe gelditu/gelditzea*

Galdera:

- a) *Hobe duzu hor gelditu ala hobe duzu hor gelditzea?*
 b) *Ingelesa ikastea besterik ez duzu. / Aitonari galdetu besterik ez duzu.*

Erantzuna:

- a) Gramatika batzordeak oraindik ez du aztertu; batasunerako ez da ezer hobetsi. Biek dute tradizioa, Sarasolaren *Euskal Hiztegi*ko adibideek erakusten dutenez: *Hobe da ez izatea, gaiyki izatea baino. Hobe duzu ezkondu, moja joan baino.* Badirudi *hobe izan* aditzaren subjektua eta nominalizazioarena bat datozenean erabiltzen dela partizipio burutua, baina ezin da esan hori denik aukera bakarra. *Hobe da* inpersonalean, aldiz, *-tze* forma erabiltzen dugu.
 b) Biak daude ondo.

Data: 1998

Erantzulea: Miren Azkarate (iritzia)

Ondoriozkoak: "hain...ezen/non; hainbeste...non/ezen"

Galdera:

Zuzenak al dira "hain da handia, ez baita atetik sartzen" moduko esaldiak?

Erantzuna:

Zuzenak dira, bai; nahiz eta egitura hori ez izan erabiliena. Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak*, EGLU,

V liburukian (ikus 457. or.) esana dugu, literaturako erabileran oinarrituz, molde hori ere erabil daitekeela.

Ondorio perpausetan txartzat emandakoa "-ela" atzizkiduna da: alegia, "*hain nekatua nago, ez naizela kalera irtengo" eta horren gisakoak.

Liburuki bereko 450. orrialdean zortzi esaldi jator hauek aurkitzen dira:

- a) Hainbeste diru galdu du, non ez baitaki emazteari zer esan.
- b) Hainbeste diru galdu zuen, ezen ez zekien emazteari zer esan.
- c) Hainbeste diru galdu du, non ez dakien emazteari zer esan.
- d) Hainbeste diru galdu zuen, ezen ez baitzekien emazteari zer esan.
- e) Hain begiluzea zen, non herriko berri guztiak jakiten baitzituen.
- f) Hain begiluzea da, ezen herriko berri guztiak jakiten dituen.
- g) Hain begiluzea da, non herriko berri guztiak jakiten dituen.
- h) Hain begiluzea zen, ezen herriko berri guztiak jakiten baitzituen.

Horrez gainera, ikus datu-base honetako "ondoriozkoak" sarrera.

Data: 2001/05/18

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Ondoriozkoak: *hain... -(e)la*

Galdera:

Ondoriozko egitura onargarria al da?

Erantzuna:

Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU), V liburukian aztertu dira ondorio perpausak eta horiek adierazteko erabiltzen diren lokailu eta menderagailuak: *hain... non... bait/-en* eta *hain... ezen... bait/-en* ageri dira jasoak.

-eLA atzizkia, ostera, hauxe esaten da (450. or.): "*-eLA* atzizkiak ez du lekurik perpaus kontsekutiboetan (...)
Esamolde hauek, Hegoaldean eguneroko hizkeran oso hedatuak badaude ere, ez dute tradiziozkoak eta ez dira gomendagarriak. -
eLA atzizkiak ez du euskal tradizioan inoiz balio hori izan".

Data: 2000

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

Ondoriozkoak: *hain... bait*

Galdera:

Egitura hori onargarria al da?

Erantzuna:

Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU), V liburukian aztertu dira ondoriozko perpausak. Hauxe dio *hain ... bait*-egituraz (457.-458. or.): "*non*-en pareko elementurik gabe ere osa daiteke perpaus kontsekutiboa. Hala ere, ez da hau itzuli arruntena:

Giza semeak (...) hain eder ziren, haiengana Maitagarriak maiteberotu baitziren.

Beraz, onargarria da, hedadura handiegirik izan ez arren.

Data: 2000

Erantzulea: Gramatika batzordearen argitalpena

Perpaus osagarriak: *-eN / -eLA*

Galdera:

Atariko proba batean hau agertu zen:

Behin eta berriz agindu dizut...

- a. ...

- b. *Ixilik egon zaitezten*

- c. *Ixilik egoteko.*

Baztertzekoa al da b) aukera?

Bestalde, askotan entzun dut zenbait euskalkitako tradizioan subjuntiberako esaldietan *-(e)n* forma dela nagusi, eta *-(e)la* apenas agertzen ote den. Egia al da hori?

Erantzuna:

Ez, b) aukera ez da baztertzekoa. Beste kontu bat da maizago erabiltzea perpaus jokatugabea (*-tzea, -tzeko*) subjuntiboko laguntzailea baino.

Bigarren galdera dela eta, *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak (EGLU)*, V liburukian, hau esaten da laburpen gisa:

"*Jarrera* adierazten duten perpausetan eta *nahia* edo *guraria* adierazten dutenetan *-eN* da ohikoena, azken hauetako batzuetan *-eLA* ere agertzen den arren, mendebaldean batez ere. *Eskaera* eta *agindua* adierazten dutenetan, berriz, kontuak bana dabilta: Hegoaldean *-eLA* da ohikoena eta Iparraldean *-eN*, azken honetan aginduetan-eta inoiz *-eLA* ere agertzen den arren. Aditz nagusitik bereziz bezala perpaus lokabeen antza hartzen dutenetan, berriz, *-eLA* da ohiko menderagailua".

Data: 1999

Erantzulea: EGLUkoaz gainerakoa, Miren Azkarateren iritzia da

Sintaxia. Esaldiko hitzen ordena (bibliografia)

Galdera:

Esaldi bat osatzean erabili beharreko ordenari buruzko informaziorik ba al dago?

Erantzuna:

Bai, informazio ugari dago. Ezin hasiko gara gai hori aztertzen duten lanen zerrenda oso-osoa egiten. Hala ere, hona hemen aipamen batzuk:

Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, I* liburukian eta *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, I, Eranskina* liburukian hortxe duzu atal oso bat, "Hitz ordena" izenekoa.

Gramatika-lanetan ere ageri da gai hori: adibidez, Sebero Altubereren *Erderismos* liburuan eta Pierre Lafitteren *Grammaire basque* liburuan.

Lan berriagoetan, era monografikoan aztertu zuen Eusebio Osak bere doktore-tesian (ikus *Euskararen hitzordena komunikazio zereginen arauera*, EHU/UPV, 1990); estilo-liburu batzuetan ere ematen dira hitz ordenari buruzko azalpenak (ikus J.R. Zubimendi eta P. Esnalen *Idazkera-liburua*, 1993) eta gramatikako beste batzuetan ere bai (ikus Juan Garziaren *Joskera lantegi*, 1997).

Data: 20010525

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.

Zehargalderak: Jainkorik baden / Jainkorik den

Galdera:

Liburu batean hauxe irakurri dut: *Guztiaren ondoren, Jainkorik baden jakin nahi nuen*. Zuzena da *Jainkorik baden* hori edo *Jainkorik den* behar du?

Erantzuna:

Bai, *Jainkorik baden jakin nahi nuen* guztiz zuzena da. Ikus *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak, EGLU, V* liburukian zehargalderei eskainitako atala.

Data: 2001/04/19

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Zenbat?/Noiz? Hainbat + "inguru" (orain hogeitun bat urte inguru)

Galdera:

Zuzena al da "orain hogeitun bat urte inguru" egitura? Ez al da guztiz erredundantea?

Erantzuna:

Horrelako egiturak ez dira txartzat ematekoak; nahiz eta ez izan beharrezkoa "bat" eta "inguru" biak batera erabiltzea. Baina egitura "bikoiztu" askotxo dago euskaraz, eta beste hizkuntzetan ere bai. Eta erruz erabiltzen dira, bai ahozko hizkuntzan eta bai idatzian.

Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegiak* adibide hauek dakartza, besteak beste:

- K. Mitxelena: "ehunen bat inguru bilduko genituzke"
 - I. Munita: "landaretik landarera metro erdi bat inguru"
 - I. Munita: "lau bat milla inguru aldatu"
 - N. Alzola: "orain irurogei bat urte inguru"
 - Uztapide: "ogeitun bat urte inguru dira olakorik etzegola"
- Horrez gainera, ikus datu-base honetako "inguru" sarrera.

Data: 2001/06/13

Erantzulea: Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzordeko idazk.